†

Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu onerako Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme.

~ Jaungoicuac beguiratu dau
~ Zeruitic, ecustiarren, ete daguan
~ Guizonen Semien artian Juiziosoric
~ edo bere billan dabillenic. David Ex-
regue eta Profeta santubaren amai-
ru garrengo Psalmo edo Cancinuan.

Jesus, Maria, eta Joset

Beti neure biotzian josiric zaucadan, Illoba, deutsudan amorio equiazcuac obligaitan nau, zuri ondo vizi izateco aviso batzubec emutera; eta, Jaungoicuac emuric zuri aimbeste capacidade, uste dot, artuco dituzula aviso oneic gogo eta vozondate onagaz, zugana amorioz betericaco biotz batetic urtenac dirian leguez; ez dot uste ofendiduco zaziala iñolaco moduz aviso oneicatic; cergatic, capacidade onecua bazara ere, ecin aiñ ondo ezagutu zeique, zerc falta equiten deutsun, nola zure onerraco eta gobiernuraco Jaungoicuac bere providencia santubagaz destinau izan dituban Christaun aic, zeñetatic bat zeure Guardiacaz gañera uste dot, naizala neu.

Baduaza nire equinac; eta ni illagatic ere, vizico naitzatzu libiau onetan, emuten deutsudala ala zeuri, nola zeure Jatorriai aviso eta conseju santu oneic, zeñac milla bider obeto eracutsico deutsube Guizarteco barri, España guztia zeuc gulleriaz eta curiosidadez inguratuta baño: ez equizu bada menospreciau, zuri

emutia uste ditudan consesu eta avisuac; eta ondo Juango iatzu; eta Mundu onetaco beste Pamparrue ascoc baño obeto Jaquingo dozu Guizarteco barri, Erritic urten bagaric.

Engañau ecin ditequian, eta engañau ezin gaiquian Espiritu Santubac diño: dongaac nequez emendaitan dira; eta sensu edo Juicio baguecuen numerua da neurri edo fin baguecua: egui laburra da au, nere Illoba, baña gobiernu eta instruccino andico eguia buruban Juicio, eta capacidadia daucan Christau barentzat: Mundu zabal onetan vici dan vitartian edocein dago uts eguiteco peligru andian batez ere besteren escandalo eta egemplu donguia mediante; argatic artu dot asmua, zuri emuteco Liburu onetan instruccino batzubec, dituzun obligacinoric principalen gañian; eta apuntaitaco regla general batzubec, nundic erraz eta zeure Entendimentuco neque guichigaz ezagutu daiquezun, emen Joten ez diran, eta zeure vicitzan guertatu aldequizun beste obligacino mueta guztiac ala Taungoicoaganaco, nola zeure Burubaganaco, eta zeure Lagun Progimuacanaco, Jaquin daizun vide onen vitartez, norequin zabiltzen, eta zer pauso darabiltzun; eta, uts eguiten badozu, erraz biurtu zaitian zeure carguco obligacinuen cumplimentura; bada Guizonarena da uts

equitia; baña errorian firme egotia, da sensu edo Anima bagueco Animaliena; modu onetan zintzua eta juiciosua leguez escarmentauco zara iñoren buruban, eruac eta juicio baguecuac beren burubetan escarmentaitan dirian vitartian.

Bai, nere Illoba, fin santu onegaz artu dot nere gañian trabaju, eta neque au; eta oraiñ zuc artu eguizu zeure gañian nere neque onegaz ondo aprovechaitaco cuidaduba; eta empeñau zaite, instruccino santu oneicaz conforme vizi izaten, ondo cumplitan dituzula, emen aiquetara emuten deutsudan obligacinuac; eta, cumplidu daizunian guztiac, ez eguizu uste, eta pensau, gauza andiren bat eguin dozula; esan eguiozu, bai, Jaungoicoari: ona emen, Jauna, Esclavo, eta Servitzari inutil bat: cergatic onela eracusten deuscu Jesus Divinuac bere Evangelio santuban: zubec (esan eusten bere Discipulubai) eguin daizubenian, aguindu iatzuben gauza guztiac, esan eguizube: Servitzari inutil batzubec gara; bacarric eguin ditugu, eguin biar guituban gauzac: eta Humildade santu onetan vici zariala, esperau eguizu firmeza guztiagaz, aren Divina Magestadiagandic lograi-

tia zeure alequiñaren Zerubetaco premio eternuac.

Vizi bedi Jesus guere biotzetan ora-in eta eternidade guztian. Amen.

Asi baño lenago, nere Illoba, explicaitan goguan daucadan puntubac, ifini gura deutsut zeure beguien aurrian, Jaungoicuac bere Escritura Sagraduban beste egui ascoren artian diñoan iru egui santu, zeure vizi guztian beti presente euqui daizun zeure gobiernuraco.

Lenengua. Jaungoicoarena danac Jaungoicoaren verbac aiquetan ditu. San Juanen Evangelioco zortzigarrengo Capituluban.

Bigarrena. Mundu guztia ondatu biarrez ondaturic dago; cergatic ez daguan iñor equiaz pensaitan dabenic. Jeremias Profeta Santubaren Profecietaco amabigarrengo Capituluban.

Irugarrena. Bere falteen emiendaraco reprensinua emuten deutsan Persona voron-date firme batequin menospreciaitan daben Guizonaren gañian etorrico da uste bagaco eriotza; eta ez da emendauco. Proverbioetaco Liburu Sagradubaren ogueta bederatzi garrengo Capituluban.

Religinua

Guere Religinua da Jesu Christo guere Criadore eta Redentoriarena (au da) Jaungoicoaren Seme viciac Guizon eguinic Mundu onetan exacutsi euscun siniste eta Legue santuba, bere Ama Virginaren entrañа garbietatic aguertu zanian, gu redimitzera, eta nola vici biar guenduban exacustera: siniste eta Legue santu au gorderia, da, Mundu onetan daucagun, lanic principalena, edo, obeto esatiarren, bacarra; emendic daucagu Christaunaren izen gloriasua, zeña artu gueben Bautismoco Sacramentu santuban; bada an guere Ama Eliza Santaren vitartez profesau gueben siniste eta Legue santu au, obligaitan guiñiala Jesu Christoren obediencia, eta servicio santura guere vici guztiraco.

Jaungoicoac, zeña bere obra guztietan dan guztiz Santuba, Mundu onen asiperian, eta bere seigarrengo eguinian formau eben bere antzera eta echurara Lurretic, Adan zeritzon, gure lenengo Gurasua, emuten eutsala Anima bat faquinduriaz, graciaz, eta edertasunez betia; parau edo ifini eben, beretaco eta bere Tatorri edo Descendidu guztiendaco criau

eben Paraiso terrenalian, zeña zan atsequintasunez betericaco Mundu onetaco toqui, porcino, edo parage bat, eta Zeruco Gloriaren iduxipen miragarrizco bat: emen formau eben Adanen saiatz ezur batetic, bere Laguntza Emazte izan biarco eben, Eva; oneic bioc dira bada, Mundubat vizi zarian, Persona guztien lenengo Gurasso bacar biac.

Aren Divina Magestadiac ifini ebenian zoragarrico Paraiso onetan, Luxuetic formau eben, gure lenengo Aita Adan au, emun eutsan licencia, an egocen fruta mueta guztiac fateco; bat bacarra ucatu eutsan, bere leialtasuna gauza quichian probaurric Zeruco Gloriara andic jasoteco asmo, fin, eta deseoagaz, eriotzaric, eta beste naibaguetasunic batere iragu eta sufridu bagaric ala berac, nola beragandic sortuco zirian guztiac: baita ere notificau eutsan, sufridu biarco zitubala ala berac, nola bere Jatorri guztiac eriotza, eta dacuscun beste nai bague, eta negar garri mueta guztiac, bardin descuidaitan bazan jaaten, ucatu eutsan, fruta bacar artatic.

Ainguru madarikatu Diabrubac, bere soberbia eta arrotasuna mediante condenaurric, eta Zerutic botaric ecusi zarian, embidiaz beteric ezin sufridu izan eben, Guizonac Paraisuan eucan, dicha eta edertasuna; eta beriala tic

movidu zan tentaitara gure lenengo Guraso bacar bi oneic; eta asi eben bere tentacinoraco conversacinua Evagaz, itanquetan eutsala modu onetan: cergatic Jaungoicuac aguindu deutsube, ez daizubela jan Paraisoco fruta mueta guztitic? erantzun eutsan Evac Diabrubari: Paraisuan dagocen Arboleetaco frutatic jaaten dogu; baña Paraisuen erdian daguan Arbolaco frutatic aguindu deuscu Jaungoicuac ez daigula jan, eta ez deiogula ucutu, ill ez gaitian: au ertzunic Diabrubac esan eutsan: ez zarai (au janagatic) iñolaco moduz illgo: siniztu eutsan Eva gaisoac Diabru guezurtiari; bota eben bere biotzetic eriotzaco castiguaren bildur santuba; zabaldu eta jaso zituban bere escubac Arbola debecatua; artu eben, eta jan eben bere frutatic; emun eutsan ere bere Esposo Adaneri fruta artatic; onec ere jan eben; eta biac jausi zirian desobedienciaco pecatu mortal icaragarrizco onetan; onela Apostolu San Pablo eracusten deuscun leguez, Guizon baten medioz sartu zan pecatuba Mundu onetan, eta pecatubaren medioz eriotza; eta ala eriotza izango zan Guizon guztientara (Adanen medioz) nogan guztiac pecatu eguin euben.

Jaungoicuac, ecusi ebenian guere lenengo

Gurasuen desobedienciaco pecatu mortal au, bota zituban Paraiso eder artatic, eta aequin gu guztioc, beren Jatorriac eta Descendidubac garian leguez: emendic daucagu Evaren Vme desterraduben izen tristia: asostian ichi eusten Zeruco atiac; eta emun eusten castigutzat, egotia eriotzaren bendian, eta, vicitza onetan esperimentaitan ditugun, trabaju mueta guztien bendian, gueldiquetan ziriala eurac, eta euracaz batera beren Jatorri guztiac Animaco eta Corputzeco eriotziaren sentenciaren azpian.

Desobedienciaco pecatu mortal onec, leen esan dodan leguez, manchau zituban ala eurac biac, nola beren Jatorri guztiac, zeñac datozen, Fronco dañau batetic eta Sustrai viciau batetic jaioten diran adar eta frutubenmodura; mancha au, zeña dacargun guere lenengo Guraso desobediente bi oetatic, da comunmente pecatu originala esaten deutsaguna: pecatu original au dacargu guztioc guere Ameen Sabeletic, concebidubac garian instantetic; pecatu onegaz guztioc jaioten gara, eta au parcatzaca iñor sartu ez da, eta ez sartuco da Zeruban: bi bacarrac izan dira concebidubac Mundu onetan pecatu original au bagaric, Jesu Christo gure Jauna, zeñaren concepcioan, Guizona zan aldetic, ez eben euqui zer eguinic, eta

parteric batere Guizonaren obrac; eta bigarrena izan zan bere Ama Maria Santisima, zeñaren Concepcino garbian Jaungoicoaren fin bagueco poderio eta jaquinduria Santubac ez euben permitidu, eta sufridu, sortu zedin pecatu original madaricatu au.

Diabrubac bere Jarralla Lagun madaricatubacaz eguin eben leneengo Zeruban Soverviaco pecatu icaragarria; eta, esanic gueldi-tu dan moduban, eraguin eutsan Paraisuan Guizonari desobedienciaco pecatuba: baña gure Jaungoicuac, zeñaren misericordiac diran bere obra guztien gañeracuac, zor ez eutsala Guizonari ezercho Aingueru galdubai baño gueiago, onei alde batera itziric, erruquitu zan, Diabrubaren engañuz estadu negar garrizcuan sarturic eguan Guizonagaz; eta berialatic determinau eben, deseguinquetia, Diabrubac Guizonagan eguin zituban obra, eta calte madaricatu oneic; eta ala ofrecidu eusten gure lenengo Gurasuai, bialquetia Zerutic beren Salvatzallia, zeñac librauco zituban Diabrubaren esclavitudetic, eta ideguico eusten, beren desobedienciac ichi eusten, Zeruco atiac.

Ordutic bada bere Seme Jesu Christo gure Jauna Cuutzian ill arteraño ill ziran Persona Justo, eta Jaungoicoaren Adisquide guztiac jachi ziran Limbora, edo Abranen Senu esaten

iacon Foqui batera, nun egocen ichadeten be-
ren Libratzalle ofrecidubari (au da) beren Animac
guztiz garbiac, eta Purgatoriuen premina baguecuac.
Millaca urtiac iragoric, urreratu zan
aren Divina Magestadiac gure redencino-
raco señalauric eucan dempora; eta, ofre-
ciduric eucan moduban, bialdu eben bere
Semia, gu redimitara; artu erain eutsan
Guizonaren naturaleza Ama Virgiñaren
entraña garbietan Espiritu Santubaren vir-
tutez eta obraz: aguertu zan bada Mundu-
ban guere Salvatzalle fin bagueco Santu
au, Jaungoico zana, Guizon eguiazcua egui-
nic; eta ifini eutsan bere Aita Jaungoicoac Je-
su Christoren icena, emun eutsan lan gueia-
gazco conformecua.

Gure Jaungoicua da Espiritu puruba,
Corputzeco beguiacaz ecusi ecin leiquiana,
fin bagueco perfeccino, santidade, ontasun, ja-
quinduria, eta poderio beragaz dabena; eta
alacua azquenic, zeinda bere Criaturac ecin
iñolaco moduz conprendidu leiquie bere fin
bagueco anditasuna: Jaungoico onegan dago-
za iru Persona diferentiac, Aitia eta Semia eta
Espiritu Santuba, Jaungoicua Aitia, Jaungoi-
cua Semia, eta Jaungoicua Espiritu Santuba;
eta iru Persona oneic, beren artian diferentiac,
dira naturaleza, izate, eta sustancia bat bacar-

ra eternua, principio eta fin baguecua, eguia bera, eta egui guztiaren principio, eta Iturri firmia.

Jaungoico bacar au, Aitia, eta Semia, eta Espiritu Santuba, Trinidade Santisimua bera da dacuscun, eta ez dacuscun Criatura guztien Eguillia eta Principioa; eta beragan conservaitan dira izatia daucain guztiac; eta beragan vizi, eta movitan dira, vizitza eta movimentuba daucain Criatura guztiac: baita ere da Guizonaren azquen Fina; bada eguiñac gara, aren Divina Magestadia eternidade guztian alabaitaco eta gozaitaco, aurrerago esplicauco dodan leguez; eta zoragarrizco Fin santu eta marabilloso au lograitaco, vide eta vitarteco bacarra da Jesu Christo gure Jauna, Jaungoico eta Guizon eguiazcua, Jaungoicua dan aldetic Amaric ez dabena, baicican Aita, eta Guizona dan aldetic Aitaric ez dabena, baicican Ama, eta au Virgiña eta Doncella garbia beti zala, eta gueldiquetan zala, Jesu Christo Jaio baizen lenago, Jaiotzian, eta Jaio ezquero.

Aita Jaungicoac bada, bialdu ebenian bere Seme Jesu Christo Mundura, emun eutsan, Guizona zan aldetic, iru Oficio edo lan guei principalmente: bata, gu redimitia Diabrubaren esclavitude eta bendetic, leenago eracusten euscula ala verbaz, nola obraz bere Aitaren vorondatia,

eta Zeruraco vidia: bigarrena, gure Abogadu eta Defensore izatia bere aurrian: irugarrena, Mundu onen azquenian eta Juicio generalaren egunian gure Juez bardiña izatia.

Jaungoicoaren Seme eguiazcua, eta bacarra zana eternidade guztitic, Jaungoico eguiazcua, eta bere Aita eta Espiritu Santuba duin eternua, jantzi zan guere Guizatasuneco naturaleciagaz demporan, eta illcorra ez zana, eguin zan illcorra, eta Mundu onetaco pena eta afrenta mueta guztiac padecitaco disposicinocua, eta au gure amorioz: esaten dogu, eguinzala Guizon eguiazcua Espiritu Santubaren obraz, cergatic bere Encarnacinoco Misterio Santuba izan zan amoriozco obra, eta atribuitan deutsagun amoriozco obrac Espiritu Santubari, poderiozco obrac Aita Eternuari, eta jaquinduriaco obrac Semiari atribuitan ditugun leguez; baña Jaungoicuac beragandic campora eguiten dituban obra guztietan igual parte daucai iru Personac; eta ala Encarnacino Santuco Misterio au izan zan Trinidade Santisimuaren obra miragarrizcoa, gueldiquetan zala Guizon eguiazcua eguinic bigarren Personia, zeña dan Semia; bat soñecua jazten daguala, beste bic lagunduco baleutsai, jazteco obra izango lizateque irurena, eta eguiaz bat jantziric guelditucо lizateque; modurenba-

tera cerbait aiquetara emutiarren, ala quer-
tatu zan, Semia bacarric Guizon equinic, eta
quere Naturaleciagaz jantzirric gueldiquetia
izanic Encarnacino santu au Trinidade San-
tisimuaren obra.

Eliza Ama Santaren Fede eta siniste
equiazcuac ezaguquetan eta sinisquetan
dau Jesu Christo gure Jaun Jaungoico eta
Guizon equiazco onegan Persona bat bacar-
ra, eta au Divinua Guizatasun equiazcua-
gaz jantzia, eta uniduba, eta ala condenau-
rric dauca exesiatzat, esatia, Jesu Christoc
daucala, Guizona dan aldetic, (dabela) beste
Persona Humano bat: orobat Eliza Santa-
ren Fede equiazcuac condenaurric dauca,
esatia, Jesu Christo, Guizona dan aldetic, da-
la Jaungoicoaren Seme adoptivoa Mundu
onetaco beste Justuben modura; bada bacar-
ric ezagutu eta autorquetan dau Jesu Chris-
to bat, eta au Jaungoicoaren Seme propio eta
equiazcua, Guizazatasun equiazcuagaz jan-
tzia, eta uniduba, Guizon equiazcua equinic;
eta ala Fede santubac eracusten deusu, Jesu
Christo gure Jaunagan naturaleza bi, bata Di-
vinua, bestia Humanua, Entendimentu bi, bata
Divinua, bestia Humanua, Divinuac, Jaungoi-
co equiazcua dan aldetic eta Humanuac, Gui-
zon equiazcua dan aldetic; orobat voronda-te

bi, bata Divinua, bestia Humanua, baña memoria bat bacarra, eta au Humanua, Guizon eguiazcua dan aldetic; cergatic Jaungoicuac ez dau memoriaren premiñaric; bada gauza guztiac dacus ala iragoac nola etor guizunecoac eta presentecoac.

Jaungoicuaren Semia Guizon eguiazcoa eguitia Ama Virgiñaren entraña garbietan izan zan instante bateco obra; bada Trinidade Santisimuac Señora onen odoletic formau eben Corputz bat, criau eben ezeberecetic Anima bat, unidu eben Anima au Corputzari, eta Jaungoicoaren Semia unidu zan Corputz eta Anima uniduric egozenai, gueldiquetan zala bera bacarric Guizon eguiazcua eguinic; eta au guztiau guertatu zan instante batian

Jesu Christoren Anima, criauba izan zan instantetic, unidu zan Jaungoicotasunagaz, eta argatic, bere Gloria gozaitan eben leguez, izan zan gloriosa; orobat ere bere Corputza lenengo instantetic unidu zan Jaungoicotasunagaz beragaz, eta izan zan gloriosua, Corputz glorioso batec dituban lau propiedadiacaz, zeñac dirian inpasibilidadia, claridadia, subtileza, eta ligereza; baña aren Divina Magestadiac ez eutsan beiñere comunicau bere Guizatasuneco Corputz gloriosuari inpasibilidadeco dote edo propieda-

dia, eta ala ill arteraño beti egon zan disponiduric eta pronto padecitaco gure amorioz, emun gura eutsain tormentu mueta guztiac; argatic Pecatari bere Etsai eta Malechorien aldetic sufridu zituban ecin gueiagoco tormentubac bere Corputzian, eta orobat bere Animan ecin gueiagoco afliccinuac, detenitan zitubala, pasino santu au eragotzi eicuen bere gloriaren errubac ala Animaan nola Corputzian: baña impasibilidadiagaz ostiango beste iru propiedadiac comunicau eutsan bere Corputz gloriosuari bere vizitzan, claridadia, Taborco Mendian bere iru Discipulu San Pedro, Santiago, eta San Juanen aurrian, aguertu zanian Eguzquia duin arguia, ederra, eta claruba; subtileza, bere Amaren sabeletic jaio zanian, urteten ebela enzerrauta eguan Arca artatic Mundura, Cristalaren alde batetic bestera Eguzquiaren claridadia iragoten dan modura, Cristalari dañuric batere eguin bagaric; eta comunicau eutsan ligerezaco propiedadia bere Corputzari, Ychasoco uraren gañian oñez ibilli zanian, barrura sartu bagaric; bada aren Divina Magestiac encarnau zan instantetic Zerubetara igo arteraño emun zituban, pausuac alaco moduz ordenau zituban, zein da norc naic ezagutu, eta

sinistu eiquian, zala Jaungoico equiazcua eta Guizon equiazcua; cergatic puntu bi onein siniste fiarre bagaric ezin salvau quindezque: oneic onela esplicaurric, sarraiquetara nua, atzera itzirric daucadan, sallaxi.

Çsanic itzidot, nola Aita Jaungoicoac, bialdu ebenian Mundura bere Seme Jesu Christo, emun eutsan principalmente iru encargu; baita ere, zeintzuc dirian iru encargu principal oneic: Jaungoico eta Guizon equiazco Jesu Christo gure Jaunac bada, bere Aita Çtemuaren gañanaco Misericordiagaz betericaco ordenamentubac cumplitiaren, vizi izan zan ogueta amairu urteetaco denpora laburrian exacutsi eutsan pecatuz, pasioz, eta viziox ichuturic equian Guzoniaxi bere Aita Jaungoicuaren voluntate santuba, eta Zeruraco vidia, berac artaraco cumplitan ebela, obraz, aoz exacusten eben guztia, eta portaitan zala bere vizitzaco, eta andic aurreraco pauso guztietan, leenagoco denporetatic Patriarca eta Profeta Santubac Escritura Sagradoban aren Divina Magestadiaren gañian esanic itzi euben moduban: equin zituban Milagro guztiz andiac bere doctrina santubaren pruebaraco: escogidu zituban amabi Discipulu, Guizon guztiz

pobriac, eta ignorantiac, berazaz ibilli zitecen, eta bere vizitza, doctrina, eta Milazruen Festiqu fielac izan zitecen; eta ifini eusten Apostoluben izena; oneitatic bat izan zan Judas traidoria, zeña, codiciac venciduric, etorri zan azquenic bere Maisu eta Salvadore Jesu Christo saltzeera, eta, desesperaturic Jaunqoicoaren Misericordian, uxcatu eben bere buruba, onetan eguiten ebela pecatu ascoz andiaqua, bere Salvadoria diruba catic saldubazaz baño; (onen lecuban izan zan escoqiduba San Mathias Apostoluba) nombraueben Apostolu guztien Buru eta Principetzat San Pedro Apostoluba, ifinten ebela Apostolu Santu au bere Esposa, eta gure Ama Eliza Santaren columna, edo cimentu fametzat, ala bera, nola bere Silla ocupauco eben Aita Santu Romacua, zeña, nor nai dala, bere demporan da San Pedroren Sucesoria Dignidadian, Eliza Santaren Buruba, eta Jesu Christoren Vicarioa emen Lurrian, noxi Christaun guztiac dagoza obligaturic obedecitara, salvauco badira.

Onela bere gauzac ordenaturic, eta Judeguben Leque zar eta santuco Mandamentu guztiac cumpliduric, emun eben, Guizona zan aldetic, bere vizitza Cumutzian, Buruinazco ultziacaz josiric, pillosic, eta Lapur bien exdian itzulten ebela bere Zanetaco odol precio-

soa: eriotza mueta au oxduban zan Malechoriai emun oi iaten alcitequian lotsa eta afrenta gaxiena, gauxco eguinian Vrcamendia dan lequez; eta ofrecidu eutsan bere Aita Jaungoicoari bere pasino, eta eriotza inocentia guere pecatuben satisfaccinoxaco, eta guere redencinoxaco; erosi quinduban, eta, beretzat izateco, marcau quinduban bere Zanetaco Odol preciosuagaz; bere eriotziagaz desequindu eben guere eriotzia; libxau eben Cuxuitze santuco Axboliagaz, beste Axbola bategaz Infernuban preso quelditu zan Guizona, uxaquetan ebela, gure contra emunic eguan condenacinoco decretuaxen escrituxa; eta quendu eben negargarrizco decreto au au, clavaitan ebela Cuxuitzian; eta quendu eutsan Diabruari, Limbuan eucan Justu guztiac, etaraten zituzala beragaz andic Gloriaxa Triunfo andian, eta salvaitan ebela Guizona Guizonagaz: modu onetan cumplidu eben, bere Aita Jaungoicuac emun eutsan, leneengo lan gueia edo encargua, zeña zan gu Diabruaxen bendetic libxaitia, leenago exacutsiric izteen euscula bere Aitaxen voxondate santuba, eta Zeruxaco vidia.

Cuxuitze santuban ill ezquexo, bere Anima santisima Jaungoicotasunagaz uniduxic jachi zan Infernuetaxa, an Limbuan

Mundubaren asipenetic arteraño bere etor-
rera santubaren esperan egocen Anima jus-
to guztiac libraitara, gorago esanic itzi do-
dan leguez; consolau zituban Purgatorioan
egocen Animaac, aliviaitan eustela bereen
penac; eta gueitu eusten Condenaubai beren
confusinua eta tormentubac: eta bere Corputz
santuba orobat gueldítu zan Jaungoicotasu-
nagaz beragaz uniduric; cergatic Jaungoicoa-
ren Semiac bein Guizon eguin ezquero, ez dau
iñoiz ere beragandi bota guere Naturalezia-
ren edo bere Humanidade santubaren soñe-
cua.

Resucitau zan irugarren egunian Illen
artetic, ez gueiago illteco, juntaitan ebela bere
Anima Santisima bere Corputz Santubagaz;
baña aren Divina Magestadiac gure amorioz
bere Corputzian padecidu zituban Llaga sa-
gradubac ez zituban borrau, resucitau zani-
an; baicican conservau izan zituban zabalic
bere Oñetaco eta Escubetaco ultze zuluac, eta
Bularreco Llaga sagraduba, resucitau ezque-
ro ere; eta resucitauric andic berroguei garren
egunian Llaga santu oneicaz euracaz igo eben
Zerubetara bere Apostolubac presente eta be-
guira egocela; nun, esaten dan, daguala ja-
sarriric Aita Jaungoico guztiz poderosuaren

alde escumatatic, guri aiquetara emutiar-
ren, Jaungoicua dan aldetic, daucala igual.
Gloria Aitiagaz eta Espiritu Santubagaz, eta,
Guizona dan aldetic, beste Bienaventuradubac
baño gueiago.

Jesus Divino onec, Mundutic ia partidu-
co zan aurrian, erregutu eutsan bere Aita Ja-
ungoicuari modu onetan: Aita Santuba, gor-
de eguizu zeure izenian, emun deustazun (Dis-
cipulu) oneic, izan ditezen (gugaz) bat, zu eta
ni (gauza) bat garian leguez; baña ez deutsut
erreguquetan euracatic bacarric, baita ere
euben predicacinuaren vitartez nigan sinistu-
co dauben guztiacatic, guztiac izan ditecen
bat, zu Aita nigan, eta ni zugan leguez, eurac
ere izan ditecen gugan gauza bat: fin santu
onetaraco ere gura izan eben, presentaitia Ze-
ruban bere Aita Jaungoicuari gure amorioz
padecidu zituban bost Llaga sagradubac ide-
guric, ala izan zedin bere Aitaren aurrian
gure Abogadu eta Defensore eficaza, presente
ifinten deutsala, gure pecatubacatic pade-
cidu zituban herida santu aiec; eta gu ere
Llaga sagradu aetatic sartu guindezen Ja-
ungoicoagana esperanza firmiagaz guere
pecatuben parcacinuaren esque, eta guere
Animeen salvacinuaren billa; argatic esa-

ten deuscu San Juan Evangelistac: pecatu eguin badogu, daucagu Aitagan Abogaduba, Jesu Christo Justuba; eta bera da bitartecua gure pecatuben parcacinorazco: onela bada gure Jesus maita gaituac, Munduban vizi zanian, cumplidu eben, eta orain Zerruban cumplitan dau gure Abogadu eta Defensoriaren oficioagaz, zeña dan bere Aitac emun eutsan bigarren lan gueia.

Zerura, esan dodan moduban, igoric aren Divina Magestadia, eta Limburan deteriduric egozen Anima Justo guztiac bere Glorian triunfo andian sarturic, andic amargarren egunian, Eche baten junto egozela Apostolu santu guztiac, bialdu eusten Espiritu Santuba, Mundutic ausentau baño leenago ofrecidu eusten leguez; eta Espiritu Divino onec izio zituban Apostoluben biotzac Jaungoicoaganaco, eta Jaungoicoagatic Lagun Progimo guztiacanaco amorioan; instruidu zituban beinguan Munduco Lenguage guztietan; eta confirmau zituban bere gracia santuban.

Jesu Christo gure Jaunac, bere gauzac onela ordenaturic gure onerazco, cumpliduco dau bere demporan, gure Juez bardiña izate-

co encargubagaz, zeña dan, bere Aita Jaungoicuac emun eutsan irugarren lan gueia: leneengo etorrera eguin eben Aur bat eguinic, gu salvaitara etorri zanian; eta nola bere leneengo etorrera manso, bigun, eta guganaco erruquiz eta amorioz betericaco onetan Mundutar madaricatubac aiñ gaizqui juzgau, sentenciau, eta tratau euben, ala eurac ecusico daube aren Divina Magestadia beren Juez justotzat Mundubaren azquenian, zeñian motivo justoric ascogatic eguingo dau bere bigarren etorrera gloria eta autoridade guztizcuagaz, Creduan sinisquetan dogun leguez, viciac eta illac juzgaitara: ez iaco ezcutauco dan pensamenturic ocultuena; ez dau premio bagaric itzico, premiñan daguanari bere izen santuban emun iacon baso bat ur fresco; ez dau ere itzico castigau bagaric guizur chiquin bat; guztia izango da bardiña, eta justuba; onela bere Juicio santu au eguiteco demporan izango da ezagutuba gure Jauna, David Erregue eta Profeta santubac esaten deuscun leguez.

Juicio mueta bi dira, Guizonac sufridu biarco ditubanac; bata particularra, bat ilten danian; emen erabaguiten dau aren Divina Magestadiac Guizonaren betico suertia; edo ilten da

pecatu originala parcatzaca, eta onen Animia, ez padauca beste pecaturic, izango da Gloria, eta pena baguecua; bere destinua Limbua, baña ez Limbo ura, zeña aiquetan dogun Abranen Senubaren izenagaz, nora Jachi ziran Mundubaren asipenetic Jesu Christo Curutzian ill arteraño partidu zirian batere culpa eta pecatubaren batere errubagueco Anima Justo guztiac, baicican Limbo diferentia, nora duacenac, ez daube ecusico eternidade guztian Jaungoicoaren Gloriaric: edo illten da pecatu mortalian, eta onen Animia dua eternidade guztiraco Ynfernuco Suzco Calabozo icaragarri aietara: edo illten da Jaungoicoaren Gracian pecatu mortal bagaric; eta onen Animia dua zucenian Zerura, guztiz garbia badago; edo leenago Purgatorioco peneetara, bardin badauca, zer purgau pecatu venialen batzubec, edo pecatu mortal parcatubacatic Jaungoicuaren Justicia bardiñari zor deutsan pena temporalen batzubec, zor oneic pagauta edo berez, edo Mundutarren Sufragioacaz, Zeruco Gloriara igoteco seguridade guztizcuagaz.

Bigarren Juicioa da generala, Mundubaren azquenian guertatuco dana: Juicio particularrian ezin Jaquin daiquegu, nori zer suerte cavidu izan iacon; baña generalian, guztien

vistan izango dan leguez, dixan guztien suertiac laquingo dixa; eta Juicio onetara guztioc presentauco gara, Mundubar izan dituqun, Corputz eta Animequin, Jaungoicuac artaraco biztzen eta resucitaitan gaituba la; bai, guztioc egongo gara (diño San Pablo Apostolubac) Jesu Christoren Jiubunaliaren aurrian: andic aurrera Purgatorioaren premiñaric izango ez da, Anima Justubac preso eucan Limbuaren premiñaric izan ez dan leguez, Jesu Christoc Anima aiec bere leenengoetorrerearen azquenian andic libratu zituban ezquero; eta ala Juicio general onetatic aurrera, arteraño Animiai bacarric tocau izan iacon edo Salvacinoco edo Condenacinoco suerte beticua participauco, eta comunicauco iaco Mundu onetan izan eben Corputzai; eta onela, illten gaituan instantian merezi dogun suertiagaz conforme vizico gara Corputz eta Anima eternidade guztian.

Juicio general au, equiaz guertatuco bada ere, iñore ez daqui, noiz izango dan; emungo ditu, bai, leenaz bere señaliac; oneitatic principaleenac izango dira izu: lenengua, pecatuba guciquetia, eta Caridadia ascoren biotzetan otziquetia: bigarrena, Evangelio Santuba Mundu guztian predicaitia: irugarrena, Ante-Christuaren etorrera.

Lenengo señalia, zeña dan pecatuba

gueiquetia, eta Caridadia otziquetia, guerta-
quetan danian, Fede santuba eta Esperanza
ere guichitubagaz juango dira; cergatic peca-
tubaren abundanciac eta Caridadiaren fal-
tiac ondoren dacarde Esperanza eguiazcua-
ren argaltasuna, eta Fede santubaren guichi-
tasuna; baña onegaz guztiagaz ciertuba da,
Fede santubac eracusten deuscun conformida-
dian, Jesu Christoren Esposa eta gure Ama
Eliza Santa, Catolica, Apostolica, Erromacu-
ac iraungo dabela firme Lurraren gañian Mun-
dubaren acabaeraraño; eta ala Mundubac di-
rauban bitarte guztian, vicico dira bere gañian
Santubac eta Christaun eguiazcuac; eguia
da; oneic izango dira perseguidubac; bada
pecatuba gueitubagaz, eta Fedia, Esperancia,
eta Caridadia guichitubagaz duacen eran,
Pecatari madaricatubac empeñauco dira, des-
terraitan Lurraren gañetic Jesu Christoren ize-
na bera; baña ez deuste valioco beren alequiñ
guztiac; Jesu Christoc berac esaten deuscu bere
Evangelio santuban: entregauco zaitube leena-
go Juecen escubetan zeuben Gurasuac, zeuben Senide,
Aide, eta Adisquidiac, eta illgo zaitube; eta guztiac
izango deutsube gorroto nere izenagatic; baña (nere
contura) zeuben burutic ez da galduco ule guizi bat:
persecucino onen ondoren izango dira guerrac, Machi-
nadac, Izurriac, eta gosiac: onein ondoren ecusico dira

señale izugarriac Eguzquian, Idarguian, Izarretan, eta Zerubac eurac ere icaratuco dira; eta oneic ecusi ezquero gañian da Mundubaren acabera, Illeen resurreccinua, eta Jesu Christo gure Jaunaren bigarren etorrera, bere Juicio generala eguitera: aiñ dempora gogorrac izango dira oneic, zeinda Jaungoicua bera empeñauco da laburquetara, Christaun Justo eta eguiazcuai deusten amorioagatic: onela guertatuco da, batera acabaitia Munduba bera, eta Mundubaren gañeco Eliza Ama Santa Catolica, edo (obeto esatiarren) batera izango dira Mundubaren azquena, eta Eliza Ama Santaren aldaeria Mundutic Zerubetara.

Evangelio santuba predicauco da Mundu guztian Jesus Divinuaren bigarren etorrera santu onetaraco; bere lenengo etorrera santuban advertiduric itzi guinduban modu onetan: (nere) Erreinuco Evangelio au predicauco da Mundu guztian Jente guztien testimonioraco; eta orduban etorrico da acabaera: eta leneengo etorrera santubaren aurrian San Juan Bautista gloriosua aguertu zan leguez, penitencia predicaitara, orobat ere bere bigarren otorrera santu onen aurrian etorrico dira Enoc eta Elias Profeta, guri pecatuben gañeco penitencia predicaitara.

Ante=Christuaren etorreriaren gañian, zeña izango dan Juicio generalaren irugarren señale principala, modu onetan contuban ifinten gaitu Apostolu San Pabloc: iñorc iñolaco moduz (diño) engañau ez zaiela;

=CORREOS= Nº = 9

ez da Jesu Christo etorrico, gu juzgaitara, etorri baño leenago (Fede santubaren falta, eta Eliza Santaren persecucinoa); eta arguitu baño leenago pecatubaren Guizona, condenacinoco Semia (au da Ante=Christua) zeñac contradeciduco daben (doctrina santubari) eta jaguico dan, Jaungoicoaren izena daucan, eta Jaungoicotzat adoraitan dan gauza guztien gañian alaco moduz, ece jasarrico da Jaungoicuaren Templuan, presentaitan dabela bere Persona, Jaungoicoa baliz leguez; onen etorreria izango da Diabrubaren obriagaz conformecua guezurrezco poderio, señale, eta milagro (falso) mueta guztietan, eta pecatubaren engañu guztizcuagan condenaitan diranentzat; cergatic gura izan ez euben errecividu, salvaitaco premina euben Egui santubaren amorioric.

Ante=Christo onec duda bague izango ditu bere Jarralla eta Discipulu asco; baña Jesus onac advertitan gaitu bere Evangelio santuban, jausi ez gatecen bereen engañuzco trampeetan: cuidadu (diño) iñorc engañau ez zaien; cergatic asco etorrico dira nire izenian, esaten daubela: ni Christo naiz: eta engañauco ditube asco; orduban iñorc esango baleutsube: ona emen Christo; edo ara an: ez eguizube sinistu gura: esango baleutsube bada: ara, nun daguan Christo Desiertuban, ez eguizube urten (ecustera): ara (onelaco) Eche (edo alaco Joquitan): ez eguizube sinistu gura.

Jesu Christo gure Jaunac aseguraitan de-

uscu bere Evangelio santuban, Jaungoicuac baño bestec ez daquiala, noiz izango dan Juicio general onen egun solemne, eta andia: eta gueiago ere diño: Noenen egunetan guertatu zan leguez, orobat izango da Guizonaren Semiaren etorreria; cergatic Diluvioaren aurreco egunetan Gentiac vizi zirian leguez, Jaaten eta edaaten; ezconquetan, eta ezcontzeetara emuten beren Vmiac, Noe Arcaan sartu zan egun artaraño; eta conturatu ez zirian (leguez), guztiac acabau zituban, Diluvioa bereen gañian etorteraño; orobat ere izango da Guizonaren Semiaren etorreria: orobat Sodomaco eta Gomorraco Gentiac, Zerutico Subac beinguan abrasau aurreraño, ardura bagaric Jaaten eta edaaten euben; saldu erosiac eguiten zituben; Arbolaac plantaitan zituben; eta Echiac eguiten zituben; eta beinguan etorri izan iaten bereen galdu biarra; orobat vicico dira Gentiac descuidauric Juicio general onen aurrian.

Doctrina santu onen vistan Apostoluben Principe San Pedro gloriosuac esaten deuscu: Jaunaren eguna etorrico da Lapurraren guisara: beste aimbeste aiquetara emuten deuscu San Pablo Apostolubac: Jaunaren eguna, (diño) Lapurra gabian leguez, orobat etorrico da; cergatic (Mundutarrac) esan daienian: oraiñ daucagu baquia eta seguridadia: orduban etorrico iate beren gañian [illegible]stez uste bagaco e[illegible]za, [illegible]nguintzaco doloriac

artu oi dauben leguez Emacumia; eta ezin igues eguin-
go daube eriotza onetatic.

Emetic claridade guztizcuagaz ezaguquetan
dogu, cein Atso ipuiñ eta guizur andiac dirian Iui-
cioaren aurreco demporacatic esan oi diranac Iente
comun eta ignorantien artian; nola dirian: Lurrac ez da-
bela emungo bedarric Ganauben alimenturaco; ezta ere So-
ruac fruturic Guizonen sustenturaco: Emacumiac ez di-
tubela Aurric eguingo; eta onein antzeco beste milla gui-
zur: orain dacuscun leguez, nere Ylloba, Mundu one-
taco carrera orduban ere Juango da; bacarric bada sen-
tiduco dira esplicau dirian iru señale principalacaz
gañera Guerrac, Machinadac, Gosiac, Izurriac, eta Lur
icara andiac, baña ez beinguan eta era batera Mun-
du guztian, eta bai, Evangelio santubac diñuan le-
guez, Partidetan (auda) bein batian eta bein bestian;
baña ezer ere falta bagaric ondo eta soseguz vizi dan
Iaungoicoaren bildur baguecuac onelaco gauzai
gaurco egunian caso guichi eguin oi deusten leguez,
orobat ere orduban onelacuac caso guichi eguin-
go deuste; eta ala oneic vizico dira urte obiaguen es-
peranzan, eta beste Mundutar miserabliac ibillico di-
ra aleguin guztiac eguiten beren miserietatic librai-
taco; eta onetan dagocela eta dabiltzela, noiz bereen us-
tian seguridade eta baque guztizcuagaz, orduban ar-
tuco ditu, eta arrapauco ditu Iaungoicoaren egun andi
onec, Lapurrac Echeetan gabaz sartu oi dirian leguez,
Echecuac lotan desuidauric dagocela; eguia da, Iaun-
goicuaren bildur santuban firme vizi diran Christaun
onac, ecusiric esan diran señaliac, conturatuco di-

ra, eta duda bague ezagutuco daube, ez daguala urrin Juicio generalaren egun andi, eta glorioso au.

Juicioco egun au aitaquetan danian, esan oi da: He! gure egunetan beinic bein ez da guertatuco: orobat bada esango daube, orduban vizi diranac; eta ala ez daquigu eguiaz, gure demporan izango ete dan edo ez: guacen orain atzera guelditu dan sallari jarraiquetara; eta Jesu Christo gure Jaunaren vizitza, pasino eta eriotzatic guere Religino santuban sortu izan dirian beste Misterioric principalen batzuben gañian zerbait esatera.

Jesu Christoren pasino santuco merecimentubac dira neurri, cabu, eta fin baguecuac, gure pecatubac parcaitaco; baña, lograuco baditugu, acudidu biar dogu Sacramentu santubetara; cergatic aren Divina Magestadiac, Zerubetara igo baño lenago, itzi eutsan bere Esposa eta gure Ama Eliza Santari zazpi Sacramentu, zeñetan depositau zituban bere pasino eta eriotza santuco merecimentubac; eta ala Sacramentu santu onein bitartez Jesu Christoc parcaquetan deuscu pecatubac, gueiquetan deuscu Gracia, eta emuten deuscu virtute santubac, obra onac eguiteco, eta Zeruco Gloria irabazteco.

Aurrera irago baño lenago advertidu gura zaitut, nere Illoba, Eliza Santaren Ministro fielac predicaitan deuscuben Jaungoicoaren verba santuba dala gure Animetaco alimentu espirituala, Corputzeco alimentuba Oguia dan leguez; ala eracusten deuscu Jesus Divinoac bere Evangelio santuban; berroguei

eguneco baubacaz gosetu zarian Desiextuban; estadu onetan ecusi ebenian Diabru tentadoxe eta sovexioac axen Divina Magestadia, esan eutsan modu onetan: Jaungoicoaxen Semia bazara, aguindu eguizu, Azi oneic Oqui biurtu ditecen: oxduban exant zun eutsan Jesus Divinoac: escribidurric dago (Escritura Sagraduban) ez da vizi Guizona Oquian bacarric, baita exe Jaungoicoaxen aotic uxteten daben verba mueta guztian: bai, nexe Illoba, verba santu onen predicacino fielaxen vitartez conservaitan dira, eta aumentau eta zabalquetan dira Luxaxen gañian guxe Religino santuco sinistе eta Legue eguiazcua, zeñac bague ez dago Salvacinoxic; eta ala Jaungoicoac Munduban eguin oi daben castiguxic andienetatic bat da, guxi ucaguetia bexe verba santubaxen predicacino fiela, Amos Profeta Santubac exacusten deuscun leguez: beguira (esaten dau) datoza eguinac, diño Jaunac; eta bialduco dot gosia Luxexa, ez Oquiaxen gosia; ezta Vraxen egarria, baicican Jaunaxen verbia entzuteco (gosia eta egarria)

Ecusirric dago bada, Jaungoicoaxen voxondatc santuba dala, gu salvaitia predicacino santubaxen vitartez, San Pablo Apostolubac diñuan moduban: Jaungoicoaxen voxondatia (diño) izanda (Munduxarrac) zoxaquexiatzat daucain predicacinuaxen vitartez salvaitia (bexagan eguiaz) sinisquetan daubenac.

Predicacino santu au eguiten deuscube Aita Santu Exomacuagandic asi eta bexe obedienciaxen azpian vizi diran Obispo guztiac, eta oneic destinaitan dituben Predicadoxe, Misionexo, eta Parroquietaco

Maisu guztiac, predicaitan deuscubenian Eliza Ama Santaren doctrina santubagaz conforme; baita ere predicacino santu au eguiten daube Confesoriac beren Confesonariotan, eta Familietaco Burubac beren Familietan; eta orobat Superiore, beren bendecuac Taungoicoaren bildur santuban bezaitaco obligauric dagocen, guztiac; Zeruban dagocen Santubac ere predicaitan deuscube, Munduban vizi ziranian, gure instruccinoraco escribiduric itzi euscuben Liburu santubetan, batez ere Escritura Sagraducoetan.

Taungoicoaren vorondatia dan ezquero, gu salvaitia predicacino santubaren vitartez, bere Animiaren salvacinuagaz azturic vizi da, Sermoiac entzuteco iguiña daucan Christauba; onelacuagatic ara nola esplicaitan dan Espiritu Santuba: (Taungoicoaren) Leguia aitu ez daguian, bere Belarriac apartaitan ditubanaren oracinua (diño) izango da madaricatuba: cuidadu bada, nere Illoba; izan zaite asistentia Meza nagusitara, eta Eliza Santaren Ministro fielac predicaitan dituben Sermuetara; eta orobat bezau biar dozu onetara zeure Familia: noian orain nere sallari Jarraiquetara.

Espiritu Santubac bada (esanic itzi dodan moduban) indartu zitubanian Apostolu Santubac Jesu Christoren doctrinan eta Leguian, berialatic Apostolu Santu oneic partidu zirian, bacoitza bere aldetic; eta euben vizitza, predicacino, eta Milagruacaz zabaldu, eta erein euben Mundu guztian Jesu Christoren doctrina eta Legue santuba, Martiri illten zirala, San Juan Evangelista apartau ezquero beste guztiac Fede santubaren defensan.

Apostolu glorioso oneic itzi zituben Munduban beren Sucesoretzat Obispo Taunac, eta Sacerdotiac; baña nola aien

artian San Pedro zan guztien Principe eta Buruba, orobat andic ona eta emendic Mundubaren azqueneraño Erromaco Obispo Jauna da San Pedroren Sucesoria, Obispo guztien Principe eta Buruba, Aita Santu Erromacua, Jesu Christoren Vicarioa emen Lurrian, eta Eliza Ama Santaren Columna firmia, zeña Pecataria bada ere beste Christauben guisara, ezin utsic eguin daique, Eliza santaren Buruba dan aldetic erabaguiten deuscun doctrina eta Leguian; cergatic Jesu Christoc berac dauca autorturic ~~ofrecidurie bere~~ Evangelio santuban San Pedrori eta ~~bere~~ nen Sucesoriari bere Espiritu Divinoaren asistencia, onela erabaguiten deuscun doctrinan ~~eracusten deuscun doctrinan~~ utsic eguin ez daguian gure oneraco.

San Pedro gloriosua Jesu Christoren aguinduz Juan zan Erromaco Ciudadera; an ifini eben bere asientuba edo Silla; an bertan padecidu eben Martirioa; eta emetic dator, izatia Erromaco Obispua San Pedroren Sucesoria, Eliza Santaren Buruba, eta Jesu Christoren Vicarioa emen Lurrian, zeñari Christaun guztioc gaoza obligauric -obedecitara, salvauco bagara.

Apostolu Santubac Mundu guztian predicau, eta zabaldu ezquero Jesus beren Maisu eta Redentoriaganaco sinistia, bere doctrina, eta Legue santu graciazcoa, sinistu eta biotz firmiagaz gorde euben guztiac doctrina eta Legue santu au, salvau ziran; eta aecandic gugana Jaachi eta conservau izanda Legue eta doctrina santu au, Jesu Christoc bere Esposa eta gure Ama Eliza Santan ifini izan dituban bere Apostoluben Sucesorien vitartez, nola dirian Obispo Jaunac eta Sacerdotiac, Aita Santu Erromacuen azpian eta obediencian vizi izan diranac: doctrina eta Legue santu au profesaitan dauben guztiac componitan daube Jesu

Christoren Esposa eta gure Ama dan Eliza Santa, Catholica, Apostolica, Erromacua.

Fratadu onetan iracurten dozun guztian, nere Ylloba, Eliza Santaren izena, ez dozu aitu biar Parroquia, Conventu, eta Ermitetaco Elizaric, baicican, Apostolubac eracutsi euscuben Creduan sinisquetan dogun Eliza, Aita Astetec bere miragarrizco doctrinaco Cartillan esplicaitan daben moduban (au da) Christaun fiel guztien Congregacinua eta Juntia, zeñaren Buruba dan Aita Santu Erromacua: baña Eliza Santa onec euqui izan ditu emen Lurraren gañian estadu diferentiac, baita ere emen Lurraren gañian vizi dan Eliza Militantiagaz ostian baditu beste grada edo malla bi, aurrerago esplicauco dodan moduban; eta grada eta estadu guztiac eguiten daube Eliza Santa bacar au.

Eliza oni deritza Santa; cergatic bere doctrina eta Leguia guztiz santubac dirian: deritza Catolica; cergatic bere claridade guztizcuagaz Eguzquiaren urtaieratic sarrerarañо Mundu guztian argui eguiten daben; baita ere cergatic salvau gura dauben guztiac alistau biar dirian Bautismo santubaren vitartez Eliza Santa onen Miembrotzat: deritza Apostolica; cergatic Apostolu santubac Jesu Christoc fundau eben Eliza santa onen sinistia eta doctrinia zabaldu euben Munduban beren predicacinuagaz eta Zanetaco Odolagaz: deritza azquenic Erromacua; cergatic Lurraren gañian vizi dan vitartian, daguan Aita Santu Erromacuen unioan eta obediencian.

Eliza Santa onec daucan izen glorioso oneic, es-

plicauric itzi ditudan moduban, Jesu Christogandic onacuac ditu; cergatic Apostolu Santubac eta Aita Santu Erromacua, nuecandic datocen izen oneic Eliza Santari presenteco estadu graciazcuan, Jesu Christo gure Jaunagandic onacuac dira: emendic ez dozu pensau biar, nere Illoba, ez eguala Eliza Santaric Jesu Christo baicen lenagoco demporeetan; bada Eliza Santa onec euqui eben bere asipena gure lenengo Guraso bi aietan, izen diferentiac bacituban ere, edo ia Jaungoicuaren Pueblo escogidubaren izena, edo ia Sinagogaren izena.

Eliza Santaren grada edo Mallac dira iru; bata da emen Lurraren gañian vizi dana, eta deritza Militantia; cergatic dabillen guerran bere iru Etsai diran Diabrubagaz, Mundubagaz, eta Araguiagaz, lograu arteraño victoriaren Coroia; Malla onetan vizi dira nasturic Onac dongacaz.

Elizaren bigarren Malla da, Purgatorioco penetan dagocen Anima Fiel eta bedeincatubena; eta oni deritza Eliza Purgantia; cergatic Anima oneic Mundutic partitaco demporan, Gracian egonagatic, guelditu ziran zorretan Jaungoicuaren Justicia bardiñari; eta duaza, zor oneic pagaitara Purgatorioco penetan; ez dira oneic Juango Zeruco Gloriara, beren zor guztiac pagau arteraño edo ya eubenez, edo ya besteren Sufragioz, guztiz seguru badagoza ere, Zerura igoteco: Purgatorioco Anima bedeincatu oneic Jesu Christoc Limboco Animac bere Gloriara ja-

so arterañoco, guztiac iragoten zirian Purgatoriotic Justuben Limbora, nun gueldiquetan zirian ichodeten Jesus Divinuaren advenimentu santuba; baña Jesus gure Redentore maitiac, Zeruco atiac ideguiric bere Criotza eta pasino santubagaz, Limboco Animac bere Gloriara jaso zitubanetic onaco guztiac, Purgatorioco penetan garbituric, Jaungoicuaren Justicia bardiñac escaquetan daben moduban, igoten daube zucenian Zerura.

Eliza Santaren irugarren grada edo Malla da, Trinidade Santisimuaren Arpeguia, eta Gloria miragarrizcua Zerubetan gozaitan dagocen Anima Bienaventuradubena; eta oni deritza Eliza Triunfantia; cergatic, emen vizi ziranian, vencidu zituben (esan ditudan) Animaco beren iru Etsaiac Jaungoicuaren graciaren laguntasunagaz, eta beren obra onacaz; eta partidu zirian Mundu onetatic, edo Purgatorioco penetatic triunfo eta victoria andian, onen premiotzat Jaungoicuac emuten deustela betico Gloria bere Seme Jesus glorificaubaren compañian, guztien Buru, eta Capitan dala Jesus, zeñaren merecimentuz eta vitartez dauca Eliza Santac triunfo glorioso au: baña, esplicau ditudan iru Grada edo Malla oneic eguiten daube Eliza Santaren Corputz bacar bat, Creduan sinisquetan doguna.

Mundubaren asipenetic Apostolubac Jesu Christoren doctrina eta Legue santuba zabaldu baizen le-

nago ill ziran guztiac Jaungoicuac ofreciduric eucan Salvatzallaren esperanzan, eta aren Divina Magestadiaren Graciazco estaduban, dira Eliza Santa onen Miembruac, andic ona eta emendic Mundubaren azquenerañо Jesu Christo ganaco siniste eguiazcuan eta estadu graciazcuan ill diranac, eta illgo dirian guztiac Corputz bacar onen Miembro eguiazcuac diran eta izango diran leguez.

Eliza Santac, presenteco Legue graciazco estadu onetara etorri baño lenago, euqui izan ditu emen Lurraren gañian beste estadu diferente bi: bata Legue naturaleco estaduba; eta onec iraun eben gure lenengo Guraso Adanegandic Moises Profeta Santubaren demporaraño.

Eliza Santaren bigarren estaduba izan zan Legue escribidubaren Estaduba esaten deutsaguna; onec iraun eben Moises Profeta santubaren demporatic Jesu Christo gure Jauna gure pecatubacatic Curutzian ill arteraño; eta ala euqui eben bere fin eta acabaera Jesus onaren eriotziagaz; baña Legue escrividu au ez zan orduban bertan orregatic beinguan aztu, eta desamparaduba izan; bada onetaraco Jesus ona ill zanetic irago ziran urteren batzubec; eta Legue escribiduricaco estadu au eguin zan dañosua eta Animaren condenatzallia, Jesu Christoc Zerubetara igoric, eta Apostolubac Espiritu Santubagaz indarturic zabaldu eubenian Mundu guztian Jesus onaren doctrina eta Legue santu graciazco au, zeñi-

an vizi garian.

Legue escribiduricaco estadu au da Judeguben Legue zarra esaten deutsaguna, zeña Moises Profeta santubac Jaungoicoaren aguinduz eta inspiracinoz escribidu eben; Legue santu au gorde euben San Juan Bautistac, San Joseph gloriosuac, Maria Santisimac, Jesu Christo gure Jaunac ere bai Guizon eguiazcua zan aldetic, eta orobat amabi Apostolubac; bada ziran Judegubac eta Judeguben Jatorriac.

Eliza Santaren estadu bi oneitan Jaungoicuac bere Patriarca eta Profeta santuben agotic esanic eucan claridade guztiagaz, bialduco ebela bere Semia, zeña eguingo zan Guizon Donzella baten Sabelian Guizonaren obra bague; eta bere Seme Jaungoico eta Guizon eguiazco onec eracutsico ebela Zeruraco vidia; emungo zitubala Legue barriac; Zeruco atiac ideguico zitubala; eta galduric eguan Guizona Diabrubaren bendetic librauco ebela.

Etorri zan bada Jaungoicoaren Seme au; eta aguertu zan Munduban, Guizon eguiazcua eguinic, Judegubac leenagoco demporetatic euben Legue escribiduban eta Profeta Santubetan ondo sarritan iracurten euben señale mueta guztiacaz; bialdu eben bere aurrian San Juan Bautista gloriosua, bere etorrera santubaren barriac aurraz emutera; onegaz guztiagaz aiñ ichubac izan zirian Judeguren batzubec, nun ezin sufriduric Jesus Divinua-

ren doctrina santuba, acusau euben falso testimonio-
acaz Poncio Pilatosen Tribunalian, eta Machinada mo-
dura formauric escatu eutsain, quendu eguiola Guizon
ari vizitza Curutzian: Pilatos au orduban zan Pre-
sidentia, Gentila eta Taungoicoaren ezagupera bague-
cua; ala ere ezagutu eben Jesus onaren inocencia, eta
Judeguben gorroto eta malicia; eguin eben aleguiña,
eriotzatic Jesus maitia libraitiarren; eta azquenic
bildurturic Judeguben alborotuagaz entregau eusten
aren Divina Magestadia, cruzificaitaco; euben vistan
garbitu zituban Escubac, esanagaz: ni inozente na-
go Guizon Justo onen eriotzan; zeuroc compon zaitez-
te: eta Judegu pilla arc guztiac, entzunic Pilatosen
errazue modu au, erantzun eutsan: ez dago zer ardu-
raric artu Guizon onen eriotziagatic: bere Odola izan
dedilla gure, eta gure Semien gañian: eta au esanic
eruan euben beste Lapur bien compañian Calvario-
co Mendira; eta aren Divina Magestadiac emen Cu-
rutzian Josiric emun eben bere azquenengo arnasa, eta
vizitza, esanagaz aurrian: acavau da (Redencino-
co langueia, eta Profetac nere gañian esan euben guz-
tia.)

Modu onetan Jesu Christo gure Jaunac emun eutsan
Eliza Santaren Legue escribiduricaco bigarren estadubari
bere fin eta acabaera; eta ifini eben bere Esposa Eliza Santa
orain daucan irugarren Estaduban, zeñari esaten deutsa-
gun graciazco Leguiaren Estaduba; onec iraungo dau Eliza

Santa Militante onetan Mundubaren acabaeraraño; alperric Eliza Santa onen contra Jaquico diza Infernuco eta Munduco poderio guztiac; firme manteniduco da bere Esposo Jesus Divinoaren amorioan; da au eguii bat, ondo erabagaric daguana Jesus Divinoaren Evangelio santuban eta Escriturra Sagradu guztian.

Eliza Santac ezaguquetan dau bere Buru, Aguintari, eta Esposotzat Jesu Christo gure Jauna, zeña daguan Zeruban, Bienaventuradubac ecusten eta gozaitan dauben moduban, eta emen Sacramentu santu Altarracuan, baña Corputzeco beguiacaz ecusten ez dau moduban; toqui bi oneitan bacarric dago Jesus Divinoa, Guizona dan aldetic, Jaungoicoa dan aldetic toqui edo lecu guztietan presente badago eze: eta emen Luzbaren gañian guerran izi dau Eliza Santa Militante onec ezaguquetan dau Jesus Divinoagaz ostian eta onen ordeco edo Vicariotzat Aita Santu Erromacua; bada ala conveni zan, Jesus onac gure emen izteia Buru eta Aguintaritzat, gugaz izi dau, eta dabillen bere ordeco eta bere Vicarioa; onen vitartez egon guindezen guztioc unidaric Jesus Divinoagaz beragaz; eta ibilli ez guindezen Buru bagueco Comunidadiaren Miembruac leguez, bata vide batetic, eta bestia bestetic.

Jesu Christo gure Jaunac ifini eben ezquero bere Esposa eta gure Ama dan Eliza Santa presenteco Leguegraciazco izugarren estadu onetan, eta Apostolubac, Espiritu Santubaren virtutez indarturic, Mundu guztian zabaldu euben ezquero Evangelio santuba, iñor ezin

salvau diteque Eliza Santa Catholica Apostolica Erromaco onetatic campoxa; eta ala Eliza Santa onetatic campoxa vizi eta illten dixan guztiac condenaitan dixa, Noe Patriarca santubaren Arcatic campoxa egozen guztiac Diluvioco uretan ito zirian leguez; bada Arca onegatic esaten deusu San Pedro Apostolubac, zala oraingo Eliza Santaren figura, ispillu, edo Echuxa bat: Jesu Christoc berac ere emuten deusu desengañu santu au, esaten deuscurian bere Evangelio santuban: sinisquetan ez dabena (nere doctrina) condenauco da: sinisquetan ez dabena, (diño) cergatic eguiaz eta biotzetic sinisquetan dabena bere doctrina santuba, berialatic movitan da Eliza Santaren Miembrotzat alistaitaza Bautismo santubaren vitartez, eta, obraz ecin badau, deseo eguiazco batec salvauco dau, zeña ezin guertatu litèque iñolaco moduz biotz osuagaz Jesu Christogan sinistu gura ez dauben Persona uso errazuazcoxa allegauxic dagocenetan.

Eliza Santatic campoxa vizi dixa Judeguba, Exegiac, Aita Santu Erromacuen obedienziatic campoxa vizi dixanac, eta Gentilac.

Judeguben Legue zaxa bere demporan ona eta santuba zan, eta bacaxa salvaitaco; baña nola zan berez acabuba euqui biar ebena, zartu zan, eta ill zan Jesu Christoren exiotziagaz; eta ala iñox ezin salvau diteque Judeguben Legue zaxian gauxco eguinian; eta orgatic Judegubac, beren erroxiai alde batexa itzixic, ez padatoza Eliza Santaxa, condenauco dixa.

Jesu Christo gure Jaunaren eta bere Apostolu Santuben demporan Judegu ascoc sinistu euben Jesus Divinoagan; bera zala, Jaungoicuac lenagoco demporetatic ofreciduric eucan beren Maisu, Salvatzalle, eta Redentoria; baña beste batzubec (lenago esanic daguan leguez) ainbesteraño ichutu ziran Jesus Divinoaganaco gorrotoan, nun, beren venguba lograitiarren, diadarrez esan eutsain Pilatos Presidentiari: bere Odola jausi dedilla gure gañian, eta gure Jatorri edo Semien gañian: modu onetan madaricatu zituben beren Personac, eta beren Jatorriac, eta manchauric guelditu zirian Jesus inocentiaren eriotzan.

Judegu madaricatu oneic dira andic onaco Judegu guztien Antepasau, Guraso, eta Maisubac; eta milla zazpireun iruroguei eta aimbeste urte oneitan vizi dira Judegu miserable oneic, orduban ezarri euben Maldicinuaren azpian; bada Jesus ona Curutzian ill zanetic andic berroguei urtera Erromaco Emperadoriac ecin sufriduric Jaungoicuaren escutic igues eguinicaco Judegu onein maldadiac, bialdu zituben beren Egercituac Jerusalengo Ciudadera, millueca Campotarrac juntauric egozen dempora eta ocasinoan; sartu ziran Ziudadian; irago zituben Ezpatacaz Vme eta Anretarañaco guztiac, bateri parcatzaca; lur jo eraguin eutsain Ciudade guztiari; gueiago dana banatu euben Salomon Erreguiac Jaungoicoaren orde-

naz eguin eben aimbeste grandeza eta veneracinoco Templo santu bacar ura; eta emendic campora Legue zar onen obedienzian vizi ziran Judegu guztiac guelditu ziran beinguan Sacerdote bague, Templo santu bague, Legue bague, Erregue bague, azquenic desterrauric euben Errietatic, eta beren posesinuetatic botaric; eta andic ona Judegu oneic dabiltza Mundu guztian errante ia ezcutuban, ia aguirian, baña pechac pagaitan ditubela, eta Mundu guztiac gorroto deustela: onela etorri zan jaustera Jaungoicoaren desgracian bere Pueblo escogidubaren porcino eta parte rebelde au, sinistu gura izan ez eubelaco, bialdu eusten, beren Salvatzalle eta Redentore Jesu Christo Jaungoico eta Guizon eguiazcuagan; eta aiñ ichuturic guelditu ziran beren errorian, nun gaur dan egunian vizi dira, bialduco ez iaten, Salvatzalliaren esperanzan; oneic bada dira Gente guztiz madaricatubac, guganaco gorrotoz acabaitan dagozenac; eta ala ez da lizito Christaunari, oneicaz adisquidetasunic artzeric, ez da Religinoaren gañeco errazonamentu eta disputaric euquiteric; onelacuacandic bada beti igues eguin biar dau Christaunac batez ere Fede santubaren eta Religinoaren gañeco puntubetan.

Eregiac, zeñac dirian gure Fede santuco punturen baten faltaitan daubenac, batiaturic dagoza, eta Christaunen izena daucai; orobat Aita Santu Erromacuaren obedienziatic igues eguin daubenac Christaunac dira; eta onei beren izen propioagaz esaten deustegu Zismaticuac; baña ala Eregiac, nola

Zismaticuac iques eguin euben Eliza Santa Catolicaren Miembruen artetic, Soldadubac Egerzitotic desertaitan dixian modura; eta estadu onelacuan illten badira, Eliza Santara biurtugura ez daubela, erremedio bague condenauco dira.

Gentilac dira Jaungoico eguiazcuaren eta bere Legue santubaren ezaguperaric eta entzuerarric ez daucainac: oneitatic batzubec beren Entendimentuco arguitasunagaz ezaguquetan dituben obra onguztiac eguiten ditube, eta apartaitan dira Naturaleziac eta Errazoiac eragozten deusten gaiztaquerietatic, San Pablo Apostolubac esaten deuscunagaz conforme: Legueric ez daucain Gentillac (diño) berez eguiten ditube Leguco gauzac direnac: Gentil mueta oneic duda bague izango daube Jaungoicoaren graciaren laguntasuna; cergaitic bere aldetic aldabena eguiaz batec eguiten badau, Jaungoicoac bere gracia santubagaz ecarrico dau bere ezaguperara eta Eliza Santaren Miembro izatera: beste Gentil batzubec vizi dira Concienziaco freniu bagatic Naturaleziac eta Errazoiac eracusten deustenen contra; oneicatic diño Apostolu glorioso onec beronec: Legue bague pecatu eguin dauben guztiac Legue bague illgo dira.

Oraiñ advertitan zaitut, nire Illoba, Tudeguibacazco tratu eta adisquidetasunagatic esplicaunaizan conformidadian, orobat ez da lizito Christauu Catolicuari euquitia adisquidetasunic Eregiacaz, Aita Santu Eromacuen obedienziatic camporaco Zismati-

cuacaz, eta Gentilacaz; eta asco guichiago da licito, onelacuacaz artzeia conversacino eta disputaric Religino santuco puntuben gañian: bacarric bada lan guei au tocaitan iate Eliza Santaco Obispo Jaunai, eta oneic aien conversinoraco destinaitan dituben Predicadore eta Misioneruai; beste guztiac igues eguin biar daube onelacuacazco llaneza, adisquidetasun, eta Fede santubaren gañeco disputetatic, daucain doctrina donguiaren venenua eurai itsatsiric acabau ez ditezen.

Oneic onela dirala; zer esan diteque gaurco egunian ecusi oi dirian Plaza Guizon Pamparrue batzubecatic? atzo Arto pusquin bat dolorez jaten eubenac, ondo zeñaquetan eta zembat Jaungoico dirian ez daquienac, eguin izan dituben errial batzubecaz (eurac daquie nola) duaza Baionara Aculubac escubetan ditubela eta Vztar=Idi cargaubac aurretic, edo Zaldi gañetan, gabetic goiceraco Caballero eguinic; eta an edoceñegaz eta edocein modutan trataitan daube, edocein conversacino modu aitaquetan ditube, eta barrez eta frescura andiagaz entzuten egoten dira gure Religino eta Fede santubaren contraco alditezquian verbaric injuriosuenac; eta guero Ostatubetan eta Tabernetan Ardao picharra alde batian, Carta jocucuac escubetan, eta pipia aguan daubela pachorra onian egoten dira esaten, Baionan Santi Espirituco Judegubacandic entzun dituben Fede Santubaren contraco verba injuriosuac, eta zer disputa

euqui euben euracaz, barre andiac eraguiten deustela beren Lagunai contu onelacuacaz: eta, gauza particularra dana, Baionan Christandadiaren contra verba eguiten dauben guztiac Fonto onelacuen ustian dira Santi Espirituco Judegubac: cuidadu bada onelaco plaza Guizonacaz: guazen orain Eliza Santaren gañeco esplicacinuari jarraiquetara.

Leenago esanic itzi dodanagaz conforme, claruban dago Eliza Santaren Legue graciazco presenteco irugarren estadu onec iraungo dabela Mundubaren azqueneraño, eta Eliza Santa onetatic campora ez daguala salvacinoric iñorentzat; eta ala guertatu da, leenago euqui izan dituban Legue naturaleco eta escribiduricaco estadu diferente bi aietan iñor ez salvaitia Eliza Santatic campora; emendic dator, Eliza Santa au bacarric, Mundubaren asipenetic azqueneraño euqui izan dituban iru estadubetan, salvaitia, eta Zerubetan betico Glorian egotia bere Esposo eta Redentore Jesu Christoren compañian, eta ez besteric iñor ere.

Legue graciazco estadu onetan Eliza Santaren Miembrotzat alistaitaco, vide eta Ate bacarra da Sacramentu santu Bautismocua; au precisamente errecividu biar dau batec, albadau, obraz; eta obraz ecin badau, deseo vizi eta eguiazco batequin, uso errazuazcora allegau zanetic arteraño eguin dituban pecatuben Contricinoco damutasuna daucala.

Persona nagusia edo uso errazuazcoza allegau-
ba bada, batiaquetan dana, nola izan oi dixian
guxe Fede santuxa convertitan dixian Gentilac, eta
Judegubac, baita ere Bautismo nuluagaz edo valio-
so ez danagaz gaizqui batiatuxic dagozen Liegeren
batzubec; onelacuac bada ondo sinistuxic eta icasixic
Credoan eta Articulu santubetan eracusten dixian
misterioac, bere voxondate propioagaz escatu eta
errecividu biardau Bautismo santuba, arterañoco
bere pecatuben Contuzinozco edo Atuzinozco damuta-
sun eguiazcua daucala, eta, ezin errecividu badau
onexian persona nagusiac Bau-
tismo santuba
obrac, deseo eguiazco batec Contuzinoco damutasu-
nagaz salvatuco dau, Contuzinoco damutasunagaz
(diñot) cergatic Atuzinoco damutasuna Bautismoa
bera bagaxic ez da bastante, bat salvaitaco, lenagoco
pecatu mortalen bat edo beste badauca; gueiago, batia-
tu biar dabenian, obligaitan da Christandadeco Leguе
eta Mandamentu santu guztiac gordetaxa bere vizitza-
co dempora guztian, eta eguiaz eta benetan botaten di-
tu bere biotzetic betico Diabruba, Munduba, eta Araguia
disposicino santu onegaz Bautismoco Sacramentuba
errecivitan daberaxi parcaitan iaco pecatu Originala,
eta uso errazuazcoza allegau zanetic arterañoco
pecatu guztiac, ez bacarxic pecatuben manchac, baita
ere pecatuben pena mueta guztiac; eguiten da Eliza San-
taren Miembroa; Jaungoicuac infunditan deutsa bere
Animan Fediaren, Esperanziaren, eta Caridadiaren izu

Virtute Theologal edo Divinoac; eta onela paraitan da salvacinoco vidian, Jesus onac esaten deuscun leguez Evangelio santuban: sinisquetan dabenac, eta batiaquetan dana, salvauco da; (aiquetan da) bardin perseveraitan badau azqueneraño.

Baña Aur jaio barriac diranian, Christaun artian questatu oi dan leguez, batiatu oi dira Eliza Santaren sinistian; eta Aurren ezagupenaren, intencinoaren, eta voluntatiaren falta suplidu oi dau Eliza Ama Santiac berac; eta orobat valio deuste Bautismo santubac, zein da valioco leusquien, uso ezazuazcoia allegauric Persona naguisien moduia voluntate propioagaz escatuco baleube.

Bautismo santubac esan ditudan bere efectuacaz gañera marcaitan eta señalaitan dau errecivitan dabenaren Anima eternidade guztian borrauco ez iacon marca eta señaliagaz; equiten dau capaz, errecivitaco Eliza Santaren Sacramentubetatic, berari converi iaconac vizi dan dempoia guztian; baita ere sartzen dau Santuben Communioan.

Bautismoan parcatuagatic pecatu oriqinala eta batiaquetan danagan auzquiquetan dirian beste pecatu personal mueta guztiac, beti quelditu oi dira oñian pecatu oriqinalaren exu donga batzubec oneitatic bat da pecatuaco arraza edo inclinacino

donguia: onen gañian zerbait esango dot Animiaren Etsai dan Araguiaren gañeco trataduban.

Legue graciazco estadu presentian eguiaz batiatubac componitan daube emen Lurraren gañian Eliza Santaren lenengo grada edo Mallia, zeña dan Eliza Militantia edo guerran dabillena: esanic guelditu da Eliza Santa onetatic campora ez daguala salvacinoric; ecusi daigun orain, guztiac salvaitan ete dirian edo ez Eliza Santaren barruban.

Eliza Militante au Jesus Divinuaren Evangelio santubagaz conforme da Pescadoriac Ychasoan zabalquetan daben Sariaren antzecua, nun jausi oi dirian era batera, eta nasi Arrain mueta onacaz dongac ere; eta ala Eliza santa Militante onetan onac eta dongac nasturic, eta batera vizi dira Lurraren gañian: puntu erabaguia da bada, nere Ylloba, Eliza Santa Catholicaren Miembrotzat alistauric dagocen guztiac ez diriala salvaitan; oneitatic asco condenaitan dira; eta salvaitan dira bacarric, perseveraitan daubenac azqueneraño firmeza guztiagaz Fede santuban eta Caridade eguiazcotic sortzeen dirian obra onetan, artzen ditubala beren vizitzaco azquenengo instantiac Jaungoicuaren graciazco zorioneco estaduban: cergatic, San Juan Evangelista eta Apostolubac diñuan leguez, onei jarraiquetan deuste beren obra onac (betico descansuraco): eguia da; gaizqui vizi izan dan bat bere demporan, eguiaz convertidu ezquero Ja-

ungoicoagana exiotzaco oxduban bada ere, salvauco da Confesino santu baten vitartez, edo, au ezin badau, acto contrizinoco baten vitartez; baña esperanza onegaz gaizqui vizi gura dabenac beretzat bere jocuba; gueien bat guertatu oi da: nolaco vizitza alaco exiotza.

Leen Christaun eguiazcuac zinanac, Obispuac eta Sacerdotiac izanagatic ere, faltau leiquie Fede santuban; baita ere apartau ditezque Jesu Christoren Vicario Aita Santu Erromacuen obedienciatic, eta onela bein oguertuzic perseguidu daiquie Christaun fiel eta eguiazcuac fixme dagozenac Eliza Santaren obediencian, guere eguetan Francisco Ereinuban ecusi dogun leguez: onelacuac bada noberen culpa bagaric eguingo balixa Ereinuco Aguintaxi eta Erietaco Juez, Aguintari eta Juez legitimuac fuerzaz quenduzic; licito izango ete lizateque onexian vide bagueco Aguintari oguerrai obedicitia? bai, nere Illoba, pecatu ez dixian gaucetan: eta preso artuco balitube fixme dagozen Christaun inocente eta eguiazcuac; licito izango ete lizateque preso inocente onei, ao utsez ucaqueria beren doctrina eta Jesu Christogaraco siniste eguiazcua, vizitza quendu ez deguien, fixme mantenitan diziala beren biotzetan Jesus Divinoagaraco amoxioan? ez iñolaco moduz, nere Illoba; au izango lizateque pecatu mortal icaragarri bat; eguin biar dogu, bai, alequin guztia, orrelacuen escubetan ez jausteco, igues eguinagaz, edo guere Burubac ezcutaubagaz, Jesu Christo gure Jaunac persecucinoco demporan eguin eben moduxa gure egempluxaco, eta bere Evangelio santuban exacusten

deuscun conformidadian: persequitan zaitubenian (diño) Ciudade onetan, iques equizube beste batera.

Baña guc alequina equinagatic, iques equiteco, Jaungoicoac entregaitan bagaitu onelaco Juez eta Aquintarien escubetan, biotzagaz leguez aoz exe firmeza guztizcoagaz autortu biar dogu Jesu Christo guxe Jaunagaraco siniste equiazcoa, pronto gaozela (premina bada) emuteco guxe vizitza aren Divina Magestadiagaraco amoxioz, aren Divina Magestadiac emun eben leguez bezia Cumutzian guxe amoxioz, exosten quindubala bera zan guztiaren costuz, eta beretzat marcaitan quindubala bere zanetaco Odol preciosoagaz.

Jesus Divinoac esaten deusci bere Evangelio santuban: ni autoxquetan nabena Guizonen aurrian, nic exe autoxtuco dot Zerubetan daguan nere Aitaren aurrian; eta ucaquetan nabena Guizonen aurrian nic exe ucatuco dot Zerubetan daguan nere Aitaren aurrian: Apostolu eta Martiri santu guztiac, equi santu au presente encaila, beren vizitzaren costuz biotzagaz leguez aoz exe autoxtu euben Juez madaricatuben aurrian Jesu Christo guxe Redentoriagaraco sinistia eta bere Leguc santuba: diñot, Juez madaricatuben aurrian; cergatic Jueza edo Aquintaria ez bada, baizican Persona particularra

itanquetan deuscuna guere Religino eta Fediaren gañian, erantzun deiquiogu onelacuari ¿ zerc sartzen zaitu zu puntu oneitan? edo orobat emun deiquiogu onelacuari espaldac, erantzun bagaric eta batere casoric eguin bagaric; baña onelaco Persona particularraren aurrian zucenian eta betecian ucaquetia Fede santuba ao utsez ere, salatu ez daguien, da pecatu gravia.

Eguiaz Jesu Christo gure Jauna ez da gure lotsa garria, gu ere izan ez guinian leguez aren Divina Magestadiaren lotsa garriac, gure pecatubac inguratu eubenian, eta Curutzian pillosic Josiric Lapur bien erdian bere vizitza emun eraguin eutsainian aimbeste tormentu eta afrentagaz, sufritan zitubala guztiac ez obligacinoric eusculaco, eta bai bacarric euscun amorioagatic; argatic guc ere onelaco lance estubetan obligacinua daucagu, autorquetaco beste aimbesteren costuz aren Divina Magestadiaren Fede, doctrina, eta Legue santuba, bardin gura badogu beragaz parte euquitia Zeruco Glorian.

Entzunic nago Gente ignorantien artian eta bein baño gueiagotan, aoz ucaquetia Fede santuba biotza firme daucagula Jaungoicoaganaco, ez dala pecatu, aozco autormena mediante peligru corritan badau noberen vizitza: au esatia, da errore guztiz andia, eta Fede santubaren contracua, Eliza Ama Santac condenauric daucana: bardin Jaungoicua amaitia gauza guztiaz gañian bada, gurago izatia, bere vizitza galdu, Jaungoicua ofendidu baño ¿nola da posible licito izatia, ao utsez ucaquetia aren

Divina Magestadia bere vizitza galtzeco vildurragatic? eta; nun da Lagun Progimuari escandaloric ez emuteco daucagun obligacino estuba? bardin licito baliz ao utsezco ucaqueta au, Jesu Christoren Fede santuba anchinatic eguan azturic Munduban; eta Zerubetan dagozen aimbeste Martiri glorioso egon zitezquian aimbeste tormentu Munduban irago bagaric: Jarraitu deiogun bada apuntauric itzi dodan puntu onen gañian Evangelio santuco doctrinari, zeñac betez betecian condenaitan daben errore icaragarri au.

Jesus Divinuac, desterraitiarren guere biotzetatic Corputzeco eriotziaren vildurra, modu onetan esplicaitan dau bere Evangelio santuban Martirioaren gañeco puntu au: esaten deutsubet (diño) zubei nere Adisquidioi: ez zaitezte vildurtu Corputzeco vizitza quentzen dauben oneicatic, eta onegaz ostian gueiago zer eguin ez daucainacatic: eracutsico deutsubet bada noren vildur izan biar zariain: aren vildur izan zaitezte, zeñac Corputzeco vizitza quendu ezquero dauca escuvidia Infernura botateco; ala esaten deutsubet: onen vildur izan zaitezte.

Eriotziaren vildurrez bere Animiari Jaregui gura ez deutsanac ez dau parteric euquico Jesu Christoren Glorian, bere Evangelio santuban aiquetara emuten deuscun conformidadian: bere Animia (diño) gorde gura dabenac galduco dau; baña galtzen dabenac bere Animia nigatic, billatuco dau: sentencia guztiz la-

burra, baña miragarria! da esatia: bere vizitzari eta Animiari jaregui gura ez deutsanac, bere Burubari eta Munduco Criaturai deusten amoriogatic, galduco dau bere Animia, eta condenauco da: baña Jesus onaren amorioz jareguiten deutsanac bere vizitzari eta Animiari, billatuco dau bere Animia, eta salvauco da: baña cuidadu, nere Illoba, ez gaizqui aiquetiagaz Evangelioco pasage edo doctrina santu au; ecusten ditugu Christauren batzubec euben Burubai vizitza quertzen; onelaco instantian bardin juicio cavalian badagoza, eguiten daube pecatu mortal guztiz andia, eta condenaitan dira; eta Eliza Ama Santac ere agiinduric dauca, onelacuen Corputzac ez ditezela enterrau Lecu sagradubat beste Christaun defuntuben Corputzacenterrau oi dirian Joquian, baicican Campuan edocein paragetan: bacarric bada da licito Christaubari, sufitia eriotza Jaungoicoaren edo Guizonaren escutic, eguiric lenaz Jaungoicoaren voluntatiagaz conforme, beragan dan guztia, bere vizitza luzaquetaco, defenditaco, eta bera galtzeco peligrubetatic igues eguiteco.

Jesus maitiac ofrecitan deusci Zerico asistencia, Munduco Aguintaxi eta Juez madarricatubac Fede santubaren gorrotoz martirioa emuten deuscuben orduraco; dino bada bere Evangelio santubat entzegaitan zaitubenian (Justiziaren escubetan nire gorrotoz) ez eguzube discurridu, zer moduz edo zer verba esango dozuben; cergatic orduaxtan emungo ia-

tzube, zer verba esan biar dituzuben; bada zubec ez zarai, verba eguiten dozubenac, baicican zuben Aitaren Espirituba da, zubetan verba eguiten dabena.

Martirio santu onetaraco vidian daguan Christaunac escatu biar deutsa Jaungoicoari bere laguntasuna eta gracia humildade eguiazco batequin, eta lograitaco confianza edo esperanza firmiagaz; baita ere, euqui ezquero Sacerdote Catholico edo Fiel eta leialaren conveniencia, dauca obligacinua pecatu mortalaren azpian confesaitaco eta comulgaitaco, eriotzaco peliguruban aurquiquetan dan beste edocein Christaunen modura; edo au ezin badau, euqui biar dau bere pecatuben damutasuna edo ia Contricinozcua edo ia Atrizinozcua.

Lance onetan modu bagaco larritasunac turbau ez deguion bere Espirituco serenidadia eta premina daben animua, Christaunac Fede vizi batequin armauric pensau biar dau, zer dan galtzera doiana, eta zer dan irabaztera doiana: galtzera doiana da Munduban dempora guichian iraungo deutsan vizitza labur, penoso, eta, usteric guchien dabenian, acabauco dan bat, eta onegaz batera beriala abandonauco dauben Munduco Criaturen gozamentu labur eta guezurrezco bat; eta eriotziaren vildurrez galdu gura ezpaditu gauza labur oneic, galduco dau eternidade guztico Gloriaren contentuba, eta botaco dau bere gañian eternidade guztico eriotza eta condenacinua.

Considerau daigun orain, zer irabazte daguan

eriotza modu onetan: Justiciac bada Jesu Christogana-
co gorrotoz emuten deutsanian tormentubac eta eriotza
Christaunari, bardin onec Jesus onaganaco amorioz su-
fritan baditu pacienciagaz azquenengo arnasaraño, eri-
otza oni deritzo Martirioa; eta valio deutsa Bautis-
moco Sacramentu santubac aña alaco moduz, zein da
baleuca, Ychasuan urtanta aña, pecatu mortal, onelaco
eriotziagaz bere Animia zucenian Juango lizateque Ze-
ruco Gloriara Purgatoriora bagaric, batiaturic instanti-
an bat illgo baliz leguez; cergatic Bautismoac eta Marti-
rioac parcaquetan ditube, bacoitzac bere banaan, pecatu
mueta guztiac, eta onei tocaitan iaten pena eterno eta
temporal guztiac: irabazte oneic bada, galtzera doian
gauza labur aien vistan, animauco daube Christaun
eguiazcoa, Martirioaren penac eta eriotza sufritara.

Esan dot leen, guertatu litequiala, Obispu-
ac eta Sacerdotiac izanagatic, apartaitia Aita Santu
Erromacuen obedienciatic eta Jesu Christoren doctrina
eta Fede santutic: eta orain itanduco deustazu, nere
Illoba, ¿onelaco Sacerdotiaren edo Obispuaren Meza
eta Sermoiac entzutia licito ete dan? ¿edo onelacua-
caz confesau ete liteque bat? diñot bada, dala pe-
catu mortal, onelacuen Meza eta Sermuetara asistitia,
eta onelacuacaz confesaitia, bardin badaqui, Aita
Santu Erromacuaren obedienciatic igues eguiña edo Fe-
de santuban faltauba, eta errore onetan vizi dana dala
onerian Sacerdote eta Obispua; cergatic onelaco Sacer-

Eliza santaren Miembro eta Ministro
dote eta Obispuac, leen eguiazcuac. bazirian ere, presenteco es-
Miembro iga Artubac, eta Eliza santaren Corputzetic
taduban dira, ebaguiac, zeñacazco comunicacinoa batezere gue-
re Animen gobiernuben gañecua pena gogorren azpian eragotzi-
baizican Ardiaren soñecuagaz estalduricaco Otso amo-
ric dauzan Eliza Ama santac berac:
rratu batzubec, Artaldiac zatiquetan dabiltzenac,
eta Christaun comun, eta obligacino edo instruccino ba-
guecuen artian, baita ere Christaun instruidu eta vi-
ciosuen artian calte andiac eguiten ditubenac, eta
azquenic dira Etsai guztiz madaricatubac, zeñacan-
dic cuidadu andiagaz igues eguin biar dogun, Jesus
onac advertitan gaituban moduban bere Evangelio
santuban: gorde zaitezte (diño) Profeta falsuetatic,
zeñac datozen zubecana Ardien soñecuetan; baña
barrutic dira Otso Lapurrac: onen lance tristian aur-
quiquetan diranian Christaubac, salvacinoco vidia
uts eguitia gura ez badaube, benetan igues eguin biar
daube esan ditudan Sacerdote eta Obispo falso, infiel,
eta guezurti oneicandic, eta beren Jarrallacandic; eta
biotz guztitic jarraitu biar deuste Sacerdote eta Obis-
po fielai, ezcutauric egonagatic, edo iguesi juanic ba-
dira ere, onein ausencian portaitan diriala, ezcutau-
ric dagocen lecutic bialquetan deusten, edo ausentai-
taco demporan itzi eusten instruccinuacaz conforme.

Esango dozu, nere Illoba: ¿zertaraco niret-
zat Religinoaren gañeco instruccino oneic, izanic ni
Necazari bat? emuten deutsut regla oneic, engañau
ez zaitian, iñoizco demporan guertatuco baliz Ingla-

terran eta Olandan guertatu zana, eta atzo guere beguiacaz Francian ecusi doguna: Taungoicuac bada gorde daguiala Españaco Erreinu glorioso eta zorioneco au orrelaco desgracietatic, eta conservau daguiala presenteco Gobiernu moduba, eta Inquisicinoco Tribunale Santuba.

Eldu gara, nere Illoba, dempora negar garrizcuetara, zeñetan ia Fede santuba, guere Salvacinoraco dan arguitasun bacarra, illundubagaz doian, Esperanzia bada ez badacua, Caridadia guichitubagaz, eta pecatuba pecatubaren gañian gueitubagaz: au da bada Evangelio santuco verbacaz conforme Juicioco egunaren iru señale principalenetatic bat.

Gaurco egunian ecusten dira Christaun epel batzubec, Ho! eta cen bait! zeñacatic diño Espiritu Santubac; asico dala vomitaitan bere aotic; Christaun batzubec, edocein soñutara danza eguiten daquienac, azaleco ceremoniac ederquiro edo beste moduz eguiten ditubenac, eta beren barrubac utsic daucainac, bacarric aficionaitan dirianac beguiacaz dacusten gaucetara, aimbeste milla Izar ederracaz, Idarguiagaz eta Eguzquiagaz tachonauric dacusten Zeru eder onetan zer eguinic eta zer ecusiric ez baleucain leguez.

¿Nundic etorri da Franciaco galdu biarra? Nun

dic Españari aimbeste negar garri eta Jaungoicoaren azote, nola dixian gose, izuri, Lur icara andiac, eta gueze egun guztietan dacuscun descansu bagueco guerrac. gure Jaungoicua bada ez da azalezco ceremonia utsacaz contentaitan dana; gure barruco guiarria da escaguetan deuscuna; eta ala esaminaitan eta juzgaitan ditu gure biotzac guiarra guiarratic.

Ea bada, Christaubac beti alerta egon biar badaube, Diabrubaren lazuan jausi ez ditecen, iñoiz ez gueiago presentian eta emetic aurrera baño, batez ere Familietaco Burubac eta Gurasuac: dempora guztiz peligrosuac dira oneic, Munduco pompa eta vanidadetan batec bere atencinua ifinteco: ez eguizu bada itzi, nere Illoba, escutic Aita Astetearen doctrinaco cartillari; an diñuana ondo icasi, firme sinistu, eta obrau eguizu, eta exacutsi eguiozu zeure Familiari; cergatic Jesu Christo gure Jaunac diñuanaz conforme bere Evangelio santuban, azquenerañó firme daguana, au salvauco da: obraz cumplidu eguizu Eliza Santaco Ministro Fielen sermuetan entzuten dozun doctrina santuba, presente daucazula aren Divina Magestadiac esaten deuscuna bere Evangelio santuban: zorionecuac dira Jaungoicoaren verba entzun eta cumplitan daubenac: au berau aiquetara emuten deuscu Santiago Apostolubac, esaten deuscunian: ez dira Entzulac justificauco, baicican Equillac.

Eliza Ama Saratac eracusten deuscun Fede santuco misterioac ain ciertubac dira, zein da ezin izan ditezque beste modutan, eta ciertubaquac Corputzeco beguiacaz dacuscun gauzac baño: Jaungoicuac berac revelau izan deutsa bere Eliza Santaui misterio santu oneic, Mundubaren asiperretic Apostolu santuben acaberaraño soztu izan dirian Persona Justo ascoren vitartez, nola diran Patriarca eta Profeta santubac, batez ere bere Seme Jesu Christo gure Redentoria eta haren Discipulu Apostolu santubac.

Jaungoicua fin baqueco Jaquintsuba da, eta argatic ezin engañau diteque, Eliza Santaui revelau deutsan Misterio santubetan: baita ere da fin baqueco santuba eta ona, eta argatic ezin engañauco gaitu guezurrezco Misterioacaz; nundic ere Apostolu San Pabloc artzen dau atrevimentuba maldecitaco bere Burubaui, bere Apostolu Lagunai, eta Zerucco Aingueru santubai ere bai, bardin (imposible zana) bein euxac eracutsiric itzi euscuben doctrinatic campoxa gurri eracusten berriz asiten bazirian; diño bada modu onetan: naiz gueuc eracusten badeutsubegu, edo naiz Zeutic Aingueru batec eracusten badeutsube, eracutsi deutsubegun (doctrinatic) campoxa, onelacua madarikatuba izan dedilla.

Misterio santu oneic dira gueienbat guztiz excutatubac gugandic, eta guere discursuagaz ezin

comprendidu daiquequiac; arzatic ez da lizito Christaubari, Fedeco puntubac curiosidadiazaz examinaitan Jasartia, Jaquitiarren, nola ala izan alditezquian; Jaungoico guztiz podexosuaren obra mirazarizcuac dira; nundic Apostolu San Pabloc, Munduban vizi zala, Zeruza Jaungoicuac Jasoric, eta an entzuric Misterio andico verbac, Guizonari contaitia licito ez direnac, guztia pasmaric esaten deuscu modu onetan: O! Jaungoicuaren Jaquinduriaco eta Sabiduriaco aberastasunaren anditasuna! zein comprendidu ezin litezquianac dirian bere Juicioac, eta bere vidiac ezin comprendidu, edo ezagutu litezquianac! arzatic ere Espiritu Santubac advertitan deutsa Guizonari modu onetan: ez zaite ibilli zu baño altubago diran gauzen billa; eta ez equizu escudiñau zure capacidadiagaz gañetic dirian Misterioac; baicican Jaungoicuac aquindu deutsun gauzac, aec erabilli equizu goguan; eta bere obraric gueienetan ez zaite izan curiosua; cergatic ez daucazu premiaric, ecusteco zeure bequiacaz zugandic ezcutaric dagocen gauzac: eta errazue andiagaz; bequiacaz bada dacuscun gauza orieic nola ete dirian, comprendidu ezin badogu; zer zoroaqueria eta Soverbia izango ez lizateque Fede santuco Misterioac comprendidu gura izatia? esperienciac berac eracutsi izan deuscu, curiosidade onetan soverbia mediante sartu izan dirianac, Guizonic Jaquintsubenac izanagatic Jausi izan diriala Cregian, eta Fedi-

an ſaltau izan daubela.

Bacarric bada gure merecimentuba dago, sinisquetiagan ichu ichuban Fede santuco Misterio oneic Entendimentu lotu eta obediente bateguaz, amabi Apastolubac compondu euben Crediuan dagocen leguez, eta Eliza Ama Santac exacusten deuscun leguez Cedotic camporaco beste puntu guztietan; bada beguiacaz dacuscun gauzac ez daube sinistiaren preminaric: etorrico da dempora Jaungoicuaren misericordia eta gracia mediante, zeñian Cau da, Zerura guacerian) billatuco eta ecusico dituzun, emen aitu eta sinistu dituzun modubau Fede santuco Misterio oneic; arte bitartian ez gaitian izan curioso sobervioac, guertatu ez dequigun altura andi batetic zucenian beera beguira ſasarten danari guertaquetan iacona, buruba zoratu, beera ſausi eta acabaitia.

Ordiac, eta Luſuriosuac, Icazquinac, Atsuac, Caldaia guiñac, eta Capadoriac gauco eguiantaitan ditube Misterio altu oneic euben Lagun batzuben asuntuac baliuan leguez; onelacuacandic igues eguizu beti, nere Illoba; eta Eliza Ama Santaren sinisteta doctrina bagueco Personaren bat iñoiz etorrico baliz zeure Echera, portau zaite onelacuagaz, San Juan

Evangelista eta Apostolubac contuban ifinten gaituban moduban; diño bada: bardin badator zubecana norbait, eta (eracutsi deutsubegun) doctrina au ez badacar, ez eguiozube emun entradaric Echera; eta ez eguiozube ere eguin Diosalic.

Españan ere pecatu mortalaren azpian dago bat obligauric, emutera contu aimbat lasterren Inquisicinoco Tribunale santura, entzun ezquero edo Jaquin ezquero, Personaren batec esan edo eguin dabela Fede santuco Misterioren baten contra gauzaren bat: Ho! eta zeinbat Zapo eta Suga dagozen orain beren zuluetan sarturic, atrevitan ez diriala ezertara Tribunale santu onen vildurrez! Jaungoicuac bada conservau daguiala aimbat luzaruen; cergatic Murralla au quendu ezquero, ascoren Fediac eta Salvacinuac peligrauco peligrauco leuquie.

Jesu Christoc Curutze santuban bere Aitari ofrecidu eutsan Sacrificioagaz ostian gure Religinoac Eliza Santan eracusten deuscun Misterioric andiena, santubena, nobliena, eta Christaun eguiazcuentzat provechosuena da Meza santuba, Jaungoicoaren Templo, Eche sagradu, edo Elizetan egunoro celebraitan dana Christandade guztian: da Misterio santu au Jaungoico guztiz poderoso, eta Guizonaganaco amorioz izioric daguanaren obra: da, Jesu Christo gure Jaunac Curutzian pa-

decidu eben Criotza santubaren representacino, eta memoria edo acordu vizi bat: da merecimentu edo valorian fin baguecua, Curutze santuco Sacrificioa fin baguecua izan zan modura: da, Jaungoico eta Guizon eguiazco Jesu Christo gure Jaunac euscun amorioagatic, gugaz Mundubaren acaberaraño egunoro gueldiquetaco billatu eben traza miragarrizco bat Sacrificio onen, eta Sacramentu Santu Aldareco, edo Comuniocoaren bitartez.

Jesus Divinuac, ecusiric, bere Criotza urreratubaz etorrela, celebrau eben bere Discipulubacaz Afari misterioso bat, eta azquenengua, salduba eta entregauba izango zan gau artan bertan; eta garbitu eusten beren oñac: gau santu, eta afari misterioso onetan artu eben Oguia bere Escu santu eta guztiz poderosuetan; bedeincatu eben; puscatu eben, eta emun eusten bere Discipulubai, esanagaz: artu eguizube, eta Jan eguizube; au da nere Corputza: eta Caliza artubagaz escubetan graciac emun zituban, eta emun eusten Caliz sagraduba Discipulubai, esaten eustela: artu eguizube, eta edan eguizube; cergatic au da Testamentu barrico nere Odola, zeña izango da itzulia pecatuben parcacinoraco ascogatic: eta encargau eusten bere Apostolubai, eguin eguiela eurac ere Misterio au bere acordu edo memorian: modu onetan Jesus maitiac manifestau eben Guizonari eutsan bere fin bagueco amo-

rioa; instituidu eben Meza santubaren miragarrizco Sacrificioa, eta Sacramentu santu Altaracua edo Comuniocua; instituidu eben Sacerdotiaren Ordenaco Sacramentuba, ordenquetan zitubala Sacerdocio santu onegaz bere Apostolubac; eta emun eusten onei escu vidia ordenquetaco beren Sucesore izan biarco euben Obispuac eta Sacerdotiac; onela Lurraren gañian iraun eguian Mundubaren azqueneraño Meza santuco Sacrificioac eta Sacramentu santu Comuniocoac, berac gure amorioz padecitara ioian Criotziaren memorian.

Sacerdotiac egunoro celebraitan dauben Meza santuban consagraitan daube Jesu Christo gure Jaunaren Corputz eta Odol preciosua: Consagracinoco verba santubacaz batera leen Ogui zana iragoten da izatera Jesu Christoren Corputz sagraduba, baña bere Odolagaz, Animiagaz, eta Jaungoicotasunagaz, gueldiquetan diriala bacarric Oguiaren accidentiac Oguiaren izate eta naturaleza bague; nola dirian coloria, usaina, saboria, eta Oguiac oi dituban beste accidente mueta guztiac.

Sacerdotiac Ostiaren gañeco Consagracinoco verba santubac esanic beriala doblaitan dau bere Belauna Lurreraño; eta berac adorauric lenengo Jaun Divinua alzaitan dau miragarrizco Sacramentuba, eta eracusten deuste Meza entzuten dagocen guztiai, adorau daguien eurac ere aren Divina Magestadia; ez ba-

caxxic Meza entzuten dagocenac daucai obligacinua adoraitaco reverencia eta Humildade guztizcuagaz; baita exe alzaitaco Ceremonia sagradu onen demporan presente auxquiquetan dixian guztiac obligaxxic dagoza belaunico jasaxxiric Jaun Diuinua adoraitaza Sacramentu mixagaxxizco onetan, eta postura humilde onetan egotera Sacerdotiac Caliz sagraduba alzaitiagaz acabau axteraño.

Oxobat bada Sacerdotiac Caliziaren gañeco Consagracinoco verba santubac esanagaz batera leen Ardaoa zana iagoten da izatera Jesu Christoren Odol preciosua, baña Coxputzagaz, Animiagaz, eta Jaungoicotasunagaz, gueldiquetan dixiala bacaxxic Ardauaren izate eta naturalezia bagaxic bere Accidentiac, nola dixian Ardauaren usaina, coloxia, saboxia, eta Ardauac oi dituban beste accidente mueta guztiac; eta Sacerdote Meza esaten daguanac berac belaunico lerengo adoraxxic Jesus Diuinuaren Odol preciosua, alzaitan dau Caliz santuban Sacramentu mixagaxxizcua, an presente auxquiquetan dixian guztiac adoratu daquien belaunico reverencia eta Humildade guztizcuagaz Jesu Christoren Odol preciosoa.

Eliza Ama Santac Fedeco puntu exabaguitzat exacusten deuscunagaz conforme Jesu Christo guztia dago Ostia consagrauban, eta bere edoceiñ exe partetan;

eta oxobat Jesu Christo gurtia dago Adao consagrauban; eta Caliz consagrauricaco Odol preciosuaren edocein ere partetan.

Emendic dator, eguroro ofrecitia Meza santuban Aita Eternoari bere Seme Jesu Christoren Corputz eta Odol preciosua, figuraitan dala onetan, Jesus Diuinuac Curutzian gugatic ofrecidu eutsan bere Criotzaco Sacrificio santuba; eta nola orduban Curutzian sacrificau zuna, eta oraiñ Meza santuban sacrificaitan dana Jesu Christo bera dan, argatic Sacrificio bi oneic dira mexecimentubetan cabu baguecuac.

Doctrina onegaz conforme Eliza Ama Santac ezaguquetan ditu Sacrificio mueta bi; bata da Curutze santuban Jesus onac ofrecidu eutsana bere Aita Jaungoicoari itzulten ebela bere Odol preciosua gure pecatuben parcacinoraco Mundutarren vistan, eta sufritan ebela eriotza gure redencinoraco; eta ori dexitza Redencinoco Sacrificioa: bigarrena da Religinoco Sacrificioa dexitzona, (au da) Meza santu eguroracua, zeñagaz emuten deutsagun Jaungoicoari bere culto eta adoracinua; Religinoco Sacrificio au da Redencinoco, edo Curutzeco Sacrificioaren acordu edo representacino vizi bat, zeñaren vitartez Curutzeco Sacrificioaren fruitu eta beneficioac aplicaitan dirian, eta irabazten dirian.

Redencinoco edo Curutzeco Sacrificioa, eta Religinocua edo Meza santucoa diferentiac dira mo-

duban; bada Cruntzeco edo Redencinoco Sacrificioan Jesus Divinoac Mundutarren vistan eta aguirian itzuli eben bere Odol preciosua, eta eguiaz padecidu eben eriotza, eta Meza santuco Sacrificioan ez itzulten dau Odolic, eta ez padecitan dau eguiaz eriotzaric, baicican celebraitan da Cruntzian itzuli eben Odol preciosuaren eta padecidu eben eriotziaren Representacino misterioso bat: baña Sacrificio bi oneic sustancian eta naturalezan bat dira; cergatic Jesu Christo bera da, Cruntzian ofrecidu zana eta Meza santuban ofrecitan dana bere Aita Jaungoicuari, aplicaitan iacula guri Meza santuco Sacrificioaren virtutez Cruntze santuco Sacrificioaren fruitu miragarriac.

Meza santuco Sacrificioaren erru edo fruitubac dira iru: bata da, Jaungoicoaren asserre santuba gure pecatubacatic atzeraqueta, aplacaitia, eta itzunguitia: bigarrena da, Jaungoicoagandic erestia Animaren salvacinoraco premina dituqun graciac eta virtutiac, baita ere Ondasun temporalac Animan conveni dirianac: irugarren fruitua da, guere pecatu parcatubacatic zor doqun pena temporalaren satisfaccinua emutia Jaungoicoaren justicia bardiñari: iru fruitu santu oneicaz conforme da puntu erabaquia Eliza Santan, dala ganza ona eta provechosua, Mezac etaxa edo celebrau eraquitia ala Viziacatic nola Defuntubacatic; eta Jaungoicuac bacoitzari emuten deutsa

Meza santubaren fruitu oneic noberen disposicino, Fede, eta devocinuagaz conforme, izanic berez Meza santubaren merecimentubac fin baguecuac; bada Sacrificioaren aldetic Meza santubaren merecimentuba beti bat da, naiz esan daguiala Sacerdote batec naiz bestiac, diferentiac badira ere Taungoicoaren aurrian Sacerdote oneiñ merecimentubac; eta (gueiago dana) Meza santubac ez dau galtzen bere merecimentutic ezer ere, pecatu mortalian egonagatic Meza esaten daben Sacerdotia.

Sacerdotiac aplicau agatic Meza santubaren frutuba bateri edo bestiari, nola bere merecimentuba cabu edo neurri eta fin baguecua dan, beste Christau Catholicuac etaraten daube beren parte eta porcinua Meza santuaren frututic, batez ere asistitan daubenac Meza entzutera fervore eta Fede vizi bategaz; Ychasotic ascoc ura etariagatic, bacoitzac aldaben gara, orobat gueldiquetan da ur suficientia premina dauben beste guztientzat, modu onetara ere quentaquetan da Meza santuco merecimentubacaz.

Meza santuba entzuteco postuiaren gañian Eliza Ama Santac aguinduric dauca, egon gaitiala belaunico Meza guztian Corputzeco reverencia eta compostura andian; eta ez asco ecusi oi dirian leguez Mezaric gueierian fasiriric edo zuti; baña lenengo eta azquengo Evanjelio santubac esaten dirian vitartian zuti egon biar gara: madarricatuba (diño Profeta santu batec) dala Taungoicoa-

ren obra naguitasunagaz eguiten daben Guizona: esan dan Corputzeco postura au aiquetan da, bere ondo ez, edo indisposicinoren batec escaquetan ez badeutsa postura egoguiagoren bat.

Corputzeco posturiagaz ostian juntauric edo uniduric bere vorondate edo intencinua Meza santuba esaten daguan Sacerdotiaren vorondate edo intencinuagaz egon biar dau. Meza guztian biotz devoto, eta Espiritu atento bategaz: onetaraco consideracinoric egoguiena da, Jesu Christoren pasino santuco pausoren batzuben gañian meditaitia, bere pasino eta eriotza santaren acordu santuracua dan leguez Mezia; eta meditacino onetaraco buru capaza ez daucan, edo devocio onen gañeco liburubac iracurten ez daquian Christaubac ondo entzungo dau Meza santuba Errosarioa errezaubagaz aldaben devocino eta atencinuagaz.

Eguzari egunetan Christaunac cumplitan dau Meza entzuteco obligacinuagaz, Meza entzunagaz edocein Parroquia, Conventu, edo Ermitan Obispo Jaunac aprobauricacuan; ala ere Eliza Ama Santac (gaurco egunian obligacinoric ifini bagaric) encargaitan deuste Christaun guztiai, asistidu daguiela bacoitzac bere Parroquiaco Meza nagusira; eta au principalmente motivo bigatic: bata da, cergatic Meza nagusia, pecatu mortalaren azpian

Meza entzun biar dan, Eguzari egun guztietan esan eta aplicau oi dan Parroquia artaco Christaun guztien oneraco; Christandade guztico Maisubac euracaz daucai carga au, eta Parroquia batzubetan egunorocua daube Maisubac edo Cavildubac carga au: bigarren motivua da. Christaun guztiac entzun eta icasi daguien Meza santu onetan beren Maisu eta Arzainen agotic Jaungoicoaren Legue eta doctrina santuba; argatic nic ere, nere Illoba, len encargau deutsut, izan zaitiala asistentia Meza nagusitara eta Sermuetara.

Sacerdotiac Meza santuco Ostia consagraitaco demporan consagrau leique. Altaran presente daucan beste Ostia guztiac; eta ala consagrau oi ditu Meza santuco Ostiagaz batera Puebloaren Comunioraco, eta Gaisuaren Viaticoraco premina dirian Forma santu guztiac; eta ez da licito Sacerdotiari Ostia oneic consagraitia Meza santutic campora; argatic Sacramentu miragarrizco oni deritzo ia Comuniocua ia Altaracua: eta zein Ostia bat izan, zein milla consagraitan dirianac, baten leguez milletan guertaquetan da, consagracinuaren fuerzan leen Ogui zana iragotia Jesu Christo gure Jaunaren Corputz sagraduba izatera, leen Consagracinuaren gañian verba eguin dodanian esplicauric itzi ditudan bere circunstancia guztiacaz.

Sacramentu santu Altaraco edo Comunioco one-

tan Jesu Christogaz batera dagoza Aitia eta Espiritu Santuba; cergatic Trinidade Santisimoco irur Persona diferente oneic ez dira anquiquetan bata bestia baque; eta Jesus Divinuac izten deutsa egotiari Sacramentu santu Altaracoonetan Oguiaren Accidentiac corrompitan dirarian: au da Eliza Ama Santaren doctrina eta sinistia Christandade guztian Meza santuco Sacrificioaren gañian, eta Santisimo Sacramentu Altaracuen gañian; ala siniztu, eta eracutsi izan dau igualdade eta firmeza guztiagaz, bere Esposo Jesu Christo guac Jaunac bere azquenengo Afari santuban instituidu zitubanetic ona; eta declarau izan ditu Eregetzat doctrina eta siniste onetatic apartau izan dirian eta apartaitan dirian Christaun guztiac.

Eliza Santaren Legue naturaleco lenengo estadubau ecusten da oraingo Meza santuco Sacrificioaren eta Sacramentu santu Altaracuen figura bat; diño bada Escaitura Sagradubac. Melquisedec Salengo Erreguiagatic, ofrecidu eutsala Jaungoicoazi Ogiia eta Ardaua, cergaitic zan bere Sacerdotia eta bendicinua bota eutsala Abran Patriarcari, bere Etsaiac venciduric Triunfante biuatu zanian bere Echera: David Erregue eta Profeta santubac Eliza Santaren Legue escribiduricaco bigarren estadubau claridade guztizcuagaz aiquetara emuten deusku, Melquisedec Sacerdote au zala Munduna etorri biarco eben guac Salvatzalle Jesu Christoren figura edo echu-

ra bat; ara zer diñuan Espiritu Santubaren inspiracinoz, bera ez zan, demporan, guertatuco zirian Misterio santuben gañian: juramentu eguin deutsa Jaunac (bere Semiari) eta ez da damutuco: (esan deutsa) zu zara Sacerdotia Melquisedec (Sacerdotiaren) ordeniagaz conforme eternidade (guztiraco): etorri zan bada Jaunaren Semeau; eta Guizon, eta Melquisedec Sacerdotiaren ordenagaz conforme Sacerdote eguinic bere azquenengo Afari santuban consagrau zituban Oguia eta Ardaua, bere fin bagueco jaquinduria eta poderioagaz convertitan ebela beren naturaleza eta sustancia guztia bere Corputz eta Odol preciosuaren naturaleza eta sustanciara, gueldiquetan ziriala Oguiaren eta Ardauaren Accidentiac bacarric; eta cumpliduric Eliza Santaren lenagoco Legue bietaco estadubetaco Profecia santu bi oneic eta puntu onen gañian escribiduric egozen Profeciaric asco comulgau zituban bere Mai sagraduban egozen guztiac

Jesus Divino onec bere Esposa Eliza Santari emutera ioian Legue graciazco estadu onetan euqui eben asmoric miragarriena izan zan Meza santuco Sacrificioaren eta Sacramentu santu Comuniocoaren institucinua edo fundacinua; eta nola Misterio santu oneic izango zirian aiñ apartadubac gure capacidade eta Sentidubetatic, leenagotic emun eusten bere Discipulubai, instituitaco eta ifinteco gogua eucan Misterio santu onein barri clarubac; ala jaquinian egon zitezen aurraz, eta

instituitaco demporan novedaderic eguin ez eguien; bein batian bada esan eusten modu onetan: ni naiz vizitzaco Oguia; zuben Gurasuac Jan euben Desiertuban Manaa (zeritzon Janaria) eta ill ziran: au da Zerutic Jaachi dan Oguia, onetatic batec Jan ezquero ill ez dedin: neu naiz Zerutic Jaachi naizan Ogui vizia; batec Jaten badau Ogui onetatic vizico da eternidade guztian; eta nic emungo dodan Oguia, nere Araguia da Mundubaren vizitzaraco. (Au entzunic) Judeguren batzubec dificultaitan euben beren artian (esaten eubela); nola onec emundaique guri bere Araguia, Jaateco? (au entzunic) Jesus onac esan eusten modu onetan: eguiaz, eguiaz esaten deutsubet; bardin Jaaten ez badozube Guizonaren Semiaren Araguia, eta edaten ez badozube bere Odola ez dozube euquico vizitzaric zubecaz: nere Araguia Jaten dabenac eta nere Odola edaten dabenac dauca vizitza eternua; eta nic resucitauco dot azquenengo egunian; cergatic nere Araguia eguiaz da Janaria, eta nere Odola eguiaz da edaria: nere Araguia Jaaten dabena éta nere Odola edaten dabena dago nigan eta ni beragan: vialdu ninduban leguez vizi dan Aitac, eta ni vizi naizan modura Aitiagan, orobat ere ni Jaaten nabena vizico da nigatic: Ogui au Jaaten dabena vizico da betico: verba santu oneic San Juanen Evangeliocuac dira: ezin bada aren Divina Magestadiac clarubago moduric ascotara esplicau eiquian guero instituitaco goguan eucan Mis-

terio miragarrizco onein gañeco egui santuba.

Janari Divino au ez da Mundu onetaco beste Janarien antzecua; Munduco Janariac convertitan dira Jaten ditubenen sustancia eta naturalezara; contrara da Comunio santuco Janari mira garri au; bada Animaco estomangu onagaz (au da) estadu graciazcuan, eta gose diriala (au da) ferbore onagaz errecivitan dauben guztiac Janari Divino au gueldiquetan dira convertiduric bere condicino eta naturalezara; eta modu onetan Jesu Christo gure Jaunac Santisimo Sacramentu Altaracuen Janari Divino onen vitartez eguiten gaitu bere espiritucoac, bere humorecuac, bere vorondatecuac eta obedienciacuac, eta amortiguaitan deuscu pecaturaco inclinacinua: Ho! guganaco amorioz zoraturicaco Jaungoico baten Janaria! Aingueruben Jabia eguin zan Guizonaren sustentu, Guizona sustentu onen videz eguin zedin Aingueru; Jaungoicoa eguin zan Guizon, Guizona Janari Divino onen videz eguin zedin (moduren batera esateco) Jaungoico.

Bocadu sagradu onen medioz Eliza Ama Santa conservaitan da bere Esposo Jesu Christoren unio eta amorioan; Santu guztiac eguin dira Santu, consideraitan eubela Misterio santu onetan euracanaco Jaungoicoaren neurri bagaco amorioa, gueldi-

quetan ziriala eurac ere Jaungoicoaganaco amorio izio bategaz abrasauric, eta (esateco modura) aren Divina Magestadiagaz bat eguinic; eta au berau da, gaurco egunian guertaquetan dana, eta emendic Mundubaren azquenerañо guertatuco dana Christaun eguiazcuac dirian guztiacaz; argatic esaten deuscu San Pablo Apostolubac: cergatic Oguia bat bacarra dan, asco gara Corputz bacar bat, Ogui bat bacar onetatic participaitan dogun guztioc: San Agustin Elizaco Doctore Jaquintsuba atrevidu zan esatera, Jaungoicuac izanic guztiz poderosua, Jaquintsuba, aberatsa, eta fin bagueco amorioa bera, ezin gueiago eguin eta emun eiquegula, Sacramentu santu onetan emun deuscuna, eta gugatic eguin dabena baño: ez dago bada ez Munduban eta ez Zeruban Janari Divino au baño senduagoric, eta Zeruco vidiari firmeza guztiagaz Jarraiquetaco obeto indartuco gaitubanic.

Jesu Christo gure Jaunac bada ifini euscun Sacramentu santu Comunioco onen gañian obligacino bi, salvauco baguinian: bata da, Sacramentu Divino au errecivitaco: bigarrena, estadu graciazcuan errecivitaco, ala izan zedin Jesu Christoren vitartez Jaungoicoaganazco gure unioa eguiazcua: Baru naturalian errecibitia, da Eliza Ama Santaren mandamentuba, reverencia gueiagogaz allegau guindecen Jaun Divinoa

exercicitara.

Aren Divina Magestadiac obligacinua ifini euscurian, bera exercicitaco, ez eben señalau zer demporatan; bada puntu au itzi eben bere Esposa eta gure Ama Eliza Santaren discrecinora, eriotzaco orduba apartau ezquero, zeñian obligauric gaozen, Jesus ona exercicitara, bere precepto eta Mandamentu Divinua dala mediante; ala beragaz uniduric partidu gaitian Mundu onetatic, eta Janari Divino onegaz indarturic igo daigun Jaungoicoaren Zerurco Mendi eder eta altu artara.

Eliza Ama Santac, bere Espaso Jesus Divinuac itzi eutsan escu vide, eta autoridadia mediante, ifini deuscu Mandamentu santuba, eriotzaco ordutic camporа comulgau gaitiala urtian bein Pascua Resurreccinocuetan eta bacoitza bere Parroquian: Mandamentu santu onec obligaitan gaitu pecatu mortalaren azpian, eta ez da cumplitan, pecatu mortalian bat comulgaitan darian, bada onelacuac eguingo lituque pecatu mortal bi, bata, cumplitan ez dabelaco bere culpaz Eliza Ama Santaren Mandamentuba, eta bigarrena Sacrilegioco pecatuba, atrevidu dalaco Jaun Divinua exercicitara pecatu mortaleco estadubar; eta ala onelacuac, nola Pascuaco demporа señalau onetan comulgaitan ez diziarac daucai obligacinua aimbat lasterren Jaun Divinua exercicitaco estadu gra-

ciazcuan, plazo señalauban zorra pagaitan ez dabenac aimbat lasterren pagaitara obligauric daguan moduban.

Pascuaco demporiari iragoten izten deutsanac comulgau bagaric bere culpaz, eguiten dau pecatu mortal; dempora au Christandade guztian da Aste santuco Domecatic asi eta Pascuetatic urrengo Domequia irago artian, amabost egun cavalac; emen Obispo Jaunac ordenauric dauca, dempora santu au asi dedilla Aste bat lenagotic (au da) Lazaroco Domecaz, Parroquia bat bacarra dagualaco eta Jente asco; bada Jaquina da, bacoitzac bere Parroquian cumplidu biar dabela obligacino santu au.

Christandadeco lenengo demporetan Christaunac egunoro comulgaitan zirian Meza santuban: devocinua nola otzitubagaz Juan ala Eliza Ama Santac ere emun izan ditu bere determinacinuac; aguindu eben Eguzari egun guztietan Christaun guztiac entzuten euben Mezan comulgau zitezela: au ere otzitu zan; eta aguindu eben, urtian iru bider Christaun guztiac comulgau zitezela (au da) urteco iru Pascuetan: au ere otzitu zan; eta orain bacarric Pascua Resurreccinocuetan dagoza Christaun guztiac pecatu mortalaren azpian obligauric comulgaitara; eta onela dua presentian Mandamentu santu au. Pascua Resurreccinoco demporatic campora obligacinoric egon ezagatic Comunio santuba errecivitaco; zer Christaun eguiazco billatuco da, sarriagotan comulgauco ez danic, eria euqui ezquero, nola

dan Illian bein eta urteco Festividaderic principalenetan, bardin gura badau, Jesu Christogaz uniduric vizi, eta Jaun Divino onen fortaleciagaz sendatu bere Animaco argaltasuna? Ha! sutatic apartau ezquero ura, leen iraquiten beguan ere, berez dator otziquetara; orobat Christauna apartau ezquero neurri bagueco amoriozco Sacramentu miragarrizco onetatic, berez dator otziquetara; bada Misterio santu au da Jaungoicoaren guganaco Amorioz izioricaco Labe gori bat; cerbaitegatic Martiri Santubac aiñ pena eta tormentu fortitzac sufridu zituben, eta gustoz Jesus Divinoaren amorioagatic, cergatic sarritan beroquetan zirian Jaungoicoaren Labe gori onetan, eta cergatic frutuba emuten daben Mats adarra Froncuari itsatsita daguan modura orobat itsaatsi izan zirian Jesus onari Sacramentu Santu Aldareco onetan.

Jesus Divinuac aguindu euscun bigarren puntuba Sacramentu santu onen gañian da allegau gaitiala bera erricivitara estadu graciazcuan; eta ala, comulgau gura daben Christauna, pecatu mortalian sentitan bada, parau biar dau leenago bere Animia estadu graciazcuan Confesino eguiazco baten vitartez

Sacramentu santu Penitenciacuan; bada diligencia au bagaric comulgaitan bada pecatu mortaleco estaduban, eguingo dau Sacrilegioco pecatu mortal icaragarri bat; tragauco dau (San Pablo Apostolubac esaten deuscun leguez) condenacinoco bocaduba; eta izango da bere pecatuba Judas traidoriaren, eta Jesus onaren eriotza Guillien pecatubaren parecua; eta onegaz gañera eguiten dau beste pecatu mortal bat Jesu Christo gure Jaunac pecatu mortalen daguanarieza.

Eguia da: Bautismoco eta Penitenciaco Sacramentu bi oneic apartau ezquero beste bost Sacramentubac escaquetan daube estadu graciazcua errecivitaco demporan; baña particularrian Sacramentu Santu Comuniocuac, esplicau dodan dodan terminuetan; cergatic Sacramentu santu guztietan errecivitan badogu Jaungoicuaren gracia, Sacramentu santu Comunioco onetan graciagaz gañera errecivitan dogu graciaren Jabia bera dan Jesu Christo gure Jauna Jaungoico eta Guizon eguiazcua; argatic emen santidade eta pureza gueiagoaren premina gara.

Esan dot, Bautismoco eta Penitenciaco Sacramentu bi oneic apartau ezquero beste bostac escaquetan daubela estadu graciazcua errecivitaco demporan; cergatic Sacramentu santu bi orrein destino principala da pecatu mortalac parcaitacua, Bautismo santuba, leenagoco pecatu guztiac parcaitacua; eta nola bein ba-

ño gueiagotan errecividu ezin leiquian, andic aurrera eguinicaco pecatu mortal guztiac parcaitaco da Penitenciaco Sacramentu santuba, zeña, eria euqui ezquero, errecividu leique batec, gura daben aldi guztietan; eta ala bat Juan liteque Sacramentu santu bi oneic errecivitara, pecatu mortaleco estaduban daguala, baña biar dirian disposicinuacaz guertaturic, bere pecatuben parcacinua eresteco Sacramentu santu bi onein videz.

Lenengo Christaunen modura orainguac ez dira comulgaitan Meza esaten daben Sacerdotiaren escutic, Meza santuba entzuten dauben guztian, eta Meza santu artan consagrauricaco Forma Sagradubacaz; batzubetan eriac emun oi dau, errecivitaco ala ere Comunio santuba; baña nola gueien bat Sagrario apartac eta parage señalaubac ifinita dagozen Elizetan Comunio santuba administraitaco, Christaunac ara acudidu oi daube comulgaitara lenago consagrauricaco Forma sagradubacaz, contentaitan diriala Meza santuba entzunagaz, Meza entzuten Jasarten dirianian: ala ere, nere Illoba, Meza santuba entzuten dozun guztian erraz eguin daiquezu Comunio santu espirituala, Meza entzuten dagocen guztiac eguitia conveni dan moduban.

Comunio santu espirituala ez da beste gauzaric, baicican enquitia deseo eguiazco bat Jesus sacramentauba exercitaco, poztaitan dala bat bere amorio, vorondate, eta afecto guztiagaz, eguiaz Jaun Divinua exercitatan balen leguez: Meza entzuten zaozanian bada, Sacerdotiac Comunio santuba exercitaco dempoxan unidu edo juntau eguizu zeure Espiritiba eta intencinua Sacerdotiaren Espiritu eta intencinuagaz, viztu eguizu zeure deseoa, Jaun Divinua exercitaco; eta poxta zaite aldoztin afecto guztiagaz, eguiaz zeure Animaco Ostatuban Jaun Divinua exercitatan bazen leguez; eta Comunio santu Espiritual onen medioz exetsico dituzu Jesus onagandic provechu andiac zeure Animaraco.

Eliza Ama Santac pecatu mortalaren azpian aguinquetan deuste Christoun guztiai, baun naturalian juan ditecela Comunio Santuba exercitatara beren vizitzan; bada eriotzaco orduban baun naturalac Jaun Divinua exercitaco ez gaitu obligaitan.

Baun naturala presenteco materian da gabeditic comulgau arteraño ez traigaitia gauzaric dan chiquienic ia janariaren edo edariaren modura; eta ala ausiten da baun naturala au edocein gauza tra-

gaubagaz Janari edo edari modura, bera Jan gauzia edo edari gauzia izan ezagatic, eta cantidade guichian izanagatic: baña baru natural au ausiteco premina dira iru circunstancia; bata, aotic camporaco gaucia izatia: bigarrena, aotic estomangura iragotia: irugarrena, norc berac bere guraz eta vorondatez aotic estomangura iragotia: eguia da; baru naturala ausitiaren gañeco doctrina au ez da Autore guztien iritziagaz conformecua; eta ala puntu onen gañeco duda daucazun guztian, confesaitara zuacenian esan biar deutsazu Confesoriari zeure duda, eta escaturic bere iritzia comulgau ete zindequian edo ez ichu ichuban equin biar dozu esaten deutsunagaz conforme; onela ez dozu utsic equingo.

Comunio santuba errecividu ezquero ascoren erroria da, dala pecatu, baruba ausi baño leenago chuba botatia; ez dago Eliza Santan onelaco Legueric; eta ala aoco orerian loia campora botatia comulgau ezquero eta baruba ausi baño leenago ez da pecatu: eguia da; aconsejaitan da, Jaun Divinua errecividuric andic ordu lauren batian ez dedilla churic bota, Sacramentu Divinoari zor dan reverencia mediante, aren puscaren bat auan detenidu ric balego chubagaz nasi Lurrera Jausi ez dedin; nere contura, Mari gargajuen escriupulu oneic daucain Christaunic ascoc obeto equingo leuquie, guertatuco balira ferbore eta disposicino obiaguagaz Jaun Divinua errecivitaco, enredau bagaric beren Animac onelaco simplezacaz.

Beste Christaunic asco ecusi oi dira, (egunoro ecusi oi ditugun leguez) Comunio santuba errecividuric beriala campora urteten daubela, eta (gueiago dana) Sacerdotiaren bendicino santuba artu bagaric; au Christaunen artian sufridu ezin litequian esquer baguetasuna da; ez zaite bada zu, nere Illoba, orren esquer charrecua izan; baicican, Comunio santuba errecividuric eta Sacerdotiaren bendicinua, para zaite dempora pusquin batian, beguiraquetan deutsazula Fede vizi batequin zeure Animaco Ostatuban eta zeure Entrañetan Jesus onari Aingueruz inguraturic; humildadez eta aren Divina Magestadiaganaco amorioz beteric emun eguiozu graciac, etorri izan dalaco, zu visitaitara azturic eta parcaturic eguin deutsazun ofensa guztiac, zure premina baliz leguez, izanic iñoren preminaric ez daucana: gozatu eguizu bere Espiritu Divinuaren suavidade eta dulzuriagaz zeure Animaco humore donga guztiac: sendatu eguizu zeure Anima argala Jaun Divinuaren fortaleciagaz; onetaraco considerau eguizu, nor zarian; nor dan, zu gana etorri izan dana; eta zer gauzatara; eta zer dan, escaquetan deutsuna: bada pensau biar dozu, erosi zindubala Curutzian bere vizitzaren costuz, eta mantenitan zaitubala zeure Animan bera dan guztiagaz; eta isilchoric atendidu biar dituzu Jaun

Divino onen inspiracino santubac; eta azquenic artu biar dozu asmo firme bat, ez lecuric emuteco aurrera zeure Animan eta biotzian aren Divina Magestadiaren ofensaco gauzari Jaquinian eta vorondatez, ofensa chiquinecua izan agatic ere; cergatic Justua, eta errazoian ifinia da, zeuc, zarian, guztiagaz erostia, bera dan guztiagaz erosi zinduban, eta bera dan guztiagaz mantenitan zaituban Jesus Divinua, ofrecitan deutsazula zeure afecto eta vorondate guztia; baña escatu biar deutsazu humildade eta confianza guztiagaz aren Divina Magestadiari, gogua artu dozun leguez, obraz cumplitaco gracia; eta onen ondoren zuaz bere baque santuban, zeure desaiuno edo almorzuba artzera zeure Espirituco alegranza andian.

Comunio santuba errecivitara doianian, Christaunac orobat Fede vizi bategaz considerau biar dau, zer errecivitara doian, izanic bera pecatari esquer bagueco bat; bada onelaco preparacino eta consideracino santu batzubec ez eguitetic comulgau aurrian eta comulgau ondorian sortzen da ascoren vizitza epela eta Christaunen artian lotsa garria dana: Ha! zeimbat onelaco dagoza gaurco egunian nola soñu ala danza eguiten daubenac; sermuaracuac derautsa, ara duaza: Dambolinac eta Mutil eta Nesca Tropaac bullia daube, ara corrica eta Postaan duaza: Festividade andiren bat danian, esaten daube: gaur egun andia da; Indulgenciac irabazi biar dira confesaubagaz eta comulgaubagaz: iñorc ofendidu baditu, ezin

zucendu dira, ari parcaquetaco: Tabernara eta Errondara ots eguiten deuste, ara duaza: zerbait billaquetan badaube, iñor beguira ez daguala, berentzat jasoten daube: beste batzubec eurac duin Maso, edo Masuago badabiltza, baqueric ez daucai beren ezurracaz, aien mallara igo, edo irago artian: dituben zorrrac pagaitaco ez gogoric daucai, eta ez diligenciaric eguiten ditube: beti darie beren auetatic guizurra, Diabruba, Demonioa, Caquia, Pestia, eta iñoren afrentaco beste onerian esaera asco; eta gueiago dana escrupulo guchi eta diligencia guchiago eguin oi daube emendaitaco: onelacuac bada dira epelac; laster eta erraz jausi oi dira pecatu mortalian; datoza, euquitera precio guichian Comunio santuco Tanari Divinoa, eta pecatu mortalian comulgaitara: au izan oi da batzubetan causa eta motivoa gaiṡoquetaco Corputzian ere, eta dempora baño leenago illteco, San Pabloc Corintioarrai arpeguian emun eusten moduban, beren artian gaiṡotu eta illten zirian ascogatic.

Aren Divina Magestadia Comunioco Sacramentu miragarri onetan (esan danagaz conforme) da bere Pasino santubaren memoria edo acorduracua; da gure Animeen sustenturaco, eta gracia aumentaitaco; da bere Adisquidien Tanaria; da gure Animeen vizitza seculacua; da azquenic Lazo miragarria, gu beragaz amorioz uniduric eta loturic euquiteco, eguiten gaitubala bere Esposa eta Corputz Espiritual dan Eliza Santaren Miembruac, bata bestiaren Senidiac, eta guztioc bere Aita Taungoicoaren Semiac: aprovechau gaitian bada Convite santu onegaz; eta vizi gaitian Jesus onagan Sacramentu santu onen

vitartez, gura badogu, Jesus dulcia gugan vizi dedin; modu onetan santzico gara (San Pablo Apostolubac encargaitan deuscun leguez) Jesu Christogaz, Soñeco bategaz leguez; euquico dogu bere Espirituba; izango gara bere obedienciacuac, bere humore, eta vorondatecuac; eta azquenic Mundubaren azquenian resucitauco gaitu, eternidade guztian iraungo daben vizitza zorionecoraco: onela Jesus Divinuaren bere Aitaganaco obedienciatic sorturicaco Bocadu miragarri onec viurtuco deuscu eta emungo deuscu ventaja gueiagogaz gure lenengo Gurasuac Paraisuan beren desobedienciaco bocadu tristiagaz galdu eraguin euscuben Seculaco vizitza eta zorionecotasuna: detenidu naiz asunto onetan ustebaño gueiago; ala ere utsa da esan dana, merecidu daben alderaco: guacen orain beste puntu batzubec jotera.

Bein baño gueiagotan esanic itzi dot, Obispo Jauna eta Sacerdotiac diriala Apostoluben Sucesoriac: emetic ez dozu pensau biar, nere Ylloba, Obispuac eta Sacerdotiac diriala Eliza Santan potestade eta escu vide igualecuac: Obispo Jaunac dira bacoitza bere Obispauban betez betecian Apostolu santuben Sucesoriac, Eliza Santa gobernaitaco premina dan, auto-

ridade guztian; eguia da, baliau biar dira escu vide eta autoridade onegaz Eliza Ama Santac bere gobiernu oneraco ifiniric daucan Legue eta disposicino santubacaz conforme, eta ez dira gracian confirmaubac, pecatu mortalian Jausi ezin ditezquian moduban, Espiritu Santubac bere etorrera gloriosuagaz confirmau zituban leguez bere gracian Apostolu Santubac: eta ala Obispuac bacarric daucai votua Eliza Santaren Junta edo Concilio santubetan; eurac bacarric daucai potestadia administraitaco Sacramentu santu Ordenacua Elizaco Ministro izan biar dauben guztiai, eta Sacramentu santu Confirmacinocua Christaun fiel guztiai; eta celebraitaco, Consagracinua eta Bedeincacinua escaquetan dauben, aparteco funcino batzubec: Sacerdotiac barriz dira Apostoluben Sucesoriac laburtasun gueiagogaz; bada, Obispuen autoridadiaren gañian apuntau ditudan, gauza oneitaraco escu videric ez daucai, eta Eliza Santaren gobiernuban ere ez daucai potestade eta autoridade gueiago, beren Obispo Jaunac Eliza Santaco Leguiacaz conforme emun gura deustena baño.

Guere Religino santuban ditugun Leguiacaz conforme obligauric gaoza egercitaitara sarritan, Bautismo santuban errecividu guituban Fediaren, Esperanciaren, eta Caridadiaren iru virtute Divino eta Sobrenatural oneic,

eguiten dituzula bezen actuac, eta obligacino au da pecatu mortalaren azpian; cergatic Jaungoicuac ez deuscu emun ixu virtute santu oneic, alperric eta sepultauzic euquiteco, baicican euracaz baliauzic Zeruba ixabazteco, eta bere Divina Magestadiagaz unitaco: baña ez dago, zer escrupulubetan santu puntu onen gañian, cumplitan ete dozun edo ez obligacino onegaz; bada acto Contricinocuan eta Paternosterrian egercitaitan dira ixu virtute santu oneic; eta ala eguiaz eta biotz osoagaz esan ezquero acto Contricinocua edo Aita guriaren oracinua, cumplitan dozu obligacino estu onegaz; baita Gedua esanagaz ere eguiten dozu acto Fedeco bat: eguia da, ixu virtute onein actuac claridade gueiagoraco ifinirie dagoza aparte doctrinaco Castillan.

Christandadeco Legue santubac obligaitan gaitu ere pecatu mortalaren azpian, obedecitzera Munduco Emperadore, Errege, eta Principiai, onein bendeco Juez guztiai eta Errietaco Alcateric dan chiquirenai, Jaungoicoaren Legue eta Religino santubaren contra ez dan guztian dongac eta gauztiac balixa ere onelaco Aguintaziac: bacarric licito dana da, Juez basu baten sentenciatic apelaitia exespeto guztiagaz aren gañeco Juez nagusiagana, contentu ez gaudenian, Juez basubagac emun daben, deter-

minacinuagaz, pensauric, eguin deuscula insusticiaren bat, voxondotezcua ez bada exe.

Pecatu icaragarria izango lizateque onelaco Aguintarien contra, dongac izanagatic exe, Machinadac sasotia, eta Machinuai lagunquetia; cergatic guxe obligacinua da, guexe Aguintariai obedecitia pecatu ez dan gauzan; Apostolu San Pabloc eracusten deuscu doctrina santu au: Anima guztia (odiño) egon bedi Potestade altubenen obediencian; cergatic ez dago Potestaderic Jaungoicoagandic baño: (Munduban) ordenauta dagocen gauza guztiac, Jaungoicuac ordenaubac dira; eta ala, Potestadiari resistitan deutsanac, Jaungoicoaren ordenamentubari resistitan deutsa; beraz Jaungoicoaren ordenamentubari resistitan deutsanac, berac bere Burubarentzat izabaten dau condenacinua: argatic egon zaitezte Aguintarien bendian ez bacarric onein asserniaren bildurrez baita exe (zeuben) Concienciagatic: ez dogu exe lizito goxoto enquitia, Aguintari dongai, eta venganza artzeia guexe escuz. Icusi dituzu, nere Moba, Machinada negar garrizco oneic Franciaco Errein guztian, Españan exe bai guexe ateetan Vitorian eta Vilbaon; beñere bada ez eguizu parteric axtu onelaco Machinadetan, guichiago exe iñori artuaco consejuric emun;

eta bai, Jaquingo bazeu besteren batzuben asmuac Machinadaraco, (obligauzic auzquiquetan zarian leguez zeuze Conciencian) azpitic emun biar dozu contu conveni dan Lecuban, ataJau dedin demporaz gaitza, baliatan zariala artaraco zeuze Confesore, Maisu, edo beste Guizon discretoren bategaz.

Ez bacarric bada gaoza obligauzic obedecitara apuntauzic itzi dodan moduban; baita ere obligauzic gaoza exeguquetara Jaungoicuari (esan ditudan) Dignidade eta Gradu altubetan dagocen guztiacatic (quere Religino santuco Legueac obligaitan gaitube beste puntuzic ascotara, zeñac (guztiac ezagatic) zuze estadubagaz conforme eta vizi modubagaz egoguienac dizanac esplicauco ditut ondoxengo Fratadubetan, labur izango bada ere.

Guizonaren azquen Fina

Guizonaren azquen Fina da, Zerubetan Jaungoicoaren azpegui edesia eternidade guztian gozaitia Aingeru leialen compañian: Trinidade Santisimoaren presencian bada ain edertasun andiagaz ingiratuzic auzquitoco dira Bienaventuradubac, nun Guzquiaren parecuac izango dira edertasunian, Jesus maitiac bere Evan-

gelio santuban. aiquetara emuten deuscun modu-
ban: Iustuac (diño) beren Aitiaren Erreinuban dist
eguingo daube Eguzquiaren antzera: edertasun
onen moduracua zan, berac ere manifestau eusten
Zeruco Gloriaren iduripena edo semejanza Mendi al-
tu baten bere iru Apostolu San Pedrori, Santiagori, eta
San Iuan Evangelistari, beren vistan transfiguran za-
nian; bada beinguan bere Arpegui santuba aguertu
zan Eguzquiaren antzera resplandorez beteric, eta
bere Soñeco erropia Edurra duin zuria: onetan ai-
quetara emuten euscula guztioi, vizico guiñiala Ze-
rubetan modu artara edertasun guztizcuagaz Iant-
ziric, eta Corputz eta Anima izango guiñiala eterni-
dade guztian Aingueruben antzecuac; bardin emen
vizi garian bitartian empeñaitan baguiñian bere
graciagaz batera bere vorondate santuba cumpli-
tan: bai, nere Illoba; Christaun Catholico guztioc egui-
ten dogu Corputz Espiritual bat; Corputz onen Bu-
ruba da Iesu Christo gure Iauna, eta gu gara Cor-
putz onen Miembruac Iesu Christoren Espiritubа-
gaz animaubac; beraz gure Buru Iesu Christo Mun-
duban vizi izan zan modura gu ere vizi bagara, oro-
bat, bere antzera resucitauric, vizico gara ere bere ant-
zera eta bere compañian eternidade guztian Gloriaz
e[illegible]dertasunez Iantziric.

Zorionecua bada izango da egun ura, zeñian Jaungoicoaren fin bagueco Claridadiac eta edertasunac inguratuco gaitubanian alde guztietatic, eta atravesauco gaitubanian barrutic eta campotic, eguiten ditubala beste aimbeste Eguzqui eder, zenbat Bienaventuradu dagozen Zerubetan.

Mundu zabal onetan aiñ urrinetic argui eguiten daben Eguzqui bacar batec aimbeste arguitasun zabalquetan badau; nolacua izango ete da Zeruco arguitasun ederra Jaungoicoaren presencian eta aimbeste millue Eguzquien vistan, zeimbat millue Bienaventuradu dagozen? Ho! eta zein Egun gloriosua izango dan eternidade guztian iraungo daben Egun au! egun bacarra, zeñari ez darraiquion gauric eta biarco egunic; zeñian sentitan ez dan otzic eta beroric, ez neguric eta tempestaderic; eta zeñian Jaungoicoaren arpeguico Claridade ederra azpico Lañuac beñere estalquetan ez dauben.

Egun eder eta zorioneco au gure gañian zabaldu dedinian cumpliduco da gugan, David Erregue eta Profeta santubac esaten eutsana Jaungoicoari: zure arguitasunian ecusico dogu arguitasuna: orduban virtutetaco Javiaren Ciudadian ecusico ditugu dirian moduban Fede santuco Misterioac, emen entzun eta sinistu ditugun leguez.

Ho! eta zein gloriosua dan Erreinu a, zeñian erreinaitan dauben Jesu Christogaz batera Bienaventuradu eta Santu guztiac! ez daucai batere quezcaric Lapurrac ostuco deustenic daucain dicha; ez daucai ere bildurric, Diabrubac gueiago tentauco ditubanic: millueca dira Erreinu eder artan dagozenac Anra eta Guizon, Nacino eta Lenguage guztietacuac, contau ezin litezquian gara, San Juan Evangelistac esaten deuscun moduban.

Erreinu eder artan ez dago iñor gaiñoric, ez cojoric, ez mancuric, ez ichuric, ez gorric, eta ez muturic, ez zarric eta ez umeric, ez tontoric, ez pobreric, eta ez billaunic; guztiac Ainguerruben antzeracuac, cabalac eta perfectuac, eta edade batecuac; guztiac Jaquintsubac, aberatsac, eta onradubac; eta, gueiago dana, guztiac beti contemplaitan daube Jaungoicoaren fin bagueco eguia, eta amaitan daube bere fin bagueco Ontasun bacarra; guztiac atravesauric eta inguraturic alde guztietatic Jaungoicoaren ondar bagueco amoriozco Ychaso agaz amaitan daube aren Divina Magestadia beren Burubac baño gueiago, eta alcar amaitan daube Jaungoicoagan beragan, batac bestiaren imbidiaric ez daucaila, baicican alegraitan diriala batac bestiaren dichiagaz bere dicha propioa balizan leguez: eta vizi modu zorioneco onec ez

ditu cansaitan beñere Mundu onetaco guezurrezco dicha eta contentubaren modura, zeñac lograu arteraño asco deseau oi dira, eta lograu ezquero ez daube emuten uste zan contentu eta atseguintasunic, eta bai afliccino eta cuidadu andiac, eta gueiaguen deseoa: verba guichitan esatiarren Zeruco vizi moduba, an dago eriotziaren bildur bagueco vizitza Seculacua; an guztiac diferencia, disputa, eta pleito bagaric daucai beti pensamentu bat eta gura izate bat; eta andic igues eguiten dau dan sentimentu eta disgustoric chiquinenac, eta contrara gusto, alegria, poz, eta contentu mueta guztiac dagoza tristuriaren batere mezcla bagaric.

Eguiaz bada aberatsac izatia gura badogu, amau daigun aberastasun eguiazcuac, eternidade guztian Zeruban iraungo deuscubenac galtzeco batere bildur bague; ez daigun itsatsi guere biotzac Munduco aberastasun laburrai, zeñac irabaci oi diran neque andiaren costuz; irabazi ezquero izan oi dira milla cuidadu eta susto emutecuac; eta azquenic eurac dempora guchi barru desamparaitan gaitube; valia gaitian bai euracaz Jaungoicoaren vorondatiagaz conforme, galdu ez daigun eurac mediante Zeruco aberastasun eguiazcuac eta eternuac.

Guizonaren lan bacarra emen Lurraren gañian da, azquen Fin santu au logaitia: ala aiquetara emun eutsan Jesu Christo gure Jaunac Santa Maria Magdalenaren Aizpa zan Santa Martari, euben Echian convidaurric eguan ocasino baten; Santa Marta ebillen batera gira bestera gira, bere jana guertaquetan fatiga andiagaz, Emacumiac onelaco estu ondubetan ibilli oi dirian leguez, eta bere Aizpa eguan ezer ere eguin bagaric, escuba escuben gañian ifiniric aren Divina Magestadiari begira, eta guztia abrasaurric Jesus Diviñagañaco amorio santu, suave, eta dulciagaz; Santa Martac ecusi ebenian bere Buruba aimbeste fatigagaz, eta bere Aizpa ez zala movitan batere laguntasunic eguitera, quejau zan aren Divina Magestadiari, eta esan eutsan modu onetan: Jauna; ez daucazu cuidaduric, nere Aizpac bacarric itzi nabelaco, lanac eguiten? esan eguiozu bada, lagundu deidala: eta Jesus maitiac erantzunagaz esan eutsan: Marta, Marta, larregui cuidadosa zagoz, eta turbaitan zara gauza guztiz ascoxi beguira: azquenic gauza bat bacarra da necesarioa; Mariac escogidu dau partiduric onena, quenduco ez deutsaina: au bereau aiquetara emun eben Mundutarrac daucain janaren eta

Jantziaren cuidadu larreguiaren gañian eguin eben Sermue baten acabaeran, esaten ebela modu onetan: billatu eguizube bada lenengo Jaungoicoaren Erreinuba.

Bai, nere Illoba, Guizonaren lan guei bacarra Mundubaren gañian da, premina dan gauza bacar onen billa ibiltia (au da) Jaungoicoaren Erreinubaren billa, eta beste gauza guztien billa baño lenago: egui santu onegaz ez dau aztu biar Christaunac, vizi dan dempora guztian; argatic Apostolu San Pabloc ere encargaitan deuscu, billatu daigula gorutz dagozen gauzac, nun daguan Christo Jasarriric Jaungoicoaren escumatatic; gustau daigula, edo billatu daigula gorutz dagozen gauzen Jaquinduria, eta ez Lurraren gañian dagozen gauzen Jaquinduria: Zeruco Bienaventuraduben artian dagoza edade, oficio, eta Estadu guztietaco Personac; eta ala Guizonaren lan guei bacar au bacoitzac billatu biar dau bere Oficioan eta bere Estaduban; bada Estadu eta Oficio guztiac dira egoguiac onetaraco batez ere Necazarien Oficioa, guero Necazaritzaiaren gañeco trataduban esplicauco dodan leguez: firmeza guztiagaz sinisturic vizi biar dau Christaunac, Infernuco betico Labe gori zori gaiztocua izango dala bere destino eternoa, bardin vizi ez bada Jaungoicoaren gustora, eta au mediante uts eguiten badau bere azquen Fin zorioneco au.

Besteri eguiten dan ofensa eta infuria, izan oi da ofendiduzic eta infuriaduzic gueldiquetan dan Personaren condicino edo calidadiagaz conformecua; Persona basu bateri eguiten dan infuria chiquiagua da gradu igualian, errespeto andico Persona bateri eguiten dana baño; eta zembat gradu altubagocua dan Persona infuriaduba, aimbat graviagua da ofensa, edo infuria, eta bere satisfaccinoraco escaquetan dau gravedadiagaz conforme merecimentu igualeco paguba; eta ala Persona comun bateri bere igualeco batec emuten badeutsa belax ondoco bat, gauza guchigaz satisfaccino emungo deutsa eguin deutsan infuriagatic; baña bardin onec beronec emuten badeutsa Errequeri belax ondoco au, infuria onen gravedadiagaz conformeco satisfaccinoric ez dau emuten, Berduquen escubetatic eriotza padecidubagaz ere.

Jaungoico guzc Jauna fin bagueco andia santuba, ona, eta perfectua da; guzc lenengo Guraso ac Paraisuan desobedienziaco pecatubagaz ofendidu euben gravemente; ofensa au, eta onen ondoren go Mundu onetaco ofensa grave guztiac daucai fin bagueco malicia Jaungoico ofendidubaren aldetic; eta pecatu onein maliciagaz conformeco satisfaccinua Jaungoicoari emun bagario imposible zan Guizonac logra-

itia, pecatuba mediante galduric eucan, bere azquen Fin santu eta zoriioneco au.

Guizona berez ez zan capaz, emuteco Jaungoicoari, ofensa onein fin bagueco gravedadiac eta maliciac escaquetan dauben satisfaccino moduric; eta ala condenauco zan eternidade guztiraco Ainguru pecatari eta Desertoriacaz batera; bardin Jaungoicoaren Semia ofrecidu ez baliz bitartecotzat Guizonaren eta bere Aitaren artian, obligaitan zala emutera aren Divina Magestadiari Guizonen pecatu guztien satisfaccino guztiz cabala eta ugaria; ofrecidu zan bada, berac gura izan ebelaco (Isaias Profeta santubac diñuanez) lan guei pisu onetara.

Emendic datoz, Guizonac bere culpaz galdu eben azquen Fin santu au logratuaco, izatia bitarteco eta medio bacarra Jesu Christo gure Jauna eta Redentoria, Jaungoicoaren Seme vicia eta bacarra, Jaungoico eguiazcua, eta eguiaz Guizon eguin zana, gu redimitiaren guere pecatubetatic eta Diabruba ren bendetic; eta guri nola vizi eraciustiaren.

Fin bagueco santuba zana aguertu zan Munduban Pecataren figuran eta Pecataren antzeco Soñecuagaz estalduric (cin da) Guizonaren Naturalezia gaz Jantziric; eta Berduguac pillostu eubenian, zati-

quetaco Columnan bere Aragui inocentiac, eta guero berriz, Cruutze santuban buadinaz Iosuic vizitza guentzeco, inguratu euben guere pecatubac, eta onein gañeco bere Aita Jaungoicoaren Justicia zorrotzac zatitu eta puscatu zituban bere Aragui inocente eta santubac, afrentaz eta tormentuz bete eben, eta itzi eben Guizonaren figura bagaric, eta azqueric quendu eutsan vizia, modu onetan guelditu zedin Guizona bere pecatuben erropa dolorezco au bagaric; eta aplacauric Jaungoicoaren gure pecatuben contraco Justicia eta venganza Jantzi quindecen, bere Seme Jesus onac irabaci eta erosi euscun Inocencia eta Santidadeco erropa zuriagaz: bai, nere Yloba, au eta ez beste gauzaric aiqueta-ra emuten deuscu San Pablo Apostolubac, encargaitan deuscunian: Jantzi zaitezte Jesu Christogaz.

Bere Aita Jaungoicoac bada bialdu eben Mundura, Diabruubac Guizonari equin eutsan caltiac, eta eraquin eutsan obra madarikatubac deseguinquetara; eta, izanic bere Seme propioa ez eutsan parcatu, guri parcaquetiarren, eta bere Semien Dignidadia galduric gueucanoc bere Seme adoptivoac equiaz equitiarren, eta bere Semiac deitubac izatiarren: batere pecaturic ez eucana cargau eben gure pecatubacaz, eta bota eraquin eutsan bere sorbalda

gañera, gure sorbalda gañetic quentzeiarren peca-
tuben carga pisu au, eta gu beragan eguin guinde-
zen Jaungoicoaren Justubac eta Adisquidiac: Ho!
pecatubac gure Animetan eguiten daben calte eta er-
ruba! eta zeinaguirian daguan Jesus maitiagan!
berac esan eusten leguez Calvarioraco vidian ecusi
zitubanian Jerusalengo Emacume batzubec bere er-
ruquiz negarrez: Jerusalengo Alabac, (esan eusten)
ez eguizube gura, negar eguin nire gañian; baicican
negar eguizube zeuben gañian eta zeuben Umien ga-
ñian; cergatic (zuben pecatubac nere Guizatasuneco
Egur berde onetan onela eguiten badaube; zer guer-
tatuco da pecatubacaz igarturic daguan Egurri-
an? Jesu Christo gure Jauna (Evangelio santuban
berac diñuan leguez) da, guc sinistu biar dogun Eguia,
Jarraitu biar dogun Vidia, eta billatu biar dogun
guere Animetaco Vizitza: beragaz Jesu Christo, gra-
cia mediante, ez daucan Christaunac ez Eguiric,
ez Videric, eta ez Vizitzaric dauca, baizican guztia
galduric dabil; eta ala, nere Illoba, gura badogu, Je-
sus Divino au gugaz vizi dedin, apartau daigun,
berac bere vizi lecuban (au da) guere Animetan gor-
roto dituban, pensamentuzco dan pecaturic chiquine-
netic asi eta andietarañoco guztiac; eguin daigun al-

ditugun obra on guztiac, berari eta ez Mundutarrai gusto emuteco intencinuagaz, eta onetaraco premina dogun bere gracia santuba eresteco, erregutu biar deutsagu aren Divina Magestadiari perseverancia, humildade, eta confianza guztizcuagaz; eta onetaraco acudidu biar dogu Sacramentu santubetara, zeñac dirian Jesu Christoc destinauric daucan Ituzziac, gure Animai errepartitaco bere gracia santubaren ur suavia eta gozua, batez ere Sacramentu santu Altaraco edo Comuniocoa, nun manifestaitan daben aren Divina Magestadiac, gugaz unidu eta vizi izateco daucan deseo neurri baguecua; modu onetan portaitan bagara, Jantzico gara Jesu Christogaz, Soñeco erropa bátegaz leguez San Pablo Apostolubaren encargubagaz conforme: arrimau gaitian bada Jesus Divino onegana; Jantzi gaitian bere virtute eta inocenciaco Espiritubagaz, Sacramentu santuben vitartez guere pecatubetaco Soñecua gugandic botaten dogula; eta onela Jesu Christoren vitartez eta medioz lograuco doguguere azquen Fin zorionecua.

Bai, nere Illoba, Fin santu onetaraco Jaioguinian; eta Fede santuco puntuba da, Jaungoicoaren vorondatia dala, Guizon guztiac salvau ditezen; gura, ez dabela Pecatariaren eriotza eternua (au da) conde-

nacinua, baicican convertidu dedin, eta vizi dedin (au da) salvau dedin: Fede santuco puntuba da, Ainguerubac Zeruban gueiago alegraitan diriala eguiazco penitencia eguiten daben Pecatari baten gañian laroqueta emeretzi Justoren gañian baño: Fede santuco puntuba da, Jaungoicoari bere fin bagueco poderio guztizcuan gueien costa izan iacona, Guizon pecatariaren salvacinua dala: Fede santuco puntuba da, Guizona Jaungoicoaren gracia santubaren premina dala, bere azquen Fin zorionecua lograitaco obra onen vitartez; Guizonac libertadia mediante bere escuban daucala, Jaungoicoaren gracia santu oni bere biotzian lecu emutia, baita ere gracia santu au menospreciauric gaizqui vizi izatia: Fede santuco puntuba da, iñor ez dala Jaungoicoaren aldetic galduco, bere aldetic dan guztia eguiten badau: Fede santuco puntuba da, Pecataria izango dala arrapauba Infernuco Calabozuetaraco bere escubetaco obra dongacaz eguiniqaco Saretan, eta pecatu mueta guztiac ichico deustela beren Eguilla Pecatariai aoac, escusa eguiazcoric emun ezingo dauben moduban, condenaitan dituban, Jaungoico Justo eta artezaren contra (aurrian); eta Zeruban Bienaventuradubac Jaungoicoari eternidade guztian vorondatez emungo deutsain le-

guez honra, gloria, eta alabanza, orobat Condenaubac gura ez daubela, beren tormentu eternuacaz Jaungoicoa glorificau, onrau, eta alabauco daubela; Malechoriac beren Carceletan, Berduguben escubetan, eta Vrcamendietan ondo dirudie, eta alabaitan daube beren castigubacaz beren Erregue on, eta Justubaren gobiernu prudentia, merecimentu Justoacatic empleo eta Dignidade altubetan ifiniric dagocenac alabaitan dauben leguez: au guztiau guere Fede santubac ala eracusten deuscu; guacen orain azquen Finaren gañeco sallari Jarraiquetara.

Azquen Fin santu au lograitaco Jaioac garian leguez, Jaungoicoac onetaraco emun deuscu bacoitzari Anima bat bere semejanzara, ilcorra ez dana, bere iru Potenciacaz, zeñac (ondo daquizun leguez) dira Memoria, acordau gaitian Jaungoicoagaz, bere beneficio eta mesediacaz; Entendimentuba, ezagutu daigun Jaungoicoa eta pensau daigun beragan; eta Vorondatia, amau daigun aren Divina Magestadia gauza guztiaz gañian, fin bagueco Ontasunadan leguez, eta beragatic Lagun Progimo guztiac, dongac eta guere Etsaiac izan agatic ere: onetaraco emun deuscu Corputz bana bere bost sentidubacaz, guztiacaz servidu daigun aren Divina Magestadia: onetaraco eguno-

xo eta instante oro aquinquetan deuste bere Guiatua guztiai, servidu deiguben; eta azquenic onetaraco emuten deuscu Ainguru Guardaco bana, gu gordetaco, eta bialquetaco guren Animetara inspiracino santu batzubec, bacoitzac, bere estadubagaz conforme dituban obligacinuac, cumplitaco.

Fin santu onetaraco Jaungoicoac Bautismoco Sacramentu santubaren vitartez parcatu euscun pecatu originala, alistau eta artu quinduban bere Semetzat, emun euscun Fediaren, Esperanziaren, eta Caridadiaren ixu virtute sobrenatural eta Divinoac; sendatu quinduban Sacramentu santu Confirmacinocuaren vitartez, Bautismuan artu gueben, Fedian; ecarri gaitu bere ezagupera santuxa; pecatu mortalagaz galdu dabenari Bautismo santuco gracia paraitan deutsa Sacramentu santu Penitenciacua, biar dan damutasun eta disposicinuagaz execividu ezquero, biurtu dedin, galduric daucan, estadu graciaz cora, eta berriz alistau dedin bere Semetzat; onetaraco ere Jesus Divinuac Mundutic partidu baño lenago guxa izan eben gueldiquetia gugaz Sacramentu santu Comuniocuan, Mundubac dixauban vitarte guztian gure Animeen sustentu eta senda gaitzat, gu bere humoxeco, voxondateco eta antzecuac eguitiaren; onetaraco itzi eus-

cun Sacramentu santu Extrema Vncinocua gure Animeen garbitasun eta alivio gueiagoraco eriotzaco peligruzco gaisotasunian, baita ere Corputzaren osasuneraco, conveni bada: azquen Fin santu onetaraco itzi euscun Sacramentu santu Ordenacua, izan zitezen Ministruac Eliza Santan bere gobiernuraco, eta aumentu espiritualeraco, eta Meza santuco Sacrificioa celebraitaco; eta azquenic fin santu onetaraco emun eutsan Matrimonioari Sacramentubaren Dignidade altuba, onen graciaren vitartez euqui daguian Eliza Santac bere aumenturaco gueiac eta materialac, baña guei eta material ondo moldaubac eta bezaubac, crianza ona emuten deustela Gurasuac beren Vmiai.

Ea bada, nere Ylloba, pensau eguizu biotz guztitic, guere Fin santu onetaraco vide zucena uts eguinda guacela, aprovechaitan ez garianian Jaungoicoaren gustora, apuntau ditudan, bere medio santubacaz, eta empleaitan ditugunian guere Anima bacar onen, esan ditudan, iru Potenciac, eta Corputzaren bost sentidubac, esplicau dirian, beren destinuetatic campora: bai, bai; vide zucena uts eguinda guaza; eta leenago edo gueruago onelacuac erraz sartuco dira Condenacinoco vidian; eta, gauza lastima garria dana, norc berac batere utsic eguiten da-

bela uste ez daben videtic.

Condenacinoco vidia da guztiz zabala, eta asco duaza vide onetatic; cergatic dan gustuetaco vidia, (au da) guere Pasino dongac eracusten deuscuben gusto donguetaco vidia: baña Zeruco videtic nola caminau biar dan aldapia gora (au da) guere inclinacino charrac ucaturic, eta beti onei atzera eraguiten deustegula, argatic guichi duaza Salvacinoco vide zucenetic, eta gueienac condenaitan dira; au ez da nic asmauba; Jesu Christoc berac dauca esanic bere Evangelio santuban; argatic ere aseguraitan deuscu Evangelioan bertan, Zerubetaco Erreinubac padecitan dabela fuerza, eta anchiquetan daubela, fuerza eguiten daubenac: eta errazoiagaz; cergatic ez dago Salvacinoric, atzera eraguin bagaric pecaturaco inclinacino donguiari, eta inclinacino donga oni su emuten deusten Etsaiai, orain esplicaitara noian moduban.

Animaco Etsaiac

Anima gaiṡoac emen Lurraren gañian iru Etsai ditu, bere contra guerran dabiltzenac, tentaitan daubenac, eta bere azquen Fin santuco vide zucena

galdu eraguin gura deutsainac: oneic dira Diabru-
ba, Munduba, eta Araquia.

Diabruba

Diabrubac bada tentaitan gaitu pecatu
mueta guztietara, ia berac bacarric, ia artzen ditu-
bala bere Laguntzat Munduba eta Araquia, ase-
guraitiarren obeto bere victoria; Cazadore guztiz
diestua da; urrinetic paratitan deutsa Christauna-
ri bere lazuac, eta gueien bat bere gustoco gauza-
caz, eta golpe seguruba eguiten dau Christaun des-
cuidadu, epel, eta satisfechuen artian.

Apostoluberi Principe eta Buru San Pedro
gloriosuac peligru eta lazo oneitatic gu libraitiar-
ren modu onetan aurisaitan gaitu: Anaiac (izen one-
gaz comprenditan ditu Christaun guztiac) Anaiac,
izan zaitezte moderadubac; eta egon zaitezte alerta;
cergatic zuben Etsai Diabruba dabillen inguruban Lese
amoriatu baten guisara, nor tragau aldaiquian billa; egui-
ozube resistencia, fuertiac (mantenitan zariaila) Fedian:
Eliza Ama Santac ordo imprimiduric eta Josiric gueldi-
tu dedin aviso aiñ importante au bere Seme eta Alaba
guztien biotzetan, Altaraco bere Ministro nagusi guztiai
arrasaldeoro ifinten deuste beguien aurrian, errezau bia
dauben Completetaco Oficio santuban, zeñac bere asipe-

na artzen dau aviso importante onetatic, modu onetan descuidadu ez ditezen bere Ministro santubac, eta onein vitartez aviso santu au izago eta josi dedin firmeza andiagaz Christaun fiel guztien biotzetan, oneic ere contuban egon ditezen beren Etsai madarikatu Diabrubaren aldetico Lazo tramposo eta peligrosoen gañian.

Beraz gure Etsai Diabruba ain cazadore diestua bada, arma guztiz firiac, delicadubac, eta gugandic excutatubac ditu: ez dauca zer eguinic Christaun maldiciente, ordi, exiotza guilla, Lujurioso eta Lapurrac dirianacaz, ez da ere Eliza Santatic campora vizi dirian Judegu, Grege, eta Jentilacaz; bada oneic guztioc bere berdian dauca: bere mixa guztiac ifinten ditu, nundic Zeruraco vidia galdu eragungo deusten Jaungoicoaren bildur santuban vizi gura daubenai; eta onei, bacoitzac zer inclinacino, edo jenio descubritan daben, andic paraitan deuste beren gusto andico zebuagaz anu guztiz excutatubac, eta disimulaubac: zer erremedio dago bada, Diabrubaren lazo delicadu eta peligroso oneitatic igues eguiteco? ondo daquizun leguez, Aita Astetec bere miragarrizco doctrinaco Cartillan bi erremedio apuntaitan ditu: oneic dira Oracinua eta Humildadia.

Oracinua

Oracinua eta Humildadia dira Senide bi aiñ ondo alcar artubac, nun ezin aurquitu dirian bata bestia bague; eta aiñ indartsubac, nun venciduco leuquie Infernuco Diabru guztien poderioa, beinguan junto baletoz ere bat tragau guraric; Oracino eguiazcoric ez dago Humildade bagaric, ez da ere Humildade eguiazcoric Oracino bagaric: eguiaz norc berac falta eguiten deutsan gauzaren bat lograuco badau daucanagandic, escatu biar deutsa Humildadiagaz, bardin zor ez badeutsa; zergatic iñorc ez dau ecusi gura Pobre sovervioa, guchiago Jaungoicoac; bada diño, Mundu onetan gorroto dituban iru gaucetatic bat dala Pobre sovervioa: onelacuac socorru guchi izango dau; eta contrara bat eguiaz humilla bada, eta preminan badago, laster juango da, bere premina socorridu aldaiquiagan Personiagana, Humildadiagaz presente eguiten deutsala bere necesidadia, eta suplicaitan deutsala socorruba: aiñ Senide ondo alcar artzen daubenac dira Oracinua eta Humildadia, zeñac dira Armaric egoguienac vencitaco Diabruba gueren Animetaco Etsai sovervio, arlote, eta guzurtia.

Mundu onetan Pobriac edo zegaz manteni-
du ez daucainac daucainen ateetara duaza, zegaz
mantenidu billaquetara escavidiaren vitartez: oro-
bac guc ere acudidu biar dogu Jaungoicoaren aurre-
ra, eresteco beragandic Oracinuaren vitartez gueren
Animetan premina ditugun virtutiac eta graciac;
zergatic guerez ez daucagu beste gauzaric pecatu-
ba eta pecaturaco inclinacinua baño, Eliza Ama
Santac Fede santuco puntutzat eracusten deus-
cun leguez: San Pablo Apostolubac diñuanez, guzti-
oc gaoza Jaungoicoaren gracia eta misericordia-
ren preminan.

Jaungoicuac Oseas Profeta santubaren
aotic esan eutsan bere Pueblo escogidubari: zure
socorruba bacarric nigan aurquiquetan da: au be-
rau aiquetara emun eusten Jesus Divinoac bere
Discipulubai; esan eustenian: ni bague ezin eguin
daiquezube ezer: ondo ezagutu eben egui santu
au David Erregue eta Profeta santubac, zeñac al-
chaitan zituban bere Animaco beguiac Oracinua-
ren vitartez Zeruco Mendi eternuetara, Zeruba
eta Lurra eguin zituban Jaungoicoagandic bacar-
ric datorren amparubaren billa: beste aimbeste

eguin izan daube Zerueco Santu eta Santa guztiac Munduban vizi izan zirianian, eto orobat eguin biarco dogu guztioc, salvaueco bagara.

Jesus Divinuac, Munduban vici zanian, Guizona zan aldetic puntuoro gabaz eta egunaz eguiten eutsan Oracino bere Aita Jaungoicoari, premuniric batere beretzat ez eucala, bacarric gure egempluraco eta provechuraco; eta guc gura badogu, aren Divina Magestadiaren Oracinua aprovechai dequigun, imitau biar dogu itzi euscun egenplu santuba, eta Oracinuaren vitartez sarritan juan biar gara bere presencia Divinora, presente eguiten deutsagula guere argaltasuna eta miseriac, amparau eta defendidu gaian guere Otsai madaricatu Diabruaren lazuetatic: bai; guere Aita fin bagueco exuquiorra da, emallia eta aberatsa da, berari de eguiten deutsairentzat biotz osoagaz; eta eguiaz onela escatu ezquero, ezin utsic bialduco gaitu bere promes eta verba santu guztietan fiela dan Jaungoico santu oriec, eta zeñac bere Evangelio santuban aseguraitan deuscu bere socorruba: escatu eguizube (diño) eta emungo iatzube; cergatic escaquetan daben guztiac erreciuitan dau: baldin zubec izanic dongac

badaquizube emun iatzuben Ondasunetatic partitan zeuben Vmiai, zembat gueiago zeuben Aita (Jaungoicoac) émungo deuste Zerutic Espiritu ona escaquetan deutsanai? Jesus Divino onen egemplubari eta mandamentu santubari jarraiquetan badeutsagu bada, aprovechauco gara bere Oracino santubagaz, librauco gara Diabru astutuaren lazuetatic, eta esperienziagaz ecusico dogu, nola Oracinua (San Agustin Elizaco Doctore jaquintsubac diñuan conformidadian) dan eguiten dabenentzat defensia, Jaungoicoarentzat alabanzaia, eta Diabrubarentzat azotia.

Oracinua da Jaungoicoari Animia jaso eta mesediac escaquetia; baña escavide onec ez dau izan ~~ez edocein mesede~~, biar nola naicuac; eta bai izan biar dau Jaungoicoaren Lorra eta gloriaraco eta ~~Jaungoicoari gastutaran dirian mesedia~~ ~~baizican Jaungoicoari gastutaran dirian mesedia~~, nodien escavidiac, nola diran, tentacinoren batec estuquetan gaitubanian vencitaco gracia, Fediaren, Esperanziaren, eta Caridadiaren aumentuba, Pacienciaren, Castidadiaren, eta Animan falta eguiten deuscuben gañeruntzaco virtutiac; onelaco gauzac, guere Jaungoicoaren gloria gueiagraco dirianac eta Animen salvacinoraco premina ditugunac, escatu biar deutsagu Jaungoicoari batere Mugarri eta condicino bagaric: baña escatu gura deutsagunian osasuna edo Mundu onetaco interes edo gauzaren bat, beti escatu biar deutsagu one-

bere Gloria

gueiagoraco eta

lacuac condicinuaren azpian, conveni badira gu-

Animen onerian mesediac guc de-

re salvacinoraco, eta ez bestela; zergatic ~~[illegible]~~

seaubagatic ere izan litezcq. ez conveni izatia, guere calteracuac eta Jaungoicoac deuscun erruquiagatic iguin ditubanac, guri emutia; ~~guere Utsaiac movitan [illegible] esca [illegible] [illegible]~~ bada berac daqui zer conveni dan eta zer ez bere gloriaraco eta guere Animen salvacinoraco; argatic eran do dan condicinuaren azpian ~~eta Jaungoicoac~~, aserraturic onelaco esca vidiac

escatu biar deutsagu aitatu ditudan bigarren muetaco mesediac; beste moduz aren Divina Magestadiac

eguiten deutsainen contra, conceditan deuste batzubetan beren calteraco dan gauza; ala beinic bein eracusten deuscu Espiritu Santubac Escritura Sagraduban, eta onen vistan San Agustin Elizaco Doctore Jaquintsubac esaten deuscu: [redacted] Jaungoicoac aserraturic aiquetan ditu batzuben erregubac, eta bere Misericordian ez ditu aiquetan beste batzuben erregubac.

Oracinua da bi modutacua; bata Mentala Espirituco consideracinuagaz eta Vorondateco afectuagaz eguiten dana: bigarrena da Vocala, aoz eguiten dana, comunmente eguiten dacuscun moduban: lenengua da perfeccino gueiagocua bigarrena baño; ala ere bata eta bestia dira Jaungoicoaren gustocuac; eta, biar dirian circunstanciacaz eguin ezquero, biac aiquetan ditu aren Divina Magestadiac.

Oracinua zucenian eguiten da Jaungoicoari, zeña dan gauza on guztien Jabe eta Iturri bacarra, eta fin bagueco erruquiorra; eta egui-

ten da Oracinua Santu eta Santai, izan ditezen gure bitartecuac aren Divina Magestadiaren aurrian.

Oracino Vocala edo aoz eguiten dana utsa da, Entendimentuco atencinuac eta Vorondateco afectuac lagunquetan ez badeutsai; cergatic circunstancia bi oneic bagaric izango lizateque bacarric Ezpanac movitia eta Miña, eta oneiots eraguitia Loro baten modura.

Oracinua ere provechosua izateco, eguiten dabenac bota biar dau leenago bere biotzetic pecatu mortal eta vicio gravetaraco afectua, bardin aetan sarturic badago; bada beste moduz izango lizateque, eguitia Jaungoicoari burla, beragaz aserre daguala bere aurrian presentaitia, mesediac escaquetara; egui onen pruebaraco emuten deuscu David Erregue eta Profeta santubac desengañu claruba, diñuanian: bardin (oracinoa eguiteco demporan) ecuri badot ~~badacuot~~ nere biotzian maldaderen bat, ez dau Jaungoicuac nere erreguba autortuco: eta ala gorrotuari itzi gura ez deutsanac, Vengativuac, eta beste edocein viciotan sarturic vizi dirianac, euben vicioetaraco afectuari itzi bagaric ez daube eguin-

ala ere onelaco Pecatari gogortubac jarraitu biar deutsai beren Oracinoari, batez ere Paterrosterrari Avemariari eta Salviari; bada onein vitartez guertatu liteque, Jaungoicoac bere fin baguzco erruquiagaz argui eguitia
go provechuzco erregu edo Oracinoric;
Pecatari onei artin daguien beren negargarrizco estadutic, eta guero biar disposicinu jagaz bere erregubac eguiteco;

Jaungoicua Lecu edo toqui guztietan presente dago; eta ala edocein paragetan Diabrubac tentaitan gaitubala acudidu biar dogu beriala aren Divina Magestadiagana bere amparubaren billa, posible dogun, confianzaric andienagaz, bere Evangelio santuban encargaitan deuscun conformidadian: erreguquetan jasarten zariainian (dino) sinistu eguizube, errecividuco dozubela escaquetan dituzuben gauza guztiac, eta ala guertatuco iatzube: duda bague bada onela erregutu ezquero, izango gara socorridubac.

Guere erreguba edo Oracinua acabauric ez dogu beiñ ere izan biar curiosuac, otorgau ete deuscun edo ez Jaungoicuac guere escavidia; zergatic onelaco curiosidadia soverviatic sortzen da, eta ez da batere provechuzcua, bai calte andicua gueren Animentzat: bacarric gure obligacinua da, gueregan dan guztia eguitia; eta gueregan dan guztia eguinic Jaungoicoari escaquetia bere gracia eta laguntasuna, eguin daigun eguitera obligauric gaozen eta guere fuerzacaz eguiteco capaz ez garian gauza guztiac; eta, onela escatu ezquero, Jaungoicuac lagun-

quetan deuscu, errez eguiteco guerez ezin doguna; doctrina au da Fede santuco puntuba, Eliza Ama Santac eracusten deuscun leguez azquenengo Trentoco Concilio generalian; ala da ere Munduco esaerria: vizi biar gaiala Jaungoicuari erregúquetan, eta escuco Mazuagaz zapalquetan: Necazariac bere soroco lanac eguin ezquero bere demporetan, largaitan ditu guztiac Jaungoicoaren cuidadu eta providenciara, eta Jaungoicoaren laguntasunagaz datoza beren demporetan frutu sazonaubac emutera; orobat bada guertaquetan da Animaco lan gueietan esaeriagaz conforme: gu Jaungoicoagaz eta Jaungoicua gugaz: eta puntu onetan desaidadubac dirianentzat ez dago Gloriaric.

Premina dogun gauza bein escatubagaz Jaungoicoari ez gara contentau biar, baicican izan biar gara Pobre importuniuen antzera porfiaubac Humildadiagaz (au da) guere apuru edo estu orduetan escatu biar deutsagu Jaungoicuari bere laguntasuna bein, bizitan, eta gueiagotan: Jesu Christoc berac encargaitan deuscu Evangelio santuban, izan gaitiala guere escavidetan importuniac eta porfiadubac edo perseverantiac, eta ez gaitiala

aspertu Jaungoicoari escaquetan: baña cuidadu, nere Ylloba, porfia onec izan biar dau humildiac dulciac, suaviac, esperanziagaz betiac, eta ez tristurriagaz eta larritasunagaz lagunduric daguan porfiac; bada porfia santu au ez da Corput zeco Besuacaz eguiten dana.

Zeruco Santu eta Santa guztiac, Munduban vizi izan zirianian, itzi euscuben beren Oracino edo escavidetan porfia santu onen egemplu miragarriac; zergatic ondo equien puntu onen gañeco Jaungoicoaren vorondateco barri; bada aren Divina Magestadiac gure biotzetaco amorioa gueiago aseguraitiarren daucan Fraceetatic bat da, ez autorquetia batzubetan lenengo escavidian escaquetan deutsagun mesedia: baita ere badauca onetaraco beste Fraza bat; eta da, guc escaquetan deutsagun gauza ez autorquetia, eta, bai, eguitia guri erregu santubaren vitartez, guere Animetan gueiago premina ditugun, eta escaquetia batere acordau ez garian, mesediac; San Pablo Apostolubac, ecusi ebenian Diabrubac tentaitan ebela Araguiaren aldetico gustuacaz, Jaungoicuac ala permitiduric arrotu ez zedin beragaz eucan satisfaccinoaren anditasunian

exeguitu eutsan iru bider aren Divina Magestadiari, libratu eguiala pasino artatic; baña, entzun eben, ez respuestia izan zan: bastante dozu nere gracia: ez diño Apostolu gloriosuac, libratu ebela Jaungoicuac tentacino ichusi artatic, baizican exantzun eutsala: bastante dozu nere gracia. Elias Profetac, Tobias, eta Job santubac trabasuz eta persecucinoz inguraturic ecusi zituanian, eguin eutsain Jaungoicoari beren escaviciac; baña aren Divina Magestadiac aitu zituban onein exeguibac, eurac batere uste ez euben aldetic, eta eguin euscen, pensau ez zituben mesediac, exeguitu eutsain demporan.

Jaungoicoac, gu guere escavidetan animaitiaren beraganaco Esperanza firme batera, ez bacaxic gura dau, guc bera Aitatzat tratatia, baita ere obligaitan gaitu Aitaren izenagaz berari de eguitera, Jesu Christoc exacutsi euscun leguez bere ao sagradutic ustenicaco guere egunoroco Aita guztiaren Oracinuan; eta (gueiago dana) Jesu Christoc berac bere Evangelio santuban Guizona dan aldetic tratatan gaitu Christaun guztioc bere Senidetzat: zubec guztioc (esan euscen bere Discipulubai) Senidiac zaraai; zergatic Zerubetan daguan zuben Aita

bat bacarra dan: Zerubetan, daguan, nere Aitaren vorondatia eguiten daben guztia, au da nere Anaia eta Arreba: consideracino santu onegaz San Agustin Elizaco Doctore Jaquintsuba animaitan zan Taungoicoaganaco confianza ezin gueiagoco batera, eta esaten eben: an uste dot daucadala nere aguintia, nun daucadan nere Anaia: eta eguiaz bardin gure Senideren bat Erreguiaren urrengo autoridade edo aguintiagaz balego, usteco gueuque lograitia Erregue gandic, gura dogun, guztia; zer lograuco ez dogu bada Taungoicoagandic bere Seme eta gure Anae Jesu Christoren, eta onen eta gure Ama Maria Santisimaren vitartez; escatu ezquero guere Animen salvacinoraco conveni dan gauza?

Esaten dodan guztian, gu gariala Taungoicoaren Semiac, eta bere Seme Jesu Christoren Senidiac, ez eguizu aitu, gariala Taungoicoaren Semiac, bere Seme Jesu Christo dan moduban; bada gu ez gara bere Semiac naturalezaz, Jesu Christo gure Jauna dan leguez, baizican bere graciaz eta Adopcinoz, nundic ere daucagun Taungoicoaren Seme Adoptibuen izena eta izatia, batec emen, bere Seme ez daben bat, bere Semetzat artuco baleu leguez, deutsan amorio eta erruquia mediante.

Oracinuaren gañeco tratadu oni emute-
za nua bere acabera arен Divina Magestadiac
Evangelio santuban emuten deuscun encargu
bategaz: conveni da (diño) beti Oracinuan egotia,
eta ez beiñ ere cansaitia: encargu santu au nola
aiquetan dan faquitia da Christaubentzat
gauza provechosua eta precisua; bada San Pa-
emuten deuscu
blo Apostolubac ere, beste aimbesteco encarguba:
[redacted] (diño) Oracinuan egon zaitezte detencino
bagaric (au da) beiñere cansau bagaric Oracinu-
an egotiagaz.

Encargu santu onen vistan izan diza
Christaunen batzubec, eracutsi izan daubenac,
beti eta instante guztietan Oracinuan egotera, gas-
zela obligaric, beste gauzari atendidu bagaric
guere vizi guztian: baña Eliza Ama Santac de-
clarau ditu eta condenau ditu onelaco Eracust-
zallac Eregetzat, eta beren guezurrezco doctrina
au Eregiatzat: Jesus Divinuac bada eta bere Apas-
tolu San Pabloc encargu santu onetan esan gura
deuscubena da, artu eta euqui biar dituzula guere
vizitzan dempora señalauren batzubec, Jaungoicoa-

ri Oracino sarritan eguiteco, zucenquetan ditugu-
la gañeruntzaco guere pensamentu, verba, eta obra
guztiac aren Divina Magestadiaren onra eta Gloria
gueiagoraco; onela beinic bein aiquetan dau encar-
gu santu au Jesu Christoren Esposa eta guere Ama
dan Eliza Santac.

Oracinuaren gañeco leccino santu au on-
do cumplitaco medio guztiz egoguia eta erraza
da San Pablo Apostolubac berac eracusten deus-
cuna; diño bada: edo esaeraz edo obraz eguiten di-
tuzuben gauza guztiac, eguizube Jesu Christo (gue-
re) Jaunaren izenian, graciac bere vitartez emuten
deutsazubela Jaungoicoari, eta Aitari: Apostolu
gloriosuaren medio au errazac da, eta oneigaz edo-
cein Christaunec cumplidu daique escusa baga-
ric, beti Oracinuan egoteco, encarguba.

Edocein Estadutan eta edocein Oficiotan
Christauna egonditeque beti eta erraz Oracinuan
esplicauric guelditu dan sentiduban Eliza Ama
Santac eracusten deuscunagaz conforme; eta ala
zuc ere, nere Illoba, zeure Necazaritzaco Ofi-
cioan eta Matrimonioco Estaduban, beti Oraci-
nuan egoteco, bastante dozuna da, esatera noiana.

Christaun guztioc ditugu obligacino general
señalau batzubec, nola dirian amar Mandamen-

damentu santubacaz gañera Eliza Ama Santac ordenauric daucan beste bost Mandamentubac, eta aurrera ordenau leizquianac daucan escu vidiagaz conforme, eta bacoitzac daucan Estadubac eta vizi modubac berez dacarden obligacinuac; onei bada cumplimentu emunic, goizian bein, Jaguiten zarianian ugetic, considerau eguizu Jaungoicoaren aurrian zagozela, eta Jasarri zaite Jesu Christo crucificaubaren oñetan belaunico (eriac emuten badau) bestela edozein posturatan, eta emun eguiozu aren Divina Magestadiari graciac, gaba iragoric egun artara ecarri zaitubalaco; eta escatu eguiozu gracia, egun ori iragoteco bere amorian eta pecatu bagaric, eta artu daguiala bere cargu eta cuidadura zeu eta zeure Familia, zeben lan guei, Ganau, baster eta zeuben gauza guztiac, ofrecitan deutsazula egun artaco zeure pensamentu, verba, eta obra guztiac bere Onra eta Gloriaraco; eta cumplitaco, ofrecidu deutsazun leguez, premina dozun aren Divina Magestadiaren laguntasuna eretsi daguizun, parau eguiozu bitartecotzat bere Ama Maria Santisima errezaitan deutsazula Ave Maria edo Salve bat, edo Aita ordeco San Joseph

edo zeure Ainguerui Guardacua, zeure Bautismoco Santuba, edo zeure devocinoco Santuren bat, errezaitan deutsazula zeure bitarteco Santubaxi Paternostea edo Ave Maria bat; au guztiau eguin leiquian gauza da, Gedo bi edo iru esaten diran, vitartian: eta onela eguiric diligencia eder au lira eguizu batera, eta lira eguizu bestera Chori Cantaria baño alegriago, zeure Echeco lan gueiac eguitera, eta eraguitera; bada Necazari batec gauza ascotara eta bizcor inguiratu biar dau, baña bere cuidadu eta guezca guztiac botaten ditubala Jaungoicoaren Providenciara, beragan dan guztia eguin ezquero, David Errege eta Profeta santubac eracusten deuscun conformidadian: bota eguizu (diño) Jaungoicoaren gañera zeure cuidaduba, eta berac sostenidu-

baña laguntzen eguiniaco ofrecimentu oregaz eguin artian lo eguitera joatea-
raño sarri cho tan gogoraqueria conveni da, batez ere zeure disgustoco daudazun
CO zauri bat zuben edo tentacinoren batzuben inguraqueltan zautuben ian,
allegatzea ezpiritico golcion eguin dezan ofrecimentu au, i zan diran zeure obligaci-
ñuegaz complitaco eguiteco vici bat.

Eguna oneta zeure inocencian irazoric, eguer-
man lauzaldian eguin biar dozu eguin aztaco zeure concienciaren garbitzeco ega-
men labur bat, manoriora ecarriz ditzazula arpe puntu; bata egun artan eguin
ha, zuben eretzen lo eguitera, orobat eguin biar dozu
ditzazun obra edo languei onac; bigarrena eguin artan Jaungoicoac eguin
dezun merediac ia zenbaitac ia particularrac: izanguera eguin aztaco
lau oba) escatzeco aurkeneko aben Divino Magestate
zeure falta, batez ere zeure Animaren antzinari auzkera pena eragoz-
ten dituben: oneri onduren escatu biar deutsazu aren barura Magestatiari
diozu eguin artaco zeure falta guztien barcaciñua
artzen dezala: auzkeraco enienda ten gañean bere gracia ta virtuez
armatzeco bati
emiñ biar deutsazu graciac, eguin artan zugaz
enguii daben Misericordiagatic, eta escatu biar encomendatzeu
biar deutsazu, zeure Persona, Familia, eta Hacienda eta Echia, gau artan bere cuidaduba ar-

tu daguian, eta Etsai guztietatic librau daguian;
la siguiente advertencia se pone al principio del parrafo despues
~~lenago~~ Errosario santuba zeure Familian devoci-
de la palabra iragoric.
noz errezauxi dozu.

Devocino Santu oni Juntau daiquezu zeure Guraso onac eracutsi deutsuben Oracinuac ala egun bitartian nola gabaz, nola dirian, goician Jagui eran Errosario labur bat zeure Familiagaz devocinoz errezaitia: egun sentian, eguardian, eta gau lenian, Campaiac señalia eguiten dabenian, Ave Maritacuac errezaitia: eta Erlojuosuac Joten daben guztian, Ave Maria bat dovocinoz errezaitia; orobat Maian paraitan zarian guztian, alimentuba artzera, Paternoster bat eta Ave Maria bat errezaitia, emuten deutsazula zeure Familiari Devocino santu onein leccino ona; bada Necazariarentzat ez dira egoguiac Oracino luciac, baizican laburrac, sarritacuac, eta biotzezcuac.

Eguia da: ez da obligacinozcua, señalau deutsudan, egunoroco Oracinoen gañeco gobiernu modu au, eta bai consejuzcua; baña zeure Necazaritzaco Oficioan da modu erraza eta egoguia, beti Oracinuan egoteco Jesus onaren encargubagaz conforme, Jaungoicoari gustua eta zor deutsazun

alabanza emuteco, Diabruba vencitaco, eta bere astucia andico lazuac atalaitaco: bacarric advertitan zaitut, nere Ylloba, obe dala Ave Maria bat bacarra ondo eta devocinoz errezauba milla Ave Maria devocino bagaric noberen culpaz errezaitan dirianac baño.

Humildadia

Oracinuaren Seride guztiz maitia, eta Diabruba vencitaco, premina dogun, bigarren arma da Humilldadeco virtutia: bata bestia bague ezin egon dira; nundic ere Jaungoicoari equin biar deutsagun erregu eta esca vide guztiac izan biar daube humillac, gura badogu, ondo despachaubac izan ditezen (au da) equin biar deutsagu arren Divina Magestadiari guere esca vidiac aldogun confianza eta Esperanzaric gueienagaz bai, baña ezagu-quetan dogula, ez dogula mereci lograitia escaquetan dogun mesedia; guerez ez daucagula beste gauzaric pecatuba eta pecaturaco inclinacino dongquia baño; eta, escaquetan dogun, mesedia dala Jaungoicoaren Doia, eta batere zor ez deuscuna.

Humildade eguiazcoren circunstancia oneic bagaric presentaitan dirianac Jaungoicoaren aurrian, beren esca vidiac eguitera, ez daube ezer lograitan, Jaungoicoa irritaitia baño besteric; onelacuen ispilluba da Jesus Divinuac bere Evangelio santuban eguiten deuscun Fariseo baten pintura, guri aiquetara emutiarren Humildadeco virtute bagaric Oracino eguiten daubenen frutuba; Fariseo au bada, figuraitan deuscu, sartu zala Jerusalengo Templo santuban, Oracino eguitera, eta onegaz batera beste Pecatari edo Publicano bat; Fariseo au presentau zan bada Templo santuban, eta eguin eutsan Jaungoicoari bere Oracinua, baña arrotasunez eta presuncinoz beteric, contaitan zitubala bere obra onac eta merecimentubac, emuten eutsala aren Divina Magestadiari graciac, eguin ebelaco bestiac baño obiagua, baita ere beragaz batera sartu zan Pecatari edo Publicanua baño obiagua; baña zer frutu etara eben Guizon onec Oracino modu onetatic? biurtu zan bere Echera Jaungoicoaren aserre eta desgracian; au izan zan bere Oracino Humildade bagacuaren frutuba.

Publicanuac ere eguin eben bere Oracinua

baña onetaraco escogidu eben Templo santubac eu-
can parage urrin bat, eta an bere Beguiac Zerura ja-
soten atrevitan ez zala, eta damutasunaren fuerzaz
bere Bularra joten ebela erregutu eutsan aren Divi-
na Magestadiari modu onetan: Jaungoicua, izan
begui misericordia ni Pecatariagaz: eta diño Jesus
onac, viurtu zala au bere Echera justificauric, eta
ez beste Fariseoa; cergaitic alchaitan dana, izango
da humilliauba, eta humilliaitan dana izango da
alchauba. Ho Humildadiaren privilegio miragar-
ria! Humildade santu au mediante Santa Maria
Madalena Jesus Divinoaren oñetan beinguan eguin
zan Santa andi bat, orobat Calvariocomendian Lapur biaetatic ona Curutzian
josiric eguala Jesus onaren aldamenian, izanic
arteraño ala Lapur bata nola bestia pecatari guztiz an-
diac: zuc ere, nere Ylloba, gura badozu, Diabru-
baren atzaparretatic igues eguitia, eta zeure erre-
gubac ondo despachaubac izan ditezen, beti pre-
sentau biar zaitzaco aren Divina Magestadiari
Humildade santu onegaz, eta zeure escavide guz-
tien asieran aurraz bialdu biar deutsazu zeure
pecatu eta ofensa guztien parcacinoraco escavi-
de humilde bat, eta onen ondoren encaminau bi-

ar deutsazu zeure deseoco beste erregu eta Oraci-
no guztiac.

Humildadeco virtutia da, norc berac Ja-
ungoicoaren aurrian bere Buruba vorondatez eta
amorioz basaitia, ezaguturic aren Divina Mages-
tadiaren fin bagueco anditasuna eta perfeccinoa,
eta bere Burubaren Miseria eta ezebereztasuna:
Jaungoicuac esan eutsan Abran Patriarcari, eta
onen Buruban perfeccinoco vidia sarraitu gura
dauben guztiai: ni naiz Jaungoico guztiz podero-
sua; ibilli zaite nire presencian, eta izan zaite per-
fectua: batec bere vizitzaco perfeccinoco vidiari
sarraiquetaco, emun biar daben lenengo pausua
da Humildadecua; virtute santu au bagaric ezin
iñor para liteque Jaungoicoaren graciazco estadu-
ban, ezin ona izanditeque, eta ezin bere Ontasuni-
an sarraituco deutsa perfeccinoco vidiari; bada
Christaunac zembat sustrai gueiago ezarten ditu-
ban Humildadeco virtutian, aimbat onagua eta
perfectuagua da; beraz Jaungoicoac Abran Patri-
arcari perfectua izateco esan eutsana: ibilli zaite
nire presencian: da erremedio guztiz egoguia, ba-
tec bere Animia Humildadian conservaitaco, eta

virtute santu onetan, eta virtute santu onen vitar-
tez perfeccinoco vidian gueiago aprovechaitaco:
bai; Jaungoicoaren presencian bere Animia eguiaz
darabillen Christauna berez dator bere ezeberez-
tasun eta miseria ezaguquetara, eta vorondatez
eta amorioz bere Buruba bajaitara Jaungoicoa-
ren escu guztiz poderosoaren bendian; ez da ez one-
laco Christauna erraz arrotuco, eta ain erraz etor-
rico Soverviaren eta Munduco pompa eta vanida-
diaren Esclavo izatera.

al f.º 70 P.º ea bada

Humildadeco virtute santu au aiñ preci-
sua da Zeruraco vidiari jarraiquetaco, zeinda be-
ra bagaric iñor oraindio salvau ez da, salvauco
ere ez da; eta bere contraco Sovervia da, bat conde-
nacinoco videtic dabillen señale ciertuba, eta segu-
ruba: Jaungoico gure Jauna da bacarric eguiaz
andia, eta fin bagueco perfeccinua beragaz dabena;
eta ala Zeruban nola Lurrian beguiraquetan de-
uste biotz humildecuac dirianai, eta onei bacarric
bere begui misericordiosuacaz, Sovervioai barriz at-
zera eraguiten deuste, beragana urreraquetan itzi
bagaric; 2 nor Jaungoico gure Jauna lezcoric (esaten
dau David Erregue eta Profeta santubac) zeña vizi

da Alturan, eta beguiraquetan deuste humillai Zeruban eta Lurrian?

Aren Divina Magestadiac, ecusiagatic, bere Ama izan biarco eben, Maria Santisimagan virtute mueta guztiac eta ezin gueiagoco perfeccinuan, gueien apreciau ebena izan zan Humildadeco virtutia; eta ala orobat izan zan Señora onec esatia Ainguerri San Gabrieleri: ona emen Jaungoicoaren Esclava; guertatu bequit zure verbiagaz conforme: beriala Jachi zan Jaungoicoaren Semia bere Errai garbietara, gure Naturaleziagaz Jaztera; aimbesteraño irabazten deutsa Jaungoicuari biotza Humildadeco virtutiac eta contrara Soverviaco vizioac igues eraguiten deutsa aren Divina Magestadiari; nundic dator esatera Santiago Apostolu gloriosua: Jaungoicuac resistitan deuste Sovervioai; eta emuten deuste gracia Humillai.

Bai, nere Illoba, Eche bat zimentu bagaric laister dator berez Jaustera; beste aimbeste Christaunaren vizitza Humildadeco virtute bagaric Jausiric dago: Echiac bere asipena dauca Lurraren azpian; eta idegui oi da Lurra, Arbela edo beste cimentu firme bat billatu artian; eta guero cimentu

firmia billatu ezquero onen gañian dator Jausua-
gaz eta iguagaz alturara; eta contrara, Lurrera
bota biar danian Echebat, Oficialiac asi oi dira bo-
taten tellatutic eta daucan alturaric andienetic:
orobat eguin biar dau Christaunac; humillau eta ba-
Jau biar dau bere Buruba, eta Humildadeco cimen-
tu firmiaren gañian igo biar dau Zeruco alturara;
bestela emen Munduban altutic ibilli gura badau,
Zeruco Ciudade guztiz miragarria fabricaitan da-
ben Oficiale acabauba dan Jaungoicuac bere altu-
ratic botaco dau Infernuco Calabozo eternuetara.

Egui santu onen pruebaraco considerau
eguizu Jaungoicoaren pausuac bere Criaturetan
ala Zeruco Ainguerubetan, nola emen Munduban
Guizonagaz: Diabrubac, Aingueru ederra bazan ere
lenenguan, orain Zeruban dagozen beste Aingueru
guztien antzera, aiñ zoraturic eta arroturic bere
edertasunian uste izan eben, zer bait zala, eta gueia-
go izan zitequiala; onetaraco pensau eta deseau
eben Jaungoicoaren igualecua izatia; eta ala, graci-
ac emun biarrian Humildadiagaz bere Criadore
Onguillari, alchau zan Criadoriaren contra bere
Criatura: au ecusiric San Miguel Aingueruba eta

Ainguerruben Principia bere Ainguerru Leial eta Humildiacaz Jagui zan Diabrubaren eta bere Lagun madaricatuben contra, eta diadar eguinagaz ¿nor Jaungoicua lezcoric? bota zituban Zerutic betico condencinora Jaungoicoaren aguinduz, eta bera bere Lagun Leialacaz guelditu zan Zeruban betico Glorian; ona nun daucazun, nere Illoba, Soverrioa, eta bere paraderua; ona emen Humilla, eta bere paraderua.

Diabru madaricatu onec beronec imbidiagaz beteric ~~eguin~~ tentau zituban Paraisuan gure lenengo Gurasuac; eta tentacinuan Jauriric eguin zirian desobedientiac eta soverrioac Jaungoicoaren contra; eta Jaungoicuac desterrau eta bota zituban Paraisotic; ona nun daucazun Munduban ere Guizon soverrioen eta Diabrubaren Jarrallen paraderua.

Aren Divina Magestadiac bada salvaitiarren Guizona, eta onetaraco humilla izaten eracustiarren, ia bere Criatura alchau zan casuan bere contra, Jaachi zan bere Criatura guztien bendera; artu eben guere Naturaleza; sugetau zan Mundu onetaco bageza guztietara; Amatzat escogidu eben, Mundubac menospreciau oi dituban, Emacume pobreetatic bat, eta Aita ordecotzat Oficiale pobre bat; Jaioco bazan

bere Ama eta Aita ordecuaren abrigoco Echia izan zan
Betlengo Ciudadetic camporaco Portale bat, zergatic
aientzat ez eguan lecuric Ostatuban; bere descansu-
co lenengo Cumia, Ganaubac Jaten egozen, Asca loi bat
izan zan; Munduban vizi izan zan dempora labur-
rian iñorc on eguiñen beguira vizi dirianen modura
vizi izan zan, izanic gauza on guztien Jabia eta Emal-
lia; eta azquenic ilgo bazan, bere Oia izan zan Curutze
bat; oian egoteco posturia eseguiric, narru gorrian, eta Burdi-
ñagaz Josiric escubac eta oñac; bere Echia ez Lur-
rian eta ez Zeruban, baizican aidian Aize otzac
alde guztietatic Joten ebela; bere aldamen bietaco La-
gunac eta Asistentiac izan zituban Lapur bi, bera
erdian eguala aldamenecuac baño culpantiago izan
baliz leguez, izanic fin bagueco Ontasuna eta onta-
sun guztiaren Emallia; entregau eben bere Guizata-
suneco Naturaleza Diabrubaren Esclavo zirian
Guizon madaricatuben escubetara; onein neurri ba-
gueco maliciac emun gura eutsan tormentu, afrenta,
eta injuriac sufritaco disponidu zan; eta, gueiago za-
na, gaitz Eguilla madaricatu oneic beste guztiacaz
batera salvaitaco eta Diabrubaren esclavitudetic li-
braitaco deseoagaz; artaraco ere escatu eutsan bere
Aitari parcacinua bere eriotza Eguillientzat; modu one-
tan acabau zituban bere egun laburrac penaz eta afren-

taz inguraturic, eta (San Pablo Apostolubac diñuan leguez) humillau zan, eguinic obedientia eriotzaraño, eta Curutzeco eriotzaraño; motivoa, zergatic Jaungoicuac ere alchau izan eben, eta emun eutsan izen guztien gañian dan izena; Jesusaren izenian ala Zerucuen, nola Lurrecuen, eta Infernucuen Belaun guztia doblau dedin, eta Lenguage mueta guztiac autortu daguien, daguala Jesu Christo (bere) Aita Jaungoicoaren Glorian: lenengo bajauba, eta guero alchauba; bai; guere vizitzaraco ispillu guztiz ederra izan zan Jesus maitia ala vizitzan, nola eriotzan; onenbeste eta ez guichiago costa izan iacon, Guizon sovervioari Humildadeco vidia eracustia.

Ama Virgina Maria Santisimac, Jaungoicoaren Semia bere Entraña garbietan encarnauric, eta Mundura aguertu bagaric eguala, profetizau eben aurraz, zer guertatuco zan bere Seme Jesus onagaz; bada aren Divina Magestadiari, bere Amatzat escogidu ebelaco, graciac emuteco compondu eben Cancino guztiz miragarrizco baten diño modu onetan bere Seme Jesus Divinoaren gañian: egercitau dau poderioa bere Besuan; banatu ditu Sovervioac bere biotzeco Espiritubagaz; bota ditu Poderosuac (beren) Sillatic; eta alchau ditu Humil-

diac.

Ho! Lenguage guztiz miragarria Munduco Arro, Pamparrue, eta Andi nai guztiac gorroto daubena, eta comprendidu gura ez daubena! diño bada: egercitau eben poderioa bere Besuan: au ~~ñuan~~ esan ever Maria Santisimac Espiritu Santubaren inspiracinoz Curutze santuban guertatuco zirian Misterioac consideraitan zitubala, ia guertatu baliran leguez: ¿zer poderio ete da bada, nere Ylloba, Jesus maitiac egercitau ebena bere Besuan? ez zan besteric izan, sufriduba sufriduric, Curutzian bere Besuac burdiñaz Josten bere Etsai eta Diabrubaren Esclavo zirian Guizon madaricatu aiei izteia, eta aien escubetatic Eriotzia sufritia baño: Ho Poderio miragarria eta bere Poderio guztizcuaren obraric andiena, altubena, eta condenaitan dirian Mundutar miserable guztientzat ezcutatuba! bai, nere Ylloba, onelacua izan zan bere Besoco Poderio santu au.

Aren Divina Magestadiac Curutze santuban bere Besoco poderio andi onegaz vencidu zituban Diabruba, Munduba, eta Araguia; egercitau zituban virtute mueta guztiac, batez ere bere fin bagueco Caridadiagaz gañetic Humildade santuco

virtutia, ~~bajaitan~~ laghiten zala Jaungoicotasuneco fin bagueco alturatic Guizonic Malechorienari guertatu alequion pena eta ~~bagezaric andienetara~~ ezebertasunic icaragarrienetara: Humildade santu onegaz aprobau eben Ainguerru San Miguel eta bere Ainguerru Lagun leialen Humildadia; deseguindu eben, bere contra alchau zan, Diabru Ainguerru Desertoriaren arrotasuna eta sovervia, eta banatu, eta bota zituban Ainguerru madaricatu onen Jarralla guztiac ala Zerucuac, nola Munducuac, Aize bolada indartsu batec banatu eta bota oi dituban leguez, bere aurrian artzen dituban, samar eta auts guztiac: ez dago beraz entradaric Jesus onagana Arro eta Pamparrue dirianentzat; bada aren Divina Magestadia humildau zan ez bacarric Onac eta Justubac zirianai, baita ere bere contra alchau zan Diabru bere Criatura desagradecidubaren Jarrallaric madaricatubenac zirianai, sufritan zitubala onein aldetic eguin gura izan eutsain ofensa eta injuria guztiac, Humildadeco poderio santu onegaz izten ebela venciduric Diabruba bere Jarralla guztiacaz.

Munduba vencidu eben Curutzeco Humildadiaren poderio santu onegaz; cergaitic (moduren batera esateco) estadu artan bere Criatura guztiac

abandonau euben aren Divina Magestadia, eta sufridu eben abandono triste au, guri onetan eracusteco euscula, menospreciau biar ditugula, Jaungoicoaren vorondatia cumplitia eragozten deuscuben, Munduco interesa, eta Criatura mueta guztiac, berac menospreciau zituban leguez bere Aitiaren vorondatia cumplitiarren.

Curutze santuco Humildadiaren poderio onegaz vencidu eben Aragui pecatari eta rebeldia; zergaitic Espiritu Santubac formau eutsan bere Aragui inocente eta santu aiec arteraño zatituric eta puscaturic Josi eutsain Curutzian; eta aren Divina Magestadiac sufridu zituban paciencia andiagaz eta miragarrizco bategaz burutic oñetarañoco bere Aragui zulatu eta zatitubaren Llaga icaragarri aiec, eta bere edadiaren erdira eldu bagaric, guri onetan eracusten euscula, zer moduz sugetau biar dogun guere Aragui pecatari eta rebeldia, guere Aita Jaungoicuaren vorondatia cumplitiarren: verba guichitan aiquetara emutiarren; Jesus Divinoac bere Besoco poderio humilde eta santu onegaz Curutzian ez bacarric vencidu zituban Diabruba, Munduba, eta Araguia guere Animen iru Etsai madaricatu oneic;

baita ere izabazi euscun fin bagueco mezecimentubac, izu Çtsai oneic guere Animeetan eguin dituben zauri mueta guztiac curaitaco; emun euscun Armac, Çtsai oneic vencitaco; eta exacutsi euscun vide zucena eta arteza, ez gueiago Jausteco beren bendian: au izan zan bada Jesus Divinuac egercitau eben bere Beso santuco Poderioa, bere Ama Maria Santisimac profetizau eben conformidadian.

— Ça bada, nere Illoba, modu onetan Jaungoico eta Guizon eguiazcua zan Jesus Divino eta fin bagueco santu onec, eta ezeitan utsic eguin ezin eiguian onec convidaitan gaitu bere Çvangelio santuban, beragandic icasteza, mansuac eta biotz humildecuac izaten, beragaz parte izatia gura badogu; esaten deuscu bada: icasi eguizube nigandic, ~~zergaitic~~ ~~zergaitic~~ naizan mansua eta humildia biotzetic: Jesus gure Redentore eta Maisu dulce au beragan da zeñagatic bere Aita Jaungoicuac esaten deuscun Çvangelioco verba santubacaz conforme; au da nire Seme maitia; beragan aitu edo entzun eguizube: Jesus au beragan da gure vizitzaraco Ispillu bacarra, eta Zeruraco vide bacarra; eta ala, bera vizi izan zan modura, guc ere vizi biar dogu, humildiac biotzetic gaxiala; San Pablo Apostolubac Mundu guztiari diadar

eguiten deutsa: Jesu Christoren Espirituba ez daucana ez da au beria: beraz Diabrubarena da.

Jesus maitiac Evangelio santuban ~~pintaitan deuscu edo~~ aiquetara emuten deuscu bere eta bere Esposa gure Ama Eliza Santaren arteco correspondencia modu onetan: ni naiz (diño) Maats (tronco) eguiazcua; eta nire Aita Necazaria da: nigan fruturic emuten ez daben Mats adar guztia quenduco dau; eta garbituco dau, frutuba emuten daben, guztia, frutu gueiago emun daguian. Ni naiz Maats (troncua) zubec (Mats onen) adarrac: nigan daguana, eta ni beragan, onec dacar frutu asco: claruban dago bada, Maatsaren adarrac, frutuba emuteco, egon biar daubela verde, troncuari ichatsiric, eta Maats troncotic igoten daben zumuagaz emun biar daubela, emungo dauben, frutuba; beste moduz Maatstuiaren Jabia podaitara datorrenian, ebaguico ditu adar igar eta fruturic emuten ez dituben guztiac: orobat eguingo dau gugaz guere Animetaco Mastuiaren Jabe dan Jaungoico Necazariac, bere Seme Jesus Divinuari, Maats tronco bateri adarrac ichasten dirian leguez, ichasten ez bagaitzaco, eta berari errime ichatsiric bere Espiritu humildeagaz conforme Humildadeco, eta amoritaco eta Caridadeco frutu gozuac emuten

ez baditugu; bada Mastuiaren Tabiac sutara bota oi dituban leguez frutu eta provechu bagaco Mats adarrac, orobat gure Taungoicoac botaco ditu Infernuco Su eternora, bere Seme Jesus Divinoaren antzera humildiac ez dirian, guztiac.

Jesus maitiac, bere eta bere Esposa Eliza Santaren (esan dan) correspondencia miragarrizco au lograitaco, artu eben medioric egoguiena eta miragarriena izan zan Sacramentu santu Comuniocua, nun (moduren batera aiquetara emutiarren) desposaitan da, eta unitan da, beragan eguiaz sinisquetan dauben, guztiacaz, formaitan dabela euracaz Corputz Espiritual bat, zeña dan Eliza Santa, bera ifinten dala Corputz Espiritual onen Buru: Sacramentu Divino onegaz mantenitan dau, bere Corputz espiritual dan, Eliza Santa au, emuten deutsala vizitza bere Espiritu Divinuagaz; eta, Mats tronco batetic vizitzaco zumuac igoten daben leguez bere Adarretara, frutu ona emun daguien, orobat ere Comunioco Sacramentu glorioso onen vitartez eta medioz Jesus Divinoaren Espirituco zumo dulzia iragoten da, eta ~~par~~ comunicaitan ~~ticipaitan~~ da gure Animetara, emun daigun Hu-

mildadeco eta beste virtute santubetaco fruitu gozuac.

Necazaii batec ecusten dabenian frutalezaco Arboleen artian Arbolaren batec ez deutsala emuten bere gustoco fruturic baizican berezco fruitu gozaga batzubec, ebaten deutsa adarrac, artzen ditu, bere gustoco frutu ona emuten dituban, Arbolatic mentubac; eta sartzen deutsa fruitu gozaga berezcuac emuten zituban Arboliari, onela emun ez daquian gueiago Arbola arc bere Troncoco zumuagaz conformeco fruitu gozaga berezcuac, baizican ezarri eta sartu deutsan Mentu onaren zumuagaz conformeco fruitu onac, mudaurric eta trucaurric gueldiquetan dala Arbolaren berezco Naturalecia, sartu deutsan, Mentu onaren Naturalezara: beste ainbeste eguiten dau bada gure Animetan gure Aita Jaungoico Necazariac; mentuquetan ditu Comunio Sagraduban, bere Seme Jesus Divinna dan, guztiagaz, ala guere biotzetan exime ichatsirric daucagula Mentu Divino au emun ez daigun, guerez emungo guituquian arrotasun, vanidade, eta sovexviaco fruitu sarinac, baizican Mentu Divino onegaz conformeco Hu-

eta beste virtute mueta guztien
mildadiaren frutu eldubac eta gozuac: Humilda-
dia da beraz alde guztietic precisua, gu Jesus ona-
ren antzecuac izateco, Jaungoico gure Aitaren gus-
tora vizi izateco, eta Diabrubaren astucia anditaco
Lazuetatic libraitaco.

Orain bada, nere Illoba, bardin Chris-
taunac badauca Animaco Potencia despejaubac,
eta Corputzeco disposicino, corte, eta Falle ederra,
eta sanua, ez dau iñolaco moduz arrotu biar, Dia-
bruba bere Lagun dongacaz Zeruban arrotu zan
modura, baizican San Miguel Ainguerubaren
egemplura emun biar deutsa graciac bere Onguilla
Jaungoicuari; eta zeimbat gueiago bere Escu santu-
tic errecibidu daben, aimbat gueiago empeñau biar
dau, guztiacaz aren Divina Magestadia obeto ser-
vitan Humildade eguiazco bategaz, Jaquinic Jaun-
goicoac confiau deutsan caudalagaz conforme es-
catuco deutsala irabaztiaren gañeco contuba; ba-
da guchi emun deutsanari contu guichiago esca-
tuco deutsa asco emun deutsanari baño: nere con-
entendimentuco arguitarun laburra eta guichi
dapicaunac
tura, Illoba; ~~Napoles, Chingote, eta Maquelus~~
illten dirianian, eta Juicio generaleco egunian ari-
ñago librauco dira zu baño, baita zu ere ni baño:

~~parcatu equidazu, izentau ditudalaco nere incli-~~
~~nacinuaren contra iru Progimo orreic beren gaiz-~~
~~qui izenacaz, izanic Jesus Divinuac eragozten~~
~~deuscun gauza bere Evangelio santuban, bada ba-~~
~~tetic ez daquit beren izen eta apellidu propioac;~~
~~eta bestetic, conveni dan leguez, izentauco banitu,~~
~~ez ziñateque conturatuco, nortzubec dirian; cergai-~~
~~tic guere desgraciaz Publicuac eurac nombraita-~~
~~co ez dauca beste izenic esan ditudan gaizqui izen~~
~~oneic baño: guacen orain lengo sallari farraiqueta-~~
~~ra.~~

¿Guizonic dan guapuena eta galantena zer da Mundu onetan? Animiaren aldetic ez dauca pecatuba eta pecaturaco inclinacino donguia baño; beste gauza onic badauca, ez dau beria, baizican Jaungoicoaren gracia eta misericordia batere zor ez eutsana: eta Corputzaren aldetic da Lora eder baten moduracua, gaitz edo Trabaju baten izotzac dempora guichi barru Lur peera botaco dabena, Lur biurtu dedin, leen Lur zana: ea bada, nire Illoba, iñoizco demporan arrotasuneraco aizeren batec joco bazindu, cuidadu, ez lecuric emutiagaz zeure biotzian vizio madari-

catu oni; acordau biar zara, bai, Jesu Christo cruzificaubagaz, eta zeu zer zarian; eta zeure victoria obeto aseguraitiarren, eta Diabrubaren aize pestilente ori zeugandic milla legua vide apartaitiarren, lenengo confesaitara zuazenian, manifestau eguiozu zeure Confesore artubari, zer tentacino modu etorri izan iatzun, lecuric emun ez badeutsazu ere: beste aimbeste conveni da, eguitia beste edozein materiaren gañeco tentacinuacaz, entrada guichiago billatu daguien guere biotzetan, eta Diabrubaren Sovervia guelditu dedin deseguinduric guere Confesino santuco Humildade onegaz. Zeu baño guichiago dirianac Corputzeco eta Animaco Potencietan ez dituzu beiñere menospreciau biar zeure biotzian, eta guichiago campotic, aguirian, beren, edo besteren aurrian; eta aren comparacinuan ere ez dozu euqui biar zeure Persona aiec bano onra eta estimacino gueiagocotzat, Jaquinic, zu eguin zaituban Jaungoicoac aiec ere eguin ditubala; berac daqui bada, zergaitic utsic eguin ezin daiquian bere Providencia fin bagueco santubagaz eguin dituban aiec ala, eta zu bestela; eta biar bada aiec Jaungoicoaren

~~presencian~~ aurrian onra eta estimacino obiaguan dagoza zu baño: aitu eguizu, zer esaten deuscun guztioi puntu onen gañian Apostolu San Pabloc: ¿zer gauza daucazu (Guizona) errecividu ez dozunic? eta errezibiduba badozu ¿zergaitic arroquetan zara, bestegandic errecividu ez bazeu leguez? eta modu onetan encargaitan deuscu, ez gaitiala arrotu bata bestiaren contra.

Pecatuba eta pecaturaco inclinacino donguia, nire Illoba, ditu zu zeuriac ~~Diabrubagandic ichatsiric~~; emendic campora zeure Personan ezaguquetan dituzun, eta daucazun gauza onguztiac dira Arguitasunaren Aitagandic errezividu izan dituzun Misericordiac; eta sinistu biar dozu benetan ez dituzula errecividu, euracaz arrotu zaitian, baizican, beren Jabe eta Ćmallia dan, Jaungoicoari gusto emun deguiozun, negociaitan dozula, dituzun, gauza onguztiacaz aldozun Jaungoicoaren onra, zeure Animiaren salvacinua, eta zeure Progimuen edificacinua Humildade santubaren medioz.

Christandadeco Legue santubac ez dau condicinoric Mundutarrai burubac leun-

quetaco, bacoitzaxi bere gustora verba eguinagaz, Eliza Santatic campora vizi dirian Jentilac, Judegubac, eta Eregiac exacutsi oi dauben leguez; baizican exacusten daben guztia da eguiagaz, eta Jaungoicoaren voxondatiagaz conformecua, samina bada exe, bere voxondatera nasai vizi guxa daben, Personiaren tzat; bai; ez dau gastaitan lisonjaric iñogaz; au da daucan Noblecietatic bat, eta ez chiquinena: aragatic esaten deutsut, Humildadeco virtute santu onec, exagozten exe deuscula izatia satisfechuac guere dictamenetan; eta ala ez zaite izan, nire Illoba, satisfechua zeuxe determinacinuetan, eta zeuxe Buruagaz laxegui; bada Diabruac onelacuac exaz cazaitan ditu; aitu eguizu, zer moduz Espiritu Santuba esplicaitan dau vizio onen contra, gu gordetiaren Diabru astutuaren Lazuetatic: Semia (diño) ez eguizu ezer eguin Conseju bagaric, eta eguin ezquero ez zaxa damutuco: eta engañau ez gaitian Consegezuaren gañeco eleccinuan, advertitan gaitu modu onetan: izango dozun Consegezua izan bedi milleen artian escogitan dozun bat bacarra: eta

errazoiagaz; cergaitic Munduba beteric dago Consegeroz, eta bacoitzac ez dauca bere dictamena tucaitaco besteren dictamenagaz; eta guichi dira onein artian, consesu sanua emun daiquianic.

Consesemac bada izan biar dau Conciencia onecua eta Jaungoicoaren bildua santucua; Consesuba escaquetan dan materian adituba, eta batere pasino eta lisonja bagaric consesu sanua emungo dabena, nobexen gogo eta gustuaren contracua bada exe; onelaco Consesema billatu ezquero, gobernau biargaza bere dictamenacaz, baxdin dictamena escaquetan dan materian onerian Consesemac edo bere Aide uxten batec interesaric ez badauca.

Munduco gaucetan nola dirian Contratu, Festamentu, Fianza, Inventario, Herencia, Sucesino, eta beste milla bat oxtein condicinoco gauza, izan biar dau Consesema Abogadu edo Letradubac; eta Animaco gaucetan izan biar dau Consesero guere Confesore adidubac; eta onela beste edocein materiatan Consesuba escatu biar da artecua eta adituba danari Consesuba deseatan

dan puntu artan bertan; baña ascoc daucat Ofi-
cioac eta Oficioetaco beren Titulubac merecimentu
bagaric beren eta beste ascoren calteraco; eta nola
zuc eta zure Oficiocuac ez daucazuben obligaci-
noric, ezaguquetaco, nor noraño dan, eta daucan
meritua, eta capacidadia, dictamen sanua emu-
teco, premina dozunian, artu biar dituzu infozmi-
ac zeure Confesore aditu bagandic, edo Çuzico Mai-
su Jauna gandic; eta esango deutsube, nogaz on-
duen eta seguruben baliau zindezquian.

Humildadeco virtute santubac exacus-
ten deusçu, dala gauza egoguia eta acertauba,
consesuba escaquetia, batec leen ez eucan obliga-
cino bazzietan sartu guza daberian; eta ala adver-
titan zaitut, nire Yloba, ez daguizula zeure Con-
fesoriaren dictamen bagaric eguin beiñere promes-
sic edo votoric; bada salvaitaco bastante dituzu
Jaungoicoaren Legue santuco amar Mandamentu-
bac, bost Çlizacuetatic obligaitan zaituberac cir-
cunstanciacaz conforme, eta zeure Çstaduco obliga-
cino particularrac, gueiagotan zeure buruz sartu
bagaric; eguia da; Jaungoicoaren agradu andico
gauza da Promesa; baña consideracino bagaric

eguiten dana, eta bein eguinicaco Promesa cumplitan ez dana dira Jaungoicoaren desagradu andicuac; bada obe da, ez ofrecidu, ofreciduba ez cumplidubenian; argatic gauza on eta santubetan ere ez badago Humildaderic, galduco da Christauna, sentidu bagatic bere biotza eta Espirituba guztizco ferbore andi bategaz; Apostoluben Principe San Pedro gloriosuac berac ondo esperimentauba zan leguez ~~aitu eguizu zer diñuan onen ga~~ ~~berac~~ contuban ifinten gaitu engañau ez gaitian, tentacinoraco guertatu oi diran onen Principe Apostoluben Principe San Pedro gloriosuac; ~~onerian~~ engañuco peligrutic erraz librauco da bere burubagaz satisfaccino larreguiric ez daucan eta Conseju zalia dan Christauna; zergatic onec emungoditu gueien bat ~~ondo esperimentauba zan leguez: nere biotzeco mai~~ ~~tiac, ez eguizube utsic eguin nai ferborian, zeña~~ ~~guertaquetan iatzube tentacinoraco edo prueba~~ ~~raco, ofrecitan balitzatzube leguez gauza barri~~ ~~ren bat: Conseju zalia dan Christaunac, satisfac~~ ~~cino larreguiric ez daucala bere burubagaz, emun~~ ~~go ditu gueien bat~~ bere pausuac zuzen eta artez, Humildade santuba mediante Jaungoicoac argui eguiten deutsala.

Jesu Christoren Espiritu humildiac (bere Evangelio santuban diñuanaz conforme) gorroto ditu, Guizonen iritzian grandiac eta altubac dirian, gauza guztiac: egui onen vistan bere Discipulu Apostolu San Pabloc encargaitan deuscu: vizi gaitiala, ez gauza altubac guere gogo eta buruban darabilgula, baizican gauza humil edo bajubai arrimaitan gariala: cuidadu bada, nire Illoba, Jausi

ez zaitiala vizio onetan; bada Jaungoicoac bere videtic urtengo ez dau; eta, nundic emen eta inguru-betaco Errietan usteco dozun, eguitia paperic brillantiena, andic urtengo dozu Chori Maloric andiena, eta Jaungoicoaren aurreraco cargu pisubagocua.

Humildadeco virtute santu onec eragozten deuscu euquitia afecto edo vorondateric pecatu venial ezagutubai eta advertidubai, nola dirian guizur chiquin, lapurreta chiquin, maldicino edo murmuracino edo burla chiquinen batzubec, eta onelaco beste milla pecatu venial, advertencia guztiagaz eguin oi dirianac; bai; maravedi ascori jareguitan deutsan Mercatariac ez dau contu onic emungo; Chindurri ascoc inguraquetan dauben Arbolia laster dator galtzera; orobat ere onelaco Christaun epelac Humildadiaren falta mediante pecatu venial ezagutubai ardura bagaric lecu emuten deustenac, ez daube contu onic emungo, eta datoza laster galtzera, erraz jausten diriala pecatu mortaletan.

Humildade santubac ez bacarric bota eraguiten deuscu guere biotzetatic pecatu advertenciazco guztietaraco afectua; baita ere obligaitan

gaitu, ezaguquetara guere Burubac pecatarit zat Jaungoicoaren presencian, guere Concienciac remorditan ez bagaitu ere pecatu mortal edo venial advertenciagaz consentiducoren baten gañian; zergaitic uste ez agatic faltaric ascotan egunoro jausten gara; Espiritu Santubac diño: zazpi bider jausico da Justuba: Isaias Profeta Santubac diño: gure Justicia guztiac Jaungoicoaren aurrian dira flujua daucan Emacume baten erropa zuriaren antzecuac: egui santu onen consideracinuagaz diadar eguiten dau San Pablo Apostolubac Mundu guztiaren aurrian: nire Concienciac ez nau acusaitan ezertan; baña ez orregatic naiz justificaduba; bada juzgaitan nabena Jaungoicua da: bacarric bada Maria Santisima Munduco Criaturen artian izan zan guztiz cabala, batere falta eta imperfeccio baguecua, pecatu venial dan chiquinenian beñere jausi ez zana, eta Zeruco Aingueru guztiac baño perfeccino gueiagocua; beste guztioc gauzaric ascotan uts eguiten dogu; emendic dator Justo eta Santu guztien egunoroco esca vide humildia, Jesu Christo gure Jaunac eracutsi euscun moduban: parcatu

equi guzzi guzre zorriac, guc guzre Zordunai parca-
guetan deustegun leguez: eta eguiaz, Justubac dirian
guztiac, empeñaitan dira, Humildade santu onegaz
ill arterañoco bitarte guztian, Justubago eguiten eta
izaten.

Humildadeco virtute santubac obligai-
tan gaitu exe, agradecidubac izatera mesediac
eguiten deuscubenai ala Jaungoicoari nola Proxi-
muai; Jaungoicoari beti, nola nai tratau gaiala, jr
diñot nola nai matau gaiala (cau da) nauz emon Jaungoicoak egiala Mundu-
rarac meresi eta andiagorat daucain ondarguac naiz naibagueric
zergatic ez deuscu batere zorric, eta ez dago instan-
andiagorat daucain gaitzac; bada oneicar exe Curutziaren gaña
co ratadiban erango dodas leguez valian empleo guztiac dira
tenic edo momentoric zeñian bere Misericordiac in-
meresi andiac; eta ala nai aquiziau meredetzat eguiteco dira
ordainac emun deigula nai gaibagueric andiagac beri izpa
guzraquetan ez gaituben alde guztietatic, batez exe be-
bian gara agradecidubac aren Divina Magestadiari; zergatic ez dago cu
intrinsecoc edo momentoric zeñian bere misericordiac guzraque exe
re beneficio eta Misericordia generalaccaz gañera tabo- zor
tan ez gaituben alde guztietatic, eta bein bein beti agradecidubac izan eta
bear gara gaitzac, aquiziau dago, izan bear gara gaitz guztiagatic agradecidubac ez dago
Jesu gaituban aren Divina Magestadiac me-
aren Divina Magestadiari, bere misericordia eta merecidu gabe exe gala-
car gañera eguiten deuscupas merece particularra batzuc
sede particularren bat zubecaz; bada Arboiaren Ozi
bat movitan ez da Jaungoicoaren voluntate baga-
tic, eta aren Divina Magestadiaren auzzian ez dago
Casualidadetic edo Fortunatic, zeñac dirian Eliza
Ama Santac ezaguguetan ez daben Lenguageco ter-
minuac: bere Providencia Divinoac gobernaitan ditu
gauza guztiac, gobierno santu onetan ula guzi ba-
ten exe utsic eguiten ez dabela; eguia da, bere vidiac
guzandic ezcutatubac, eta guc ezin comprendidu
daiqueguac dira; bacaric pecatuba dau gorroto

biotz guztitic, eta pecatuban guc daucagu culpa eta parte guztizcua.

Ez bacarric bada ~~izan biar dogu agrade-~~ emun biar deutsagu Jaungoicoari graciac bacoitzari banan eguiten de-~~cidubac Jaungoicoari fabore edo beneficio particu-~~ uscun aparteco mesediacatic; baita ere guztioi bardin ~~larren batzubecaz señalaitan gaitubanian, baizican~~ ala onai nola dongai eguiten deuscun mesede generala ~~beti, nola nai tratau gaiala bere Providencia Divinuac~~ catic, nola dirian Eguzquiaren arguitasuna eguno-ro ouze gañian zabalquetia, euria eguitia ~~zabencar~~ ~~cergatic ez dago instanterie zenian, generaldadian za-~~ bere Criaturen bitartez gu mantenitia eta guere vizi-~~balquetan dituban Misericordiac ala Onai nola Don-~~ tza oñian euquitia eta beste onelaco batzubec: ~~gai, inguraquetan ez gaituben, eta~~ euria da Christaun dongac, Jentilac, Judegubac, eta Eregiac beneficio eta Misericordia general oneicatic casoric eguiten ez ~~ba~~daube, ala ere ez da gauza justua, Christaun eguiazcuac eta onac izatia desagradecidubac Jaungoicoari bere Misericordia general oneicatic; agradecimentu santu au aiquetara emuten deuscu David Erregue eta Profeta santubac, esaten deustenian Munduco eta Zeruco Criatura mueta guztiai, eta guertatu oi dirian Suceso mueta guztiai, alabau, eta bedeincatu daguiela beren Jabe eta Eguilla Jaungoicua: bada nola Anima bagueco Criaturac capazac ez dirian berez, alabanza au Jaungoicoari emuteco, cumplitan daube obligacino onegaz beren Procuradorien bitartez, zeñac garian gu, bardin eurac eguiten deuscuben servicioacatic emuten badeutsagu graciac aren Divina Magestadiari, beren Eguilla eta Jabia dan leguez; eta Eliza Ama

Santac ordenauric daucan Maico Oracino santubac ala Janaren asipeneraco nola acabaeraraco dira, Jaungoicoari guc emuteco zor deutsagun alabanza eta agradecimentubac, bere Criaturac eta bere aguinduz, bardintasunian ~~eta o~~ eguin deuscuben servicio ~~agatic~~ muetaonei-catic.

Progimuac ere eguiten deuscubenian mesederen bat edo beste, orobat manifestau biar gaitzate esquer onecuac eta agradecidubac, emuten deustegula graciac biotzetic, zor ez deuscubela eguin mesediacatic; bai; ez dogu izan biar Ganau baltzen moducuac, zeñac, batere casoric eguin bagaric beren Onguilliari, mauca mauca Jaten daube, aurretic daucain gustoco Janari guztia; bada desagradecimentubac detenitan dau Jaungoicoaren Misericordiazco Iturri gozua, eta Guizonari ere quentzen deutsa, mesediac orerian Desagradecidubari eguiteco gogua.

Humildadiaren contraco Soverviaren vicioa da guztiz disimulauba, guichic ezaguquetan daubena, eta, zeña ezaguquetaco biar dan moduban, iñor berez (au da) Jaungoicoaren gracia eta arguitasun bagaric capaz ez dana; argatic zu ere, nire Illoba, vizi zarian dempora guztian

ez zara descuidadu biar, Jaungoicoari escaque-
tan bere arguitasun santuba, urrinetic ezagu-
quetaco, Soverviaco viziora duacen pensamentu
eta tentacino guztiac, baita ere bein ezagutu ez-
quero, aiec vencitaco laguntasuna bere gracia
santubaren bitartez; bada Sovervioac beren Sover-
viari itzi bagaric ezin urric emungo deutsai Jesu
Christo cruzificaubari.

Humildadeco virtute santubac eracusten
deuscu, guere Burubac bajaitara, eta bere contra-
co Soverviac eracusten deuscu, guere Burubac jaso-
tera eta alchaitara beste guztiac baño gorago; ar-
gatic Humildadiaren privilegio miragarria da, mil-
lueca izan agatic ere beren Jarrallac ondo alcar
eta beren inguruco sovervioac ere errazsufritia:
artzeia eta ondo alcarregaz unitia: Soverviaren
condicino madaricatuba da, Sovervio batec beste So-
vervio bat bacarra bere inguruban ezin sufritia, bere
gañian daguan Aguintariaren disposicino eta orde-
na justuac menospreciaitia, eta (gueiago dana)
berac bere Burubagaz ezin baqueric euquitia beñe-
re, sartzen dabela quimera onetan bere empeñu im-
posibliac, zeña dan beste guztiac baño gueiago iza-
teco deseoa, eta beste guztiac baño altubago ibilteco
antsia; eta da gauza imposiblia, empeñu au lograitia.

Humildade eguiazcoac, nire Yloba, exacusten deutsa Christaun mueta guztiari, bacoitzac bere obligacinuagaz ondo cumplitan, ala Aguintariari eta Familiaco Buruari, nola oneiñ obediencian vizi dixianai, bacoitzac bere puestuagaz conforme gozdetan dabela virtute santu au; eta ala Aguintariac Humildade santu au gozde biar dau, bere Bendecuen gañian daucan gobiernu, autoridade, eta escu vidiari itzi bagaric, eta enzacana, basau bagaric, igo ez deguioen gañera bere Bendecuac, eta trastornau ez dedin, Jaungoicoac gure gobiernu onetaco Mundu onetan ifinirric daucan, Ordena mixagarrizco au; baña beti baliau biar da bere Bendecuacanaco aguinte, autoridade, eta escu vidiagaz Jaungoicoaren voröndatiagaz conforme (au da) bere autoridadiagaz arrotu, poztu, eta puztu bagaric, bere obligacinuaren cumplimentubac escaquetan dabenian, eta bere Bendecuac frutuba etaraco dauben modubau; beste moduz izango lizateque edo Soverria, edo Prudenciaren falta andia, asco Aguintari eta Familietaco Buru tontuetan ecusi oi dan leguez.

Humildadia eguiazcua izateco, nire Yloba, izan biar dau ez villac eta bustiac, baizican ale-

gziac, eta animosziac, Jesu Christo gure Jaunaii ondo ichatsia eta azzimauba; eta ala izan biar dogu humilde animosziac, eta animoso humildiac, emuten deutsagula Jesus Diviniaii guere Animetaco escubac confianza andiagaz betericaco erregu eta esca vidiaren vitaztez, aren Divina Magestadiac eutsi ~~deigun~~ gaian bere laguntasun eta graciaren escu santubagaz: uste bico Ymia izanagatic, eta bilduzez pausziac emuten ~~ditubana~~ abera, bere Amac escutic artzen dabenian, ez danca fausico dan batere bilduzic; eta ala bere Amaren laguntasunagaz dua Ymia seguru, pozic, alegre eta animoso; oxobat bada guc ere eguin biar dogu gure Salvatzalla eta Amparatzalla Jesu Christo gure Jaunagaz; eta guere vizi guztian ill arteraño onela portaitan bagara, aren Divina Magestadiac diñuan leguez bere Evangelio santuban, vizico gara beragan eta bera gugan; eta emungo dogu fruitu asco: libraico gara Diabru sovervioaren lazuetatic; izango gara Jesu Christoren antzecuac vizitzan, eta guero eternidade guztian bere compañian Gloziagaz jantziac; beste moduz vizi bagara, desengañaitan gaitu San Pablo Apostolubac, esanagaz,

Jaungoicoac Gloriagaz Jantzico ditubala bacarric, bere Seme Jesus onaren antzecuac eguiten dirianac.

Munduba

Ecusi dozu, nire Ylloba, nola Jaungoicua movitan dan gure erregubacaz, gu defenditara; baita ere nola Zeruban leguez ala Lurrian bere fin bagueco Anditasunac beguiraquetan deusten cariñoz, biotz humildecuac dirianai, gordetan ditubala Munduco peregrinacinuan onelacuac Diabrubaren lazuetatic, zeña dan guere Animen lenengo Etsaia: guazen orain zer bait esatera, gure Animen bigarren Etsaia dan, Mundubaren gañian, zeñac galdu eraguiten deuscun Zeruraco vide zucena eta arteza.

Etsai onen izenian aiquetan dira Munduba bera, Munduco Criaturac ala beguiacaz dacuscunac nola Corputzeco beste sentidubacaz sentidu leizquianac Eguzquitic asi eta Lurraren azpirañoco guztiac, eta oneicaz gaizqui valiaitan dirian Persona guztiac; oneic guztioc dira bada Mundubaren izenagaz aiquetan dogun Etsaia: Etsai au da Diabrubaren eta Araguiaren Senide ondo alcar

artuba; irurac eguin oi daube beren junta, guri Zeruraco vidia uts eraguiteco; eta ala, bata vencitaco dirian Armaac, dira ere guztiz egoguiac, beste biac vencitaco, bacoitza banaan vencitaco señalaitan badira ere bere Arma particularrac.

Taungoicuac bota zitubanetic ona Paraisotic gure lenengo Gurasuac beren desobedienciaco pecatu mortala mediante, Mundu onec Justo guztien eta Eliza Ama Santaren Lenguagian dauca Negarrezco Valliaren eta Destierroaren izen tristia; ala beinic bein eracusten deuscu Eliza Ama Santac berac, Ama Virginari mesediac escaquetaco errecividuric daucan, Salviaren Oracinuan; eta Justo guztiac aoa betian esaten deutsai Maria Santisimari Oracino eder au, Josiric euben biotzac beren Zeruco Patria eta Ciudade eder artan, eta beguiraquetan deutsaila Mundu oni beren castiguco Destierroari leguez.

Ez daucagu ez, nire Illoba, emen guere Erria eta Ciudadia; aitu eguizu onen gañian zer esaten deuscun Apostolu San Pabloc: ez daucagu (diño) emen Ciudade iraupenecoric, baizican gabiltza, guero izango dan, beste Ciudade baten billa; daquigula, eze deseguinquetan bada vizi lecu oneta-

co guere Lurrezco Echia, daucagula Taungoicoagandic beste Eche bat, ez (Guizonen) escuz eguiña, baizican eternua Zerubetan: argatic Apostolu glorioso onec beronec encargaitan deuscu, ez gaitiala conformau Mundu onegaz guere costumbre eta vizi moduban; Lenguage au eguiaz tristia da, bere biotza Munduco Moda eta vanidadiari josiric daucanarentzat, baña Lenguage arteza eta batere lisonja baguecua salvau gura dabenentzat.

Badaquit, nire Illoba, itanduco deustazula; nola da posible, izatia Mundu au guere Etsaia izanic Taungoicoaren obra gure provechu eta oneraco eguiña, eta bere Criatura guztiac izanic onac alde guztietatic? ciertuba da, Munduba eta Munduco criaturac, onac eta guere oneraco eguiñac diriana; ala ere guere Animetaco Etsaiac dira, euracaz valiaitan garian guztian Taungoicoaren vorondate santubaren contra; baña onetan ez daucai eurac culparic, baizican culpa guztia gueria da, orain esplicaitara noian moduban.

Taungoicuac Mundu onetan eguin zituban Criatura guztiac daucai fin mueta bi; bata particularra (au da) Criatura bacoitzac particularrian daucan fin propioa bere virtute, condicino,

edo naturaleciagaz conformecua; eta fin particular au etorri lequiquio gauza bacoitzari ez bacarric Jaungoicoaren aldetic, baita ere Eliza Ama Santaren aldetic, eta Guizonaren habilidade, ingenio, eta Oficio licitoaren aldetic: Criaturac daucain bigarren fin edo destinua da Jenerala (au da) Criatura guztiac bere aldetic guri servidubagaz daucain fin altuba eta bacarra, zeña dan gu obligaitia beren servicioacaz, beren Eguilla Jaungoicoa servitara eta amaitara, eta guere Salvacinoco azquen fin santuba lograitara.

Munduco Criaturac bada izanic berez onac datoza izatera guere Animetaco Etsaiac, baña guere culpaz eta maliciaz, valiatan garian guztian euracaz, daucain fin mueta bi orreitatic campora, zeñac dira puntuban esplicauric itzi ditudanac: lenengo fin particularretic campora valiaitan danian Christauna Criaturaren bategaz, aplicaitan dabela virtuteric ez daucan destinoren bateraco, ignoranciac escusaitan ez badau, eguiten dau lenengo Mandamentu santubaren contraco pecatu mortala; eta pecatu au da Superstizinocua edo Sorguinderiacua deritzona; oreitatic batzubec izentauco di-

tut; zergaitic sarritan guertatu oi dirian batere escru-
pulu bagaric: onelacuac dira, Ollarra besartian dau-
cala batec eta gaberdian iru vuelta Echiari bere inguru guztitic
emutia: San Juan gau leneco gaberdian soroco Car-
dubac eta Bedarrac ebatia: Santu glorioso onen
egunaren goician eta ez beste demporatan Auntzai
eta beste Ganaubai igueri eraguitia: Beguiz egui-
tia Vme edo Ganauren bateri, eta sospecha dirian
Personiari escubac garbitu eraguin eta aren Vra
edan eraguitia Vme edo Ganau gaiñoari: Ycatzac
Vmiai colcuan sartzeia: Batec gaitz luceren
bat eta izen bagacua daucanian, bere Oia eta Al-
miradia erregistraitia Gaitzquinaren billa, eta
an beguitandu eta figuraitan iaten gauzac apar-
tau eta Vidacurtzetan erretia: Laumarividicu-
ac eta Zortzimaravidicuac doblauric edo oquer-
turic botatia Animen Zepotilluetara, edo San An-
tonioaren aurrian ifintia: Orobat Defuntuben
gañian eta Odei aserretaco demporetan Conjuru-
en eta Conjuradorien gañian zabaldu oi dira mil-
la siniste guezurrezco; eta beste edozein gauzatan
corritan daube Atso ipuiñ asco Christandadian
sufridu ezin leizquianac; instante oro entzun oi
da: Vrlia edo Berendia Sorguiña da; Aquelarren

onelaco eta alaco gauza eguiten dau: itzi deiogun baguian Aitz puntaco Gaizta zuloari, Jaquinic eguiazco Gaizta zuloac diziala vizioz eta pecatuz beteric dagozen biotz eta Anima madarikatubac: onelaco destinua bada emuten deustenac Jaungoicoaren Criaturai, beren Etsaiac ditube Criatura oneic, baña beren vizioz eta culpaz, eta ez Munduba eta Munduco Criaturac dongac diziala co; bada oneic onac dira: itziric alde batera embusteria onei Christau ignorantien eta Juicio baguecuen contubac diriau leguez, guacen orain zer bait esatera Munduba eta Munduco Criaturac daucain beren bigarren fin general eta destino bat bacarra eta santubaren gañian, zeñian gueien bat ala Ygnorantiac nola Jaquintsubac ala Pobriac nola Aberatsac edozein estaducuac diziala emuten ditube estropezu andiac beren pauso utsacaz.

Jaungoico gure Jauna da gauza guztien principioa eta azquen Fina: eguin zituban bada ecusten eta sentitan ditugun Criatura guztiac gure Corputzaren tzat, Corputza Arimiaren tzat, eta Arimia beretzat; emendic dator Munduba eta Munduco Criaturac daucain bacoitzac

bere virtute propioagaz conformeco destino eta fin particularracaz gañera euquitia guztiac beren destino eta azquen fin general, altu, eta bat bacarra, zeña dan beren Eguilla Jaungoicua, nora duazen paraitara gure medioz; ala aiquetara emuten deuscu San Pablo Apostolubac esaten deuscunian: gauza guztiac dituzube zeubenac ala Munduba, ala Vizitza, ala Criotza, ala presenteco gauzac, nola etorquizunecuac; zergaitic gauza guztiac zubenac dira, zubec Christorenac, eta Christo Jaungoicoarena: verba labur oneitan daucagu esplicauric Mundubaren eta Munduco Criatura guztien bigarren fin general eta bacarra, eta euracaz valiaitaco gorde biar dogun modu ona eta seguruba.

Bardin Mundubac eta Munduco Criaturac gure Animai beren azquen Fin Jaungoicoaganaco vide zuzena galdu eraguiten badeuste; ifinten badogu guere aficinua Criatura oneitan eta Munduco zoraqueria eta Andinaitasunian, guere biotzac arrotasuneco Aiziagaz puzturic darabilgula, eta caso guichi eguiten dogula Zeruco guere Ciudade eta Eche eterno eder artara zer caminau daucagun vide luciagaz; Munduba eta

Munduco Criaturac berez onac eta apreciagar-
riac datoza izatera guere Animetaco bigarren
Etsai madaricatuba, ez beren culpaz, baizican
guere vicioz, maliciaz, eta culpaz; amau daique-
gu (bai) Criaturac, baña Jaungoicoagan bere Onta-
sun~~aren~~ eta Misericordiaren, ~~eta~~ obrac dirian leguez; ba-
da, beste moduz valiauco guiñateque Mundubа-
gaz eta Munduco Criaturacaz, beren Eguilla Jaun-
goicuac emun ez eusten fin eta destinoraco.

Munduba eta Munduco Criaturac guere
Animetaco Etsaiac dira, eurai deustegun amorio
desordenautic sortzen dan guztian guere biotze-
tan Gurasuacanaco obediencia eta errespetuaren
falta edo beste edocein Jaungoicoaren ofensa; eta,
onelaco lancian aurquiquetan garianian, bota bi-
ar dogu guere biotzetatic, tropiezuba paraitan de-
uscuben, Criaturacanaco aficino guztia; menospre-
ciau biar ditugu, guere vizitza bada ere, beren Ja-
be Jaungoicoari zor deutsagun amorioagatic, bar-
din beragaz parteric euquitia gura badogu; doctri-
na santu au ez da niria, baizican Jesu Christo gu-
re Jaunac diñuana bere Evangelio santuban: zube-
tatic edozeiñec (diño) renunciaitan ez baditu dau-

can gauza guztiac, ez da posible nire Discipuluba izatia: eta Evangelio santubaren beste lecu baten diño: amaitan ditubanac bere Aita eta Ama ni baño gueiago, ez nau ni mereci; eta amaitan dabenac Semia edo Alaba ni baño gueiago, ez nau ni merezi: bai; leenago da Jaungoicua guere Guraso, Senide, Ume eta Progimo mueta guztiac baño eta gueiago dana guere vizitza propioa baño, onei deustegun amorioac ifinten gaitubanian, Jaungoicua ofenditaco, peliguruban.

Amau daigun bada, nire Illoba, Munduba eta Munduco Criaturac, gauza onac dirian leguez, baña beren esclabitudian jausi bagaric, baizican beren Jabe gariala eta Jesu Christoren Esclabuac; eta valiau gaitian euracaz fin santu artaraco, zertaraco Jaungoicuac eguin zituban; modu onetan Munduba eta Munduco Criaturac izango dira Corputzarentzat; egongo da Corputza Animiaren bendian; Animia egongo da Errazoiaren bendian, eta Errazoia egongo da Jaungoicoaren graciaren bendian; eta azquenic Guizona dan guztia vizico da Jaungoicoaren bendian, eta izango da Jaungoicoarena: contrara barriz urraquetan bado-

gu eta trastornaitan badogu Taungoicuac bere Criaturetan ifinita daucan equilibrio eta ordena santu au, Munduba eta Munduco Criaturac datoza izatera guere culpaz guere Animetaco bigarren Etsaia; eta ez dogu izango parteric beren Eguilla Taungoicuagaz, zeña dan gauza guztien principioa eta fina.

Taungoicoaren vorondateco equilibrio eta balanza santu au bere Criaturetan gorde daigun, valiaitan gariala euracaz aren Divina Magestadiac emun eusten fin edo destino santubagaz conforme, San Pablo Apostolubac cuidadu andiagaz avisaitan gaitu Christaun guztioc modu onetan: Emaztiac daucainac (diño) vizi bitez ez baleucain leguez; eta negarrez dagozenac negar eguiten ez baleuben leguez; eta alegraitan dirianac alegraitan ez balirian leguez; eta (zerbait) erosten daubenac gozaitan ez baleuben leguez; eta Mundu onegaz valiaitan dirianac valiaitan ez balirian leguez; zergaitic Mundu onen figura Juanagaz dua: puntu onen gañian Santiago Apostolu gloriosuac zer diñuan entzun eguizu, nire Yllo-

ba; Mundu onen Adisquide izan gura dabena equiten da Jaungoicoaren Etsai.

San Juan Evangelista eta Apostolu gloriosuac apartaitiarren guere biotzac Munduonetaco Criaturacanaco aficino larreguitic, diadar equiten deuscu: Munduba badua, baita ere bere deseo larreguia: eta, Jausi ez gaitian guere Etsai Mundubaren lazuan, contuban ifinten gaitu daucan trampa mueta guztien gañian, gu beraganaquetaco, eta bere lazuan sartzeco; avisaitan gaitu bada modu onetan: ez equizube deseau Munduba, eta Munduban dagozen gauzac; zergatic Munduban daguan guztia da Araguiaren deseo donguia, Beguien deseo donguia, eta vizitzaco Sovervia: bai, nire Illoba; verba guichitan eta guztiz claru Apostolu glorioso onec ifinten deuscu guere Beguien aurrian Etsai madaricatu onen Trampa eta veneno guztia: veneno au zer bait esplicaitia, esperienziac eracusten deuscun moduban izango da nire empeñuba labur bada ere Etsai onen gañeco Tratadubar.

San Juan gloriosuac bada diño, ez daigu-

la deseau Munduba eta Munduco gauzac; eta señalaitan deuscu Munduco gauzatzat ez Munduco Criaturac, baizican Criatura oneicanaco Araguiaren eta Beguien deseo desordenadubac, eta vizitzaco Sovervia: au da Mundubaren Trampa guztia, beren bitartez Zerura caminau biarrian, euracaz embobauric eta eurai beguira vide erdian gu detenitia, eta aztu eraguitia aurrera zer eguin daucagun vidia; baña au guztiau da guere modu bagaco deseo desordenauben culpaz; ifini daigun ordenan guere deseoac, eta Mundubaren Trampa eta veneno guztia guelditucо dira deseguinduric, eta Criatura guztiac izango dira gure oneracuac.

Humildadeco virtutiaren Tratadubar esan deutsut, nire Illoba, zuretzat bastante dana zer dan vizitzaco Sovervia, eta zein erru madaricatuba daucan; ala ere esplicaitara noian Tratadu onetaco puntubetan empeñauco naiz zure vistaren aurrian ifinten, vizitzaco Sovervia onec, bere Servitzari dirian, Beguien eta Araguiaren deseo desordenaduben vitartez eguiten deuscun, beste calte icaragarri batzubec ala Animaco nola Munduco gaucetan.

Araguiaren deseo desordenadubac gueien

bat aitu oi dira seigarrengo Mandamentu santubaren contra duazenac; baña Araguiac Lujuriagaz gañera baditu beste deseo desordenauric asco; eta ala orain bacarric esplicauco ditut Araguiaren eta Beguien beste deseo donga batzubec, eta Araguiac Lujuriaraco dituban deseo desordenadubac esplicauco ditut, guere Animen irugarren Etsaidan Araguiaren gañian verba eguiten dodanian.

Jesu Christo gure Jaunac eta Mundubac eracusten deuscuben vidiac, andiac izateco, bata bestien contrarioac dira: bein batian itandu eutsain aren Divina Magestadiari bere Discipulubac modu onetan: ¿nor uste dozu, dala andiena Zerubetaco Erreinuban? eta Jesus onac ~~ots eguinic~~ beragana deituric Aurcho bateri ifini eben (bere) Discipuluben erdian, eta esan eusten: eguiaz esaten deutsubet; bardin biurquetan ez bazarai eta eguiten ez bazarai Aurchuac, ez zarai sartuco Zerubetaco Erreinuban; bada edozein humillaitan dala Aurcho ori leguez, au da andiena Zerubetaco Erreinuban: ez daquit, Apostolu santubac esperaitan ete euben edo ez onelaco errespuestaric beren Maisu Je-

sus onagandic; bada itauniagaz conforme izan bi-
ar euben ignorantiac, eta barriac edo Noviciuac
bere Escolaan.

Mundubac eta bere Jaunalba dongac le-
nengo exacusten deuscuben vidia, andiac izateco, da
vizitzaco Soverria, eta vide onen Exacustzallatzat
ifinten deuscuben Ychu aurrecuac dira Anaguiaren
eta Beguien deseo desordenadubac; eta deritzuen
instruccino egoguiac guri onetaraco emutiarren dau-
cai beren moduco Evangelio bat, nun dagozen escri-
biduric esaera eta Doctrina batzubec, predicaitaco
Jente gazte eta ignorantien artian vulto andico
egui batzubec balizian leguez; eta esaera onein
guezurrezco queiagaz beriala ichuquetan ditu-
be esperiencia bagueco Chaistaun gaztiac, eta
Mundubau zer bait lucitaco disposicinocuac
diziranac, beste eguiric aen contracuac iñoc
asmau ezin balegui leguez: ¿ zeintzuc ete dira
bada, nire Yloba, Mundubaren eta bere Jaunalla
dongueen Evangelioco esaera parrpaxuc oneic?
batzubec eta orraingo milla bider entzungo zituba-
riac dira: Jana gustora eta Jantzia modara.

¿ Nundic uxterac dira esaera oneic? duda

bague urtenac dira Araguiaren eta Beguien deseo desordenaubetatic eta vizitzaco Soverviatic, zeñac dirian San Juan Evangelistac apuntaitan deuscun Mundu onetaco iru gauzac; bada iruvicio madaricatu oneic sartzen dira betez betezian señalauric itzi ditudan esaeretan, batez ere bardin batec esaera oneic diñuena lograitaco eta cumplitaco saltaitan badau motivo grave bagaric bere Gurasuen Mallatic, eta atropellaitan baditu onein vorondate Justua, eta onein lecuban Jaungoicoaren Providenciac parau deutsan Personen disposicino errazuazco edo Juiciosuac, ezertan ez daucala onelacuen bere gañeco cuidaduba, baizican pensaitan dabela bere Clasiac eta Personiac gueiago merecitan daubela bere Gurasuac baño, eta Gurasuac edo onein lecucuac ez diriala beragaz portaitan, bere merecimentubac escaquetan dauben moduban: nire contura; obeto zerzenauco baguitu esan ditudan Araguiaren eta Beguien deseo desordenadu oneic eta guere vizitzaco Sovervia, eta ifinico bague-uste Mugarri firme batzubec, neurrian paraditezen, Mundubaren Jarralla dongueen Evangelioco doctrina guezurrezco onec ez leuscu aimbeste calte eguingo, zein da eguiten deuscun.

Mundubaren Jarralla juiciosuac ere daucai beren moduco beste Evangelio bat, zeñian beren gobiernu oneraco asentauric dagozen esaera egogui batzubec, eta Mundubaren Jarralla dongac eta eruac beren Evangeliotic predicaitan dauben doctriniaren contracuac; oneic dira: ibilli nadin ni barruba beroric daucadala, eta Jentiac barre eguin dagaiela: beste esaera bat da: Lapurra da, daucana baño gueiago gastaitan dabena; juicio edo sensu baguecua da daucan guztia gastaitan dabena; eta daucana baño guchiago gastaitan dabena au da juiziosua eta zintzua: orain ecusi daigun, Mundubaren Jarralla dongaac eta onac beren gobiernuraco daucain Evangelio diferente bi oneitatic zeñaren fabore daguan Jesu Christo gure Jaunaren Evangelio santuba eta bacarric eguiazcua dana; eta, onen vistan Apostolu santubac eracutsi euscuben doctriniac Evangelio bi aietaco zeñaren doctriniari urren emuten deutsan; bada au da, pasino bagaric zuzen eta artez disputa au erabaguiteco moduba.

Christaun eguiazco eta juizioso guztiac edozein Clase eta Oficiocuac diriala bene benetan

menospreciaitan daube Mundubaren Jarralla dongac beren Evangeliotic predicaitan dauben apuntauric guelditu dan doctrina guezurrezcua eta madaricatuba, eta, oni alde batera itziric, biotz guztitic arrimaitan dira, Mundutar juiciosuac beren Evangeliotic predicaitan dauben, doctrinari asentauric itzi ditudan esaeracaz conforme; zergaitic lenengo Evangelioco doctriniaren aldetic dago Diabru guezurti eta sovervioa, eta bigarren Evangelioco doctriniaren aldetic dago gure Jaungoico eguiazcua eta humildia eta bere Evangelio santuba, zeñian aren Divina Magestadiac esaten deuscun modu onetan: ez eguizube cuidadu larreguiric ifini esaten dozubela; zer jango dogu? edo zer edango dogu? edo zer jantzico dogu? zergaitic Jaungoicoaren ezagupera bagueco Jentilac dabiltza gauza onein guztien billa: eta reprendidu zituban bere Discipulubac, eta aecaz Christaun guztiac, esaten eustela; zer gaitic daucazube aimbeste cuidadu Jantziaren gañian: eragozten badeuscu bada Jesus Divinuac cuidadu andiagaz ibiltia jango edango eta jantzico dogun gauzen billa, ascoz gueiago eragozten deuscu jana gustora eguiteco eta Jan

tzia modara erabilteco ciudaduba, zeña dan Mundubaren Jarralla dongac beren gobiernuraco daucain Evangelioco doctrina.

Orain ecusi daigun eta aitu daigun zer diñuan puntu onen gañian Mundu guztia Jesu Christoren Legue santura convertitaco Zerubac escogidu eben San Pablo Apostolu gloriosuac: euqui ezquero (diño) zegaz guere vizitza alimentau, eta zegaz guere Araguiac estaldu, contentu gara onenbestegaz: ez diño, euqui ezquero Jana gustora eta Jantzia modara, baicican zegaz alimentau eta zegaz Araguiac estaldu onembestegaz contentu gara; bai; au eta ez beste gauzaric aiquetara emuten deuscu Apostolu bienaventuradu onec leenago apuntauric itzi dodan bere aviso santuban: zerbait erosten daubenac vizi bitez gozaitan ez baleuben leguez.

Doctrina onen vistan considerau eguizu nire Illoba, Mundutarren beren moduco Evangelio bi aietatic zeñen fabore daguan derautsagun materian Jesus Divinuaren Evangelio santuba? eta Jaungoicoaren vorondate santubac eta onen vistan Apostolubac predicau euscuben Doctrina eguiazcoac zeiñ Evangelio bi aietaco Doctrinari urren emuten deutsain?

ez da neque ~~igartia~~ ezaguquetia, pasino bagaric disputia erabagui gura izan ezquero.

Lenengo Evangelioco Doctrina eruac: Jana gustora eta Jantzia modara: ondatu izan ditu Echiac Familiac eta Erreinu osuac: contrara barriz Mundubaren Jarralla Juiciosuen bigarren berenmoduco Evangelioco Doctriniac aberastu izan ditu Echiac Familiac eta Erreinubac, firmeza guztiagaz betetan ditubala, batez ere Jarraiquetan deutsainian Doctrina oni, ala dalaco Jaungoicoaren vorondate santuba: lenenguac, darua ospitalera ~~darua~~ edocein Familiaco Guraso; contrara bigarrenac aberastasunagaz sendaquetan dau: lenen~~bacaz, bigarrenac Jaungoicoaren vorondatiagaz ar~~guac betetan dau Infernuba Condenaubacaz; bigarrenac ~~reglauric beteetan dau Zeruba Santubacaz: lenengu~~ Jaungoicoaren vorondatiagaz arreglauric beteetan dau ~~ac darua Ospitalera edozein Familiaco Guraso, con~~ Zeruba Santubacaz ~~trara bigarrenac aberasquetan dau~~.

Lenengo Evangelioaren doctrina guezurtiac bere Jarrallai dempora guztietan pobrecia ecarri badeuste, ez guichien presenteco dempora donga oneitan, zeñetan gauzac zembat gorago dabiltzen, ecusten dogu aimbat puntu gueiago, eta vanidaderaco amorru andiagua, Anima gaisuac pecatuz betiaguac, eta Infernuraco guertatubaguac, obligaitan daubela Jaungoicua, des-

cargaitara bere Justicia bardiña euben gañian, ez bacarric beste Munduban, baita ere emen ascotan; zergaitic aren Divina Magestadiac, Neurtzalla ona dan leguez, sarritan castigau oi ditu onelacuen arrotasunac, beren culpa guztizcuac obligauric, permititan ditubala beren Familietan eta Vmeetan arrotasun eta vanidade doblaubac, Lur Jo eraguiten deustela (beren provechuraco) vide artatic, nundic uste euben andiaguac izatia Mundu onetan; Jaquin daguien onela Ero oneic (Espiritu Santubac diñuan leguez) batec padecidu oi ditubala tormentubac gauza aien escutic, zeñen vitartez pecatu eguin oi daben: eta ojala emen escarmentauco balira onelacuac, beste onenbestegaz Jaungoicoagana convertiduric beren pecatuben penitencia eguiazcua eguiten daubela: ¿nundic uste dozu bada, nire Illoba, sortzeen dala, gueiago izatia condenaitan dirianac salvaitan dirianac baño? ¿nun da San Pablo Apostolubaren encarguba: baliau gaitiala Mundu onegaz, baliaitan ez baguinian leguez? ¿nun Apostoluben Buru San Pedroc emuten deuscun avisua, gure inguruban dabillen Leoe amorratu Di-

abrubaren atzamarretan ez Jausteco: izan zaitez-te moderadubac? Ha! ezin entzun lei encargu eta aviso santu onein voz suavia, Araguiac. Beguiac eta vizitzaco Soverviac etaraten dauben bulla eta diadar andien artian.

Mundubaren Jarralla dongac beren gobiernuraco daucain Evangelio guezurtiaren doctrina onec: Jana gustora eta Jantzia modara: bein sustraiac bota ezquero Familia bateco Burubaren biotzian, beragaz dacar galdu biar eta onda mendi guztiac, eta Hacienda ascoren Jabe dan Caballero bat izanagatic, beriala lur Jo eraguiten deutsa, eta imposibilitaitan dau, bere Vmiai, guichi izanagatic, emuteco demporaz beren acomodacinuac, Erri guztietan dacuscun leguez; zer calte eta estrago eguingo ete deutsa bada doctrina pestilencial onec Echalde bategaz edo bigaz vizi dan Necazari triste bateri? ¿zer? Ospitalera bota, eta bere Andinaitasunian eta ezin izanian Framposo eta Pecatari andi bat etara, eta beragaz batera aimbeste Jaungoicoaren Etsai, zeimbat Vme daucan bere cuidadura; zergaitic Necazaria, Mediania batetic urten ezquero, postaan dua bere galdu biarrera, Necazaritzaien gañeco tratadubar aiqueta-

za emungo dodan leguez.

Condenaitan dodanian Mundutar euen doctrina pestilencial au: Jana gustoza eta Jantzia modara: ez dot esan guza, euqui daquiala batec bere Familia gosia padecitan, ez da emungo deutsan sustentuba guisau edo maniau dedilba, Estomangubac execivitia iquiñ daben modubau, eta Osasunian calte eguingo daben modubau; ez, ez dot esan guza onelacoxic; bada Mundubau vizi dunac, bere obligacinuagaz cumplitau empeñaitau dala, biar dau onembeste conveniencia: ez dot ere esan guza, Jantzi daquiala batec oxain eun edo berreun urte usaitau zau eta presentiau iñoxc ez dauabillen soñeco modu ba, eta uten daquiala Publicoza Chori malo bat equiric Jantzi barre gaxi eta menospreciagaxi bategaz: bacarric bada esan guza dodara da, Mundu guztiac gorde biar dabela ala Janian nola Jantzian moderacino eta Mediania bat, Mundubaren Jaxalla Juiziosuac eta zintzuac beren moduco Evangeliotic predicautau dauben Doctrina sanuagaz conforme zergatic doctrina onen fabore dagoza Jaungoicoaren voxondatia, Jesu Christoren Evangelio santuba, eta Apostolu gloriosuac predicau euscuben doctrina santuba: beste modutz vizico da bere Etsai dirian Diabru-

baren ~~eta~~ Mundubaren ~~Esclabo~~, eta Araguiaren Esclavo?

Christaun eguiazcuac bada izan biar dau ala Janian nola Jantzian regularra eta moderaduba, zer bait sobrantiac urteten deutsala bere irabazi eta errentetatic; onetaraco biotz guztitic gorroto izan biar deutsa Modiari eta Modiaren izen bacarrari, Mundutar eruac eracusten deuscuben sentiduban; eta ala bere Maico eta Jantzico portian ez dau batec izan biar singularra, bestiac ez lezcua, bestien admiracinua eta atencinua eta Jaungoicoaren aserria beraganaquetan dabela: eta ecusi agatic bere igualeco edo bera baño guchiago dan beste zororen bat, urteten dabela onelaco porte singularrian, ez dau imitau biar eta Jarraitu biar orrelacuaren zoraqueriari; zergaitic au izango lizateque, ez (obligauric gaozen leguez) Jesu Christogaz Jantzitia, eta bere Espirituba euquitia; bai, Diabrubagaz ~~eta~~ Mundubagaz eta Araguiagaz Jantzitia, onein Espiritu madaricatubagaz gobernaitia, eta, obligauric daguan, gastu precisuetaraco Zurico erre bat ez euquitia.

Mundubaren Jarralla ero oneic biotz

guztitic Jarraiquetan deutsai (aldauben guztian) ala Janaren gañeco gusto desordenaubari, nola Jantziaren gañeco Modiari; baña lograu ezin baditube biac, ucaquetan deuste beren Burubai Janaren gañeco gustoa, eta onetan ascoc ez oi daucai empeñu andiric; zergatic iñorc ez dacuste éuben Friparic; eta ifinten daube beren empeñu guztia Jantziaren gañeco Modan; zergatic Mundu guztiac vistan daucan darabilden Jantzi moduba; ez deuste arduraric barruba utsian erabiltia, azal ederra badarabilde, beren Arpeguitara coloriac urteten deustela ez aimbeste Estomanguco sendotasunetic nola beste ficcinoren bat zubetatic: Ha Diabrubaren ~~eta~~ Mundubaren eta Araguiaren Martiri miserabliac!

Soñecuac ez dau bat eguiten, eta Guizona leena da edozein Jantzigaz estaldu daguiala bere Araguiac; ala ere Christaun eguiazcuac gorde biar dau bere Jantzian moderacino grave eta Mediania decente bat; zergaitic Personiac publicau oi dau gueien bat bere barruba eta biotza bere azaleco Soñecuan, bere Sobrescritua dan leguez; ala aiquetara emuten deuscu Frentoco Concilio general santu-

bac; eta azgatic Iligero Jantziagaz dabillenagatic esan oi dogu, aren biotza eta Espiritua dixiala Iliguerrenac; au da motiua, zergaitic Eliza Ama Santac ordenau deusten Monjai, Frailiai, eta Abadiai Jantzi graue, serio, eta Modatic admitau ez dabena, beste gauza on guztietan egempluba emun biar dauben legnez Christaun guztiai, onetan exe egempluona emun deguien.

Badaquit, edozeiñec esango dabena, bacoitzac biar dau bere modu eta poxte egoquia: bai, nire Iloba; ala da: Iuiciosuac, Zintzuac, Humildiac, eta Munduco pompa eta vanidadiaren menospreciatzalla Christaun eguiazcuac biar daube exabilli beren modu eta poxte egoquia, eta zein dan au esplicauzic guelditu da. Mundubaren Jaualla mueta bien beren moduco Evangelio biac bata bestiagaz compaxau izan ditudanian Jaungoicoaren voxondate santu, Jesu Christoren Evangelio santu, eta Apostoluben doctrina santubaren vistan; eta itzi eguiezu beste modu eta poxte egoqui guztiac Exo, Zoro, Pamparrue, eta Munduco pompa eta vanidadiaren Jaualac dixiancentzat, beti imitaitan dituzula puntu onen gañian zuc baño ha-

cienda eta medio gueiago ez daucaila beren porte guchiagogaz escuartian ondo eta zu baño obeto dagozenac, eta ez deustezu beñere casoric eguin biar zu baño aurrerago dabiltzenai; zergaitic onelacuac anchitu eta iragoteco deseo tontuac dacarde Mundu guztia galduric eta trampaz beteric: imitau gura badituzu bada zu baño aurrerago dabiltzenac, ez eguizu imitau portian zu baño gueiago dirianac, baizican zeure Oficioan eta Estaduco obligacinuen cumplimentuban zu baño gueiago dirianac, oneic bai, eta ez bestiac, zergaitic oneic imitaitaco deseo eta empeñu errazuazco bat da empeñu onraduba, Jaungoicoaren gustocua, eta provechu andiac beragaz dacarrena.

Beste batec esango dau: bein igo ezquero bere moduco porte egogui batera, onembestegaz contentu naiz, gueiagoraco deseoari eta antsiari lecuric nere biotzian emun bagaric: esaera eta replica au leenagocuen Senide legitimua da; eta ala reflexionau eguizu atencino guztiagaz leenagoco esaera edo replicari puntuban emun deutsadan errespuestia, eta aplicau eguizu respuesta ori berori presenteco replica oni; eta onembestegaz dago erantzunic replica edo cargu oni.

Munduban vizi dirianac beren provechubari

bacarric beguiraturic Eternidade santubaren erres-
peto bagaric goxoto izan biar leuquie Doctrina
madaricatu oni: Jana gustoza eta Jantzia Moda-
xa: eta Modiaren izenac eta bere Espiritubac icara
eraguin biar leusquie Munduban Juicio pusquin bat
daucain guztiai; zergaitic Mundubaren asipene-
tic Caudala eta Modaco vanidadia izan dira
Aizpa bi aiñ gaizqui unidubac, zein da uaten ez-
quero buruucan Amaren Sabeletic ala vizi dira
presentian ere; eta Guizon guztiz despesaubac eta
Jocaera anditacuac eguin dauben alegun eta em-
peñu guztiagaz, Aizpa bi oneic alcarregaz unitaco,
ez daube etara Juturic; oraindicau buruucan da-
biltza; eta ez dago moduric eta esperanzaric uni-
taco alcarregaz gueroco dempoetan ere: unio one-
taraco empeñu quimerosuan saatu dirian guzti-
ac, ecusirric ezin eguin daubela ezer ere, Jasaari izan
dira Zaragozaco Eche santubaai begira, eta ar-
tu daube araco vidia.

Materia onetan gueien lograu dabenac
bere despesu andiaren vitartez, eta Jaungoicuac,
Jocaera diestuac eguiteco, emun deutsou ocasi-
ruaren medioz, ez dau besteric lograu baicican

bere egunetan alcarregaz ecustia Aizpa bi oneic, baña beren biotzetaco zauriac ondo osatu bagaric; guero onelaco Diestruaceta Despesaubac, bere vizitzaco egunac acabau ezquero, izten deuste bere Vmiai Curadoratzat Modaco vanidadia, bada onetaraco bacarric eucan escuvidia; eta Jaungoicuac, beriac dituban leguez despesuco doia eta onegaz socaera diestruac eguiteco gracia etamedioac, ez deuste emuten gueien bat onelaco Diestruen Vmiai due oneic, zor ez deusten leguez eta eurac ere merezi ez dituben leguez: orra nun, Guizon Diestro au ill ezquero, bere Vmien Curadora eta Aguintaritzat guelditu dan Modaco vanidadia; artzeen ditu onec Echeco quiltzac, eta botaten dau Diabru Echera bere Aizpa Caudala; eta onetan bacarric paraitan dira Aizpa bi onein unioan empeñaitan dirian Guizon guztiac, izanagatic ere alditezquian despesuric andienecuac eta soca eraric diestruenecuac; eta gueiago ezin daube.

Buruban Canac urten deustai, eta zu, nire Illoba, orain zatoz Muñdura; zuc baño bazter eta Jente gueiago ecusi ditut ez gulleriaz eta curiosidadez, baizican nire acomodubaren billa; eta ez dot ecusi oraindio daquidala Persona

caudalosoric soñian pamparrue jantzita, baizican lisura guztiagaz; eta contrara soñian presumidubac dirianac ezagutu ditut Zurico erre bat ez daucaila, trampaz, zorrez, soverviaz eta vizioz betiac.

Mundubaren Jarralla dongac beren Evangeliotic predicaitan deuscuben doctriniagaz eracusten deuscube, interesac eta aberastasunac billaquetan, eta oneic irabazteco codicia edo deseo andiac sortzeen ditube guere biotzetan, ifinten gaitubela, onein billa diligencia andiac eguiteco movimentuban: intereseen eta aberastasuneen codicia edo deseo andia zein peligrosua dan Guizonarentzat Espiritu Santubac berac esaten deuscu: presa dabena (diño) aberasquetaco, ez da izango inocentia: eta onelacua inozentia ez izateco zer dan causa eta motivua jaquin gura badogu aitu daigun Apostolu San Pabloren doctrina santuba: aberastu gura daubenac (diño) jausten d'ira tentacinuan eta Diabrubaren lazuan, eta deseo alper eta dañoso ascotan zeñac sartzen dituben Guizonac eriotzan eta condenacinuan: verba santu oneicaz conforme eta esperienziac berac eracusten daben moduban tra-

tuba edo Comercioa da gauza guztiz peligrosua, zeñian Christaunac, conservaitaco inozenciaco estadu santuban, daucai peligru eta nequeandiac; neque da Fratubari poztuta daguan biotza pecatubetan Jausi bagaric luzaro egotia: ea bada, nire Illoba, ez eguizu empeñuric artu vide onetatic aberasquetaco: bastante dozu haciendaric zintzo eta contuz Jocatu ezquero, mantenitaco zeure Familia, eta, zeure Vmien acomodacinuetaraco ondo dana, aurreraquetaco.

Familiaco Buru danari ez bacarric da licito aurreraquetia urte oro aldaben guztia Familiaren preminetaraco; baizican ere obligauric dago, bere Haciendiac eta Jaungoicuaren Providenciac paraitan deutsain irabazteco ocasino onradubacaz aprovechaitara, aldaben irabazte Justua eguitera, eta vanidadiari itziric aldabena aurreraquetara lenengo bere eta bere Familiaren preminetaraco, eta guero, ~~sobrantezic badau~~, Progimo ~~necesitauben~~ preminazquen socorruraco.
Progimuen gañeco Hatadubanesangododan leguer.

Onela garbiro eta gueldica eguin oi dan caudala izan oi da firmia; contrara barriz presaz atajutic eta gabetic goicera eguin oi dana

gueien bat escuartetic Juan oi da: nola etorri
ala Juan: da esaeria: onelaco Caudalac ezdi-
tu ezagutuco Sucesore asco Familia baten; Es-
piritu Santubac berac diño: presaz eguinico Cau-
dala guichitubagaz Juango da; baña gueldi-
ca escubagaz batzeen dan Caudala gueitubagaz
Juango da: baña cuidadu, nire Illoba, ez
Jostiagan zeure biotza eguiten dituzun Cauda-
letan; bada onela Caudalagaz ichuturic vizidi-
rianacatic diño Jesu Christo gure Jaunac bere
Evangelio santuban: Ha zeiñ nequez dirubac
daucainac sartuco diran Jaungoicoaren Erre-
inuban! eta esplicaitan da onengogorquiro Je-
sus Divinoa, zergaitic onelacuac daucain Jo-
siric euben biotza eta Animia Tesorua dagu-
an lecuban; eta zergaitic vizi dirian azturic
Jaungoicuagaz eta adoraitan dauben Diruba
beren Jaungoico bacartzat: argatic vicio ma-
daricatu onetatic gu libraitiarren David Erre-
gue eta Profeta santubac avisaitan gaitu mo-
du onetan: Aberastasunac erruz badatoz, ez
eguizube biotza aetan Josi: ez dago beraz pecatu-

ric aberastasunetan, baizican aberastasunai Jaungoicoaren vorondatiagaz conformeco destinua emun gura ez daubenen vorondate dongan.

Mundutarren vizi modu diferentiacaz conforme ecusten da, Aberastasunac izan oi ditubela lau destino mueta: bata da, zor eguiazcuac pagaitia, zorren izenian aiquetan diriala Jaungoicoaren Legue santubagaz conformeco gasta quizun justo guztiac: bigarrena da, biarric ez eguitia: irugarrena da, Jan eta edan galanquiro eguitia: eta laugarren destinua da, pamparrue eta Modara Jantzita ibiltia: oneic dira bada Aberastasunen destinoric principalenac, zeñetatic Iturri batzubetatic leguez sortu eta Jaio oi dira ecusten ditugun beste destino mueta guztiac ala onac nola dongac.

Badira Munduban oneicaz gañeraco destinua beren Caudalari emuten deusten Personac; eta dira Avariento edo Codiciosuac, batere destinoric ez onic eta ez dongaric emun gura ez daubenac beren Dirubai, euben consuelo guztia ifinten daubela, bata bestiaren gañian to-

leztaitan, aiei noizian bein visita bat eguiten, eta beren Jaungoico bacartzat adoraitan, atrevitan ez diriala andic maravidi bat gastaitara ez fin onian eta ez dongan: onelacuac dira Jaungoicoaren, beren Buruben, eta Progimuen gorrotuan eta Etsai vizi dirianac, euben Caudalac ondo edo gaizqui empleaitan dituben beste Persona guztiac baño oquerraguac, eta nequezago Zerubetaco Erreinuban sartuco dirianac Camelu bat Orratz zulotic iragoco dan baño, Jesus Divinuac bere Evangelio santuban diñuan moduban: oneic bada, beste guztiac baño gueiago Burutic jausita vizi dirian leguez, ez daube mereci, iñorc aotan artzeia.

Caudalaren lenengo Destinua da santuba, eta precisua, baita ere Jaungoicoaren vorondatiagaz conformeco Destino bacarra: Chindurriac Ydan eguiten daube prevencinua Neguraco; orobat Christaunac batez ere Familiaco Burubac, aldabenian edo eria daucanian, ez da descuidau biar, Caudalaren prevencinua eguiten, euqui daguian, premina ez figurauba eta gulleriaz-

cua, bai errazuazcua eta eguiazcua eltzeen dan ordubetaraco.

Apuntauric itzi ditudan Caudalaren beste iru Destinuac dira Jaungoicoaren ofensaza movitan gaitubenac, edo betez betezian Jaungoicoaren ofensacuac; argatic dira falsuac, guezurrezcuac, eta sortzeen dirianac Arraguiaren eta Bequien deseo desordenaubetatic, eta vizitzaco Sovenviatic; cuidadu bada, eta alerta egon zaite, nire Yloba, emun ez deguiozun zeure vizitzan Caudalari onelaco destinoric, eta permitidu ere ez daguizun zeure Familian; etorri ez deguizun iguiñ dozun necesidadeco Negu tuistia.

Mundubac eta Mundubaren Jaralla euac beren guezurrezco Evangeliotic predicaitan deuscuben doctriniagaz convidaitan gaitube gueic izate eta Haciendiagaz conformeco guezurrezco Clasien izen pomposuacaz, eta onein conformeco privilegio edo porte modu singularracaz, esaten deuscubela: zuec Claseco Guizon onzau eta aguirria danari tocaitan iaco onelaco eta alaco vizi modu, onelaco eta alaco porte modu, eta ez orrelaco vizi modu eta porte moduric: iques eguizu beti, nire Yloba, onelaco Cia-

cuztzalliacandic Diabrubagandic legarez; eta sarraitu eguiozu Espiritu Santubaren doctriniari: Jaungoicoaren bildur izan zaite (diño) eta gorde eguizu bere Mandamentubac; zergaitic onetaraco da Guizon guztia; eta Jaungoicuac ecarrico ditu Juicioza eguiten dirian gauza guztiac naiz onac naiz dongac, bacoitzari bere merecibuba emuteco: gorde eguizu bada beti, doctrina santu onec Mundutar guztiai eracusten deusten, Clase eguiazco eta bacar au, eta sarraitu eguiezu Clase santu onen conformeco privilegio, vizi modu eta portemodu singularrai, menospreciatan dituzula oneitatic camporaco privilegio, vizimodu eta portemodu singular guztiac.

Mundubaren Jaunalla madaricatu oneic predicaitan deuscube ere bata bestiagaraco lisonja eta alabanzaco doctrina, eta eracusten deuscube, batac bestiari labanqueriacaz buruba eta Arpegui gaibiquetara, auxetic esaten deutsagula alcarri, entzun gura dirian, lisonjac eta alabanzac: San Geronimo Elizaco Doctore saquintsubac diño Aduladore oneicatic, diriala Etsai bigun batzubec: eta ala, Etsai oneic calte-

xic eguin ez deguizuben, gura badozu, apartau zaite euracandic, ez zaite izan beren Adisquide, eta ondo Juango iatzu. Dominus dissipabit ossa eorum &c. Si Hominibus placerem &c.

Mundutarren alabanza eta ondo iriztia irabaztiarren, ez eguizu, nire Illoba, zeure vizian pausocho bat emun, edo arnasa uts bat aotic etara; bai; Taungoicoari bacarric gusto emutiarren: da tentacino guztiz peligrosua, Munduco alabanzaiaren deseoa: Ho eta zembat condenauco zirian betico Infernubetara Mundubaren asipenetic ona cuidadu simple onegatic! ¿Mundubac zer esango dau? aitu eguizu, zer esaten deuscun Jesu Christo gure Taunac Evangelio santuban, Mundubaren ondo iritzitasunagatic beren pausuac emun oi dituben, Personacatic: eguiaz esaten deutsubet: orrelacuac (Munduban) eruan euben beren premioa.

Gauza negar garria da eguiaz, emengo alabanzaiaren Juee pisquin eta labur bategatic Christaunac Zeruco alabanza eternuac galtzeia: guere Buruben soseganza, quietura, eta baquiari bacarric beguiratu ezquero edozeñec iguiñ izan biar dau alabanzaiaren deseo eta cuidadu pestilente au, zeñaren frutuba ez da besteric, guere big-

tzac vanidadiaren aize utsagaz puztzeia baño, pusica bat puztzen dan modura ¿eta guero onelacuai guertaquetan dana zer da? ez besteric pusica puztu bateri guertaquetan dana baño; batec igoten deutsa gañera, eta ots andia etariagaz eztanda eguiten dau, ezin sufriduric gañeco carguia; orobat bada guertaquetan da Munduco alabanzaiaren aiziagaz bere biotza puzturic darabillenari; entzuten dau, Vrliac eta Berendiac gaizqui esaten daubela beragatic; beren Murmuracinoco carguiac artzen dau azpian, eta ezin sufriduric carga au, eta ezin cabiduric bere narruban dator eztanda eguitera, eta bulla andia etaratera: euqui eguizu bada, nire Illoba, intencino garbi, zuzen, eta artez bat, zeure gauza guztietan Jaungoicoari gusto emuteco, eta agradaitaco; bacarric au, ez besteric; eta esan daguiala Mundubac zugatic, gura dabena; ¿zer guertatu izan iacon fin bagueco Ontasuna zan Jesu Christo gure Redentore eta gure vizitzaco Ispillu bacarrari? ¿zer? ¿uste dau Christaunac, Munduban vizi, guztiac alabauco dauben modu-

ban? burutic Jausita dago onela pensaitan daben Christauna: bat zintzua bada, eruac gaizqui esango daube; agradeciduba, Juiciosua, eta ona bada, dollorrac, Juicio baguecuac, eta dongac gaizqui esango daube beragatic; zer erremedio bada, azertaitaco? ez dago besteric, Jesu Christoren izen santuban guere gauza guztiac eguitia baño; eta guero ibilli ditezela Mundutarren Miñac, gura dauben moduban: portau gaitian bada onela, nire Illoba, eta ecusico dogu, nola Onria dan gure Buruco uliaren antzecua; zembat eta gueiagotan murmuracinuaren Labaña zorrotzac ebaten daben, aimbat indar gueiagogaz urteten dau berez gure Onriac, bardin gure obra onetan eta intencino santuban sustrai firmiac ezarriric badauca; ala San Francisco de Sales Obispuac eracusten eben, eta obraz ere cumplitan eben leccino santu au, Jesus Divinuaren Evangelio santuco doctriniaren conformecua dan leguez.

Guertatu liteque, zu bestec alabaitia ia zeure aurrian, ia ausencian, baña zeure Belarritara elduco dan moduban, zuc eguin ezagatic ere zeu-

re gauzac orretaraco intencinuagaz, baizican Ja-
ungoicoari agradaitaco asmo firmiagaz: entzu-
ten dituzunian bada zeure gañeco onelaco alaban-
zaren batzubec, isillic guelditu biar zara, esan ba-
garic ezer ere ez zeure faborecoric eta ez zeure con-
tracoric, zergatic ala eracusten deuscu Humildade-
co virtute santubac; conseju eta leccino au ez dani-
ria, baizican San Francisco Salesec eracusten da-
bena: eta bardin onelaco alabanzaren baten vistan
sentitan badozu zeure biotzian arrotasunaren ai-
ze pestilenteren bat, beriala para zaite considera-
cinuagaz zeure Maisu Jesus onaren oñetan, eta pen-
sau eguizu, zer doctrina puntu onen gañian era-
custen deutsun bere Curutzeco Catedra edo Pulpi-
totic; eta, lenengo confesaitara zuacenian, confe-
sau eguizu izan dozun arrotasuneraco tentacino
ori.

Guere obra on guztiac eguin biar ditugu ezcu-
tuban eta disimuluagaz, guertatu aldequigun ala-
banzaiaren bildurrez; baña, bardin aguirian eguin
biar dirianac badira, ez gara batere detenidu
biar obra onac eguiten, besteren alabanza simple
baten bildurragatic egunaren erdian eta Plaza pu-

blicuan eguin biar dirianac izanagatic ere; bacarric euqui biar dogu beti firme guere barruco intencino, asmo, eta gogua, Jaungoicoari gusto emuteco, eta ez andic etorri aldequigun alabanzaric anchiquetaco; ez, ez da conveni, Garia Soruan erein bagaric izteia Fardelac Jango dauben bildurrez; Jaungoicoaren vorondatia ere da, gure obra onac publicuan manifestau ditezen bere Gloria eta alabanzaraco, Jesus Divinuac bere Evangelio santuban eracusten deuscun doctriniagaz conforme: zuben (obra onen) Arguiac (diño) argui eguin begui Guizonen aurrian, zuben obra onac ecusi daguien, eta Zerubetan daguan zuben Aita glorificau daguien: baña cuidadu; guere obra onac eguiteco demporan euqui biar dogun intencino edo asmuac egon biar dau guere barruban eta ezcutuban, eta izan biar dau bacarric Jaungoicuari agradaitaco.

Zeure viziguztian ez eguizu euqui euqui genioric, alabaitaco iñor bere aurrian; eta alabauco badozu, alabau biar dozu bere ausencian eta bacarric bere Famac peligru corritan dabenian besteren baten murmuracino donguia mediante: orre-

quin labanqueriaco Espiritu pestilencial eta madaricatubac ez dau billatuco ~~entradaric~~ sarrerarie zeure biotzian, eta bestia ere ez dau perseguiduco Arrotasuneco Aize donguiac; bada Espiritu Santuba da, esaten deutsuna: ez eguizu alabau Guizona, vizi dan bitartian: baña Espiritu Santubaren aviso au ez da aitu biar gaizqui; eta ala Caridadeco eta Justiciaco virtutiac aguinquetan deuscubenian, alabaitia Lagun Progimua, alabau biar dogu; circunstancia onetaco casuac dira Murmuracinua mediante besteren famac peligru corritia, apuntauric guelditu dan moduban; eta Personaren baten gañian informau biar izatia; eta informeco caso onetan beti eguia esan biar da, ona ona leguez, eta gauza donguia donguia leguez, baña ez batec daquan gauza do~~baña~~ informiac escanga guztiac baituan, jaquinian ~~foca~~ quetan daben gara eta ez gueiago ~~tu~~ egon dedin informia escaquetan daben Persona, eta vide onetatic atajau daguian ez jaquinetic etorrialdequion caltiac.

Mundubaren Jarralla dongac beren guezurrezco Evangeliotic eracusten deuscube beste doctrina venenoz betericaco bat; eta da emuten deuscuben leccinua, tontuac ez izateco, bai ascotacuen eta jaquintsuben Plaza corritaco Munduban; onetara-

co sinistu exaguin gura deuscube, precisua dala bazterrac ecustia, eta Guizarteco barri Jaquitia, eta au eguiten ez dabenac ez dabela Jaquingo ezer, eta izango dala tonto andi bat: au da bada Mundubac guri eguin aldaiquian tentacinoric peligrosuena; Espiritu Santubac diño: Beguiac ez dira cansaitan ecustez, ez da Belarriac ere entzutez: ecusiac ecusi guria dacar, eta entzunac entzun guria; eta norc berac ifinten ez badeuste Mugarri errime batzubec deseo eta gura onei, aurrera caminauco daube: Beguien deseo donga oneitatic sortzeen dira gueien bat Araguiaren deseo desordenadubac eta vizitzaco Sovervia: ecusten ez dauben Beguiac, negarric ez; da esaeria: eta contrara erraz Jausi oi gara ecusten eta entzuten ditugun gauzeen amorioan, batez ere dongac eta guere pasinuen gustuacaz conformecuac badira, etaonetan dago gure galdu biar guztia: egui onen pruebaraco Señora batec itandu eutsan San Francisco Saleseri, licito ete zan edo ez, Mundubari beguiraquetia? eta Santu gloriosuac erantzun eutsan, presente ifinten eutsala, nic apuntau dodan peligruba ecusten dirian gauzeen amorioan Jausteco.

Badaquit, nire Illoba, nire Aitaren baxxi daquianac bexiala contradeciduco deustala bere demporan emun izan daben contu onagaz, baxter asco ecusiagatic: bai; au ala da; baña nire doctriniari onela contradecidu guxa deutsanac gauza bat jaquin biar dau; eta da, Baxterrac ecustia bimodutan guertatu oi dala, bata gulleriaz eta curiosidadez, ecusi ecustiaren, eta Guizon axteco baxxi icastiaren: bigarrena, motivo justoren bategaz.

Eguia da; nire Aitac Baxter asco ecusi ditu, izanic contu andico Necazaxi bat, baña beti bere Anae eta Osabaac suplicaurric, beiñ ere ez gulleriaz, eta ibilli ibiltiaren; bai, aiei lagunquetiaxxen, eta gusto emutiaxxen beren viage precisuetan, nixi lagundu eustan leguez, nire Nagusi gueiaren Echian entregau arteraño; modu onetan danian Baxterrac ecustia, ez dacax guerien bat peligru andirric; baña gulleriazco viagiac eta Baxter ecustiac batez ere Necazaxi artian dacarde galdu biar guztia: Guizon jaquintsu batec esan oi eben bere demporan: ez naiz iñoiz Guizon guichiago viuntu, Guizonen artian egon naizan-ean baño.

Nire Aita bere Familiaren gobiernuban eta Necazaritzaco oficioan bere Claseco beste guztientzat Ispillutzat ifintecua da, ezaguquetan dauben guztiac bat ere lisonja bagaric autorquetan dauben leguez; baña emun daben contu on au, ez dau emun Guizonen arteco barri icasi ebelaco Bazterrac ecusiagaz; bada alde onetatic (eguia da) calte andiric sufridu ez dau, zergaitic bere Bazter ecustiac izan dirian motivo justuacatic; eta duda bague bere viagiac Familian eta Necazaritzaco Oficioan bat ere provechuric ecarri ez deutsai, eta bai provechu baño calte gueiago: viage eta Bazter ecuste justo batzubec calte andiric ez agatic provechu baño calte gueiago ecarri badeutsai; zer guertatuco ete zan, Bazterrac ecustiari equin baleutsa curiosidadez eta Plaza Guizon aguiri eta ascotaco bat urteteco asmuagaz? zer? izango zan Perdulario andi bat, Vecino onraubai eta Justiciari zer eguinac emungo eusten bat, eta ez besteric.

Cea bada, nire Illoba, menospreciau eguizu Mundutar dongueen Evangelioco doctrina madaricatu au Bazterrac ecusteco puntubaren gañi-

an, Guizarteco barri icarteco, eta Plaza Guizon aguirri, ascotaco, eta Jaquintsuba urteteco; eta Jaurraitu equiozu zeure vizi guztian eta biotz firme batezaz presente ifini deutsudan zeure Aita nagusi eta nire Aitaren Ispillu eta egemplu andi oni: ez equizu beiñ ere asmau gulleriazco eta motivo justo baqueco viageric, galdu ez zaitian Munduraco eta Jaungoicoraco: onembestezaz deutzot, presente ifini deutsudala Mundubaren venenua, eta Munduba vencitaco, bastante eta premiña dituzun armac; venciduco badozu bada Etsai madaricatu au, alde batera itzi biarco deustezu Andinaitasunai, Munduco quezurrezco Claseai, eta (doctrina Castillacuac diñuan leguez) menospreciau biarco dituzu Munduco arrotasun, Moda, Pompa, eta vanidadeac; eta zuzendu biarco dozu zeure Voluntatia, Jesu Christoren antzecua izatera, eternidadeco Glorian ere bere antzecua izatia gura badozu.

Araguia

Araguia da gure Animen inuzazaren Etsaia, Diabruaren eta Mundubaren Senide ondo antziba

gure calteraco, baña beste biac baño indartsuba-
gua eta dongagua; zergaitic beste biac campotic
dabiltza, eta campotic perseguitan gaitube, eta er-
raz apartau guindezque eta igues eguin daiquegu
euracandic; Araguia, vizi garian bitarte guztian,
gugaz dabil, guere Eche barruco Lapurra eta Etsaia
da, eta Eche barrutic perseguitan gaitu; argatic ezin
apartau guindezque onegandic, beste (esan ditu-
dan) campoco Etsai bietatic librau guindezquian
leguez.

Araguia, gure Corputza dan leguez, da be-
rez gauza ona, guere Animeen Lagun fiela; eta
ala ez da licito Christaunari, bere Araguiari gor-
rotoric euquitia, eta eguitia gaitz graveric saqui-
nian eta vorondatez; zertan dago bada Araguia-
ren Etsaitasuna Animiaren contra? esplicauco
dot, zertan daguan.

Corputza edo Araguia eguiña da Ani-
miaren obediencian egoteco; Animia criauba da,
Errazoiaren bendian egoteco; eta Errazoia Jaun-
goicoaren graciaren obediencian egoteco; ala vizi
zirian inocenciaco estaduban gure lenengo Gura-
suac Paraisuan; baña desobedienciaco pecatuba

mediante Jaungoicoaren obedienciatic apartaezquero, Araguia asi zan Jaguiten Animiaren contra, eta arrazquero ala dabil, eta guztioc sentitan dogu Araguiaren aldetico contradiccino au Animaren gaiñuaren contra; zergaitic guztioc, gure Amaren Sabelian concebidubac gaiian instantetic, naturalezaz heredaitan dogu gure lenengo Gurasuen desobedienziaco pecatu mortala, eta bere exnu madaricatubac.

Pecatu mortal au da pecatu Originala esaten deutsaguna, eta parcaitan dana Sacramentu santu Bautismocuan; baña parcatubagatic pecatu mortal eta original au, batiaquetan danagan beti gueldiquetan dira bere exnu donga batzubec, ala Animacuac nola Corputzecuac; exnu donga oneitatic bat da pecaturaco inclinacino dongua.

Pecaturaco inclinacino donga au ez da pecatuba, baizican pecatutic sortuba, eta pecatura movitan gaitubana: baña inclinacino donga onec eguiaz eta Jaungoicoaren graciagaz batera peleaitan daberaxi bat exe calteric egui-

ten ez deutsa; bai; emuten deutsa ocasinoric asco, Gloriaren Coroa eternua irabazteco: guazen orain asuntora.

Gure lenengo Gurasuac bada pecatu eguin euben instantetic Araguia asi zan rebelaitan eta Jaguiten bere Aguintari zan Animiaren contra, declaraitan eutsala guerra vizi eta porfiau bat, baña Animia beti gueldiquetan zala, bere Esclava izan biar eben, Araguiaren gañeco autoridade, escuvide, eta aguintiagaz; eta ala Animiaren obligacinua izan da beti, da, eta Mundubac dirauban vitarte guztian izango ere da, Jaungoicoaren graciagaz batera atzera eraguitia bere Araguiari, eta bere obediencian euquitera, ucaquetan deutsala, dacarren Jaungoicoaren vorondatiaren contraco ~~pretensino~~ escavide guztiac.

Pecaturaco inclinacino donga au mediante Araguiac puntu oro eta instante oro ~~pro~~ gogora ecarten ~~ponitan~~ deutsa Anima gaiñuari Arrazoiaren eta Jaungoicoaren vorondatiaren contra dirian ~~contentu~~ atseguintasun eta pretensino mueta asco ez bacarric seigarrengo Mandamentu santubaren contra

dirianac, baita ere beste Mandamentu santu guztien contra duacenac; bada Apostolu San Pabloc Galaciacuai escribidu eusten cartan aiquetara emuten deuscu, Jaungoico falsuac edo Ydoluac adoraitatic asi eta beste eguin oi dirian pecatu mueta guztiac diriala Araguiaren obrac; baña Araguiaren empeñuric aguiriena porfiaubena eta ~~fuertiena~~ indartsubena da, gu movitia eta tentaitia seigarrengo Mandamentu santubaren contra, eta, empeñu ichusi au lograitaco, egoguiac dirian beste pecatu mueta guztietara: onela guertatu izan da, eta guertaquetan da, guere Corputza edo Araguia berez ona eta Animiaren Lagun fiela izatia bere Etsaia, Eche barruco Etsai Lapurra, eta Etsairic gogorrena.

Apostolu San Pabloc diño, Araguiac publicaitan daben Leguia dala pecatuba, eta Pecatubac publicaitan daben Leguia dala Eriotza seculacua: gure Espiritu edo Animiaren Leguia barriz da Santidadia, Jaungoicoaganaco obediencia eta bildur santuba; eta ala dator guertaquetara Apostolu glorioso onec esaten deuscuna: Araguiac (diño) deseaitan dau Animia-

ren contra, eta Animiac deseaitan dau Araguiaren contra.

Araguiaren eta Animiaren artian dagozen deseo, vorondate, eta Legue bata bestiaren contraco oneic dacarde beti beren artian euben arteco guerra, bat emen vizi dan ~~dempora~~ bitarte guztiaitu equizu orain, nire Illoba, zer esaten deuscun an; ~~guerra onetan bada Animiac obedecitan ba-~~ san Pablo Apostolubac guerra onen gañian: Anaiac (diño) ta das esatia: bardin Animiac obedecitan badeutsa ~~deutsa~~ Araguiaren Legue eta vorondate madaricatubari, illgo da, betico condenauco da bera aurretic, eta Juicio generaleco egunetic aurrera bere Lagun aguintari Corputzagaz batera; baña bardin Animiaren Esclava obedientiac izan biar daben Aragui edo Corputzac ucaturic bere vorondate eta Legue donguia obedecitan badeutsa Animiaren vorondate eta Legue santubari, vicico da, eta Juicio generalaren egunetic aurrera betico Glorian sartuco da bere Lagun aguintari Anima santubagaz batera, ~~edo Juicioco eguna baño lenago, Jaungoicuac, resucitauric Corputz eta Anima Zeruban sartzeco gracia eguiten badeutsa; ala eracusten eta predicaitan deuscu Apostolu San Pabloc~~: Anaiac (diño) obligauric gao-

za ez Araguiari, Araguiagaz conforme vizi izateco; zergaitic Araguiagaz conforme vizi bazarai, illgo zarai; baña bardin Espiritubagaz moztificaitan, edo sugetaitan badituzube Araguiaren obrac vizico zarai; zergaitic Jaungoicoaren Espiritubagaz gobernaitan dirianac, oneic (bacarric) dira Jaungoicoaren Semiac.

Clazuban dago, nire Illoba, esandanagaz conforme, Animiac bere Entendimentuco arguitasun edo errazoiagaz eta Jaungoicoaren graziagaz armauxic Corputzeco bere Etsai dan Araguiari beti atzera eraguin biar deutsala; eta ala eguiten ez badau, condenauco dala Corputz eta Anima bera dan guztia, lenengo Animia eta Juicico egunetic auxkera Animiagaz batera baita ere Corputza: bai; au ala da; eta onetan dudaitia da Fede santuban faltaitia, eta segurubago condenaitia.

Esanic itzi dot leenago, Diabruba Munduba eta Araguia dirialа gure Animetaco izan Etsaiac eta beren axtian Senide ondo alcar artubac gu perseguitaco eta Salvacinoco vidia uts eraguiteco; baita ere esanic guelditu da, bata vencitaco

egoquiac dizian Arimac, diziala ere guztiz egoqui-
ac beste bere Senide etagure Étsai biac vencitaco,
bacoitza banaan vencitaco señalaitan badira ere
bere Arma apartecuac; eta oxain advertitan zaitut,
nire Yloba, Diabruba eta Munduba vencitaco seña-
lau deutsudan Arma eta erremedioac dituzula
guztiz egoquiac, vencitaco izangarren Étsai dan
Araqui au; eta ez bacarric dira egoquiac, baizican
precisuac, zeñac bague ez da posible, Araqui re-
belde au conservaitia Animiaren obediencian.

Ala ere, nola emen consideraitan dodan
Araquia seigarrengo Mandamentu santubaren
contra perseguitan gaituban aldetic, apuntau gu-
ra deutsut, Aita Astetec bere mixagarrizco Doctri-
naco Cartillan, Étsai au vencitaco, señalaitan ditu-
ban, iru Arma apartecuac; oneic dira Baubac, Azo-
tiac, eta Aspereza (au da) Araquia tratatia ez
gulleriagaz, suavidade, eta bigintasunagaz; bai,
latzitasun, aspereza, eta gogortasun pusquin bate-
gaz ala sustentuban nola Jantzian eta eguneroco
langueietan; egon dedin modu onetan Étsai au hu-
milde eta obediente bere Aguintari dan Animia-
ren bendian, eta izan ez dedin, Jaquia, aquizia, eta

pamparroia: iru Arma oneic bada dira Araguia vencitaco señalaitan dirian erremedio apartecuac.

Lenengo Armacedo erremedio biac, zeñac dirian Barubac eta Azotiac, ez dira Necazari fin eta eguiazco batentzat egoguiac, Araguia vencitaco; bere egunoroco nequiagaz batez ere Partida oneitan Necazari batec eguin oi dabenagaz bastante Baru eta Disciplina dauca, eta bere nequiac obeto sugetauco deutsa bere Aragui rebeldia, neque bagueco Azote eta Baru guztiac baño; posible ere ez da, mortificacino mueta orrelacuacaz Necazaritzaiari Jarraiquetia Corputzaren calte andi bagaric, zeña ez da licito Christaunari, Jaquinian eta vorondatez bere Araguiari eguitia; argatic Necazari fiñ biarra eguiten dauben guztiac gueien bat escusauric eta libre dagoza, Eliza Ama Santac pecatu mortalaren azpian señalaitan dituban, Barubetatic: itziric bada alde batera Barubari eta Discipliniari, ecusiric verba eguiten dodala Necari bategaz, cerbait esango dot irugarren Armiaren gañian, zeñac daucan Asperezaren izena.

Aspereza

Suavidde, cuidadu, eta biguntasun an-

diagaz empeñaitan dirian Christaun guztiac beren Araguiaren gobiernuban, emuten deutsai Etsai madaricatu oni laguntasun andia, Jagui dedin Anima gaiñoaren contra; eta onelacuac sarritan datoza Jaustera Araguiaren pasino ichusietan eta dituban beste pasino mueta guztietan; ojala ala guertatuco ez baliz; baña au ala da, ala dacuscu, eta ala eracusten deuscu David Erregue eta Profeta santubac, pecatuz beteric fresco vizi dirian, Guizonacatic verba eguiten deuscunian: ez dagoza (dino) Guizonen nequian, eta ez dira mortificauco Guizonequin; argatic artu ditu Sovertiac; estaldu dira beren maldade eta impiedadiagaz; urten deuste guizentasunetic leguez beren maldadiac; irago dira Jarraiquetara (beren) biotzeco pasinuai:

Considerau eguizu orain, nire Illoba, zer dan motivoa Jausteco Guizona, esan dodan, estadu negargarrizco onetara: lenengo motivua diño Profeta santubac: ez dagoza Guizonen nequian: beraz Guizonen nequia eta mortificacinua Guizonac iguiñ izatiac ecarten deutsa Guizonari David santubac pintaitan deuscun galdu biar guztia;

bai, motivo onec; bada ain ~~poderosua~~ indartsuba da: calte onein vistan ez eguizu igues eguin Guizonen nequetic, eta jarraitu eguiozu gogo onagaz zeure Necazaritzaco neque onradu eta provechosoari, vizi zarian dempora guztian; eta orrequin arrapauco ez zaitu Soverviac, eta zeure ~~Animiaren Jabe eguinicaco be billatuco~~ Araguiaren pasino ichusiac ez daubeb billatuco zeure biotzian sarreraric eta ez dira eguingo ~~Araguiaren pasino ichusiac ez daube billatuco entradaric zeure biotzian.~~ zeure Animiaren Jabe

Araguiaren tratu biguna eta vizitza suavia ez datoz ondo Jaungoicoaren bildur santubagaz: ara zer moduz esplicaitan dan Job santuba Jaungoicoaganaco bildur santubaren gañian izentaitan deuscula bildur santu au ~~Sabiduria~~ Jaquinduria co izenagaz: ¿ ~~Sabiduria~~ Jaquinduria (itanquetan dau) nun billaquetan da? eta erantzuten dau berac: ez da billaquetan suave vizi diranen Lurrian: argatic Christaun guztiac premina daube Araguiaren contraco irugarren Arma dan Aspereza, baña bacoitzac bere moduban, larregui sacatu bagaric bere Araguia, eta quendu bagaric premina dituban indarrac cumplitaco bere Estaduco obligacinuacaz, eta jarraiquetaco modu onian bere Oficioco lan gueiai; eta ala zuc ere, nire Illoba, gura ba-

dozu obeto asegurau Araguiaren contraco victoria, zeure Necazaritzaco nequiagaz gañera artu biar dozu beste empeñubat, eta da, erretiraitaco jan eta edan larreguietatic, eta ez erabilteco zeure Araguia, lucidu gura daben Emacume buru iritzi eta gazte baten modura, jantziric eta apainduric; bada Guizon ezcondubac bacarric bere Emaztiari ondo iritzi biar deutsa, eta oni ere Jaungoicoagatic (au da) beraganaco cariñua eta aficinua galduric, bestegaz divertidu ez dedin Jaungoicoaren ofensa gravian; baña ez daquit zer eran Matrimonio santuco fideli dadia eta castidadia gordetaco bere Esposoaren jantzi aguiri ~~eta ez dot uste zure Emaztia orren delicadia danic~~, ~~eta ain erraz gauza ain pusuban jausico danic~~. ~~eta maso baten confitia gura daben Emazte bategatic~~; beinic bein ez dot uste orrelacua. izango dala zeure Emaztia.

Aragui rebeldia zeure Animiaren obediencian firme euquiteco Oficio egoguia da guztiz daucazun Necazaritzaco Oficioa; ala ere erremedio onegaz gañera, eta oni berez darraiquion Aspereziagaz gañera gorde biar dituzu beste iru erremedio labur, gura badozu obeto asegurau zeure Etsai Araguiaren contraco victoria.

Lenengua eta principalena da, ocasinotic zeure Buruba erretiraitia; cergaitic esanic dauca Espiritu Santubac: peligruba amaitan dabena peligruban aca

bauco da: santuba zan David Erreguia eta be-
re Seme Salomon Jaquintsuba; baña, zergaitic
descuidau zirian Emacumiacazco ocasinuetan,
Jausi zirian pecatu icaragarrietan: cuidadu ba-
da, nire Illoba, zeure Emaztiagandic campora
ez artzeiagaz beñere beste Emacumegaz llane-
zaric; eta llanezaric ez artzeco erremedioa da, ez euquitia
Emacumiacaz motivo justo bagueco traturic eta conversacinoric eta
ordubanz ere euquico dozun conversacinuac izan biar laburrac
seriac eta graviac eta ez beñere aposintu ichiar bes-
teron vistatic ezcontaurric
Santa Teresa de Jesus
Bigarrena da, erretiraitia zeure Belarri-
ac eta Mingaia, zeure Araguia viztu eta movi-
du aldaiquien conversacinuetatic; Jesus Divino-
ac esaten eusten modu onetan Fariseoai: Biboren
Generacinuac ¿nola ondo verba eguin daiquezube,
izanic dongac? zergaitic biotzeco abundanciatic
Aoac verba eguiten dau: apartau zaite bada con-
versacino indecente guztietatic, eta igues eguizu
Lenguage verdia gastaitan dauben Persona guztie-
tatic edozein Clase eta Estaduco Personac diriala;
bada ia orrelacuen Biotzac ziquinduric dagoza,
Aoco conversacino ziquiñac aiquetara emuten
ondacuen arrasa
utsabera da berez capaza biotzian daucain gaitza Entzu-
dauben, ziquinqueriagaz; eta bestetic ~~orrerian con~~
liai eta beguira dagocenai itsasteco; oien vistan eta Mingai
ziquiñagaz emuten dan zorigaiztoco escandaloaren era-
~~versacinuac dira entzuten dagocen beste guzti~~
gussera tristiac diadar eraguin Eutran San Pablo Aposto-
lubari modu onetan:
~~entzat escandalo andicuac~~: San Pablo Apostolu-

bac diadar eguiten dau, esaten deuscula Chris-
taun guztioi modu onetan: seigarrengo Manda-
mentubaren contraco obrazco pecatu eta ziquin-
queria mueta guztia ao utsez ere ez dedilla izen-
tau zuben artian Iustubai conveni dan leguez:
gorroto izan eguiezu bada biotz guztitic modu
onetaco conversacinoai, eta desterrau eguizu be-
tico zeure bendecuetatic onerian Lenguage lotsa-
garrizcoa; ~~zergatic Lenguage ziquiñac ziquindu~~ anchina esan euscun San Pablo Apostolu
~~oi dauben Esalien eta Entzutien oituera on guztiac~~ corrumpunt bonos mores
berac: Irugarren erremedioa da, zeure Be-
guien deseo donguiari atzera eraguitia, Mun-
dubaren gañeco tratadubar esanic guelditu
dan modubar: eta ala ez dozu ibilli biar Fies-
tatic Fiestara, eta Erritic Errira, ecusi daizun,
eta ecusi zaguien; baizican erretirau biar ditu-
zu zeure Beguiac Animaan dañau zaiqui-
en gauza guztietatic, pecatubaren eriotza eter-
nua sartu ez dequizun Animara Corputzeco
bentanetatic, edo zu mediante ecusten zaitube-
nai sartu ez dequien onelaco pecaturic eta peca-
tuba mediante eriotza eternoric; argalac gara

bada, eta ez dira senduaguac, guri beguira ja-
sarten dirianac, eta erraz jausi oi gara ecus-
ten dogun edertasunaren amoriora; guacen
orain beste puntu batzubec jotera, zuri conve-
ni iatzun, beste Tratadu batzuben gañian zer-
bait esanagaz.

Necazaritzaia

Ecusi dozu, nire Illoba, nola, salvau-
co bagara, vizi garian vitarte guztian dauca-
gun zer peleau guere Animetaco iru Etsaien
contra beñere aspertu bagaric; bada eurac ere
ez dira beiñere asperquetan, gu perseguitiagaz;
eta eguin biar dogu pelea au, ez nola nai eta epel-
tasunagaz, baizican benetan, aldogun cuida-
du eta empeñu guztizcoagaz; zergaitic Jaun-
goicuac, David Erregue eta Profeta santubac
eracusten deuscun leguez, aguinduric dauca,
bere Mandamentu santubac ~~proligidadiagaz~~ gomburu edo aldogun cuidaduric gueienagaz
gorde ditezela.
gaz &c Gomburu edo aldogun cuidaduric gueina-
~~Proligidadiagaz eta empeñu eguiaz-~~
~~cuagaz~~ Jaungoicoaren vidian ez dabillenac tro-

piezu asco izango ditu, eta bere Gloriaren beti-
co Coroiac peligru andia corriduco deutsa,
San Pablo Apostolubaren testimonuagaz con-
forme: pelean dabillena (diño) ez da victoriaren
Gloriagaz coronaitan, eguiaz peleaitan ez badau
pelea onetan beti ~~focatu~~ zaildu biar gara, guere indarre-
tan desconfiauric esperaitan dogula firmeza guz-
tizcuagaz victoria cabala Jesu Christo gure Jau-
naren laguntasuna eta asistencia mediante.

Orain advertidu gura zaitut, nola iru
Etsai oneic paraitan deutsain bere Lazuac
bacoitzari, bera dabillen, vide artan bertan, Ca-
zadoriac Eiza anchiquetaco eta Pezcadoriac
beren Pezca arrapaitaco eguin oi dauben modu-
ra; ala diño David Erregue eta Profeta santubac:
ezcutau deustai Lazua vide onetan bertan, ze-
ñian nebillen: argatic bada artu izan dot asmua
zerbait esateco daucazun Oficio eta Estadubaren
gañian, eta zeure Burubagaz, Familiagaz, eta La-
gun Progimuacaz euqui biar dozun vizi modu-
baren gañian, zeure Animan eta Munduco inte-
resetan conveni iatzun moduban, engañau ez zai-
tian, darabiltzun, pausuetan: asico naiz Necaza-

ritzatic, zeña dan, zeure Gurasuac itzi eutsuben, Oficio onraduba.

Job santubac diño: Guizona (aiquetan da Guizon eta Anra) jaioten da nequeraco, eta Egaztia egara eguiteco: egui au Fede santuco eguia da, eta egunoroco esperienciac berac eracusten deuscu egui ~~onen certidumbria~~ au, eta bere cumplimentubaren preminia.

Nequiaren iguesi dabiltzen Persona guztiac gura eta gura ez sartzen dira neque andiaguetan, eta gueien bat beren condenacinoraco dirianetan; eta eguiaz ¿nora juango da biarrian zaildu gura ez daben Ydi naguia? claruban dago respuestia: Mataderiara: beste modu izango lizateque, ~~guizonac Jaungoicuari pleitua irabaztia~~ desobedienzaco pecatuba nibere becoquito izerdiagaz oguia diante Jafera condenaurac dabuan guizonac auzia Jaungoicoari irabaztia.

Diabrubac, Mundubaceta Araguiac gure iru Etsai oneic alper ~~querian dagoza~~ ric eguiten ditube tentacinoetaco beren golpiac gueien bat, Christauna ondo ocupauric daguan guztian; baña ez da onela quertaquetan ~~ecusten dauben instantian~~, Christauna alper querian daguan ~~ta~~ pian, orduban ~~bertan gogo onagaz equiten deutsai Christaunaren tentacinoco eta persecucinoco lan gueiari~~ bada Etrai onein tentacinuac uparia zoac eta erputrubaguac izan oi dira, eta lograitan

ditube beren victoria madaricatubac; ¿zer era-
custen deuscu esperienciac berac? Necazariac
eta onein ondorengo beste Oficialiac, Jaungoicoaren
alabanzan eta servicio santuban empleaubiar li-
tuzquian, Eguzarietan eguin oi ditube Jaungoi-
cuaren ofensaric gueienac edo guztiac, eta, gogo
onagaz biar egunetan beren lan gueiac eguiten
dituben vitartian, vizi dira inocencia andian, eta
Etsaiac ~~tentaitan ez ditubala edo~~ tentaitan ba-
ditube ere, sarrera ~~sarrerarie onelacuen biotzetan~~ guichi edo batere ez ~~batere entradaric~~ billatu ~~oi~~ daube-
Jaungoicoaren gracia eta beren langueiac ~~eta~~ ~~eta~~ ~~dau~~ pacinua
onelacuen biotzetan ~~ta~~, mediante.

Espiritu Santubac diño: malicia asco era-
cutsi izan dau alperqueriac: ¿badaquizu, nire
Illoba, zergaitic? Espiritu Santubac berac era-
custen deuscu zergaitic; diño bada: Alperrac
gura dau eta gura ez dau; baña diligentiac di-
rianen Animia izango da sendatuba: eta bes-
te lecu baten diño: deseoac acavaitan daube
Alperra; zergaitic bere Escubac ez euben gura
izan, ezer eguin; Alperra egun guztian deseaitan
eta asmaitan dago: aguirian dago motivoa, zer-
gaitic Alperqueriac eracutsi izan daben ma-
licia asco.

Alperrac (diño) gura dau eta ez dau:
Alperra egun guztian deseaitan eta asmaitan

dago, ezer ere eguin nai ezda: gura dau, bai, Al-
perrac bere Salvacinua, eta emen ere ezer faltau
ez dequion; baña ez dau pauso bat emun gura
ez bateraco eta ez besteraco; gura dau eta ez dau-
ca; asmo utsetan duaco bere dempora guztia;
eta azquenic eztanda eguiten dau; baña nun-
dic? axtaraco inclinauric daguan aldetic; eta ze-
in aldetatic dago inclinauta? maliciaren alde-
tic guztioc dogun inclinacino donguiagaz confor-
me; eta emendic dator. Alperqueriac malicia
asco eracustia, eta Alperra bere deseo eta asmo
utsetan illic gueldiquetia Jaungoicoraco eta
Munduraco: Ha! Jaungoicuac ez eben gura izan,
gure lenengo Gurasoc Adan bere inozenciaco es-
tadutuban ere egon zedin alperric Paraisuan; zer
guraco ete dau bada oraiñ, Paraisotic desterrau
ezquero Guizona desobedienciaco culpa mediante?
San Pablo Apostoluac eracusten deusci, Ja-
ungoicoac oraiñ zer gura daben: bardiñ noiz bai-
tez (diño) eguin gura ez badau biarric ez daguia-
la jan: ezin bada bat vizi liteque jan bagaric; zer
eguingo dau bada? biarra eguin jateco, eta jan vi-
zi izateco, eta Animaco inu Çtsaien lazuetatic

libraitaco.

Diabru batec tentaitan badau biarrian ondo ocupauric daguana, millaca dira Alperra inguraquetan dauben Diabrubac; argatic San Geronimo Elizaco Doctore Jaquintsubac, bere Adisquide bateri escribidu eutsan, cartan esaten eutsan modu onetan: Diabrubac billatu zaguiala beti ocupauric: preminacua dan casuan bada, Nequeraco Jaioten dan Guizona. Languei onraduren batzubetan Lurraren gañian ocupauric vizi izatia, ecusi daigun orain, Corputzagaz eta Besoco indarracaz eguin oidirian nequien eta Langueien artian zein dan egoguiena, Guizonac salvacinoco bere azquen Fin santuba lograitaco; zein dan Nequeric onradubena Mundu onetan; eta zein dan azquenic Nequeric provechosuena.

¿Zer neque, languei, edo Oficioric sortu alditeque Lurraren gañian egoguiagua, Guizonac bere azquen Fin santuba lograitaco, bere azquen Fina dan Jaungoicuac berac, Guizona criau ebenian emun eutsan Oficioa baño? au da bada Necazarien Oficioa ez bacarric

Guizona pecatuban Jausi ezquero, baita ere bere inozenciaco, dicha. eta felicidade guztizco estadu zoragarri artan.

Escritura Sagradubac diño: ifini eben Jaungoicuac Guizona gustuetaco Paraisuan, biarra eguin eguian, eta aren cuidaduba euquieguian: verba santu oneicaz conforme dirudi, Jaungoicoac Guizonari bere inozenciaco estaduban emun eutsan Oficioa izan zala Necazaritzaco Oficioa: eguia da; estadu zoragarri onetan Oficio onec eta beste edocein lan gueic ez eusten emungo gure lenengo Gurasuai bat ere nequeric, sentimenturic, afliccino edo nai baqueric, orain dacuscun moduban; baizican guztia izango zan contentu eta atseguintasuna eta Zeruco Gloriaren iduripen bat.

Gure lenengo Guraso oneic laster eguin euben beren desobedienziaco pecatuba, eta Jaungoicoac bota eben Paraisotic Adan bere Emazte Evagaz; Guizonaren estadu negargarrizco onetan aitu daigun zer moduz esplicaitan dan Escritura Sagraduba: eta Jaungoico gure Jaunac (diño) bota eben Guizona gustuetaco Paraisotic, cultibau eguian Lurra, nundic izan zan formauba: eta onegaz ostian emun eutsan castigutzat da-

cuscun beste nai bagve mueta guztiac.

Beraz, nire Illoba, daucazun Necazaritzaco Oficioa da Jaungoicoac emun eutsana Guizonari, criaturic, Paraisuan plantau eben instantian, baita ere pecatuban sartu ezquero Paraisotic bota ebenian: ez dozu bada beste errazue edo pruebaren premiñaric, sinisturic eta convenciduric gueldiquetaco, dala Necazaritzaia Oficioric egoquiena Guizonaren entzat bere Salvacinoco azquen Fina logratuaco; zergaitic Oficio au da, bere verba guztietan fiela eta bere obra guztietan santuba dan Jaungoico gure Jaun eta Criadoriac emun eutsana Guizonari bere inozenziaco eta pecatuco estadu bietan: ez dot emen comparaitan Necazaritzaco Oficioa Espiritu-co nequiagaz principalmente desempeñaitan dirian Oficio edo lanqueiacaz, batez ere Jesu Christoren Aldareco Ministroac, Predicadoriac, Religioso eta Religiosac daucainacaz, baizican Corputzeco neque eta izerdiagaz desempeñau bear dirian Oficio mueta guztiacaz.

Necazaritzaco Oficio onec emuten deutsa Christaun eguiazco bateri instante oro milla

bat ocasino eta motivo, Jaungoicua alabaitaco eta bedeincaquetaco, eta Humildadian aren Divina Magestadiari obeto servitaco; eta Corputzeco indarracaz desempeñau oi dirian beste Oficio guztiac ez daucai orerian privilegioric: Arotzac, Errementariac, Arguiñac, eta beste edocein Oficiale fiaitan dira beti beren habilidadian; beti dacuste [redacted] escu arteco material edo lan gueiac, euben habilidadiac emuten deusten disposicino edo figuran; millaca urtiac irago agatic, galdu ez badira demporiagaz materialac, eta iñorc ucutu ez badeuste, ala billatuco dira, nola itzi zituben, labrau zituben, Oficialiac: ez ala Necazaria.

Necazariac ecusten dau eta ezaguquetan dau, bere habilidade guztia utsa dala Jaungoicoaren misericordia bagaric, San Pablo Apostolubac eracusten deuscun leguez: ez planteua ifinten dabena (diño) eta ez erregaitan dabena da ezer; baizican (planteuari) aumentuba emuten deutsan Jaungoicua: Ho! eta zein motivo poderosua, Necazaria eguiaz humildia eta agradeciduba izateco Jaungoicoari!

ereiten ditu Soruan Garia eta beste azi mueta provechosuac; eguiten deuste beren demporetan conveni dirian lan modubac; izteen ditu guztiac Jaungoicuaren cuidadura; eta bera lo daguala, edo beste langueiren batzubetan ocupauric daguan bitartian bere escuco obra gueiquetan dago; eta Necazaria Sorora doian bacoitzian ecusten dau bere nequiaren frutuba aumentubagaz, izanic bera capazidaderic ez daucana, plantiari ule guizi baten lodieraric edo luzaeraric emuteco; Jaungoicua da bada, Necazariaren escu arteco obra onela gueitu eta bedeincaquetan dabena: bai; au ala da; ete beste Oficiale guztiac ez dacuste beren langueietan Jaungoicoaren onerian misericordia eta bendizinoric: au sarritan eta biotzetic considerauco baleu Necazariac, erraz ezagutuco leuque, alde onetatic ere dala bere Oficioa guztietatic egoguiena bere azquen Fin salvacinocua lograitaco.

Gueiago: Necazariac bere Oficioan ecusten dau, Jaungoicuac gure Animetan bere gracia santubagaz eguiten dituban lan guztien ispillu,

semejanza, edo iduripen on bat: au ez da nic asmauba; Jesu Christoc berac bere Evangelio santuban comparaitan dau bere Aita Jaungoicoaren verba santuba, Necazariac ereiten daben, Aziagaz, verba santu au predicaitan deuscuna Necazariagaz, eta guere Animaac, nun verba santu onec erne biar daben, eta sustraiac ezarriric Agustu ona emun biar daben ia gueiago edo ia guichiago, comparaitan ditu Soruiacaz, zeñetan Necazariac bota eta zabaldu oi daben bere Aziia, emun deguion bere Agustuba; eta modu onetan Jesus Divino onec bere Evangelian comparaitan deuscu bere Aita Jaungoicua Necazariagaz: nire Aita (diño) Necazaria da: (au zan esatia) Necazariac bere Soroai frutuba emun eraguiten deusten leguez, orobat ere nire Aita Jaungoicoac, ereinic bere verba santubaren Azi eguiazcua Guizonen biotzetan Predicadore fielen vitartez, emun eraguiten deuste obra onen frutubac, lagunquetan deustela onetaraco bere gracia Divinoagaz: Ho! eta alde onetatic ere zein egoguia dan Necazarien Oficioa beste Oficio guztien aldian, Guizonac bere azquen Fina lo-

gzaitaco; bada Necazariari bere Oficioac emu-
ten deutsa beti motivoa, consideraitaco biotzetic
zer maduz vizi eta portau biar daben bere sal-
vacinoco azquen fina logzaitaco.

Gueiagz Necazariac ~~ecusiric, ondo biarra eguin~~ exeinic azia bere/onuer eta
eguinic, fruturac emuteco gogoac dirian bezain gueiagz gurtu-
az, ezin ~~dapique gueiagz~~, eta apdic aurrerago laguntzen
~~eta zaildu ezquero, bere Jaincoac fruturac beren~~
gurtia Jaungoicobagandic esperaitaza obligaurric dagoan le-
guen, orobat ere bere Animiaren barrerrian Jaungoicoaren
~~demporetan emuten deutsala, consideratu eta~~
bertbat zantuco azia exeinic, eta bere aldetic dan gurtia,
eguinic, apdic aurrerago laguntzen gurtia esperan, biar-
~~pensau biar dau biotzetic, bere Animiaren bar~~
dan Jaungoicoagandic, emungo, baditu bere salvacinoco
arquca fina logzaitaco premina dirian, obra onen fruta-
~~tzetan ondo biarra eguin eta zaildu ezqueto~~
bac beren demporetan; bada bada/orduac eguin aldez/aldiquiz
~~dan oneic ospatzeric batere. Fruturic emungo ez leguke~~
~~emungo dutubala. bere salvacinoco azquen fina~~
an legoken Jaungoicoac laguntzo en balentza bere dem-
~~porale onagaz, orobat gure esperanzac bazterrac gure~~
~~logzaitaco premina dirian obra onen frutubac~~
alegiñ gurtiacatic bego onetaco batere/fruturic emu-
~~beren demporetan; bada Jaungoicoagaz batera~~
~~go ez leguke Jaungoicoac bere grazia ez/ubagaz la-~~
~~guntzo ez balenzagu; eta onela~~ Necaza-
robera da bere Arrimaren Necazaria, eta de-
zia/orduco Aguztubo ona artzeco bere bar queiac eguiten di-
tuban begiak, orobat ere bere animaren barrerrian/or-
~~tzian begiez bere Arrimaren bazterrian Jaun~~
~~do zaildubiar dau, bere aldetic dan gurtia eguinagaz~~
eta ezin dabane eguiteco premina daben gracia Jaun-
~~goicoaren gracebagaz batera ondo zabaltzen ba-~~
~~goiazagandic esperanzubagaz eta ereanzubagaz: onela Neca-~~
zariczaco oficioac eta Arrisqaco lanac/eiaqueragungo
~~da, dauda bagaz ez da Jaungoicoaren aldetic~~
~~fal/zantuba logzaitaco doucai bere azkeco iduzipen~~
~~ariñ bat, eta ala Nezazariac ez~~
~~goldubo izango;~~ bere salvacinoaren gañean
~~ez deutsa Jaungoicoac utsic emungo,~~ Soroco
~~frutuban uto emun beiquion leguez,~~ Sozua on-
~~do labraitan alegiña eguinagatic: eta onela~~
Necazariac ecusten dau bere Oficioan, Jaun-
goicoac gure Salvacinoraco eguiten dituban,

lan gueien ispillu guztiz ederra, zeñac egunoro eta instante oro gogora eta vistara ecarten deutsa, zer moduz portau biar daben, bere azquen fin santuba lograitaco: bai; errazue onegatic ere beste Oficio guztiac ezin disputauco deutsai Necazaritzaiari, eurai deroien ventaja santu au, Guizonac bere azquen Fin santuba lograitaco, Oficioric egoguiena izatiagan.

Necazaritzaia ere da, Corputzagaz desempeñaitan dirian Oficio guztien artian honrosuena edo honraric gueienecua: Jaungoicoac berac emun deutsa honra gueiago au, eguinagaz Necazarien frutuba ~~nezesarioa edo~~ premi-

nazcua, Guizonaren vizitzaia conservaitaco, ala nundic ere Eliza Ama santac goriaren azotia dat vrremian, presente ifinten deutsa Jaungoicoari premina mueta bi oneic, eta escaquetan vizitza espirituala nola Corporala, deutsa emun deigula oguia eta ardaua, euqui daigun onela zegaz ~~[illegible]~~ sustentau Corputzac, eta Animen sustenturaco dan Sacramentu santu Comunioaren materiala edo gueia.

Jaungoicoaren providencia santu presentecuan gure Animeen sustentu espirituala eta precisua da Jesu Christo gure Jauna Sacramentu santu Comuniocuan; eta Jesus Divinuac, Sacramentu santu au eguiteco eta Meza santuco Sacrificioa celebraitaco, materiatzat escogidu zituban Necazariaren frutubac Oguia eta Ardaua, eta ez beste Oficialien fruturic:

honra guztiz miragarria da, Jaungoicuac puntu onetan eguin deutsana Necazaritzaiari, eta beste Oficio guztiac ez daucaina.

Ecusi daigun orain nola Necazarien frutuba dan precisua, Guizonaren vizitza corporala Lurraren gañian conservaitaco: Jaungoicuac eguin eben Guizona Necazariaren frutuben aiñ preminacua, zein da frutu oneic bagaric ezin vizi dira Erreguetatic asi eta andic azquenengo dirian Pobretarañaco guztiac: bai; Jaungoicuac berac emun deutsa Necazaritzaiari onra andi eta aparteco au, beste Oficio guztiac ez daucaina; eta obligaitan ditu Mundutar guztiac autorquetara honra andi eta aparteco au Necazaritzaco Oficioari, ifinten ditubala bere frutuben premina guztizcuan, vizico badira; eta ala Munduco Erregue eta Aguintari guztiac Christaunac eta Christaunac ez dirianac, ezaguturic Necazaritzaiaren aldetico necesidade guztizcua, empeñau izan dira beteetan Necazariac honraz eta privilegioz, ~~guchu gordetan baiate ere:~~ poztu ditecen Guizonac aimbat queier oficio honradu onetara ez, ez; beste Oficio guztiac ezin disputau deiqui-

oe Necazaritzaiari, daucan honra gueiagua.

Onegaz ostian, zeimbat eta antiguedade gueiago daucan Familia batec bere Antepasaubetan, eta zembat aguiriaguan daguan antiguedade au, aimbat honra eta Nobleza gueiagocua izan oi da Familia au Munduban; orain, nire Illoba, esanic itziditudan Necazaritzaiaren gañeco alabanza eguiazcuen vistan pensau eguizu, zeiñ Oficioc presentau daiquian aiñ antiguedade andia eta aguiria, nola Necazaritzaiac, zeña sortu zan Munduban Guizonagaz batera.

Gueien bat Provincia oneitan dagozen Nobleziaco Hidalguiac Necazaritzatic sortubac dira; eta ala Caballero edo beste edozein Personagec, andia izanagatic, Nobleziaco Hidalguia eguingo badau, edo eguin biarco ditu papel falsuac, edo eguin biarco dau prueba eguiazcua, nola bere Antepasauren bat vizi izan zan bere Apelliduco Vrlia Echalde propioan Abarca sopitia eriola, Erpillac zatiquetan zitubala, Artua jaten ebela, Ituaco sitsa gobernaitan ebela, eta azquenic queez eta ama-

ez arguintzan ez arotzian, ez zapataritzan, eta bai

zaunez beterricaco Arcoba baten lo eguiten
ebela; beste moduz ez dauca, zer esperau Nobleciaco Hidalguiaric; eta onela duaza Guizon andi eta Caballero Noblecia paxe baguecó oneic, galdutze daucain Noblecia billaguetara. Noblezia eguiazcuaren Ytuzita, zeña dan Necazari baten Jaiat eche honradu eta Ichal de propio eta bere Apellidueo bat: bai; au ala da; eta guba daube errepedian, eta estabbu beren Villauntasuneco lotsa eta afrenta eguiazcuo, leenago lotsa gazi anditzat eurac beguixaquetan euston, Abarca sopita cazj: Ha! Mundutar juizio baguecuac! eta nola jauston dizian guba ez daubela, honzaric gueienco Justicia eguitera, beren voxondatez ainbeste afrenta eta menosprecio emuten deutsain, Necazaritzaiari. Api, meneci daben ermacinda, eta jazaitu ez daguecó

duban considerau lei provechu au, daucan condicino edo calidadiaren aldetic.

Consideraitan bada, Necazaritzaiac emuten daben, provechuba lenengo moduban (au da) ecarten daben abundanciaren aldetic; eguia da; ez dacar Necazaritzaiac Echera caudal, abundancia, aberastasun, edo diru asco; beste Oficio batzubec gueiago dacarde; Necazaritzaiagatic esan oi da, dala pobria, baña garbia; emuten daben provechuba ez da abundantia, bai mediania decente bat, eta au gueien bat seguruba; ~~au aiquetan da Echalde decente baten Jabe dan Necazariari bere Necazaritzaiac emuten deutsan provechubagatic; bada onelaco Eche Jaun batec, biarra fin~~ bada Necazariac biarra fin eguin ezquero eta zintzo ~~Jocatu ezquero,~~ ibilli ezquero Familiaren gobiernuban emun eraguiten deutsa bere Necazaritzaiari bastante dan mediania bat, bera eta bere Familia mantenitaco, eta bere Vmiac acomodaitaco; emendic aurreracua ete dan provechosua edo dañosua, bacoitzac erabagui begui pasino bagaric, Salomon Errege Jaquintsubac Jaungoicoari eguin eutsan,

escavidiaren vistan: ez beguit emun (erregutu eutsan) pobrezaric, ez da ere aberastasunic; emun eguidazu bacarric nire sustenturaco premina ditudanac; abundanziagaz beteric movidu ez nadin, zu ucaquetara, eta esan ez daguidan; Jauna nor da? edo nezesidadiagaz obligauric lapurretaric eguin ez daidan edo Juramentu guezurrezcoric nire Jaunaren izenian: au zan gu guztioen instruccinoraco Salomon Jaquintsubac Jaungoicoari eguin eutsan erreguba; eta erregu santu onen vistan uste dot, nor beren sustenturaco bastante dan Mediania bat emuten daben, Oficioa dala provechosuena, considerauric provechuba lenengo sentidu edo moduban; eta alde onetatic nire iritzian beste edozein Oficioc Necazaritzaiari bat ere ventajaric ez deroio, eta Oficioric gueienac dira provechu guichiagocuac: badaquit, Mundu onegaz conforme pensaitan daubenac barre eguingo deutsaila nire pensaitaco modubari; baña nic, euqui ezquero nire aldetic Salomon Jaquintsubaren dictamena, barre eguingo deutsat beren barriari eta pensaitaco modubari.

Necazaritzaiac emuten daben provechuba considerau ezquero bigarren modu edo sentiduban (au da) emuten daben provechubaren condicino edo calidadiaren aldetic, ez dago batere dudaric eta disputaric, dala Necazaritzaia beste Oficio guztiac baño provechosuagua: Lurrac Necazariari emuten deutsan frutuba Santiago Apostolubaren Auan da preciosua; bai; eguiaz preciosua da, eta aiñ preciosua, zein da bere comparacinuan Vrriac eta Zidarrac ezer ere valio ez daube; beste Oficio guztiac emun oi duben probechuba utsa da.

Cuqui ezquero zer jan eta zer jantzi baleoque Vrria eta Zidarra Lurraren azpian, nundic etara zirian: Tripia daucain Persona vizi guztiac Erreguetatic asi eta andic azquenengo Pobretarañocuac ezaguquetan daube, Necazaritzaiac Munduco beste Oficio guztiai deroien ventaja bere provechubaren condicinuan edo calidadian: Mundu guztia dago ichadeten, Necazarien izerdiac emuten daben, frutubari; eta, onec faltau ezquero, guztiac larriquetan dira

gosiari, izurriari, eta eriotziari beguira, ezertan ez daucaila beren izate eta aberastasun guztiac Ogui bocau baten comparazinuan eta vistan eta beste edozein Oficioc faltau agatic ez dira batere laxriquetan.

Demporaliac asistitan ez badeutsa Necazariari, guztiac movitan dira, Jaungóicoari escaquetara demporale onagatic, eta beren Errogatibacaz ez deutsai baquetan izten; ez ala beste edozein Oficioc faltau agatic; eta, verba guichitan aiquetara emaitiarren. Corputzian Animiac eguiten daben Oficioa eguiten dau bere modura Necazaritzaiac Munduco Oficio guztietan, bada Corputza Anima bagaric illic daguan leguez, orobat Necazaritzaia bagaric beste Oficio guztiac illgo eta acabauco liratequе; zergaitic Necazaritzaiaren frutubac oñian conservaitan dau Mundu guztia; eta eguiaz esan diteque moduren batera Munduco Oficio Corporal guztiac diziala Necazaritzaiaren Guardu edo Mirabe batzubec leguez, destinaurric dagozenac, Necazaritzaiari sewitaco, eta Necaza-

ritzaia oñian obeto conservaitaco.

Necazaritzaia Corputzeco indarracaz desempeñau oi dirian Oficio guztien artian da provechosuena ez bacarric esplicau ditudan ventajacatic, baita ere orain esplicaitara noian beste batzubecatic: indarrac eta biarra eguiteco gogua daucan Personiac eguin daique Necazaritzan; ala ecusten ditugu edozein Clasetaco Personac, Caballeruac izanagatic; bada beren Hortu, Baratza, eta bazterreco Lurrari emun eraguiten deutsai frutu onac; ez dago iñor Necazaritzan ez daquianic gura izan ezquero, beste edozein Oficiotacuac izan agatic; Necazaritzaco aprendiz urtiac irago oi ditu batec, eracusten deutsan Maisubac pagaitan deutsala Aprendiz oni, mantenitaco premina daben gara, eta asostian bere Soldatachua: guztiac dira capazac Necazaritzaraco, euqui ezquero indar onac; Emacumiac izanagatic ere: Familia bateco Necazaria dan Buruba ill agatic, bere Familiaco guztiac bere Emazte alargun eta Alabetatic asi eta andic gañeruntzaco guztiac gueldiquetan dira Necazaritzaco meterian Oficiale diestruac;

eta ala Oficio au beti oñian conservaitan da vici-
ric gueldiquetan dirianetan: Necazariac beti dau-
ca nun biarra eguin, eta bere Obriac beti daucati-
ria: considerau, bitez orain ventaja oneic guztioc
bacoitza banaan, eta ecusico da, nola beste Oficio
mueta guztietan batere cavidaric edo lecuric ez
daucain; bada guztia guertaquetan da contrara:
desengañau gaitian bada, nire Illoba, Necazari-
tzaia dala Munduban Corputzeco nequiagaz de-
sempeñaitan dirian Oficio guztien artian Guizo-
narentzat egoquiena salvacinoco bere azquen
Fin santuba lograitaco; dala ere onradubena, eta
provechosuena; eta Necazaritzaiac bacarric ditu-
bala iru ventaja oneic beragaz.

Tarraitu eguiozu bada, nire Illoba, finta-
sunagaz zeure Necazaritzaiari, eta estimau
eguizu Oficio santu au, Taungoicoaren escutic
gure lenengo Gurasuac errezividu ebena dan le-
guez, Paraisuan plantauba izan zan instantetic:
sinistu eguizu, dala Oficioric egoquiena Guizo-
nac bere Salvacinoco azquen Fina lograitaco;
eta Taungoicuac emuten badeutsu Seme edo

Alabaric, nic deseo deutsudan leguez, ez zaite detenidu discurritan, zer Oficio edo destino emungo deustezun; baizican etara equizu Necazari equiazco batzubec, instruitan dituzula ondo, Oficioac premina dituban, partida guztietan: ~~Abundancia~~ Ugaritasuna eta Alperqueria dira, Mundutarrac ezin gueiagoraño estimaitan dituben, prenda eta dicha bi; baña ~~prenda~~ Ugaritasunari eta Alperqueriari beti lagunquetan deuste salvacinoco azquen Fin lograitaco peligru guztiz andiac. ~~eta dicha bi onein erdian corritan dau peligru guztiz andia, guere prenda eta dicha~~ bacarra dan, Salvacinoco azquen Fin santubac; bada Zeruco Subac erre zituban Sodomaco eta Gomorraco Tentiaren galdu biar guztia sortu zan, Ezequiel Profeta santubac esaten deuscun leguez, Oguiaren Asebete eta Abundanciatic, eta beren eta euben Alaben Alperqueriatic; eta Necazaritzaco Oficioac gogo onagaz Jarraitu ezquero librauco zaitu Abundanciatic eta Alperqueriatic.

Jarraitu equiozu fintasunagaz zeure Necazaritzaiari Oficio guztien artian honrosuena eta nobliena dozun leguez; lagundu equiozu Jaungoicuari bere semejantzaco Criaturac manteni-

tan, eta Guizonaren Salvacinoraco destinauric daucan Misterioric principalenac oñian conservaitan; eta Eliza Ama Santac egunoro escatuco deutsa Jaungoicuari Aita guriaren laugarrengo peticinuan, bedeincatu eta gueitu daguiala zeure nequiaren frutuba: gozau eguizu zeure honra eta Noblezia bere Yturrian; ez eguizu itzi azturic edo galduric zeure Noblezia zeure Jaiat Echiaren lau Cantoien barruban esquinaren baten, guero aren billa zatozenian zeu edo zeure Jatorriren bat, lotsatu ez zaitezten ecusiric an Nobleziaren insigniatzat Abarca sopitac eta Azquineco zarrac, eta goraco larriric emun ez deguizuben Ytuaco Sitsaren tufo donguiac eta atsac; bai, bai; Jarraitu eguiozu gogo onagaz zeure Necazaritzaiari; eta izango zara ez bacarric beste Oficiale guztiac baño nobliagua, baita ere Odol azula daucaila uste dauben beste Caballero asco baño honra eta Noblezia gueiagocua.

Jarraitu eguiozu fintasunagaz Oficio guztien artian provechosuena dan zeure Necaza-

xitzaiari; gozau eguizu emuten deutsun provechuba; mantenidu zaite bere fruitu preciosoagaz, zeña aberastasun andiac dacarzena ez bada, da guztiz garbia, Jaungoicoaren eleccinocua Guizonaren vizitzaraco, eta Medioria decente bat emuten deutsàna Échalde decente baten Jabe dan Necazaritzaiari, eta beste Oficioen fruitubac baño gueien bat segurubagua: Jarraitu eguiozu, bai, gogo onagaz zeure Necazaritzaiari; eta ecusico dozu, nola zeure Animaco iru Étsaiac vencidubagaz ostian erraz, Munduco interesetan ere daucazun Haciendiagaz ez dozun izango, zer iñoren inbidiaric euqui, bardin contu onagaz eta zintzo baña dollorqueria bagaric zeure Familiaren gobiernuban locaquetan bazara; bada conturic ez daguan Échian errentiac batere valio ez dau, etorri andiac izanagatic ere: eta contu eguin daiquezu, gogo onagaz Jarraitu ezquero Necazaritzaiari, artuco dozun fruitubac valio deutsula errentan ifinten dirian Échalde decente batec edo bic emungo leusquezuben gara, eta itzi ezquero Necazaritzaiari, galtzen dituzula, eta guichi-

ago izango dituzula Echalde decente bat edo bi-
en errentac; eta onegaz ostian; nun dozu Fami-
lia alper batec artzen deutsun neurri bagueco por-
te gueiagua ala sustentuban nola jantzian, biar-
rian bere Echaldian ondo ocupauric daguan, Fa-
milia baten comparacinuan?

Necazaritzaiari fintasunagaz jar-
raitu gura deutsanac, nire Illoba, presente eu-
qui eta gorde biarco ditu bere vizi guztian lau con-
dicino edo circunstancia: lenengua, labranzaco
tresna edo erramienta mueta bacoitzarentzat
toqui señalaubac eta apartecuac Echian euqui-
tia: bigarrena, goiz ugera juatia illunqueretan
eta goiz ugetic jaguitia egun sentietan, eta au
Vda eta Negu, onetan posible daben guztian Ol-
luai jarraiquetan deustela: irugarrena, bere erei-
tiac eta onei conveni dirian lan modubac, beren
demporia etorri ezquero, eguitia, batez ere ligortia-
ren pretestuz nequezago izango bada ere eguintza-
ca itzi bagaric: laugarren condicino edo circuns-
tancia da, bere Guraso juicioso eta honradubac eu-
cain eta itzi eutsain moderacino edo mediania de-
cente artatic aurrera pausocho bat ezemutia ala

jantzian nola sustentuban ala bere Personan nola bere Çmaztiaren eta Ymien Personetan; bada esperienziac berac erracusten dau, lau condicino edo circunstancia oneic diziala parte egoquiac, eta parte preminacuac Necazaritzaia ondo desempeñaitaco; baña lau esan dizian circunstancia oneic aitu biar dira, Munduguztiac Necazaritzaco materian preminazcuac ezaguquetan dituban, circunstanciacaz gañera, nola dizian Gente eta Ganau indarra; bada oneic bagazic alperric bat necatuco da, beste circunstancia guztietan alequiña equiten empeñaubagatic.

Lenengo condicinua guztiz dozu egoquia, nire Alloba; bada Necazariac, bere Oficioco lan guei mueta guztiac ondo equiteco, premina dizian, tresna eta erramienta mueta guztiac euqui biar ditu, eta guztientzat beren toqui apartecuac, erraz billatu daquian lanquei bacoitza equiteco demporan, oneic escaquetan dituben, tresna eta erramienta egoquiac; eta ala zu ere ez zaite izan descuidaduba puntu onen gañian, eta euqui equizu tresna eta erramienta mueta bacoitza

beren toqui apartecuetan zeure Eche barruco bazterren batzubetan, ala Jaquin daguizun nun paraitan dirian, premina dituzun bacoitzian; eta egun artaco lan gueiac acavauric biurtu eguizu zeure escu arteco tresna eta erremientac beren toqui señalaubetara, or eta emen bazter diferentetan itzi bagaric, guero urrengo premina dituzunian erraz billatu daguizun, eta galdu ez dequizun ere tresna edo erramientaric; baita ere ondo instruidu biarco dozu zeure Familia guztia simplezaco gauza dirudian, baña eguiaz importancia andicua dan leccino onetan, caminaitan dozula puntu onetan beti constanciagaz, ez gaur bai, eta biar ez.

Bigarren condicinua ere dozu guztiz egoguia zeure Necazaritzaia ondo desempeñaitaco: Necazariaren Familia estendidu baten conveni da, egun sentian goiz Jaguitia, eta goiz Jaguiteco, gau lenian goiz uguera etzitia, argui, egur, eta abar erreta alperric eguin bagaric: Jarraitu eguiozu bada zuc ere, nire Illoba, zeure Emaztiagaz batera leccino importante oni urte guztian Vda eta Negu, onetan ondo bezaitan dozula

zeure Familia aoz baño aurrenengo egemplu-
bagaz gueiago; goiz Jaguiagatic ez zarai ez alper-
ric egongo lan gueiaren faltaz: puntu onen gañian
zeure Aita defuntubac (Jaungoicoaren Glorian
guerta dedilla) emun eutsun egemplu güztizona,
eta presentian ere emuten deutsube orobat zeure
Aita nagusi zarrac, eta zeure Ama anziana eta
agétsubac bere Alabacaz batera, eta goiz Jaguia-
gatic, langueiaren faltaz ez dagoza beiñ ere al-
perric; Jarraitu eguiozube bada Senar eta Emazte
onein egemplu onari; zergaitic izango lizateque
errazuetic camporaco gauza, zu oian egotia,
laroqueta aimbeste urteco Aita nagusia lan guei-
ac eguiten dabillen, vitartian, eta orobat zeure
Emaztia oian egotia, bere Amaguinarreba, Cria-
da bat eguinic, batera gira eta bestera Jira dabil-
len, vitartian.

Vda eta Negu, diñot; zergaitic Negubac
dacar Vdia, eta Neguban gozo dan Oia Vdan
izango da gozuagua: bardin bada leccino impor-
tante onen gañian descuidaitan bazari Senar eta
Emazte, zeuroc batera Jocaquetan zariaila, eta Fa-
milia bestera bezau gura dozubela, sarritan ecusi-

co dozube zeuben cuidaduba Paga adarretic eseguita: ez da conveni, Necazaria, osasuna daucala, Ancaacaz gora egotia, discurritan (esateco modura) nundic, Jaustera doian, Zeruba apuntalau aldaiquian, eta, an dagozen, Amaraunac quendu aldaiquian; bai, nola ondo macurturic eta necaturic aurrian daucan Erpillari frutu ona emun eraguingo deutsan, bizcor inguraquetan dala, Necazaritzaco lan guei guztiac eguitera, eta eraguitera.

Irugarren condicinua urte ascotaco observacinuaren vistan uste dot gueiago dala preminacua egoguia baño: berandu ereña (eguia da) ascotan dator obiagua bere demporan ereña baño; baña bere demporan goizcho ereñac gueienetan obeto urteten dau, eta beñere utsic emuten ez dau, berandu ereñac sarritan uts emun oi daben leguez, eta onetan dago diferencia guztia.

Diferencia au Artuaren lan gueietan izan oi da aguiriena, urte oro ecusi oi dogun leguez; baña gauzaric segurubena da, be-

re demporan ereitia, Jorraquetia, eta premina dituban beste lan guztiac eguitia; eta ala, nire Illoba, Campua lior egonagatic, Arta Jorra demporia etorri ezquero, ez deutsazu ucatu biar egogui daben demporiagaz conformeco bére Jorra moduba; egui onen pruebia ecusiric daucazu orain urte bi; eta, oraindio prueba gueiago gura badozu zeure desengañu gueiagoraco, entzun eguizu, zer diñuan Necazaritzaco barri ondo daquian Espiritu Santubac: Aiziaren zain daguanac (diño) ez dau ereiten; eta Lañuai beguira daguanac ez dau Agusturic artuco beñere: ez dogu bada licito emendaitia, Espiritu Santubari guere gobiernuraco emuten deuscun, leccino importantiac edozein ere materiatan; eta ala, etorri ezquero lan guei bacoitzari bere dempora, segurubago da lan gueiac eguitia, oneic eguiteco egoguia dan, Aiziaren zain eta egoguiac dirudien Lañuai beguira egotia baño.

Laugarrengo condicino edo circunstancia ain preminacua dozu, nire Illoba, daucazun Necazaritzaco Oficioari fintasunagaz Jarraiqueta-

co, zein da condicino onetatic saltau ezquero laster etorrico zara Lur Jotera; Necazari baten firmeza guztia da Mediania bat; eta Mediania onetatic campora urtetia, da Ospitalera postaan Juatia; egui au probauric eta Justificauric guelditu da, Mundubaren gañeco tratadu-ban esplicau ditudan, errazoiacaz; ala ere prueba gueiagoraco empeñauco naiz emen, aiquetara emuten, nola Mediania bat gordetan ez daben Familiaco Buru dan, Necazariac ezin contu onic emun leiquian bere Oficioan eta Familiaren gobiernuban.

Necazaritzaiac Eche Jaun a izanaoatic ~~on bateri~~ emuten deutsan provechuba izan oi da Mediania bat, eta ez gueiago; eta ~~ala Eche Jaun~~ Necazari onec, ~~arreglaitan~~ neurtzen ez badituala bere Jan~~ian~~ nola Jantzia~~n~~ Mediania bateaz, zer paradero euquico dau? Necazari Juiciosuac bere urteoroco gastubac ala Janian nola Jantzian beti ~~arreglau~~ neurtu biar ditu, bere Oficioac eta euquiac ~~presentaitan~~ emuten deutsain provechubetatic sobrantiac urteten deutsala; onetaraco bere Guraso contu oneco en Seme dan Necazari batec, Hacienda asco gueiagoren Jabe ez bada, ez dau emun biar pauso bat aurrerago bere por-

tian, bere Guraso Juiciosuac caminau euben, vi-
detic, eguiaz andia eta contu oneco Necazaria
izan gura badau.

Partida oneitan vizi dan Necazari baten
sustentubac ala bere Personan nola Familian
ala ~~desaiunuan~~ goiceco almorzuban, nola bazcarian, arrasaldeco bo-
caduban, eta afarian izan biar dau Echiac eta
Bazterrac, biarra ondo eguiñagaz, emun oi daben
frutubagaz guertaquetan dana, enfermedade
edo ocasino onrauren batec beste gauzaric esca-
quetan ez badaube: Ha! eta zein burutic Jausita
egon biarco leuquian Familiaco Necazari dan
Buru batec, ifinico baleu bere Persona edo bere
Emaztia, Ichasuagaz andico aldera beguira,
millaca Leguac eguin biar dauben Azucar, Ca-
cao, eta Canelari ichodeten, almorzaitaco goize-
tan, aiecaz eguiten dan, Engruduagaz!

Ez dot uste, nire Ylloba, zu Jausico za-
riala orrelaco zoraquerietara, eta ifinico dozula
zeure Emaztia onda garrizco precisino onetan En-
fermedade eta ocasino onrauren batzubetatic
campora; bada zure Emaztia (Jaungoicoari gra-
ciac) da robustia, biarguiña, eta Echaldiac emun
deutsan Almorzubagaz oituba, zure Echian uso

dan leguez; eta ſaquin izan baneu beste gauza-
ric, ez neben aimbeste empeñu ifinico zuri Emaz-
tetzat aplicaitaco.

Gaurco egunian egunoroco Chocolate Ti-
cara bat gueiquetan dabenac bere Echian ſaqui-
nian egon diteque, grabaitan dabela guichie-
nez milla Escudoco Censo bategaz bere Echia, eta
bi milla Escudoco Censuagaz, Ticara bi gueique-
tan baditu; eta onela ſuango da iguagaz contuba,
Ticarac gueitubagaz duazen eran; au gulleriaz-
co ez gauza baten, Catillu bat zopagaz ascoz
obeto egongo lizatequian Personiari bere leenago-
co oitueriagaz conforme, grandecia emutiarren:
Ha! burutic ſausi biarra! ez arren, nire Illoba,
lecuric emun zeure biotzian onelaco Fontaque-
riari.

Indietaco posesinuac galduco balira; Cho-
colatia premina daubenac, desaiunaitaco, orduban
nora ſuango ete lirateque desaiunuaren billa?
eguiaz eguin daiquegu contu, gure egunic gueie-
netan galduric dagozela guretzat, bada Ingle-
sac gueienetan ichiric daucai Ichasuetaco pausua;
eta au da vicio bat, gueitubagaz ſuan dana, Cho-

colatia goratubagaz Juan dan eraan, eta gaur-
co egunian Necazari Echeric gueienac Ospita-
lera botaten ditubana: guazen orain Jantzira.

Ticara bat Chocolate egunoro gueiquetiac
aimbeste ondamendi ecarrico baleutsa zeure
Echiari, nire Illoba; zer guertatuco ete liza-
quezu, igoco bazeu malla bat zeure Aita Jui-
ciosuac (Jaungoicoaren Glorian guertadilla)
itziricaco moderacino dezente artatic zeure
Jantzian? Contulari charra naiz esceso au
graduaitaco; zergaitic puntu onec buztan lu-
zia dacar bere ondoren, eta ascoz luciagua
ecarrico leuque, igoco bazeu malla baten ordi-
an bi edo iru: Ha! eta zein betecian anchituco ~~cogiduco~~
zinduquian Mercatariacatic esan oi dana:
Aita Mercataria, Semia Caballerua, eta Illo-
bia Pordioserua! ez arren, nire Illoba, orrela-
coric.

Errentero bat, errentia pagaitan dabela,
ondo vizi da; Eche Jaun bat, guztia beretaco da-
bela, vizi da arlote; beste bat Eche bategaz vizi
da ondo, eta beste bat Eche bigaz edo gueiago-
gaz gaizqui; zertan dago bada diferencia
au? ez da neque erantzutia: plomozco oñacaz

caminau biar dozu, nire Illoba, Alfiler punta baten novedade eguiteco zeure Guraso onraduben Medianiatic campora, presente daucazula, Taungoicua dala Neurtzalla bardiña emen eta beste Munduban, eta daquiala pagau eraguiten Gurasuai beren culpa beren Vmeetan.

Mediania onetatic urtengo bazeu, nire Illoba, guertatuco ere liquezu zeuri edo zeure Vmiai, Chepechagaz guertaquetan dana: Egazti dollor onec, izanic ain ezebereza, igoten dau Fellaturic altubeneco Beleta puntara; Jasarten da pamparruetasun andiagaz cantaitan, guztien atencinua beraganaquetan dabela, eta andic puntura sartzen da Sator zuloric Sator zulo, iñorc ecusi ezin leiquian moduban, nundic nora dabillen; eta iñorc ez dacus berefigura dollora, beste Beleta punta baten cantaitan leen leguez asi arteraño: Egazti dollor au bada eguiaz da Munduco Pamparroien eta Framposuen Ispillu eder bat; ecusi oi dira guapo oneic, beren pamparruetasuneco golpe batzubec emuten Chepechen cantubaren modura, eta guero dabiltza, beren trampac eta ezeberezta-

suna ~~disimulaitiarren~~ ezcutaitiarren, eurac daquien, vide edo trampetaco zirquilo zuloetatic, iñorc ſaquiten ez deustela beren pausuac, miñ dabenac baño bestec: gorde eguizu bada esan ditudan lau circunstancia edo condizino oneic, eta zu izango zara Necazari fina, eguiazcua, contu onecua, eta Jaungoicuac eta Mundutarrac estimauco zaitubena.

Matrimonioco tratadubar aitatuco ditut Ardaua eta bere caltiac Familia baten.

Gurasuac

Zeure aurretic dacutsu, nire Illoba, zeure Aita Asaba, eta zeure Ama: Munduban vizi garian vitartian, gure aurretic daucagun, Gurasuac amau reverenciau eta beren preminetan aliviau biar ditugu guere facultadiacaz conforme; baita ere obligauric gaoza eurai obedecitara, guri aguinquetaco autoridadia daucain, puntu guztietan; eta, materia onelacuetan aguinquetan daubenian, ez obedezitia, da pecatu edo mortala edo veniala mate-

riagaz conforme; ala eracusten deuscubegure Fede santubac, Errazoiac, eta Naturaleziac berac.

Pagau biar deustegu bada guere Gurasuai zor estu eta pisu au, maldicinoco Vmiac Jaungoicoaren aurrian izatia gura ez badogu: zor deustegu, bai, obligacino grave au, Mundutarren iritzian menosprecia garriac iduriagatic ere Gurasuac; esaten deuste Espiritu Santubac, Gurasuac aurretic daucain, Seme eta Alaba guztiai: acordau zaite (diño) ez ziñiala Jaioco (Munduban) zeure Gurasuen vitartez ez bada.

Jaquinian vizi biar zara bada, nire Illoba, Munduco Persona guztien artian aurquiquetan dan Claseric santubena, antigualena, eta fuertiena dala Gurasuen Clasia; eta au menospreciaitan eta afrentaitan daben Vmiac ez dau mereci, Munduban vizi izatia; eta vizi bada eta Guraso izatera badator, bai, bere Vmiac ostico peian erabiltia, pagaitan deutsaila doblaubagaz, berac bere Gurasuai leenago eguin eusten, menospreciac; onela bere Vmiac erenziaz daroiela Jaungoicoaren maldizinua egemplu eta bezu

donguia diziala mediante.

Jaungoico gure Jaunac Progimuen provechuzaco dizkan zazpi Mandamentu santuben artian ez alperric, bai, errepara eta cuidadu andiagaz eta guztizcuagaz leenengo presentan euscun guere Gurasuen onezaco Mandamentuba, esaten euscula modu onetan: onran eguizu zeure Aita eta zeure Ama. cuidadu bada, nire Illoba, auxenengo cumplitiagaz zeure Aita nagusiai eta Amari zor deustezun obligacino grave au, amaitan dituzula zeure Çmaztia baño gueiago, beragaz celebrauzic dauzkazun Matrimonio santubaren dañu edo caltian ez dan vitartian.

Orobat cumplidu eragun biar deustezu Obligacino estu au zeure Çmaztiai eta Senidiai, eracusten deustozula amaitan eta reverenciaitan zeure eta euben Aita nagusi eta Ama, Jaungoicuaren ofensa ez dizkan, gauzeetan: iñolaco moduz ez deustezan, sufridu biar, esan deguisen Gurasuai ez bezen auzian eta ez astetic bezen auzencian: Simplia edo Zozua, edo onelaco beste esaera moduzic ao utsez bada ere; zergaitic Jesus onac onelaco esae-

rac Persona atze bateri eguitia, gogorquiro ucaquetan badau bere Evangelio santuban ¿zer pecatu izango ete da, Guraso bateri bere Vmiac esaera onerianac eguitia? nor nai dala bada esaera onelacuacaz bere Gurasua injuriau dabena, escatu biar deutsa parcacinua.

Semia dan Semiac euqui biar dau beti bere onratzat edo desonratzat, bere Gurasuai eguiten dirian, onra edo desonrac; beste moduz ez dau ondo cumpliduco, Gurasuai zor deusten, obligacinuagaz, Espiritu Santubac Gurasuac durretic daucain Seme guztiai emuten deusten instruccinuagaz conforme: Aitiaren bendicinuac (diño) firmezaz betetan ditu Semien Echiac, baña Amaren maldicinuac etaraten ditu zimentutic: ez zaite poztu zeure Aitaren afrentan; zergaitic bere confusinua ez da zuretzat alabanza; zergaitic Guizonaren alabanza edo gloria jaioten da bere Aitaren onra-[illegible], eta Semiaren afrenta da onra bagueco Aitia: [illegible]emia, jaon eguizu zeure Aitaren zarzarua, [illegible]ta ez eguizu contristau vizi dan egunetan; eta [illegible]otic jausten bada, parcatu eguiozu; eta zeu-

re bigore edo lozanotasunian ez eguiozu me-
nosprecioric eguin; zergaitic ez da guelditu co
azturic, Aitari deutsazun, erruquia: zein fa-
ma dongacua dan Aita desamparaitan dabe-
na! eta da Taungoicuagandic madaricatuba
bere Ama irritaitan daben Semia: au guztiau
esaten deuste Espiritu Santubac Semiai, Gura-
suai zor deusten amorio reverenzia eta asisten-
ciaren gañian: amau biar dituzu bada, nire
Illoba, zeure Gurasuac Taungoicoagaz eta zeu-
re Burubagaz ostian beste guztiac baño gueia-
go eta zeure Emaztia baño gueiago, artzeen
dózula beren honra edo desonra zeure onra edo
desonratzat.

Zeure Gurasuac gaiso quetan diria-
nian, nire Illoba, obligauric egongo zara zeure
Emaztiagaz batera, procuraitara eurai aldozun
alivioa eta asistencia; eta procurauco dozu, dem-
poraz disponidu daguien Munduco eta Anima-
co beren gauzac Juicio cabalian: baña puntu one-
tan descuidadubac izan biar ez badozu ere, ez
zara Jocatu biar torpeziagaz eta imprudencia
gaz, pensau eraguiten deustezula, eurac Mun-
du onetatic aimbat lasterren Juateco desec

zula, eta gura dozula, aien Hacienden Jabe edo Posedore leen baño leen eguitia; baizican esplicau biarco zaitzate aimbat prudencia, disimulo, eta amorioric andienagaz.

Jaungoicuac eruaten ditubanian zeure Gurasuac Mundu onetatic cumplidu biarco dituzu aimbat lasterren beren Animen sufragioraco testamentuz edo aoz manifestauric izten deutsuben disposicino guztiac eta beste manda guztiac; eta eguin biarco deustezu beren entierro eta Honrac, disponiduric izten dituben Clase artan bertan.

Baña illgo balira puntu onen gañian (au da) entierro eta Honren gañian ezer disponidu bagaric, edo zeure disposicinora izten ditubela, eguin biarco deustezu zeure Aita defuntubari eta lenagoco Antepasaubai eguin izan dirian entierrua, eta Honrac, irutzuc, batere casoric eguiten ez dozula, Honreen gañian gaur introducidubagaz doian, Moda falsuari biar bada ~~Abadioc~~ aurrenengo diriala, Honraric ez eguiteco, materian; aurrenengoac izan biar leuquianac Honrac kargo modura eguiteco egemplu emutiagan; bada Honraac Defuntubai ez eguitia obeto deritzuenac Jaquinian egon ditezque Eliza Ama Santaren Espiritubagaz conformi

ago dala Defuntubari bere iru Honrac egui-
tia, eguin bagaric izteco gaur ascoc artu dau-
ben Modia baño.

Onelaco Modistac onetaraco daucain
motivoa gueien bat da edo ia beren Codicia
Piedade gueiagoren pretesto guezurrezcuagaz;
edo ia beren Vruna guztiraco alcanzaitan
ez danian Zaitan zintzuac izatera emun oi
daubelaco, izanic eruac Vrunetan: onela dua
Munduban Piedade eguiazcua otzitubagaz;
bardin Honreetan ascoren quejacaz conforme
usario dongaric eta desordenaric introduzi-
duta badagoza, quendu bitez, Justo dan le-
guez, baña Bedar donguia Galartetic etaraten
dan modura, Garia batere galdu bagaric: zeu-
roc ere, nire Illoba, Senar eta Emazte ez eguio-
zube arren, Jarraitu Moda donga oni, zuben
Animetaco sufragioac disponitan dituzube-
nian. Acabaitara nua tratadu santu au Es-
critura Sagraduban iracurten dogun pasage
eder bategaz; eta da Tobias Santubarena: Guizon
Justo onec bada, uste izan ebenian bere eriotza
gañian zala, ots eguin eutsan bere aurrera bere
izeneco eucan Semiari, artian ezcontzaquia; eta

esan eutsan modu onetan: Jaungoicuac nire Animia errezivitan dabenian, enterrau eguizu nire Corputza; eta zeure vizico egun guztietan emungo deutsazu honra zeure Amari; zergaitic goguan euqui biar dozu, zer peligru etazeiñ andiac padecidu izan zituban zu mediante bere Sabelian; eta berac acabau daguianian bere vizitzaco egunac enterrau eguizu nire onduan: zeure vizico egun guztietan euqui eguizu goguan Jaungoicua; eta gorde zaite iñoizco demporan pecatuban saustetic; ez zaite aztu beñere Jaungoicoaren Mandamentubacaz: ~~aldozun modu-ban izan zaite erruquiorra preminan daguan~~ Progimuagaz; eta onei darraitien beste consesuric asco emun eutsan: eta Tobias Seme gazte onec entzunic bere Aita onaren consesu santubac erantzun eutsan modu onetan: Aita, cumpliduco ditut, aguindu deustazun, gauza guztiac: Ho! eta nolaco Aita alaco Semia! bioen premioraco bada Jaungoicuac bialdu eusten Aingueru San Raphael, emun eguion vista Aita ichubari, eta lagundu eguion Semiari zer eguin eucan viage baten, eta ez equiana, nundic eguan araco vidia: eta Aingueru glorioso onec emun eutsan Aitiari Beguietaco vista, lagundu eutsan Semiari bere viage guztian, eta escogidu eutsan viage onetan Emazte bat santa eta guztiz aberatsa: ifini deutsut, nire Ylloba, pre-

sente egemplu santu au, Jaraitu deguiozun zeure dempora guztian; eta encargau deiezun beste aimbeste zeure Ymiai, Jaungoicuac emuten badeutsu, nic deseo deutsudan leguez.

Matrimonioa.

Oraingueño emun deutsudan instruccino guztiac utsac dira, nire Yloba, bardin artu dozun Matrimonioco estadu santubon Jaungoicoari gusto emuten ez badeutsazu: axgaitic artu dot ere asmua, zuri zeure Amaziagaz batera zer bait esateco estadu santu onen gañian; ala Jaquin daguizuben obeto, zer saill artu dozuben, eta izan zaitezten Jaungoicoaren voluntatiagaz conformeco Familiaco Buru eta Gurasuac; eta axi daguizuben Zeruaco, Jaungoicuac emuten deutsuben, Criaturac: modu onetan salvatuco zarai ala zeruac nola zeuden Ymiac; izagoco da erenciaz Jaungoicoaren bildur santuba zuben Descendidubetara Munduboren azqueneraño, eta izango da zuben Echia Jaunia emen eta eternidadian.

Matrimonioco Sacramentuba (ondo daquizun leguez) da ezconquetaco eta emuteco Ezcon-

dubai gracia, onegaz vizi ditezen baquian, eta azi daguien Zeruraco Criaturac: Ezcondubac sarritan considerau biar daube puntu delicadu eta importante au, descuidadu ez ditezen, beren Vmiai eracusten Munduco pompa eta vanidadiac, it ziric alde batera Jaungoicoaren bildur santuba; eta eguiaz Zeruraco azico baditube beren Criaturac, eurac Senar eta Emazte aurrenengo jarraitu biar deutsai Zeruraco vidiari, beren Vmien Eracustzalla, Ychu aurreco, eta Ispillu onac leguez, eguiten daubela onetaraco vizitza amoriozco eta baquiaso bat ondo eta alegre alcar artzeen daubela; ez alperric diño Espiritu Santubac, Mundu onetan Jaungoicoari gusto [redacted] emuten deutsain iru gauzetatic bat dala Matrimonio ondo unidu bat (au da) Senar Emazte ondo alcar artu batzubec: onela portaitan ez dirian Ezcondubac ezin emungo deuste beren Vmiai, Zeruraco premina dituben, bezu onic.

Sacramentu santu au errezividu zeben, nire Ylloba, ezcondu ziñianian daucazun Emaztiagaz, obligaitan ziñiala, Matrimonioco estadubac dituban cargac jaotera gogo onagaz: bai; ez eguizu uste, billaquetia zeure estaduban con-

tentu guztiric: estadu guztiac daucai beren conveniencia eta contentubac, baita ere beren atsecaviac eta Curutzia; batari arpegui ona eguiten deutsan Christaunac, bestia ere errezivitaco, pronto egon biar dau, Jaungoicoac ala disponitan dabenian; mamiñagaz batera etorri oi da ezurra ere.

Matrimonioco sacramentubaibein eguiaz errecividu ezquero sortzen dau senar eta Emaztiaren artian lazo guztiz fuerte bat zeñagaz beren vici guztiaco uztarturic

Diabrubaren Lazuen artian bat guztiz comuna izan oi da, bacoitzari daucan Estadubaganaco iguintasuna sortzeia; eta beguitandu eraguitia, beste estadu baten neque guchiagogaz obeto Jaungoicua serviduco leuquiala: lazo au bada, nire Illoba, guztiz peligrosua da, eta beñere ez deutsazu lecuric emun biar Diabru guzurtiaren armazue oni.

Eguia da; Jaungoicuaren bildurrian vizi dirian Solteruen estaduba, eta orobat Abadien, Religiosoen, eta Mongeen estaduba perfeccino gueiagocoac dira Matrimonioco Estaduba baño, Trentoco Concilio generalian Eliza Ama Santac erabaguiric daucan conformidadian; eta ala onrau eta alabau biar dituzu, esan ditudan orrein, Estadubac, zuc daucazun, Matrimonioco Estaduba baño gueiago; baña amau eta estimau biar dozu, daucazun, Matrimonio-

co Estaduba, esan ditudan beste orrein, estadubac baño gueiago; zergaitic Estadu oneic, Emaztia vizi dozun vitartian, ez dira zuretzat, baizican Matrimonioco Estaduba.

Cuidadu andiagaz vizi zaite bada, nire Illoba, jausi ez zaitian Diabrubaren lazo onetan, ifinten ez dozula zeure mira beste estaduren baten, edo beste Emacumeren baten, zeure Emaztia vizi dozula; beste moduz izango lizateque, iñoren Soruan necatu gura izatia, zeure Soruac ~~abandonauric~~ alde batera itziric; ez arren onelacoric; zergaitic zeure Emaztia~~gaz~~ vizi dozun vitarte guztian beragaz zelebrauric daucazun Matrimonioa da zure Soro bacarra, nun ~~gogo onagaz eta bene benetan zaildu eta necatu biar zarian zeure Espirituco~~ zeure Espirituco pozian eta alegranzan, labrau~~co ba~~ biarco dozun zeure betico Salvacinoco Coroia: ~~alabau eguizu, bai, beste Estadubac zeuria baño gueiago; baña estimau eguizu zeuria bestiac baño gueiago~~; onembestegaz dago esanic, bastante dana, Diabrubaren Lazo onetatic bat libraitaco.

Matrimonioco Estaduba, santuba eta Jaungoicoaren gustocua da, eta Santu asco emun deutsa Zerubari; izan eben bere principioa Paraiso Ferrenalian, eta Jesu Christo gure Jaunac

jauso eben Sacramentu Santubaren dignidadera, zeñaren vitartez, Jaungoicoaren gracian ezconquetan dirianac, errecivitan ditube gracia, ausilio, edo indar egoguiac, jaoteco Matrimonioco cargac, eta asastian leen eucain Gracia santubaren aumentuba. Matrimonioac ezconquetan dirianai ofrecitan deusten mesede oneic lagnaitaco ezcondu baar daube Tobias eta Sararen antzera &c. bestela amoriozco ezcontzaia dolorezco vizitzaia &c.

Christaunic gueienac artzen daube Matrimonioco Estaduba, Jaungoicoaren agradu gueiagocoa bada ere ezcondu bagaric viziizatia ezconduta baño: ezcontzaca gueldiquetia edade batera eldu ezquero, ez da guztientzat; ezcontzaca gaizqui vizico bada, bere Aragui eta Anima argala darabillela pasino ichusien azpian, obe dau onelacuac ezcondu, abrasauric viziizatia baño, condenacinoco sentencia beti bere gañian dantzubala; bada Apostolu San Pabloc, onelacuen Salvacinuari beguiraturic, predicaitan deuscu: Guizon bacoitzac euqui begui bere Emaztia, eta Emacume bacoitzac bere Guizona, apartau ditezen vide onen medioz Lujuriazco pecatutic: obe da ezconquetia abrasaitia baño: Ho! eta zein contu estuba izango dauben Guraso ardura bagaren batzubec, contentuz vizi dirianac, diruric zer etara ez daucailaco, euben Seme eta Alabac beren demporetan acomodau bagaric gueldituba mediante laguntasunaren faltaz!

Matrimonioco Sacramentubac emuten deutsa gure Eliza Ama Santari bere aumentu-raco materialac edo gueiac, eta Eliza Ama Santac Bautismoco Sacramentubac ~~eguiaz emuten deutsa aumen-tu au~~ ren vitartez eguiaz eta ossoro materi-al eta guei oneic beriac (au da) bere Miembroac equite-ditu; bada Matrimonioco Estadubac emun oi dituban Seme Alabac, eguin oi dira Eliza Santa-ren Miembro viziac Bautismoco Sacramentu santubaren vitartez, zeña dan Ate edo Portada bacarra Eliza santan sartzeco, eta bere Miembro-tzat alistauric bere beste Sacramentu santubac errezivitaco capaz izateco; ~~eta~~ ala Bautismo santuban parcaturic pecatu originala eta batia-quetan danac dituban beste pecatu guztiac Jesu Christo gure Jaunac artzeen ditu onela batiatubac graziaz eta virtutez beteric bere Senidetzat eta bere Aita Jaungoicuaren Seme Adoptivotzat, guel-diquetan diriala onela eguinic bere Corputz Espi-ritualaren Miembro viziac, zeña dan bere Esposa eta gure Ama Eliza Santa.

Nola bada Bautismo santuba bagaric iñor salvau ezin litequian, Gurasuen obliga-cino gravia da, euben Vme Jaio barriac aimbat lasterren batiaquetara eruatia; baña Parroqui-an Eliza Santaren ordenamentubacaz conforme batiatu baño lenago, illteco peligruric Vmiac ba-dauca, edozein Personac naiz Guizonac naiz Ema-

cumiac batiatu daique, onela illteco peligro gravian daguan, Vme saio barria, botaten deutsala burutic bera Vr bedeincatuba, edo onen faltan beste edozein, Vr naturala izan ezquero naiz Iturricua naiz Errecacua, eta Vra botiagaz bat batera esaten deutsala batiaquetaco intencino eguiazcuagaz: nic batiaquetan zaitut Aitiaren eta Semiaren eta Espiritu Santubaren izenian Amen: beste moduz administraitan dan Bautismua nulua da; ~~bana~~ parrao apark Vmien Gurasuac.

beren Aurra batiaquetia escusau biar daube premina eguiazco lance onetan ere, daguñian bautismo santuba ondo eguin ~~ezin santu litezque Oficio onetan, daguala Bau-~~ daiquian beste Personaren bat; baña Aurra laster illteco peliguru oravian badago, Gurasuac eurac naiz Aitiac naiz Amac beste ~~tismo santu au ondo eguin aldaiquian, beste Per-~~ beguira egon bagaric batiatu biar dau bere Aurra batere escrupulu bague; ill ezdedin Aurra bautismo santu bague eta ~~sonaric~~. galdu ezdedin eternidade guztiraco: onela batiatu ricaco Aurrac guero ici bada eruan biar dan parroquiara, eliza santac ordenau Ezcondu bazara, nire Illoba, daucazun ricaq baita ere eriac emuten dabenian Obispo Jaunaurrian ibiltia pu- qui biar daube cuidadupa, erreu vidu, daquien confirmacinoco q

Emaztiagaz, Zerubari Santubac emuteco intencino eguiazcuagaz, lenengo eguin biar dozuna da, zeure Matrimonioco obligacinuacaz ondo cumplitia, eta onela Jaungoicoaren aurrian bere gracian eta adisquideta sunian caminaitia illteraño; bai; onela vizi bazarai Senar eta Emazte, izango zarai Santu bi Zeruraco, eta azico dituzube ere beste aimbeste Santu, zembat Criatura Jaungoicuac emuten deutsuben, bardin eurac guerora beren malicia guztizcuagaz galtzen ez badira; baña nequez onelaco Guraso cuidadosuen Vmiac galdu oi dira.

Bai, nire Ylloba, uste dot, ezcondu ziñia-
la fin santu au lorraitaco intencinuagaz; eta
ez onela nic uste izatia izango lizateque, zuri
insuxia andi bat eguitia: Matrimonioco obliga-
cinuacaz bada ondo cumplitaco, ezagutu eta ja-
quin biar dozun puntuxic principalenetatic bat
da, ezcondu ziñianian (San Pablo Apostolubac
diñuanez) emun zeutsala zeure Emaztiari zeu-
re Corputzaren propiedade edo dominioa, egui-
ten zebela zeure Corputzaren Jabe, gura eben
guztian beragaz valiau Matrimonioco Leguia-
gaz conforme, euqui eguian bere disposicinoza;
eta oxobat zeure Emaztiac eguin zindubala be-
re Corputzaren Jabe, gura dozun guztian va-
liau beragaz Matrimonioco Leguiagaz confor-
me, euqui zeguian zeure disposicinoza, guel-
diquetan ziñiailla bioc Aragui baten, Aragui
bat, eta Corputz bat eguinic: emendic sortzen
da Ezconduben artian Matrimonioco Zorra esaten
dana: Zor onen gañian, zeña dan obligacino gravea-
cua, Esposuac ez dauca derecho eta autoridade
gueiago Emaztiaren contra, Emaztiac bere Guizo-
naren contra daucan baño; biac puntu onetan
igualac dira, gainerunt zaco Familiaren gobi-
ernuban Esposua gueldiquetan dala Emazt-
iaren Buru eta Aguintari, eta Emaztia bere
Esposoaren obediencian.

Ezconduben arteco Zor au pecatu mor- 135
talaren azpian obligaitan dabena da; eta
ala Apostolu San Pabloc intimaitan deuste
Ezcondu guztiai obligacino pisu eta estu onen
cumplimentuba eta paguba: Esposuac (diño)
pagau beguio Emaztiari zorra, eta orobat
Emaztiac bere Guizonari: bietatic bada edoze-
ñec escatu deguiola beste Lagunari zor onen sa-
tisfaccinua seriedadiagaz eta obligaitaco in-
tencinuagaz, obligaitan dau bestia pecatu mor-
talaren azpian, pagaitara, bardin motivo Jus-
toren bat ez badauca, escusaitaco; bada zor
au ucaquetaco motivo Justuac badira, eta
gueien bat Emaztiaren aldeticuac; zeintzuc
dirian oneic, esango deutsu conveni dirian cir-
cunstancietan zeure Confesore aditubac, noren
cuidadura izten dot orain puntu au, bacarric
emen advertitan dodana da, Eliza Ama Santac
Ezcondubai emuten deusten encarguba, Matri-
monioagaz ez baliaitaco Eguzariric principale-
netan, Confesino eta Comunioco egunetan, Gari-
zuman, Cuarta Temporetan, eta Vrtiac dituban
gañeruntzaco Baru egunetan; zergaitic Egun one-
ic destinaubac dirian, Jaungoicuari Oracino egui-
teco, eta pecatubatic penitencia eguiteco; baña

encargu au ez da pecatu mortalaren azpian obligaitan dabena, eta ez da ere aiquetan encargu au, Ezcondu bien consentimentuz ez danian Matrimonioagaz baliatzaca gueldiquetia, señalau ditudan, dempora santu oneitan, zeñetan ere zor escatubac obligaitan dau bestia bere satisfaccinora, eta ala pagau biar da; bada zor escatuba pagaitan dabenen aldetic ez dago batere pecaturic; eta, badago pecaturic, guztia dago dempora escusau oneitan zorra escaquetan dabenen aldetic. Matrimonioac dirauban vitartian Ezcondubac bestegaz divertitia Araguizco gustuetan pensamentu utsez ere, auguertaquetan danian advertencia eta vorondatiaren aldetico consentimentu guztizcoagaz da pecatu mortal icaragarria Castidadiaren eta Justiciaren contra doiana, eta Adulterioco pecatuba deritzona, eta zeñagatic esplicaitan dan Job santuba modu onetan: au da maldade eta pecatu guztiz andia; da suba, tragaitan dabenagaldu biar eraño, eta sustraitic etaraten ditubana Generacino guztiac: Christaun guztiac biotz osoagaz sinistu eta autorquetan daube egui santu au, Fede santuco puntuba dan leguez; bacarric bada da licito, Guizona baliatia bere Emaztiagaz, eta Emaztia bere Guizonagaz Matrimonioco Leguiagaz conforme.

Ezcondubac Matrimonioagaz baliai-
tia, Jaungoicoagandic Sucesimua lograu oi dan,
moduban, ez bacarric da licitua, baita ere me-
recimentu andicua Jaungoicoaren aurrian, bar-
din baliaitan badira, Matrimonioac escaquetan
daben, fin santuren bateqaz eta Jaungoicoaren
gracian dagozela.

Matrimonioagaz baliau biar da bacar-
ric, Sucesimua lograu oi dan moduban, eta ez bes-
te modutan; zergaitic modu onetatic edozein campora
ere atsequintasun Ezconduben artian da gue-
ien bat pecatu edo mortala edo veniala, no lacua beti ezagatic
dan materia, zeñian uts eguiten dan: Ezcondu-
bac bexen artian eguin oi dituben pecatu oneica-
tic Jaungoicoac castigau izan ditu eriotza de-
sastraubacaz, Escritura Sagradoban iracur-
ten dixian pasapiacaz conforme; ez zaute bada,
nire Yloba, egon, Ezcondu asco dagozen errorian,
(au da) Ezconduben artian guztia dala lizito,
eta ez daguala euben artian, pecatu dan Ana-
guizco atsequintasunic: bastante dozu puntu-
da au zeure gobiernuaco, eta consultaitaco zeu-
re Confesore aditubagaz dudaco zeure caso
guztiac, zeñetan ez zara beñere descuidau biar
dudatic urten baño lenago.

Matrimonioagaz baliatuco danac, Jaungoicoaren aurrian merezitaco moduban, enqui biar dau artan fin edo intencino santu bat estadu graziazcoagaz gañera, nola dan edo zor escatuba pagaitia; edo Sucesinua lograitia Eliza Santaren aumentuaco, edo Lujuriazco pecatutic apartaitia Matrimonioaren baliaquizun onen mediz: izu fin oneitatic edozeñec santificaitan ditu Ezcondubac, estadu graziazcuan baliaitan dizianian bezen Matrimonioagaz; baña merecimentu onetaraco gozde biar ditube toqui, dempora, eta modu, Matrimonioagaz baliaitaco, egoquiac dizianac.

Ezcondubac batzubetan baliatu oi dira Matrimonioagaz, artan daucain, atsequintasun utsagatic bacarric; eta onetan Ezcondubac pecaturic equiten ete dauben? bai; Matrimonioagaz baliaitan dizian guztiac, Sucesinua lograu oi dan moduban, baña artan sentitan dauben atsequintasunagatic bacarric, equiten daube pecatu; equia da; pecatu au Christoun Escritore guztien iritzian ez da gravia edo mortala, baizican chiquina edo veniala.

Esan dot leen, Ezcondubac, Matrimonioaren Zorra eta emendic sortzen dan Matrimonioagazco baliaquizuna apartau ezquero, ez dira-

la beren artian autoridade eta escuvide igua-
lecuac, baizican Esposua dala Buru eta Aguin-
taria Familiaren gobiernuban, eta Emaztiac
egon biar dabela bere Esposoaren obediencian:
egui au Christandadian importancia andicua
da, eta Familien gobiernu oneraco Zimentu fir-
me baten moduracua; argaitic, nire Ylloba, po-
sible dodan claridade guztiagaz esplicau gura
deutsut egui importante au Jaquin daguizun, nola
Jaungoicoaren vorondate santubagaz conforme
gobernau zeure Emaztia, eta onegaz batera eta
onen laguntasunian zeure Familia; bada nic
oraiñ consideraitan dot zure Emaztia zure
bendian, Arguizai biguna, bere Jabe dan, Oficia-
liaren escubetan daguan modura, zeñac emun
oi deutsan berari onduen valio deutsan figura
moduba; orobat zuc ere eguin biarco dozu zeu-
re Emaztiagaz, eracusten deutsazula zeure
Familiaren gobiernu oneraco, egoguiac dirian,
modubac, eta aztu eraguiten deutsazula, Fami-
liaren provechuracuac ez dirianac; zergaitic
zeure Emaztiaren aciertu guztiac izango dira
zure oneracuac, baita ere bere uts eguite guztiac
zeure dañuracuac; esan oi da, Anriac eguin edo
galdu oi dabela Echia: ez da Emacume on bat

diruz pagaitan ez da Emacume donga bat ere diruz erremediatan.

Emaztia, bere Esposoaren obediencian egon biar dabena, da, iguiñ badau ere: gure lenengo Ama, Evac eguin eben Paraisuan desobedienciaco pecatu mortala, eta ondoren jausi eraguin eutsan bere Esposo eta gure lenengo Aita Adaneri, artzeen eubela pecatubac eta pecatubaren ondorengo gaitz guztiac beren asipena Emacume bacar onegan, Espiritu Santubac aiquetara emuten deuscunagaz conforme: Jaungoicoac bada Evari bere pecatubaren castiguraco ezarri eutsan maldicino santuba, esaten eutsala: dolorian eguingo dituzu Aur jaiotziac; eta egongo zara Esposoaren bendian; eta berac euquico dau escu vidia zeure gañian.

Onela guelditu zan Emacumia bere culpaz sugecino eta obedienciaco estaduban, Santo Thomas Elizaco Doctore jaquintsubac diñuanez; sugecinoco estadu au ezagutu eta gorde izan daube Emacume on eta santa guztiac; Sara Emacume santa zan, eta bere Esposo Abran Patriarca izentau biar ebenian, bere Jaunaren titulubagaz izentaitan eben; Maria Santisima, pecatu original baguecua eta Zeruco eta Munduco Criatura guztien artian onena izanagatic, bere Esposo San Joseperen obediencian vizi izan zan, eta Jaungoicoac, bere Seme Jesus Divinoa Erodes Erregue eta onen Seme Arquelaoren coleratic libraitaco, premina zirian, or-

denac emun eutsan Ainguerubaren vitartez ez Ama Virginari, eta bai zuzen zuzenian bere Esposo eta Familiaco Buru San Josepheri.

Jaungoicoaren disposicino santu onegaz conforme San Pablo Apostolubac diadar eguiten deuste Emacume ezcondu guztiai, vizi ditezela beren Esposoen obediencian, eta Esposoa dala Emaztiaren Buruba; orobat diño San Pedro Apostolubac; eta doctrina santu au berau da, gure Eliza Ama Santac biotz biotzetic gorde eta eracusten dabena, esaten deustenian bere Ministroaren vitartez Emacumiai, ezconquetaco demporan, beren parezera ucaturic Emaztiac Jarraitu biar deutsala bere Esposoaren dictamenari, eta ez dabela urten biar Echetic necesidade bagaric eta bere Guizonaren autormen bagaric: Jarraitu eguiozu bada, nire Ylloba, doctrina santu oni, eta imitau eguizu ez asco Guizon buru bagacuen antzera zeure lenengo Aita Adan, caso eguiten deustezula zeure Emaztiaren gurari pestilencial eta dañosoai, eta bai Abran Patriarca santuba eta San Joseph gloriosua, zeñac euquiagatic ere, zuc daucazun baño, Emazte obiaguac, conservau izan euben beren gañeco autoridade eta escu vidia.

Espiritu Santubac diño: bardin Emaztiac badauca Echeco aguinte principala, contrarioa da bere Guizonari; eta ala contuban ifinten dau Guizon ezconduba, esaten deutsala modu onetan:

ez eguiozu emun Çmaztiari zeure gañeco potestaderic, santu ez deguizun zeure escu videtan, eta lotsatu ez zaitian: eta orobat batec bere gañeco escu videric emun bia ez dewsten Personen artian izentaitan dau ere Çmaztia Çspiritu Santubac beste aviso santu baten Guizon ezcondubarentzat: zeure vizitzan (diño) ez eguiozu emun zeure gañian escu videric Semiari eta Çmaztiari Anaiari eta Adisquidiari: ez eguizu bada menospreciau, nire Illoba, Çspiritu Santubaren aviso importante oneic, eta conservau eguizu zeure escuvidiac, zeure Çmaztiari laxeguian santzen itzi bagaric, eta ez zara damutuco.

Doctrina santu onen vistan aguizian dago, Guizonac bere aldetic exabilli biar dabela bere Çche eta Familiaren gobiernu principala, izteen deutsala Çmaztiari Çche barruco menuzia guztiaren cuidaduba, gobiernu onac eta bezac onetaraco emunicaco disposicino exaczuazcuac escaquetan dauben modubar, bardin gura ez badau bere Çchiac eta Familiac lur jo daquien.

Çguiaz Çche baten ezin sortu litequе gauza peligrosoaric, sugecino bagaric bere antojura vizi dan, Çmacume ezcondu bat baño; premina dau bada, bere gañian euquitia Guizon juicioso

baten gobiernuba, Espiritu Santubac, Alabac di-
tuben, Gurasuai emuten deusten avisuagaz con-
forme: emun eguizu (diño) ezcontzaz Alaba, baña
Guizon Juiciosuari: eta ala, zeure Emaztia ona ba-
da ere, esperienciac eracutsico deutsu, zeiñ daño-
sua izango dozun zeure inguruban ala Mundu-
co nola Animaco interesetan, bardin ez badau
zuganaco sugecinoric eta zeure gobiernu etains-
truccino onic: alerta vizi zaite bada, nire Illoba,
bere antoju, genio, pauso, eta inclinacinuen gañian,
beraganaco desconfianzaric manifestau bagaric
ezertan, eta premina dañian zuaco escura amorio
prudente bategaz, atajaitan dituzula urrinetic,
alde onetatic etorri aldequizun, caltiac eta ne-
gar eguinagaz erremediauco ez zituquianac: one-
taraco erabilli eguizu zeure escutic zeure Eche-
co artu emun eta saldu erosi principalac, eta gor-
de eguizu dirubac zeure quiltza peian erremedi-
aitan dituzula zeure Emaztiaren eta Familiaren
premina eguiazcuac amorioagaz eta pruden-
ciagaz.

Emacumiac daucai Guizacumien embi-
dia bagueco uso errazuazcua; Guizacumiac ba-
ño devotaago dira, eta beste partida edo prenda
onic asco ditube; ala ere beren condicino, comple-
xino edo Naturaleza gueien bat argalagua da

Guizacumiena baño; argaitic Jaungoicuac ain-
beste erruqui ditu Emacume alargunac, eta bere
Escritura Sagraduban aiñ puntuoro eta gogor-
quiro encargaitan deuste Munduco Juez eta Po-
deroso guztiai, artu daguiela beren amparura
Emacume Alargunac eta beren Yme Zurtzac:
baita ere aren Divina Magestadiac (San Pablo
Apostolubac diñuanez) escogitan ditu Mundu
onetaco Argalac, ifinten dabela oneitan bere gra-
cia santubaren Poderioa, eta bere Poderio santuba-
ren Fronua, onela lotsaturic izteiarren, beren Bu-
rubac fuertetzat daucain, Munduco Pamparro-
iac. Defecto eta vicio mueta guztiac daucai beren
~~entrada~~ sarrera ala Guizacumeen biotzetan nola Emacu-
meenetan; eta izan ezquero vorondatezcuac, guz-
tiac dira, Jaungoicuaren laguntasunagaz bate-
ra atajau leizquianac, eta atajaitara obligauric
dagozenac ala Guizacumiac nola Emacumiac: ala
ere Diabrubac sortu izan ditu defecto eta vicio
mueta batzubec gueiago Emacumeen biotzetan
Guizacumeneetan baño.

Emacumiac gueien bat ecusi oi dira refle-
xino guichicuac, ignorantiac, eta beren ignoranci-
atic urteteco iguñecuac: beren gobernaitaco modu-
tic etara ezin leiquianac gobiernu obiaguaren vis-
tan ere: constancia guichicuac gauza onian: equi-
ten iaten onaren ezagupera guichicuac, eta equin

iaten edo eguin iatela uste dauben injuriagaz
aztu ezinic vizi dirianac: precio edo estimacino
gueiaguan daucainac Devocinua Obligacinua
baño, izanic leenago Obligacinua Devocinua baño:
antojuz errazoiagaz baño gueiago gobernaitan
dirianac: conversacinuan urtzeen dirianac; eta
argatic secreto eta prudencia guichicuac: laster
ichasten dirianac, verba bigun eta labanac egui-
ten deustenai, oneitatic berentzat sortzen dan pe-
ligruba advertidu bagaric, batez ere Guizacume-
en aldetic dirianian onerian verba bigunac; ba-
da Guizacumeen eta Emacumeen arteco conver-
sacinuac (San Agustin Elizaco Doctore Jaquin-
tsubac contuban ifinten gaituban leguez) izan
biar dau laburrac eta graviac: dira, Embidiac
asco perseguitan ditubanac; eta argaitic Echee-
tan Anraac baqueric ezin euqui oi daube, batac
bestiari ezin sufruduric Quiltza arlote eta tram-
poso batzuben manejuba: Anreen gauzetan Guizo-
nai aiquetan ez iaten pretestuagaz libertade lar-
regui artu oi daubenac, nai daubena eguiteco:
sufrimentu guichicuac: colerara eta considera-
cino bagaco errespuesta prontuac emuteraco in-
clinadac: alacorrac eta Vle guizi baten gañian
quimeria jausoco daubenac: itzal eta errespeto
guichicuac, Familian ordena ona ifinteco: beren
Vmeetaraco amorio modu bagacuac beriala ichu-

quetan ditubanac, quentzeen deustela adore
guztia, Crianza ona emuteco, eta eguiten ditubа-
la beren vizioen Estalquilla: guztiz apaindu
guracuac: Andinaitasunac eta Belarrietaco eta
Beguietaco curiosidadiac edo deseo desordena-
dubac asco picaitan ditubanac; eta argatic visi-
ta eta Fiesta zaliac) gaitz bagaric Oian Gaisuen
papera ederquiro eguiten daquienac, Beguieta-
tic negar malcuac daziela, eta beste dolloroquezia
asco eguiten daquienac, beren gogoco empeñubac
logaitiarren: Basotic danian ura edatia, eda-
ten ez daquienac Azucar errosau bagaric, egar-
xi izan agatic: Flaqueziac sarritan artzeen ditu-
banac, baña Barbero eta Medicubaren premina
bagacuac, eta bacarric Chocolatiac, Azucar erro-
saubac, Licore, Ardao gozocho, eta bocadu on-
chuac curau biar deustenac: ezertan ez daucai-
nac cumpliduric solemnienac, dirianian Azucar
errosau, Chocolate, Bizcocho, eta Dulce bagacuac:
Chocolatiagaz ostian beste Desaiuno mueta guz-
tiac gaitz eguiten deustenac, beste gauzagaz des-
aiunaitasa novedade bagaric oituta egon agatic;
eta estomangu noblia euquiagatic: Jente artian pre-
sentaitaco, indezentiac deriztenac beren Burubai
bederatzi edo amar Gona barri gordeta euqui aga-
tic: premina asco dacustenac beren Familietan ingu-
rubetaco Feria demporа guztietan: barrubac pillo-
sic euquitiac aimbeste afligitan ez ditubanac, no-

la azal eta iduripen grandia conservaitaco cui-
dadubac: dira Echetaco Saguben antzecuac, on-
do daquienac, noiz eguin beren Contrabanduac,
eta nun dagozen beren gorde eta ezcutau lecubac,
batac bestiari esacusen geutrainac
zer modun vueltac artu beren Eche-
Echeco Coipe guztia ondatu agatic: ecusi oi dira
co Guizonai, bestela ezin Echiac ondo gobernau litezquiala.
azquenic Emacumiac Labe gori baten antzeco
escubacaz, urtzeen daquienac Diru mueta guz-
tiac, ur emunagaz beste bagaric; edo benetan
emungo daube modu bagaco Avarienta eta neur-
ri bagaco Codiciosa zital batzubec izatera: eta,
negar garrico gauza dana, Emacumiac puntu
oneitan guztietan eguin oi daube escrupulu guichi
edo bat ere ez; argatic conveni da, Emacumia
egotia amorio, erruqui, eta Prudencia andico
Guizon baten obediencian, eta ez bere vorondate-
co izatia, batez ere bere vorondatetic eseguiric
badago Familia baten ona edo gaitza.

Taungoicuac amenazau eben Jerusalengo
bere Puebloa, castigauco ebela bere pecatubacatic,
eta castigu ascuen artian bat zan, emutia beren
Principetzat Muticuac, eta Aguintaritzat (cos-
tumbre edo oitueretan) Emacumeen antzecuac di-
rian Guizacumiac: cuidadu bada, nire Ylloba; ez
zaite zu onelacua izan zeure Familian, baizican
juiciosoa, eta ondo gobernauco dozun moducua
zeure Emazte ona; zergaitic, ona dana, zeure go-
biernu prudentiagaz obiagoa eguiten badozu, ondo
izango zara, eta Emaztiaren vitartez eguingo dozu
Echia; baita ere galduco dozu Echia, eta izango zara

guztiz gaizqui, maña charrac artzeen izteen badeutsazu.

Ascoc, batez ere Emacumiac, daquie erraz burura igoten, Atz chiquiña emunagaz beste bagaric; egui au aren Divina Magestadiac aiquetara emuten deuscu Alabaac daucan Gurasuari emuten deutsan avisuan: ¿Alabaac dituzu? (diño) gorde eguizu beren Castidadia, eta ez eguiezu eracutsi eurai zeure Arpeguia alegre: ¿zer aiquetara emun gura ete dau, nire Illoba, Espiritu Santubac Gurasuari bere Alabacanaco encargaitan deutsan seriedade onetan? nerequico aguirian dago errespuestia: cuidadu bada, igo ez deguizun zeure Emaztiac burura, eta guertatu ez dequizun Eche gaizqui gobernau bategatic esan oi dana Españacolenguagian: en casa de Mari Miguel el es ella, y ella es el.

Badira Guizacumeen artian buru baguecuac, baita contrara ere Emacumeen artian Juiciosac eta prudentiac, eta izan dira Santa guztiz andiac, eta asco, eta admiracino andicuac; ala ere esperienciac eracutsi izan dau, Haciendac medra guchi eguin oi daubela Emacume Juiciosa onelacuen escubetan; bada gueien bat onelacuac ere galdu oi dira, nundic nora ez daquiela; au ecusten dogu Mongeen Conventubetan.

Religiosoen eta Mongeen obligacino gra-

via da, ez errezivitia numero gueiago, Conven-
tuco errentac edo limosnac mantenidu leiquia-
nac baño, eta oneic diran, Jaungoicoaren gauzac
saldu erosian ibilli ez ditezen; Eliza Ama San-
tac au berau aguindu izan dau sarritan pena
gravien azpian; ala ere ecusiric, Conventubac eta
Conventubetaco Haciendac Mongeen escubetan
demporaren demporaz galdubagaz juan oi di-
rialá, emun izan deuste lizencia, equiteco, aiñ
gorroto daben, gauza (cruda) tiraquetaco Dotiac,
sartzeen dirian, Emacumiacandic ez Jaungoi-
coaren graciaren preciotzat, eta bai bacarric oñi-
an conservau ditezen beren Conventubac eta Ha-
ciendac.

Oraiñ considerau equizu, nire Illoba;
bardin Munduco vanidadiac menospreciaric,
Abitu penitente bategaz jantziric, perfeccinoco
videtic dabiltzen arretazco Emacume juiciosa
escubetan
eta santeen, Conventubac eta Conventubetaco Ha-
ciendac galtzeen badira; zer guertatuco da bere
gogoaren antoju eta libertadera Mundubaren er-
dian Gobernadore on baten frenu bague vizi dan
Emacume baten escubetan?

Gobernau equizu bada, nire Illoba, zeure
Emaztia Jaungoicoaren voluntate santubagaz
conformeco,
co, amorio prudente bategaz, ucaquetan ez deu-
tsazula instruccino convenientiac, baita ere, pre-

mina badau, cariñozco reprensinuac baña ba-
carrian, zeuben defectuac publicau ez dequi-
zuben Familian, eta beraganaco desconfianza-
ric aiquetara emuten ez deutsazula eta bere
humore oneco circunstancia egoguietan, goga-
it eraguin bagaric zeure erautsi larreguiagaz;
eta alde onetatic etorri aldequiquion Zauriac
(Espiritu Santubac diñuanez) obiaguac dira
zeure Emaztiarentzat, amorio ichu bategaz
emun aldaiquiozun Laztan guzurtiac baño.

Ez deutsut apuntau, nire Illoba, Ema-
cumien arteco falta oneic, gure Lagun Progimu-
ac, eta gu leguez Jaungoicoaren Semejanzac di-
rian, Emacumiac afrentaitiarren; bada onein
afrentia izango lizateque gueria; zergaitic ez da
sortzeen Munduban Guizacumeric Emacume
bagaric, ez da ere Emacumeric Guizacume baga-
ric, eta ala eurac nola gu Jaungoicuagandic
sortubac gara bere Gloriaraco; ez deutsut ere
apuntau, Emacumien artian bacarric billaque-
tan dirialaco falta oneic, eta ez Guizacumien ar-
tian; apuntau deutsut, bai, zu contuban ifintiar-
ren, nundic zure Emaztiac eta zeure bendeco Ema-
cumiac, flaqueau enian, flaqueau leiquien; zergai-
tic dirian Emacumeen biotzetan entrada gueiago
billaquetan dituben faltac Guizacumeen biotze-
tan baño; eta ala, beren demporetan erremedioa

ifiniric, empeñau zaitian cuidadu onagaz eta-
raten zeure bendeco Emacumiac, Emaztiagan-
dic asita, ez ederrac eta galantac, bai, Jaungoi-
coaren bildur santucuac, zeñac bacarric mere-
citan daubeneguiazco alabanza, Espiritu San-
tubac aseguraitan deuscun conformidadian:
utsa da (diño) Emacumiaren galantasuna edo
edertasuna; bacarric izango da alabadia Jaun-
goicuaren bildurra daben Emacumia: Ho! eta
zein zorionecua izango zarian, bardin zeure
Emaztiac eta zeure bendeco gañeruntzaco Ema-
cumiac urteten badeutsube zeure cuidadu ona
mediante, eguiaz alabadac mereci dauben mo-
ducuac! guacen orain Ezconduben obligacinueta-
ra. Adan gure lenengo Gurasuac, ecusi ebenian
Paraisuan formauric bere Saiatz ezurretic bere
Emazte Eva, Jaungoicoaren inspiracinoz intimau
eben Matrimonioaren unio edo lazua, Jaquinia
egon zitezen bere ondorengo Ezcondu guztiac Ma-
trimonioaren fuerza edo efectoa; eta esan eben mo-
du onetan bere Emazte Evagatic: au orain da neu-
re ezurretatic formaurico ezurra, eta Araguia ni-
re Araguitic; argatic itzico ditu Guizonac bere
Aita eta Ama, eta arrimauco da bere Emaztiari,
eta izango dira bi Aragui baten.

Legue santu onegaz conforme Ezcondubac

gueldiquetan dira eguinic Corputz bat eta Ara-
gui bat batez ere Jesus Divinuac faso ezquero Matri-
monioa Sacramentu santubaren Dignidade al-
tura; emendic datoz Ezcondubac alcar ondo ama-
itaco obligacino estuba; San Pablo Apostolubac
contuban ifinten ditu obligacino onen gañian
Emacume Ezcondubac, encargaitan deustela
amau daguiela bexen Senarrac; eta orobat contu-
ban ifinten ditu Guizon ezcondubac, esaten deus-
tela modu onetan: Senarrac, amau eguizube zeu-
ben Emaztiac, Christoc amau eben leguez (bere
Esposa) Eliza, eta entregau eben leguez bere Bu-
ruba, santificaitiarren Eliza; orobat ere Senar-
rac amau biar ditube beren Emaztiac bexen Cor-
putzac leguez; bere Emaztia amaitan daben, Gui-
zonac bere Buruba amaitan dau; zergaitic iñoc
ez deutsa iñoiz izan gorrotoric bere Aragniari, baizi-
can alimentaitan eta alibiaitan dau, Christoc ali-
mentaitan eta alibiaitan daben leguez bere Espo-
sa Eliza; zergaitic gaxian bere Corputzeco Mien-
bruac, bere Aragnitic eta bere Ezurretatic sortu-
bac; onegatic Guizonac itzico ditu bere Aita eta
bere Ama, eta arrimauco da bere Emaztiari, eta
izango dira bi Aragui baten: Matrimonioco Sa-
cramentu au andia da; baña nic diñot, Christo-
gan eta (bere Esposa) Eliziagan; eta zubetatic
bacoitzac amau begui bere Emaztia bere Buru-
ba leguez; baña Emaztia bere Guizonaren bildur
izan bedi.

San Pablo Apostolubac bada pisu eta misterioz betericaco verba santu oneitan betetan dau alabanzaz Matrimonio santuba, ifinten deuscula betez betezian, Jesus Divinuac Guizatasuneco naturalecia mediante bere Esposa eta gure Ama Eliza Santagaz daucan, unioaren Semejantzatzat; eta consideracino onegaz obligau gura ditu Guizon ezcondubac, euquitera beren Emaztiacanaco amorioa, Jesus Divinoac bere Esposa Eliza Santari deutsan amorioaren antzera; eta orobat obligau gura ditu Emacume ezcundu guztiac, euquitera beren Esposoacanaco amorio, obediencia, eta bildur santuba, gure Ama Eliza Santac bere Esposo Jesus Divinoari deutsan amorio, obediencia, eta bildur santubaren antzera: Ho! Zerutic jachiricaco leccino miragarria eta importantia, Ezcondubai nola Senarrari ala Emaztiari bacoitzari bere puestuan, nola vizi biar dauben, ederquiro eracusten deustena!

Amau biar dozu, nire Ylloba, zeure Emaztia, baña Jesu Christoc bere Esposa eta gure Ama Eliza Santari euqui, eta deutsan amorioaren antzera (au da) cuidadu ona ifinten dozula zeure Emaztiaren santidade eta perfeccinuaren gañian, permititan ez deutsazula jaquinian Jaungoicoaren ofensaco gauzaric, chiquinac izanagatic ere; etaraten ez dozula Munduco pompa

eta vanidadien Jarralla, eta erabilten ez dozu-
la Fiestaric Fiesta, Funcinoric Funcino ala Errian
nola Erritic campora; zer esango zeuque, nire Yllo-
ba, Diru bolsa on bat escuban dindillisca eta
ots andia etaraten dabela daroian, Caminante
bategatic? bada sinistu eguidazu, Mundu one-
tan Bolsa Lapur baño Aragui Lapur gueiago
diriala, eta Lapur disimulaubaguac, beti beren
lapurretac sustuaren ordez atseguintasunian
eta batere Festigu bagaric eguiten ditubenac,
Jabe bagueco Araguiaren baño Jabia daucan
(au da) Esposua daucan Araguiaren zaliago
dirianac gueien bat, onraubaguac, poderosua-
guac, iñorc Munduban gueien bat castigaitan
ez ditubanac, eta biarbada zuc gueien estimau-
co dituzunac.

Amau biar dozu, bai, zeure Emaztia,
baña eragozten ez deutsazula, ecartia zeure
Guraso zarrai aldaben amorio, errespeto, eta
obediencia, gauza guztietan emuten deutsazu-
la aurrenengo egempluba.

Amau biar dozu, bai, zeure Emaztia, ba-
ña zeure Gurasuac gueiago, zeure Matrimonio-
aren calte eta dañuban ez dirian, gauza guzti-
etan; eta bacarric amau biarco dozu zeure Emaz-
tia Gurasuac baño gueiago, oneicanaco amori-
oac ecarrico baleutsa zeuben Matrimonioco Jun-

ta edo unioari calteren bat; nola lizatequian, zeure Gurasuac etorrico balira, ezin iragotera zeure Anriagaz, edo au zeure Gurasuacaz, leenago itzi biarco zeusquie zeure Gurasuai zeure Emaztiari baño, eta oni Jarraitu eta arrimau biarco ~~zeuque~~ ziñateque, itziric (Escritura Sagradubac diñuan leguez) alde batera zeure Aita eta Ama, conservaitan deustezula beti beste gauza guztietan, zor deustezun, amorioa eta errespetua: bai, nire Ylloba; modu onetan eta ez bestetan aitu biar dozu, ezcondu ziñianian, eracutsi edo emun neutsun, instruccinua Eliza Santaren partez, esaten neutsula, Ezcondubac, Taungoicua apartau ezquero, ez daucaila, nor aimbeste amau biar dauben, nola beren vizitzaco Laguna; eta, beste gauzaric comprendidu bazeben, engañau ziñian.

Eche edo Familia bacoitzian dagoza arturic Jocaera edo gobiernu modu particular batzubec; eta orain zeure Emaztiac artu biar ditu zeure Echeco oituerac, itziric alde batera, bere Echian arturic beucan, onein contraco oituerai; zergaitic nora doian bat vizitzaz, Caridadiac eta Prudenciac eracusten daube, ango oituerac artu biar ditubala, bardin gura badau, ondo aurquitu, vizi dan, Jente artian: contrara barriz nor nai Emacume acomodau dedilla ezcont-

zaz zeure Coñatubagaz, artu biarco ditu, doian, Echeco oitu erac; au aiquetan da, pecatu edo pecaturaco ocasino ez dirian, gauzetan; ez da leccino au niria, baizican San Ambrosio eta San Agustin Elizaco Doctore Jaquintsubac eracutsiric itzi euscubena; eta, nor naic onela eguingo ez baleu, izango lizateque, edo ia aprobaitan ez dabelaco, doian, Echeco ~~Jocaera~~ gobierru edo inguiraqueta moduba, edo, ia, aprobaitan badau, eguin gura ez dabelaco ala; lenengua da Soverviaco vizioa, eta bigarrena guichienez da Naguitasuneco vizioa: eta bardin batec badaqui lan gueiren batzubec eguiten obeto, doian, Echecuac baño, ez dau berialatic eguin biar Eracustzalliaren papela, baizican Humildadiagaz acomodau biar da bestien modura, bestiac aprobau artian vorondatez, lan gueiac eguiteco, berac daucan, modu obiagua.

Ez dozu bada ecarri zeure Emaztia, zeure Amaren Señora izateco; bai, bere obedienzian vizi izateco; eta ala ez deutsazu zuc, señalau biar Echian eta Echetic campora, eguin biar dituban, lan gueiac, esaten deutsazula: zure puestuari tocaitan dirian lan gueiac dira oneic eta bestiac, eta ez onelaco eta alaco lan moduric: bada au ez da eguin zure bururaco; zuc baño obeto daqui zure Amac puntu au: Echeco Anra ba-

ten lan guei onragarria batez ere Echaldian da fin Jocaquetia, eta, bere edo bere Sabelecofrutubaren dañu bagaric eguin aldaiquian, guztia eguitia alegre eta pozic: beinic bein Erri oneta-co Echaldetan ez da uso, Echeco Anrac egotia, Echiac dituban, lau Ormen artian enzerrauric [illegible] Mongeen Conventubetaco Criadeen modura, baizican, noiz eta nun conveni dan, eta eguin aldaiquien, Echien oneraco dirian, lan guei mueta guztiac eguitia, eta eraguitia; bai; uste dot zeure Emaztia etorri zala zeure aldamenera, modu orretan fin portaitaco deseo eguiazco bategaz, eta beste moduz pensaitiagaz, deritzot, injuria andi bat eguingo neusquiola; eta orobat uste dot, nire Ylloba, zuc ere puntu importante onen gañian aprobauco dozula nire pensaitaco modu au.

Eguia da, ecusi oi dira Echeco Anra ero, eta vana batzubec, señorio eta grandezatzat daucainac, Eche barruban Sillan Jasarrita egotia, ereitiac eta iguitaco lanac presa andia emun agatic, eta Soruac Jornaleroz beteric ecusi agatic; eta guero, onelacuac cansauric sillan Jasarrita egotiagaz, gura oi daube, ibilli funcinoric funcino eta Fiestaric Fiesta, emuten deutsaila

Publicuari testimonio ciertuba eta claruba, dagozela burutic Jausita ala eurac, nola eurai ontzat sufritan deusten Guizonac; zergaitic, Echetic urten biar ez daben, Emaztiac, conveni dana, eguitera, guichiago urten biar dau, conveni ez dana, eguitera: Erri onetan onerian usario pestilencialic sartu ez da; eta, onelaco grandezaren zale dirian, Emacumiac begoza, usario corrientiac Justificaitan deusten, beren Partidetan, usario ez dan Partidetara zabaldu bagaric grandeza modu au.

Ecusiric, nire Illoba, zertaraco dan Matrimonio santuba; zer moduz beragaz valiau biar zarian; zein obligacino estuba daucazun zeure Emaztia eta onec zeu amaitaco; eta zer moduz gobernau biar dozun zeure Emaztia, provechuzcua izan dequizun zeure aldamenian, orain conveni da, esatia, zer moduz Jocatu biar zariain Senar eta Emazte zeuben Vme eta Familiaren gobiernuban, bardin Taungoicuac emuten badeutsube, Familia numeroso baten Guraso izateco, gracia, nic biotz biotzetic deseo deutsubedan leguez.

San Pablo Apostolubac predicaitan deuste Familietaco Burubai, eta, besteren gobiernuba beren cargura daucain, guztiai, esaten

deustela modu onetan: norc baitec bada bardin ez badauca bereen eta particularrian Echecuen cuidaduric, onelacuac Fedia ucatu dau, eta da, Fede bagaric vizi dan, Jentila baño dongagua: au onela bada, nire Illoba, nola eguiaz dan. Ho! eta zein lo pisuban vizi dirian Familietaco Guraso asco, beren Vmien Animacaz batere casoric eguiten ez daubela, eta beren cuidadu guztia ifinten daubela, Vmien Corputzac etaraten galantac, ederrac, eta apaindubac, eta Munduco pompa eta vanidadien Jarrallac! Fede bagaco Jentilac condenauco dira, eta onelaco Gurasuac, izanic Jentilac baño dongaguac, segurubago condenauco dira Jentilac eurac baño, bardin demporaz convertitan ez badira.

Beraz zuçnire Illoba, salvaitia gura badozu zeure Emaztiagaz batera, bioc euqui biar dozube, zeuben bendera dagozen, guztien cuidaduba, batez ere Jaungoicoac emuten deutsuben, Vmien cuidaduba: cuidadu onec dauca puntu bi, zeri atendidu; bata zeuben bendeco guztien Animen Salvacinua: bigarrena beren Corputzen asistencia sustentuban eta Jantzian, baña Animen salvacinoraco egoguia dan asistencia; argatic, ondo considerau ezquero, puntu bi oneic reduzitan dira batera, zeña dan zuben bioen eta zeuben bendeco guztioen Salvacinua.

Cuidadu onegaz zubec Senar eta Emazte ondo cumplitaco, zeuroc bioc ondo bata bestiagaz alcar unidu biar zarai, izan zaitezain zeuben Familiaren Ichu aurreco onac; eta guero amau biar dituzube eguiaz eta beti zeuben bendeco guztiac, batez ere zeuben Vmiac, baña ez Mundubagaz eta Araguiagaz conformeco amorioagaz, zeña sortzen da Diabrubagandic, eta zeñac eruango dituban Diabrubagana, baizican Jaungoicoaren vorondate santubagaz conformeco amorio prudente bategaz, zeuben Belarriac firmeza andiagaz ichiten deustezubela, Mundubac eta Araguiac amorio santu onen contra beti eta cansatzaca ecarrico deutsuben, quesa aserriai.

Jaungoicuac bada Guraso izatera ecarten bazaitube, ez zarai tristetu biar Vme ascogatic, ez da ere poztu, guchi daucazubelaco; bada izan zeiquie alivio eta consuelo andiac Vme ascogaz, ondo eta Jaungoicuaren bildur santuban bezau ezquero; baita ere izan zeiquie buruco miñ eta pesadumbre asco Vme guichigaz gaizqui aziiac eta consentidubac urten ezquero.

Zeuben Vmiac urteten badeutsube Erremañuren bategaz, adorau biar dozube biotz guztitic, Vle guizi baten utsic eguin ezin leiquian, Jaungoicoaren escu eta Providencia santuba; bada ezer zor ez deutsube, eta, gugandic ez-

cutauric daucan, bere Juicio eta pensamentu ocultuacaz gauza guztiac disponitan ditu gure oneraco.

Zeuben Vmiac batzubec urteten badaube ezur eta guei andicuac, eta moduzcuac, eta beste batzubec urteten badaube merruac eta cascarrilluac, ez eguizube ponderau eta estimau lenenguac, eta menospreciau eta iguiñ izan bigarrenac; lenenguac leguez bigarrenac ere estimau, eta amau biar dituzube igualdadiagaz, empeñaitan zariaila, guztiac Zeruraco aziten: zergaitic bada Guizona neurtzeen ez dan canaca, bai obracaz; Cascarrilluac eta Merruac urten leiquie beren obretan aiñ merecimentu onecuac edo obiagocuac beste Pamparrue eta Galantac baño ala Jaungoicoraco nola Munduraco; Espiritu Santubac diño: ez eguizu alabau Guizona, bere edertasunari beguiraturic; ez da ere despreciau Guizona, bere presenciari beguiraturic: egara eguiten daubenen artian chiquina da Erlia, eta bere frutubac dauca dulzuriaren principioa.

Bai, nire Illoba; Mundubac eta Mundubaren Amatzalliac modu batera eracusten deuscube, amaitan eta neurtzen guere Progimuac, eta Jaungoicuac beste modu batera; baña Jaungoicoaren regla edo moduba eguiazcuada, eta Mundubaren Amatzallien regla falsua;

duda baque Buetria andiagua da Çilia baño, Çilambua ere andiagua da, eta Çilabina andiagua eta ederragua da Çilia baño: eta Çiliac bere ezeberetzatsun eta chiquitasun guztiagaz emun oi daben fruitu eder eta gozoraren comparacionian, zerfruitu emuten daube Buetra, Çilambo, eta Çilabis ooneic beren galantasun eta anditasun gueiagogaz? Ha! zuben Ymiac Mundubaren vistan uiten leiquie galantac, Corputz tzubac, eta (esan oi dan lequez) gordinic jan leizquianac; baña, bardin Jaungoicoaren bildua santubagaz eguiaz beren biotzac josiric obra eta fruitu onac emuten ez baditube, izango dira Çilabis eder eta galant batzubec, buruban Juicio daucain guztiac gorroto izango dituenac: San Pablo Apostolubac Corintioarrai escribidu euston carta baten aiquetara emuten euston, bere Corputzeco presencia zala edo zindiala menasprecia gazzia; ala ere Zeubac daucan Santuric andienetatic eta saquintsubenetatic bat izan zan emen Luzaren gañian.

Zeuben Ymien Bautizuetan ez eguizube uiten zeuben Gurasuen reglatic campora, jo eraguiten dituzubela Organoac, edo bota eraguiten dituzubela Bolnac: eta orobat, illten badira zuben Ymiac Inozenciaco uiteetan, ez eguizube enterrau bost Capagaz eta Campae errepiquia-

gaz, baizican emen zeure Echian eta zeure Emaztiaren Echecuetan eta zeuben clasecuetan orainguiño usario corrientia izan dan modura.

Iaungoicuac dacus, regla eta neurri onetatic atzotic ona urten dauben, Eche Iaun eta Echeco Anreen intencinuac; baña guc ere dacuscuna da, bitarte onetan bertan, zeñian introduzidu dirian grandezaco moda oneic batere frutu bagacuac Aurren Animentzat beren! Bautizuetan eta Entierruetan, introduzidu dala ere Persona nagusien Entierruetan beren Animen sufragioen eta Eliza Santaren Espiritubaren contraco dan Modia; alaco Eracustzallac dira Mundutar pamparroiac; ez eguiozube bada zubec Jarraitu onelaco Eracustzallai ez Moda baten eta ez bestian; eguin eguizube zeuben Vmien Bautizuac eta Entierruac lengo modura, eta orobat illten dirian Persona nagusien Entierruac lengo modura eta ez oraingo Modara, beren iru Honracaz, Personiaren circunciari edo clasiari lengo usarioagaz conforme tocaitan badira.

~~Ezcondubac obligauric dagoza, beren aldetic ifintera premina dirian diligencia regularrac, conservaitaco beren Corputzac, Iaungoicoac Matrimonioagaz valiaitaco, emun deusten, disposicino egoguiagaz; baita ere obligauric~~

dagoza, oñian conservaitara beren Corputzetan, Matrimonioaren valiaquizuna mediante Sucesinuaren frutuba emuteco daucain, capazidadia: Jaquinian eta beren vorondatez inutilizaitan ditubenian Ezcondubac beren Corputzac, Matrimonioagaz valiaitaco, eta orobat, Matrimonioagaz valiaitaco disposicinuan conservauric, quentzen deustenian Jaquinian, eta vorondatez Corputzai, Sucesinua emuteco capacidadia, eguiten daube pecatu mortal andia, bada Ezcondubac ez bata eta ez bestia daube licito.

Ezcondubac ez daucai obligacinoric, Matrimonioagaz valiaitaco, apartau ezquero (esanic guelditu dan conformidadian) casua, zeñian parte batac pagau biar deutsan zor escatuba, escaquetan deutsanari; baña, bein valiau ezquero Legue dan moduban, bardin Jaungoicoac emuten badau fruturic, Gurasuac euqui biar dauben beren Vmiacanaco cuidaduba, asiten da instante artan bertan, zeñian frutu au asiten dan formaitara bere Amaren Sabelian.

Gurasuac bada, Criaturia bere Amaren Sabelian formaitan asiten dan instantetic, euqui biar daube cuidadu ona, desgraciau ez dedin beren culpaz Criatura au, eta, Zeruraco vidian Jasarri biar ebena Bautismo santuba-

ren bitartez, alivio santu au bagaric eta bere Ama-
ren vizitzaren peligru gravian dempora baño leen
juan, edo ill ez dedin: cuidadu onetan parteric
principalena da Amiaren cargucua; baña Ai-
tiac ere artu biar dau parte cuidadu onetan, er-
ruqui eta Prudencia andiagaz gobernaitan da-
bela bere Emaztia circunstancia delicadu onei-
tan. Amia bada, sein dun dan, dempora guztian
portau biar da bere ibilleretan, diversinuetan,
lan gueietan, jantzian, eta sustentuban, bere Sa-
belian formaubagaz doian, Jaungoicoaren Ima-
gina edo Semejanzac batere atzera penic eta cal-
teric izango ez daben, moduban; ala guertatu
dedin bere Sein jaiotzia bere dempora cavalian,
eta urten daguian bere Frutubac aimbat robus-
tuenac: dempora onetan guztian escusau biar
dau bada Amiac ibill era eta diversino modu
aic, zeñac violentau leiquian bere Corputz cati-
guba, nola izango liratequian danza, fandan-
go, eta viage fatigosuac; orobat diñot lan gue-
ien gañian, escusau biar ditu estadu onetan,
bere Corputz catiguba asco apreminauco deut-
sain, carga eta neque violento guztiac; orobat es-
cusau biarco ditu, bere Guerria larregui ajus-
tauco deutsain, Erropa estu guztiac, eta asasu-
nian calte eguiten deutsan alimentu mueta guz-
tia; eta puntu onetan bere culpaz descuidaitan dan

Amiac, bere Burubari ecarrico deutsan trabajubacaz gañera, izango ditu cargu pisubac Jaungoicoaren aurrian. [illegible]

Esposuac ere artu biar dau bere partia cuidadu importante onetan, izteen ez deutsala Emaztiari, Sabel catiguba daucan dempora guztian eguiten, apuntau ditudan, gauza dañosoric batere; ez deutsa itzi biar, artzeen Corputza flacauco deutsan mortificazinoric, nola dirian Barubac eta onen antzecuac: tratau biar dau, bai, bere Emaztia batez ere dempora delicadu onetan ez gogorquiro, atsecaviac emuten deutsala, baizican amorio, erruqui eta Prudencia andiagaz: baña dempora onetan Emacumiac euqui oi dituben, gurariac gueien bat figuraubac eta menospreciau biar dirianac dira, batez ere Mandamentu santuren baten contracuac dirianian: guazen orain zerbait esatera, nire Illoba, Gurasuac euqui biar dauben beren Umien cuidadubaren gañian, Aurra Jaioten dan instantetic aurrera.

Tratadu onen principioan esanic itzi dot, Gurasuac daucain obligacino gravia, beren Ume Jaio barriac aimbat lasterren batiatu eraguiteco, paraitan ditubela estadu graziazcuan eta salvacinoco vidian, Bautismo santubaren bitartez Jaungoicuac parcatubagaz Amaren Sabeletic herenciaz dacarden pecatu Originala.

Ça bada, nire Yllaba, zeure Çmaztiagaz batera portau zaite zeure Matrimonioan, Sucesinua lograitaco, premina diran disposicinuetan eta lograu ezquero emun biar dozun lenengo pausuan, apuntau ditudan, instruccinuacaz conforme: eta onegaz gañera izan zaitezte bioc Senar eta Çmazte agradecidubac Jaungoicuari, emun deutsuben, frutubagatic, eta equin deutsuben beze beste Misericordia guztiacatic: sarritan ofecidu biar deutsazube aren Divina Magestadiari zeuben Anaiac, izan ditezen bere servicio santuaco; baita ere escatu biar deutsazube aren Divina Magestadiari bere Argui eta laguntasuna, zeuben Anaiac edadian sartubagaz duazen eran, ernuteco beren bezu eta instruccino egoguiac: eta guero ifini biar dozube cuidadu andia, sortzen beren biotzetan edadiagaz conforme Jaungoicoaren ezagupena, beragaraco amorio eta bildur santuba, eta pecaturic dan chiquinenagaraco gorrotua.

Ez dituzube azi biar Diabruaren, Munduco pompa eta vanidadiaren, eta Araguiaren Jazkallac; bezau biar ditube, bai, chiquitanic esanguillac, Humildiac, eta zeuben obedienciacuac, amorioz irabazten deustezubela beti Yniai beren biotzac, beren senio edo inclinaziuai ondo atenditan deustezubela, ja-

quin daguizuben bezaitan bacoitza, conveni
dan moduban, eta urten ez deguizuben euben
Jretetan gogorrac, berecoiac, eta temosiac; ba-
ña, estadu onetara Aurrac allegau baño le-
nago, biar daube beste cuidaric.

Ezcondubac Matrimonioagaz valiau
ezquero, Legue dan moduban, inpedimentuen
bat ifinico baleube Jaquinian eta voxondatez,
sortu ez dedin fruturic, edo eguingo baleube exre-
medioren bat, frutu sortuba deseguinquetaco
edo Jnateco, pecatu mortal guztiz andia egui-
go leuquien leguez, oxobat eguingo leuquie peca-
tu mortal icaragarria laugarrengo eta bostga-
rrengo Mandamentu santuben contra, bardin Ja-
quinian eta euben culpaz ilten itzico baleutsai
bein Jaio ezqueroco Ymiari, edo betico erremañu
edo beste gaitz graverен batec artuco balitu Ymi
ac Gurasuen culpaz; eta ala Gurasuac euqui
biar daube cuidadu andia beren Ymien osasuna
eta vizitzaia conservaitaco, eta onein contraco
peliguii guztietatic apartaitaco beren Ymiac.

Yme Jaio barriac ez daucai errazuric,
eta argatic ez dira capaz bezuric artzeco; arga-
tic Gurasuac empeñau biar dira dempora onetan,
aziten beren Ymiac aimbat robustuenac eta sen-
duenac; onetaraco beren Amac daucai obliga-
cinua alimentaitaco Ymiac beren Bularre-

taco Fitiagaz, eguin bitarte guztian Aguinetan, beste Tanariric mascaitaco, indarra eta Estomanguban, digeritaco, fortaleza.

Amac emungo baleutsa iru urtian Bular sanua Umiari, onec robustuaguac urtengo leuque; baña guichienez urte bian Umiac Fitia edan gura leuque; eta bardin bien bitartian Ama Seindun izango baliz, au advertitan daben instantetic, escusau biarco dau Umiari Fitia emutia; zergaitic dan gueien bat Fiti donguia; eta Ama ascoren advertenciaren faltaz puntu onetan Ume asco desgraciaitan dira.

Gurasuen cuidadu prudentiac estadu onetaco Umiai eta aurreragocuai ere ez deuste goseric padecidu eraguin biar; bada Umiac, izango daben, Corputza eguin artian ase beteric ezagatic, biar dau zuri edo baltz, gosia ilteco laguin, izan ez daguian atzerapenic bere Corputzian eta indarretan; argatic Eliza Ama Santac ez ditu obligaitan, señalauric daucan Barubac etaratera, ogueta bat urte cumplidu bagaco Personac, convenienziazcuac izanagatic, baita ere motivo au mediante Barubetatic libre consideraitan dira gueien bat Emacumiac ez bacarric, Seindun dirianian, baita

ere Bularretan Ymia aziten dagozen bitartian.

Ez dau bada, nire Yloba, zure Emaztiac escusau biarco (posible daben guztian) bere Bularretan azitia, Jaungoicuac emuten deutsan, Yme guztiac, consideracionic au dala bere obligacionetatic bat: egui au, Animazic ez daucain, Sanau eta Pistia mueta guztiac predicaitan deuscube; eta aguizian dago Naturaleziac eta Naturaleziaren Eguilla Jaungoicuac Emacumiari Sein guintza bacoitzian, emuten deutsain, Fitia ez deutsaila emuten besterentzat, bere Sabelian formau izan dau, Aurrarentzat baño; bada obligacino onegaz cumplitaco iguiña daucan, Amiac ucatu gura deutsa Ymiari bere Amatasuna, eta ez dau euquico quesa Justoric, baldin guero bere Ymiac ecarten ez badeutsa provechuzco amorioric.

Guizonaren principioac ala bere Amaren Sabelian, nola Jaio ezquero, izan oi dira Gurasuentzat batez ere Amarentzat guztiz pensuac; Ymiaren estadu onetan Amiac dauza cargaric pisubenac; argaitic, bere Ymien Jaungoicoaren voronclatiagaz conformeco cuidadu ba euquico daben, Amiac armau biar dau bere biotza paciencia zabal bategaz, eta paciencia zabal onetaraco euqui biar dau bere

Vmiacanaco amorio guztiz andia; ez alperric Apostolu San Pabloc encargaitan deuste particularrian Emacume ezcondubai, amau daguiela euben Esposuac eta euben Vmiac.

Vme chiquinac Bularretan aziten dagozen, Emacume ezcondubac considerau biar daube, dala Jaungoicuac berentzat ordenauric daucan vide prezisua, Zeruco betico Gloriara juateco, eta vide onetatic ez caminau gura izatia dala, beren Burubac condenacinoco peligru gravian ifintia; bada bacoitzac bere Estaduco Curutzia jaso biar dau, Jaungoicuari gusto emungo badeutsa: eta gueiago pensau biar daubena da, eurac ere beren Amentzat izan ziriala ez obiaguac, orain eurac daicain, Vmiac eubentzat dirian baño.

Zuben Vmiac ezaguperan eta errazoian sartubagaz duazen eran, nire Ylloba, zuben bioen Senar eta Emaztiaren obligacino pisubetatic bat da (San Pablo Apostolubac diñuanez) bezaitia zuben Vmiac obedientiac castidade guztizcuagaz: obedientiac; (diñot) bada esperienciac eta Espiritu Santubac berac eracusten deuscube, bere vorondatearen gobiernu librera izten dan Vmia datorrela demporiagaz, bere Gurasuai lotsaria emutera; eta ezin lizateque beste moduz; zergaitic, Jaungoicuac Noe Patriarcari esan eutsan leguez. Guizonaren

sentidubac gaztetasunetic oquerreraco inclinauric dagozen; eta inclinacino donga au Bautismo Santuban quentzen ez dana da, sarritan apuntauric itzi dodan moduban.

Doctrina eguiazco onen vistan; zer esango ete dauben, beren Vmien bezu ona Juicioaren cargura izten dauben, Gurasuac, frescura andian erantzuten daubela: He! Juicioac ecarrico ditu escura? oneic, nire Illoba, ez dira Gurasuac, baizican beren Vmien Otsuac eta Leoe amorratubac: zubec bada onelacuac izan ez zaitezten, tratadu onetaco nire empeñuric principalena izango da, zubei emutia, premina dituzuben, instruccinuac, Jaquiteco zer moduz bezau biar dituzuben zeuben Vmiac obedientiac, Castidade guztizcuagaz, eta Zeruraco.

Escritura Sagraduban iracurten da. Tobias Santubac izan ebela bere Emazte Anagandic Seme bat, ifini eutsala bere izena, eta chiqui chiquitanic eracutsi eutsala Jaungoicoaganaco bildurra eta pecatu mueta guztiacanaco gorrotua: bai, nire Illoba, chiquitanic eta bere Vmetasuneco demporatic, diño Escritura Sagradubac, eracutsi eutsala Tobias Aitac bere Seme Tobiaseri Jaungoicoaganaco bildur santuba, zergaitic gueroraco itzi baleu Aita onac bere lan guei principal au, berandubegui izan zitequian, bere Semia ondo bezaitaco: eta

orain zubec artu biar dozube zeuben Ymeen crianzaraco Tobias santu au zeuben Ispillutzat.

Necazari onac Arbolia, erneetan dan instantetic, darua bezaubagaz, guero bere demporan frutu onac emun deguion, quentzen deutsala, dacarren, oquertasun eta bastago vizioso guztia, Arbolia bigun eta gaztechua dan bitartian; bein Arbolia andi eguin eta gogortu ezquero, leenago ausico lizateque, zuzendu baño: orobat bada zubec Guraso onac leguez emun biarco deustezube zeuben Ymiai Taungoicoaren vorondatiagaz conformeco bezu onac chiquitanic, bezubac artzeco capazac dirian bitartian, gueroco Juicioaren cuidadura guztiz itzi bagaric puntu delicadu au, Ymiacaz Yme eguiten zariaila, eta Andiacaz Andi amorioagaz eta Prudenciagaz.

Considerau biar dozube onetaraco, zariaila zeuben Ymien eta Familiaren Ispillu eta Arguitasuna, gauza guztietan aurraz emuten deustezubela egemplu ona; zariaila beren Erreguiac, emuten deustezubela, beren gobiernu eta bezu oneraco premina dirian, Ordenac guichi bai, baña egoguiac, eta cumplidu eraguiten deustezubela; zariaila beren Juezac, beren diferencia guztiac amorioagaz eta errazuazco baquian erabaguiten dituzubela; eta azquenic zariaila beren Guiadoriac eta Arzainac, emuten deustezubela egemplu onagaz gañera Taungoi-

cuaren Leguiagaz conformeco instruccinua; provechu guichicua izango daube Ymiac egemplu ona, baña mutuba eta instruccino bagacua, eta orobat instruccino ona, oren contraco egemplu donguiagaz: baña gura badozube zeuben egemplu ona eta doctrina ona ondo exercividubac izan ditezen zeuben Ymien biotzetan, amorioz izabazi biar deustezube beren voluntatiac, zeña dan beren Gaztelu guztia, amorioz. (diñot) ez Ymiacazco chuchutu muchutu eta barriquetacaz, galdu exaguiten deustezubela zeubeganaco itzal eta exrespeto guztia; Gurasuac Ymiacaz Yme eguin biar dira, baña exautsi guichi, eta danac egoguiac.

Gurasuac zaziean aldetic onela alegiña ondo eguin ezquero, Ymeren batec oquerzac ustengo baleutsube, uxten leiquezuben leguez, guertatuco lizateque onelaco Semiagan, Jaungoicuac Ezequiel Profetaren aotic exacusten deuscun doctrina, ez dala Gurasua castigauba izango bere Ymiaren pecatubacatic, baizican, pecatu eguiten daben, Animia bacarric galduco dala.

Ymiai zor deustezuben bezu eta egemplu onian descuidaubac izaten baziazai, orduban zuben Ymien pecatubac zuben gañian izango dira Faillien gañeco esaera cierta

~~bagaz conforme: ¿ Guardianac cartetara jocaque-tan badau, zer eguingo daube Frailiac?~~ Judeguben Legue zarrian Eli Sacerdotia, descuidaduba izan zalaco bere Seme bigaz, Jaungoicuac castigau eben gogorquiro bere Familiagaz batera: San Gregorio Elizaco Doctore Jaquintsubac diño eta onegaz batera Eliza Ama Santac Frentoco Concilio generalian, Artaldeco Ardiren batzubec, Arzainac ez daquiala, Otsuac Jan baditu, ez dala admitiduba izango Arzainaren escusa. ¿ zeimbat guchiago bada admitiduba izango da Jesu Christoren Tribunalian Gurasuen escusa, bardin beren ardura bagatasuna mediante eta eurac ez daquiela Diabru Otso amorratubac puscatu, eta Jan badeuste Ymeren batzubec Condenacinoco vide nasaian? Ha! Gurasuen cargu pisuba!

Zeuben Orazinuetan Jaungoicoari beti escatu biar deutsazube, eguin daquiala zeuben Ymiac vorondate onecuac, eta emun deguiela bere vorondate santuco vidiac uts ez eguiteco Gracia; eta, esanic itzi dodan leguez, irabazi biar deustezube amorioz beren biotzac; bai, beti amorioz; baña amorio onec izan biar dau ez ichubac, asco Gurasoc beren Ymiacanaco daucain lezcua, beren gauza eta pauso dongac ere ontzatemuten ditubenac; bada onelaco Gurasuac gorroto deuste beren Ymiai: izan biar dau, bai, amorio onec prudentiac,

eta Jaungoicuaren gustocuac.

Amorio prudente au mediante, humore dongacuac noiz baiten aurquiquetan bazarai, motivoric onetaraco emun bagaric zeuben Vmiac, ez deustezube pagau eraguin biar zeuben humore donguia; bada ez daucai culparic; eta bota biarco dozube aimbat lasterren zeurocandic humore donga ori, edo zeuroentzat bacarric gorde, alborotau bagaric iñoizco demporan diadarca zeuben Vmiac, eta Familia.

este parrafo se reformara, el castigo debe ser el ultimo refugio con amor y espiritu sosegado como lo cirujano que cortan &c.

Amorio prudente onetatic dator; bardin zeuben Vmiac oquerren bat edo beste eguiten badaube, eguin leiquien leguez pecaturaco inclinacino donguia mediante, ez deustezube disimulau biar, baizican verba guichigaz aiquetara emun biar deustezube, eguin daubena dala gauza donguia, eta berriz eguin biar ez daubena: onembestegaz emendaitan ez badira, zuzendu biarco dituzube edo palagubagaz, edo lotsaiagaz, edo escubagazco ucutu bigunen bategaz, edo gogorchuagaz nori nola conveni iacola dacutsuben moduban; beñere larregui eta gogorquiro amenazau bagaric zeuben Vmiac, urten ez deguizuben San Pablo Apostolubac diñuan moducuac (au da) animo eta biotz chiquinecuac: ~~Espiritu Santubac diño: Semia amaitan daben Gurasuac sarritan emuten deutsa azotiac.~~

Amorio prudente onetatic dator ifini biar dozuben cuidadu andia, ez sufritian zeuben Vmeetan Jaquinian pecatu chiquinic, nola dirian iñoren calte bagaco guizur chiquinac, bata bestiaganaco bengu, eta burla chiquinac, maldicino chiquin edo bes-

te onelacoren batzubec; bada Espiritu Santuba da contuban ifinten zaitubena: gauza chiquiac menospreziatan ditubarac (diño) gueldica faustera etorrico da; arçatic ere esaten da, pecatu veniala dala pecatu mortalaren disposicino bat: puntu delicadu au importancia eta atencino andicua da Gurasuentzat, beren Ymiai Zeruraco bezu onac emuteco; eta ala ez eguiozube zubec ere zeuben Ymiai beñere ontzat emun gauza dongaric, edo donguien antzic daucanic, beren Inocenciaco urteetan graciaz eta malizia bagaric eguiñac badira ere.

Amorio prudente onetatic dator; baxdin norc baitec emuten badeutsube contu edo quejaren bat, zeuroen Ymeren batec zeuroc ez daquizubela eguin daben, gaiztaqueriaren baiten gañian, ez zaraí alborotau biar albiste onegaz, ez da ere aserratu quesa emun deutsubenen contra; baizicar sustraitic eta disimulo andiagaz abeniguau biar dozube eguia, dan leguez, eta ifini erremedioa culpante bada Ymia, edo saseguz guelditu inocente badago Ymia, quesaric faso bagaric, ez dan gauzia, esan deutsubenaren contra.

Bezau gura badituzube zeuben Ymiac zeuben obediencian eta Castidade guztizcuagaz, San Pablo Apostolubac diñuan moduban, apartau biarco dituzube Gaztiac alcarregaz eguin oi dituben jan, edan, eta francachelatatic, eta ez deustezube pen-

mitidu biar aficionau ditezen Ardao, Aguardiente, Mistela, edo beste onelaco Licoretara; eta, obeto apaztaitiarren zeuben Ymiac aficino pestilente onetatic, ez deustezube emun biar funcino eguneta exe onelaco edari moduric, amazortzi edo oguei bat urte cumplidu arteraño, eta emetic aurrera exe beti contuz: ecusiric bada, zein aurrera doian Gente gazte artian Partida oneitan vicio madarikatu au, eta zein calte andiac eguiten dituban ala Animaco nola Munduco interesetan, clazuban ifini guza deutsubet egui santu au, zubec descuidadu ez zaitezain puntu onetan zeuben Ymiacaz.

Jaungoicuac bere Criatura guztien artian ez eben eguin Ardaorik edo beste Licoreric gure edarixaco, baizican Ura; criau eben, bai, Matsa eta bere frutuba, nundic sortzeen dirian Edari oneic; baña Munduban millaca urtiac iragu zirian Ardao eta Licore oneic bagaric: Diluvioco urac acabaurric, Noe Patriarcaren Arcan egozenagaz gañeraco, Mundutar guztiac, Noe Jaustubac Arcatic urten da guero ifini zituban Mastuiac, eta xa euston beren frutubai, eucain, zumua, edaaten asi zan Zumo au, gustau iacon, fede onian edan eben bastante, orditu zan, eta bere vizi lecu edo Chabolan quendu zituban bere Soñetic erropa guztiac, pillosic gueldiqueta zala; orra, nire Illoba, zer traicino eguin euts an Ardanac, Munduban aguertu zan instante artan bertan, Guizon ain santu eta Justubari, bere culpa bagaric bazan

ere, onenbestegaz izten ebela beinguan escarmentauric bere vizi guztiraco.

Obra Misericordiazcua da, egarri danari edaten emutia; baña Escritura Sagraduban puntu onen gañian iracurten dirian pasage guztietan, aren Divina Magestadiac aguinquetan dau, emun dequiela Vra eta ez Ardaoa; bada ez dau aotan artzeen Ardaoric, baizican beti Vra.

Aren Divina Magestadiac David Erregue eta Profetaren aotic diño: nire contraco cantaitan canzinuac zituben, Ardaua edaten egozenac: eta zer esperau zitequian beste gauzaric, Ardauagaz viziauric, egozenacandic? beguiratu bequie gaurco egunian ere onelacuen Costumbre etapausuai, eta oquerqueria ugari ecusico iate.

Ardaoac, seguidu eta erruzcho edaten dabenari, vizitza laburquetan deutsa, au da bere mesedetatic bat; eta zerbait erruzcho edaten danian, ordiquetaraño ezagatic, illundu eta guichiquetan dau Entendimentuco arguitasuna, eta guere Vorondateco Potencia ichuba gueldiquetan da argalduric gauza oneraco, eta frenu guichigaz, oquerqueriatic apartaitaco, eta, berez oquerrera macurturic daguan leguez, Ardaoaren indarragaz Odola ere vizturic, movitan da batez ere Persona gaztia desobedienziara, desonestidadera, eta beste gaiztaqueria mueta guztietara.

Platon Filosofuac Gentila bazan ere eta Jaun-

goicuaren ezagupera baguecua, ondo ezagutu zituban Ardaoaren calte icaragarri oneic, eta esan eben, Erreinubetaco Leguetan aguindu biar lizatequiala, ez daguiala iñorc Ardaoric probau amazortzi urte cumplidu arteraño; bada izango lizatequiala, subari suba ezartia; andic ogueta amasei urteraño pisquin bat edan leiquiala, eta omendic aurrera zerbait gueiago.

Espiritu Santubac, zeña ezin engañau diteque eta zeñac ezin engañau gaiquian eracusten deuscun doctrinan, diño: Ardaua gauza lujuriosua da, eta Ordiqueria quimerosua: ¿beraz nola da posible, Gurasuac bezaitia Ardaoagaz beren Ymiac obedientiac castidade guztizcuagaz? iñolaco moduz ez: Lot Guizon Justuba zan, ala ere orditu zan aldi biz, pecatu eguiten ebela onetan, etzan zan bere Alaba bigaz orditu aldi bacoitzian banagaz, eta biai Aurrac eraguin eusten: eta, nire Illoba, guztiz desengañau gura badozu Ardaoaren erru donguen gañian, beguiratu eguiezu Ardan Zale guztiai, beren pauso, oituera, eta, ascotan euqui oi dituben, guere Beguien aurreco fin desastraubai, eta ez dozu beste gauzaric premiña, guztiz sinisturic gueldiquetaco esan ditudan Ardaoaren gañeco doctrina oneic.

¿Beraz Ardaoa eta Ardaotic sortzeen dirian Licoriac dongaac dira? ez, nire Illoba; gauza onac dira eta gure oneracuac; bacarric ga-

itz guztia dago, aecaz gaizqui valiaitiagan, eta, zor iaten, errespeto eta itzalic ez ecartiagan, eta euracanaco aficino larregui guere biotzetan euquitiagan: badira ocasinuac eta circunstanciac, zeñetan conveni dan Ardaoa edatia, eta zeñetan obligauric egon litequian bat bere Conciencian Ardaoa edatera; Santubac eurac ere ez daube escusau, Ardaoa edatia onelaco ocasinoren batzubetan: Jesus Divinuac Eztai batzubetan Ardaoa faltau zalaco, Milagroz convertidu eben Vra Ardaoaren izate edo naturalezara Convidauben erregaloraco; eta San Pablo Apostolubac San Timoteo Obispo eta bere Discipulubari eragotzi eutsan Vra edatia, eta aguindu eutsan, aurrera edan eguiala Ardan pusquin bat bere Estomanguco argaltasunacatic.

Ea bada, nire Ylloba, zubec Senar eta Emazte, emuten dozubela puntu onen gañian zeuben Familian moderacinoco egempluba, apartau eguizube zeuben Vmeen Ezpanetatic, baña chiquin chiquitanic, Ardaoa eta Ardaoaren Senide maitiac dirian, Pipia eta Zigarrua, eta euqui eguizube cuidadu andia, probau ez daguien Ardao eta beste Licoreric, amazortzi edo oguei urte cumplidu arteraño, edo beren izango dituben Estadubac artu arteraño, eta orduban ere ocasino onraubetan eta moderacino onian, Jaungoicoaren bildur santuban vizi dirian, Christaunai conveni iaten, moduban; zergaitic, beren Vmi-

ai chiquitanic Ezpanetan Ardaoa ifinten deus-
ten, Gurasuac emuten deuste errore andico cri-
anza bat, ala Jaungoicoraco nola Munduraco;
eta demporiagaz onelaco Vmiac datoza, ezagutu
eraguitera Gurasuai beren erroria, padecidu era-
guiten deustela beren uts eguitiaren castigu jus-
tuac: Ha! Guraso ichu, zoro, eta buru bagacuac!
refor ma es- ezeguiezube emun diruric naiz Semeri naiz Alabari fraticararaco;
bada emuten badeustezube, galdut zat contau daiquezube
topel orerian Vmia Jaungoicuac Alabaric emuten badeutsu-
dinero: que aprendan a ganar y estimar de 16 años para arriva: a estudiar
tes nada, y su ocupacion
be, ecusi dozu, nire Illoba, zeure Gurasuetan eta
nigan zeure Arrebac bezaitaco moduba, zer diver-
sino eta jantzi modu permitidu izan iaten; ez egui-
zube bada urten regla eta egemplu onetatic zeu-
ben Alaben crianzan: urrinetic atajau biarco ditu-
zube, beren Honestidadiac euqui leiquian, tropiezu
guztiac: beñere ez dituzube bialdu biar eta Cria-
dia ere ez mandatuz Guizacumiacana, edo Gui-
zacumiac billatuco dituben, Echeetara, batez ere
Corputz acheena eta ondo tratauba daucainen
Guizacumiacana, Juezaren aguinduz edo errespe-
toco beste Personaren baten ~~companian~~ iaguntazupian ez danian,
edozein clase eta Estadubetaco Guizacumiac izan
ditezela Guizacume oneic; Guizacumetaraco Man-
datariac Guizacumiac, eta Emacumetaraco Man-
datariac Emacumiac; Echaldetan ez dago aimbes-
te peliguru; zergaitic daguan oneitan inozencia gue-
iago eta Aragui necatubagua: baña au guztiau
eguin biar da disimulo andiagaz, zeuben Alabai
ezer aiquetara emun bagaric, eta zeuben secretua

zeubentzat gordetan dozubela.

Parau biar deustezube zeuben Echeco Emacumiai beren Oiac, etzaateco, Aposintu edo Sala apartian, eta orobat Guizacumiai, iñolaco moduz batac bestien Aposintura irago ezin ditezquien moduban, zeuroc, zagozain, Ugetic sentitzaca; eta iñoiz sentiduco bazeube beren arteco llanezaric, eta beren arteco aparteco egote sarritacoric, beriala erremedioa ifini biarco dozube disimulo guztizcuagaz, premina bada onetaraco, Mira beren bat despeditia, despeditan dozubela batere detencino bagaric, eta aimbat pretestoric onraubenagaz.

Zeuroen Familian ez dozube iñolaco moduz sufridu biar, iñorc Errondara Gabaz urten daguian, zeuroen Alabac eta Criadiac gabaz gorubetara iñora Juan ditezen: ez dozube ere sufridu biar Familian Miñ gai desvergonzauric, ~~zi~~ ~~quiñic~~, maldiciente, eta murmurat zalleric, Echeco gauzac Campuan eta Campocuac Echian ereiten ditubenac, eta publicaitan ditubenac.

Zeuben Familian eragotzi biar dozube Cortesu, eta llaneza continuau mueta guztia Guizacume eta Emacumeen artian; eta ala ez dozube sufridu biar Echeco Guizacumec cortesau daguian Campoco Emacumeric, ez da ere Campoco Guizacumec Echeco Emacumiacaz artu daguian llanezaric edo corresponden-

ciaric, edozein Clase, Estadu, eta edadetacuac izan ditezela Guizacume orreic; bada eguiaz sinistu biar dozube, zuben Seme Alabac ez diriala egongo zeuroen obediencian Castidade guztizcuagaz, bein Cortejuban sartu ezquero; zergaitic imposible baño guchiago ez da, circunstancia oneitan Castidadia gordetia; eta cuidadu, nire Ylloba; zeimbat eta andiagua eta onraubagua eta errespetoric andieneco Estaduba daucana izan dedilla Cortesu eta llaneza onetan Echeco Emacumiacaz sartzen iatzun Guizacumia, aimbat Etsai peligrosuagua izango dau, zure cuidadura daguan castidadiac; argatic igues eguin biar dozu, onelacuai emutetic dan pretesto, ocasino, eta motivo chiquinenic, artu deguizuben Echeraco llanezazco ~~entradaric~~ sannexaric; eta zuc uste ez dozun alderen batetic artzeen badeutsube onelaco entrada, quendu eguizu disimuluagaz, Personacaz malquistau bagaric, eta Castidadiaren contraco tuforic dan chiquinenic Echeco Emacumiai aiquetara emun bagaric, bardin ziertu ez badaquizu, desonestidadeco vizioan sarturic dagozena; bada orduban, Culpante danari, bacarric eta bacarrian reprensinua emun biarco deutsazu bere vicioaren gañian.

Cuidadu, (dinot berriz ere) nire Ylloba, puntu onen gañian Corputz atseena, necatu baguia, eta ondo regalauba daucain Guizacume guztiacaz: San Pablo Apostolubac contuban ifinten

dau bere Discipulu eta Obispo San Firmoteo, eta onegaz batera gu guztioc, batez ere besteren cuidaduba beren carguza daucainac, Guizacume mueta batzuben gañian, zeñacandic iques equin biar eben, eta iques equin biar dogun guztioc, eta Guizacume oneir axtian izentaitan deutsa araco Guizacume aiec, zeñac sartzen dirian Ichetan, eta darabilden Imacume arzalac esclavizauric pecatuz carzauric: Apostolu gloriosuen demporan vizi zirian Guizacume modu oneic, gauzco eguinan ere franco dira, eta Ichetan batez ere zubelacuen Ichetan guztiz, guztiz erraz, sartzeen dira, zori gaiztoco Honra eta estimacinua Ichiari eta Ichecuai emuten deusten, protestuagaz.

Onelacuac ecusico dituzu, zugaz eta Icheco Nagusiacaz eguinic beren cumpliduzegularrac fuerzaz leguez, beriala ichasten eta arzimaitan diriala zeure Imacume gaztiacana, Iudiac Iztiari leguez, eta alcarregandic partitaco adore bagaric, ez daquiela noiz juan zeure Ichetic, eta gueien bat gastaitan ditubela beren conversacinuac bacarrian, eta ilchoric Imacumien Belarritara iru barreca cariño, eta bizuntasun andiagaz, eta zeimbat egonago gurago: apartau zaite bada, nire Illoba, onelacuacandic, Iromerietan eta viagetan ere Capellauntzat admititan ez dituzula.

¿Norc pensau eiguian, nire Illoba,

Thamar David Profeta santubaren Alabari
bere Neba batec galdu eraguin biarco eutsa-
la bere Virginadadia? ¿norc pensau eiquian,
David Erregue eta Profeta santu onec beronec
eguin biar ebela Adulterioco pecatu icara-
garria Betsabe Emacume ezcondubagaz, eta
bere Esposo Vriaseri carta falso bategaz vizi-
tza quendu eraguingo eutsala? ¿norc pensau
eiquian, Susana Emacume ezcondu bere Tentien
artian principalen eta guztiz santaren Casti-
dadiac eta vizitzac padecidu biarco eubela
aimbeste persecucino, estutasun, eta peligru, be-
re Echian confianza andiagaz sartzeen ziri-
an, autoridade eta errespeto guztiz andico Gui-
zacume zar bigandic, zeñac eucain sartu ar-
ten frecuentia bere Esposo Tuaquinegazco cor-
respondencia eta adisquitasuna mediante?
¿norc pensau eiquian Terusalengo Ciudadian
Taungoicoaren Pueblo escogiduco Guizacumiac,
Teremias Profeta santubac diñuan moduban,
izango ziriala, Mendira Castaraco bota oi diri-
an, Zaldien antzecuac, eta onein antzera ibil-
lico ziriala Lujuriaz betericaco irrintza eta re-
clamuac eguiten batac bestiaren Emaztiacana
Adulterioco pecaturaco? oraingo Guizacumiac
eta Emacumiac bada ez dira, nire Illoba, natura-
leza obiagocuac, aiec zirian baño, eta bacarric
conservauco daube beren Castidadia dañu baga-

zic, bardin Jaungoicoaren bildur santubagaz
beren Araguiac
posizic, apartaitan badira ocasino guztietatic; bes-
te moduz ez dago Castidadia gordetaric; ~~sanchira~~
~~santa Teresa, Jaunac berarentzat itxi eben, tarda eta fantubagaz vitat-~~
~~rian egondu zabela askotan eta askotan esperimentatu~~
Advertencia oneic ez dituzu, nire H-
~~tobar; hurrengo daguizun gaizqui, zeure conguna~~
~~zirri bat, bada~~ Judia bagaz Gnacumiari itzal eta espejo
~~ez dagozen, familiacatic, aetaco Personacatic, eta~~
~~andiagaz bequizaguitar, ez deutsan guizacumia sarriro da eta~~
~~sartu untenacatic, bada ciertu ez badaquizu gau-~~
~~zorbat bere Personiari itzal ardia Guizacumiaren alde~~
~~za dongaren bat, pensau biar dozu, ondo da-~~
~~itzal aldia ecarri eraguiten ez deutsan Gnacumia gal-~~
~~biltzeba, eta sartu unten artaraco enquiero dau-~~
~~duco da-~~
~~beba motivo errazzaz coren bat: bacarric~~ emun
deutsut advertencia oneic, zu contuban ifintiar-
xen, zeure conguna daguan Familiari nundicno-
za etorri lequiquion caltiac obedienziaco eta
Castidadeco materietan, eta atafau daguizun
urrinetic calte oneic zeure bendecuetan: orobat
zeure bendecuetan batac bestiaganaco corres-
pondenciaren gañian ez dozu gauza dongaric
siniztu edo errezelau biar, ziertu ez badaquie-
zu gauza dongaren bat; au ez da aiquetan Fa-
miliaco Sirvitziaraz; bada onelacuac ia beren
exvitzaxiacaz
artian, ia Ychecuen artian tropiezu asco izan
oi ditube, batez ere andura guchicua danian Fa-
miliaco Buruba: Sexvitzarien gañian xiñendo/ entzen-
den muchas veces aurchai nay aficu- que alacoaldo
Ez dozube sufridu biar zeuben Alaba-
xen bat urte bat bacarra daucana izanagatic
etzan dedin Ycheco Guiadubagaz edo zeuben Se-
mexen bategaz, eta orobat zeuben Semeren bat
urte bat bacarra daucana ere etzan dedin Yche-

co Criadiagaz edo zeuroen Alabaren bategaz ez da ere zeurocaz Matrimonioco Oian, Itia eragotziricaco [redacted] Ymeric naiz Semia, naiz Alabia: eta, gaztiaguac badira, Persona nagusien Oietan euqui oi daube itoteco edo sofocacinoco peligruba.

Ez deustezube itzi biar Echeco Emacumiai, Arbola gañetan ibilten, eta Arboletara edo Matsera Escaleracaz igoten, ez da ere Atorra utsian ibilten Echebarruban eta campuan; au guztiau Honestidadiac eragozten dabena da.

Ez eguizube permitidu, zuben Ymiac urten daguien Cale zaliac, zeuroc onetan ere emuten deustezubela egemplu ona: Caleco Echetan Guraso eta Yme aimbat entradaric guchien euqui biar dozube, batez ere zubenetic Calera daguan urtasunagaz: zuben confianza guztico Echiac Calian izan bar dau Anae Sacristaun eta Izeco Feresenaren Echiac: materia onetan descuidaubac dirian, Echaldetaco Gurasuac dañu mueta asco dacarde Echera ala Animaracuac nola Munduracuac.

Beti zeuroc vizi biar zarai alegre, Mundu onetaco contratiempuetan ere bai, consideracino suntu batzuben bitartez; eta orobat procurau biar dozube desterraitia zeuben Ymien biotzetatic tristura eta melancolia guztia; bada provechuric batere ez dacar Melancoliac

eta bai calte andiac, Curutziaren gañeco trata-
duban esango dodan leguez: baña cuidadu, nire
Ylloba; zeuben Ymiac alegriac ecusi gura dituzu-
ben, pretestuagaz ez dituzube iñolaco moduz
etara biar Fiesta zaliac, ez da ere permitidu, ju-
an ditezen albo Ermitetaco, eta albo Errietaco
funcinuetara.

Eguia da: Ymiac Yme dirian bitartian, eta
andi eguin ditezenian ere bai, biar ditube beren
diversinuac beren dempora señalaubetan, Ymi-
ac Ymien modura, eta Nagusiac Nagusien mo-
dura; baña cuidadu andia ifini biarco dozu-
be, Nescatillac Nescatillacaz aparte eta Muti-
cuac Muticuacaz orobat aparte divertidu dite-
zen; baita ere, izanagatic aparte beren diversi-
nuac, eragotzi biarco deustezube euben Jolasac
eguitia, Nesca Mutil nagusiac nola nai dabil-
tzen, paragetan; zergaitic beste moduz onein
egemplu donguia mediante zeuben Ymiac dem-
poriagaz urtengo dauben costumbre guztiz dom-
gacuac.

Ymiac Ymetatic beren Amaren Sabeletic
dacarden pecaturaco inclinacino donguia medi-
ante artu ez daguien Inozenziaren calteco re-
sabioric beren ezaguperaren faltaz, premina dau-
be Gurasuen aldetico cuidadu andia; eta ala zu-
bec ere, nire Ylloba, ecusiagatic zuben Ymiac, esan
dan moduban, aparte divertitan diriala, ez dozu-
be, onembestegaz ardura bagaric guelditu biar: lenen-
go bada eragotzi biar deustezube Ymiai; lotara Juan aurrian
lotara etzinic eta goizetan iratzarriric eguin oidituben, Jolasac.

Muticuac Muticuacaz eta Nescatillac Nescatillacaz, zer eguiten dauben ez daquiela, artu leiquie beren arteco oituera donga batzubec, andi eguinda ere continuaitan daubela oituera oneitan escrupulo bagaric, sinizturic, aparte izan ezquero diversinoa, Muticuac Muticuacaz eta Nescatillacaz Nescatillacaz divertitia edozein modutan ez dala pecatu; eta siniste falso onec bein sustraiac botaco balitu beren biotzetan Ho! nire Jaungoicua! eta zein nequez, onelaco principioa daucain, Christaunac reduciduco liratequiaz, Castidadia gordetara! Aizpac Aizpacaz eta Anaiac Anaiacaz ere izango lituquie milla bat beren arteco Ilaneza indezentiac.

Nescatillac gueiago dagoza onetara esponiduric beren arazotasun gueiago eta erropa sueltua mediante, edozein modutan dabiltzela batez ere ezcutubetan: puntu au nola dan aiñ delicaduba, zeñian Beguiac idetia Ymiai dan vizioa viztzeia, Gurasuen Prudenciac atasau biar ditu inconveniente oneic beren Ymeetan guztiz urrinetic, ezercho euzai aiquetara emun bagaric milla Legua videtic.

Bacarric bada eltzeen danian zeuben noticiara zueben Ymien arteco onelaco diversino peligrosoren bat, apartau biar dituzube berialatic solas mueta aietatic, Culpante dirianac bacarric artzen dituzubela aparte; eta eguin daubenetic

aurrera ezercho eurai aiquitera emun bagaric ezagutu eta sinistu exaguin biar deustezube, diversino modu alacua dala pecatu; eta Infernura juatia gura ez badaube, confesau biar daubela damuturic eguiaz; eta itzi biar deutsaila, pecatu dan, diversino modu ari; eta seriedadiagaz esan biarco deustezube, castigauco dituzubela gogorquiro, berriz descuidaitan badira; eta eguiaz bigarren aldiz descuidauco balira, emun biarco deustezube zurra dezente bana culpante dirianai, castigubagaz contuban jausi ditezen diversino modu arc daucan indezenziaren gañian, eta itzi deguioen: verba guichitara reduzitiarren gogaicarrico materia au; Gurasuac ez daube beñere izentau biar ao utsez ere vizio laban eta ichascoxau beren Familia eta Umien aurrian; eta iñoiz sentiduco baleube beren bendecuetan bere tuforen bat, ez daube izan biar flematicuac eta pachorra onecuac, baizican colera santu bategaz armauric ifini biarco daube erremedio prontua, baña disimulauba eta prudentia.

Onetaraco Gurasuac mañaz gobernau biar ditube beren Umien diversinuac, eta ala Eguzari arrasaldetan ifini biar ditube beren Umiac edo Carta jocuren baten edo Arrae jocura, baña euben aurrian, edo Dantzaan chipitubagaz; edo beste diversino modu inozente batzubetan Ume artian corridu oi daubenetan; baña guztia beren aurrian; bada Gurasuen vistan izan ezque-

ro Vmien diversinua, ez dauca peligruric: bai-
ta ere Vmiac Oñez ondo icasi ezquero ez dira
itzi biar Echian, Gurasuac Meza nagusitan
dirian bitartian; bai euracaz eracutsi biar de-
uste Funcino santubetaraco aficinoa, baita ere
arrasaldetan emun biar deuste Calvario santu-
ba visitaitaco ocupacinua gueroco Merianda
eta Jolasaren pozian, leenago poztzen ditubela
Zeruco Gloriaren betico gozuacaz.

Artu eguizu, nire Illoba, baña constan-
ciagaz oituera, zeure Familia guztiagaz Eche-
ra erretiraitaco Ave Marietaraco (aiquetan
da au) principalmente Eguzari egunetan; eta, zeu-
re bendeco Emacumiai emungo deustezun, Eche-
tic camporaco encargubac emun biarco deuste-
zu Egun arguiz, gautu baño lenago Echian egon-
go dirian moduban, eta ez beñere Gabaz: iñora
zer Juan badaucazu, ordutic campora egoteco mo-
duban, aurraz contuban ifini biarco dozu Emaz-
tia edo Familiacoren bat, cuidautanegon ez di-
tezen: ez eguiezu itzi Alabai, gabaz iñora Juaten [redacted] lin-
lantzera. Gabaz Senar Emaztioc bioc ez zatezai Vge-
ra erretirau, Familiaco guztiac beren Vgueetara
erretirau baño leenago; aurraz bialdu biar ditu-
zube, itzi bagaric iñor Sugatian edo beste esqui-
naren batzubetan: eta Echeco Ate guztiac ichi bi-
arco dituzube Ave Maritacuetan, izango dirian
moduban; iñor Campuan bada, datorrenian Atia
Joco dau: guazen orain zeuben Seme Alaben Jantzie-

tara.

Zeuben Ymiac bada urtengo badeutsube Obedientiac Castidade guztizcuagaz eta ondo bezaubac Zeruraco eta zeuben provechu ala Espiritual nola Temporaleraco, ez bacarric, nire Ylloba, izan biar dozube cuidadosuac, esan deutsubedan, puntubetan, baita ere beste materia batzubetan; oneitatic bat da zeuroen Ymien Jantzia.

Espiritu Santuba da esaten deutsuna: ez eguizu ifini iñoiz zeure Gloria Jantzian: doctrina santu onen vistan ez dituzube erabilli biar zeuroen Ymiac ala Semiac nola Alabac Ymagina batzuben modura majo eta ederquiro apainduric, baizican Mediania baten, maizcho, maizcho, eta maizcho, ez arlote Jantziric, eta, bai, Dezencia humilde eta obediente bategaz; posible daneraño guztiac igual Jantziric, batac bestiaren imbidiaric euqui ez daguien.

Modu onetan zeuben Ymiac ez dira aimbeste arrotuco, nola ecusi ezquero beren Burubac ederquiro apainduric: zeuroc ere gueiago aurreratuco dozube, eta nasiago inguiratuco zarai euben acomodubetan: beste moduz guertatuco iatzube beste dañuric ascogaz gañera, dempora baño lenago Sein guintzan Jasarten dan, Emacumiari guertatu oi dana, Seiña eguiteco demporia datorrenian, indarric ez euquitia, demporia baño leenago alperric gastau zitubalaco; sinistu eguidazu biotz guztitic, nire Ylloba; ez ditu iñorc tachau-

co zuben Ymeric maizcho Jantziric ibilli diniala-
co, bai, gaizqui bezauzic dagozelaco eta dote qui-
chi daucailaco; eta, gueiago dana, Persona Juicio-
so guztiac igues eguiten daube maso dabiltzena-
candic, eta empeñaitan dira ez santzeco beren Ich-
tan onelacoric acomodazinoz: acomodaitan dita-
zubenian bada zeuben Ymiac, eguingo deustezube
acomodazinuagaz conformeco Jantzi egoquiac.

Ichezaco izango dan Seme edo Alabiari ez deu-
tsazube esan biar beñere: Maiorazgo edo Maiorazga-
ez dozube ere sufridu biar, iñorc emun deguion titu-
lo ori zergaitic ezin sinistu lei, noraño azaroquetan
dan Persona gazte eta ignorantia titulo pompo-
so onegaz; tratau biarco dozube beste Senidiacaz
igual Jantzian eta beste bezu guztietan: Ho! eta
zein cuidadu eta empeñu andia ifini biarco dozu-
ben bere Soñeco Jantzi eta ibilleriagaz! igo ez de-
guizuben sei puntu edo malla zeuroc daucazu-
benetic; Lux Jo eraguin ez deguizuben, eta emun
ez deguizuben pesadumbrez betexicaco Zazza-
zo dolorezco bat! izabazi biarco deutsazube bada
beti bere biotza beste Senidiai leguez, beti amoriоz
eta Jaungoicoaren bildur santuban, eracusten de-
utsazubela ala ori nola beste Ume guztiai, conten-
tuz egoten, zeuroc emuten deustezuben Sustentu
eta Jantzi modubagaz.

Ez eguizube zeuben Familian beñere
ifini Almorzu, Bazcari, eta Afaitaco ordubetan
Lapico bi edo iru, Ur utsagazcoac badira ere, ba-
ta Baraicatz Saldiagaz, bestia Porru Saldiagaz,

eta bestia Quipula Saldiagaz, gura dabenetic bacoitzac artu daguian; baizican guztientzat Lapico bat bacarra, eta egun batian gauza bategaz eta bestian beste bategaz, susuma bagaric zuben Vmiac oitu ditezen Echaldeco sustentu mueta guztietara; bada beste moduz zuben Vmiac urtengo deutsube mañosuac eta gaizqui aziac; baita ere eracutsi biar deustezube, Artua susuma bagaric jaten, Echaldetan costumbre dan moduban.

Vmiac sei edo zazpi urte cumplidu ezquero, ez deustezube beñere Burubac leundu biar labanqueria modura, ez da ere arrotu beren biotzac labanqueriaco verbacaz, biarra obeto eguin daguien; zergaitic Gurasuen onelaco jocaerac izten ditube Vmien biotzetan gueroraco erru dongac, esperienciac eracutsi oi daben leguez.

Orobat esan dodan edade orretara ezquereco Vmiai ez deustezube beñere esan biar: Semecho au izango da Fraile; beste au Abade; beste au Indiano; Alabacho oneic Monja: eta au Echeraco Maiorazgo gueia: bada esaera oneic imprimiduric guelditu oi dira Vmien biotzetan, eta guero beren Estadubetaco suertien gañian Vme onelacuac ibilli oi dira, beren Espiritubac ezin sosegauric; bezau eguizube, bai, zeuben Vmiac Jaungoicoaren bildur santuban, zeña dan zuben carguco gauza; eta guero lagundu eguiozube Vme

bacoitzari, eurac Jaungoicoari artaraco bere Arguitasun Divinua escaturic inclinaitan dirian Estadutic, procuraitan deustezubela emutia euben destinuac aimbat lasterren, batez ere Alabai.

Ymiac ala Semiac nola Alabac Oguia alperric jaten dauben bitartian chiquitanic bialdu biarco dituzube Escolara, iracurten ondo icasi arteraño (Semiac Muticuen Errico Escolara, eta Alabac, zeuroc Echian ez eracutsi enian, Maestriaren Escolara, eta ez iñolaco pretestoz beste Lecutara) onela Echian emungo deutsube baquia, eta, jaten dauben, Oguia izango da berentzat zerbait provechosua: bai, guztiai emun biarco deustezube Escolac, iracurten icasi arteraño, eta au ondo, ondo, baña guztiz ondo;- eta, iracurten icasi ezquero, beriala erretirau biarco dituzube Echera ala Semiac nola Alabac, eta ifini biarco dituzube bertatic Necazaritzaco Oficioan, Estudioai jarraitu biar deustenacaz osteriango, guztiac: baita ere Echeraco izango dan Semiac, escribitan zerbaiticastia, alde batetic provechu dau, Echeco artu emunaren asientuba eruateco; baña ez jaquinagaz escribitan librauco lizateque Errico cargu pisubetatic, eta oneic Necazari ignorante bateri dacarden Buruco miñ eta Calte modu ascotatic; zeuc pensauco dozu, nire Illoba, zeiñ onduen dan, zeure Semiaren eta Echiaren provechubari batere pasino bagaric beguiraturic.

Ondo iracurten icasi ezquero, eta Echera erretiraurice scribitan ifinitzaca, bertatic Vme bacoitzari entregauco deutsazube bere Doctrinaco Cusquerazco Cartilla, eta icasi eraguingo deustezube ondo Doctrina guztia, Aita Astetec eracutsiric itzi eben, moduban, Ilana bat edo beste icasi eraguiten deustezubela Eguzari egun bacoitzian, eta oneitan egercitau ere eraguin biar deustezube beren iracurtia, ordeitu eta aztu ez dequien, eta Jaquin daguien sentidubagaz iracurten Cusquerazco Liburu devotoren batzubec: Aste egunetan beti destinau biarco dituzube Necazaritzaco Oficiora; bada, esanic daucadan leguez, ezin emungo deustezube zeuben Vmiai, beren Salvacinua lograitaco, Oficio egoguiagoric, honraubagoric, eta provechosuagoric ere ez.

Escolan Vmiac dabiltzen bitartian ez dozube descuidadu biar, Cusqueraz eurai eracusten aldozuben Doctrina Christiana; Lan guei oni equin biar deutsazube, Vmiac verbaitan corriente icasten deutsuben instantetic: materia onetan ez zarai descuidadu biar, Escolan icasico dauben, Doctriniaren pretestuagaz, asco Gurasoc gaizqui eguiten dauben leguez.

Vmiac batez ere Muticuac icasi oi daube Erderaz Escolan beren Doctrina santuba; eta Cuscaldunac dirian leguez, ez daube comprenditan ezercho; icasten dauben, pusquia daquie Loru-

en modura; eta onela guertaquetan da oneri-
an Vmiacaz, amabi edo amalau urte cumplitia,
salvaitaco premina dan gara, Doctrinaric ez da-
quiela: ez, ez, ez dozube zubec izan biar aiñ ar-
dura bagaz zeuroen Vmiacaz puntu grave one-
tan. Doctrina Christianan ondo instruiduric zu-
ben Vmiac zazpi urte cumplidubac ditubeni-
an cumplidu eraguin biarco deustezube ur-
tian beingo Confesinuiaren gañeco Mandamen-
tu Santu Elizacuagaz, leenaz beren Vmetasu-
nian eta Vmiacaz Vme eguinic aiquetara emu-
ten deustezubela Confesino on bat eguiteco mo-
duba. Amar urtez beraco Vmiac, ~~ez deustezube~~ gueienbat ez ditu obli-
gaitan Resurreccinoco Pascuetan comulgaitaco urteoro Christaun
guztioc Eliza Ama santa biar Paldetic daucagun irugarren man-
~~cumplidu eraguin Pascua Resurreccinoco Co-~~
damentu santubac, o bana amabi urte cumplidu ezquerocoac gueien
bat obligaitan ditu mandamentu santuonec
~~munio Santubagaz; eta, amabi urte cumplidu~~
~~ezquero, ez dozube sufridu biarco, egon ditezen~~
~~Comunio Santuba errezivitzaca, batez ere Re-~~
~~surreccinoco Pascua santuco demporan~~; zergai-
tic amar urtez beracuac ez daucai capazidade-
ric, cargu eguiteco eta ezaguquetaco Janari Divi-
no eta Sustentu Espiritual miragarrizco au; eta amar urte-
tic aurrera, izan ezquero Vmiac despesu regularrecu-
ac eta cuidadu onagaz instruidubac izan ezquero,
admitidu leizque Comunio Santura, eta goeienez
amabi urte ditubenetic aurrera Vmiac ez daube
egon biar gustau bagaric Jesu Christo gure Jauna-
ren suavidadia Comunioco Sacramentu miragar-

rizco onetan; ez dozube bada izan biar ardura bagac eta descuidadubac Ymiacaz puntu importante onetan, leenaz instruitan dituzubela beren Ymetasunian, Ymiacaz Yme eguinic. Guraruen obligacino estuba da beren Ymiai eracustia ondo eguiten beren confesinoac, eta ondo comulgaitan, eta gueno no iz comulgaitan asi biar dauben itzi biar daube a discrecion del cura o Confesor sin replicar, y acompañen a ella para que no se arrostren [illegible]

Lenengo Comunio Santuba errecividu aurrian, conveni da, Ymiac urtian bein baño sarriagotan confesaitara ecartia, disposicino obiaguagaz asi ditezen Jesus Divinua errivitan; eta, bein comulgaitan asi ezquero zeuroen Ymiac, nire Illoba, sarriagotan eruan biarco dituzube, confesaitara eta comulgaitara, eta, nola edadian aurrera Juanago, eta sarriago, guichienez Illian bein confesaitaco eta comulgaitaco, costumbre santuba artu eraguiteraño, zeuroc beste gauza on guztietan leguez onetan ere emuten deustezubela aurrenengo egempluba.

Eracutsi biar deustezube Ymiai, eguiten beren Confesinuac lisura eta confianza guztizcuagaz, esplicaitan deustezubela, lotsaz pecatubac confesatzaca izten ditubanac eguiten dabela Confesino nulua, eta argatic Sacrilegioco pecatu icaragarri bat; eta ondoren badua, Jaun Divinoa Comunio Santuban errecivitara, eguingo dabela Sacrilegio andiagoco beste pecatu mortal bat: bada, onela confesaitan eta comulgaitan dana, biurquetan da Echera leen eucan pecatu guztiacaz, batere confesau ez baleu leguez, eta asostian beste pecatu mortal bi Sacrilegiozcuacaz; obe milla bider, onelacua Echian gueldi egon baliz: seguru egon diteque confesaitara doiana, Confesoriac ez deutsala Arpeguian emun-

go bere pecatubacaz, eta besteri ere ez deutsala manifestauco, Confesinuan aitu dituban pecaturic, vizitzaren peniagaz amenazaitan badau ere.

Procurau biar dozube, zeuben Vmiac euqui daguien Confesore artubac, ibilli ez ditezen batian bategaz eta bestian bestiagaz, baña nola Vme oneic Vme dirian vitartian ez daquien, zein Confesore dan berentzat onena, zeuroc eruan biar dituzube beren biotzetan ~~onelacuac bada eta Confesore nasaien billa dabiltzenac ez daube ez eta~~ ~~onelacuac bada eta Confesore nasaien billa dabiltzenac ez daube ez eta~~ ~~Jaungoicoaren bildur rastuba eta pecatubaganaco gorroto equiaco beren biotzetan, sortuco daben Confesoriaganaco Confesore~~ ~~raco provechuzco fruturic beren Confesinuetatic~~; eguia edoceñegaz valiatan dan Christaunac, eta Confesore nasaien billa dabiltzenac ez daube ez etaraco provechuzco fruturic beren Confesinuetatic; eguia da; badira motivo justuac Confesoria aldaquetaco, baña izan biarco dau motivo graviac onetaraco: oro-

aparte- bat esan biar deustezube zeuben Vmiai, beren Estadubac artzeco, demporan, dala provechu guztiz andico gauza, vizitza guztico Confesino general bat equitia, modu onetan, artzera duazen, Estadubari ezarri deguioen Jaungoicoaren aurrian Zimentu on eta firme bat; baña equin biar dau bacoitzac diligencia au bere Confesore artubaren dictamenez; zergaitic, guztientzat gauza egoguia ez dan leguez, bere Buruz gobernaitan danac etara leique diligencia onetatic provechu baño calte gueiago: eta azquenic aconsejau biarco dituzube euqui daguiela beren Animetaco gobiernubaren gañian obediencia ichu bat euben Confesore artu eta prudentiai.

Ez dituzube destinau biar zeuroen Alabac Josquintzaraco, edo Dueñatzaraco, edo Abadeen Ama de casatzaraco; eta, eurac empeñauco balira ere onetan, eragotzi biarco deustezube posible dozubeneraño; zergaitic onelaco destinuetatic etaraco dauben beren Burubentzat provechu baño calte gueiago; baña, zeuroen vorondate ezagutubaren contra urtengo baleutsube Echetic orrelaco

destinuetara, batere señalamenturic eguin bagaric beren acomodazinuetaraco otorgau biarco deustezube beren Senit parte eta Legitima riguirosuac bacarric eta ez beste gauzaric; eta orreic, descontaitan deustezubela, beren empeñuba mediante Echiari gastau eraguiten deutsain, guztia; ez dago ez, onelaco Alabacaz zer erruquiric batere euqui; bardin demporaz damuturic ez bagatoz zuroen obedienzara, edo zeuroen errazuarco vorondatiagaz con [illegible] acomodacinoen batzubec, eguiten, ez baldizube, vrauzen batta ere [illegible]

Francuaguac izan biarco dozube Echiari gastau eraguin bagaric, zeuroi Necazaritzaco Oficio guztiz apreciagarrian Humildadiagaz lagunquetan deutsuben Alabacaz; baña onei ere otorgau biarco deustezube franquia gueiagoco au, bacarric, acomodaitan dirian casoraco edo ia Religinotic edo ia Matrimoniotic; eta, Matrimoniotic izan enian acomodacinua, ezconquetan badira zeuroen errazuarco vorondate eta consentimentu bagaz, eta ez beste moduz: señalamentu oneitaraco iracurri eguizu, nire Illoba, eta eguin zaite ondo cargu, zeure contratuco clausulac zer moduz dagozen zeure Senidiai eguinicaco señalamentuben condicinuen gañian; eta ala lotu eguizu zeure ez bacarric Alabai baita ere Semiai eguiten deustezun señalamentuben condicinuac eta clausulac.

Ez deustezu, nire Illoba, eguin biarco zeure Alabai eta Semiai beren acomodazinuetaraco, zeure Senidiai zeuroen Ezcontzaco contratuban eguin dirian leguezco, señalamenturic; zergaitic zuc daucazun Hacienda vinculocuaren Posedo-

riarentzat carga modu bagaco larreguia izan-
go lizateque, baita ere orrelaco señalamentubac
izango lizateque larreguiac eta zure Ymiai iñolaco moduz to-
caitan ez dirianac; badaquizu, eta ondo, nire
Ylloba, zer causa eta motivo izan dan, eguiteco
zeure Senidiai orrelaco señalamentu escesivu-
ac: Necazari artian diruba gueiquetaco, dempo-
ra charrac datoza aurrera; eta ala eguin biar-
co deustezu Ymiai beren señalamentubac, zorren
azpian zeure Buruba eta zeure Echeco Poseedo-
re gueia sepultauric gueldiquetan ez zarian mo-
duban, aizesco Torriai alde batera itziric; bai;
onela eta ez beste moduz. ~~[illegible]~~
amorionco encontraric
Du bada zeure Ymiac eguin ezdaquizuban

Ez eguiozu emun iñolaco moduz, nire Ylloba, zeure Emaztiari escuvideric, nombraitaco zeure faltan, Hacienda vinculauban izango dozun Seme edo Alaba Sucesoria; zeuc eguin biarco dozu nombramentu au; bada Españaco presenteco gobiernu eta providencia moduban zuc Emaztiari emun aldeiquiozun escuvidiacatic izango da zure Sucesoria Semeric nagusiena, edo Semien faltan Alabaric nagusiena; eta, gobiernu modu onen contra ezercho eguin gura izatia, izango lizateque, zeure Ymiai pleitoraco vidia emutia, eta Suzesore nombrauba, Nagusiena ez bada, Calabazacaz gueldiquetia, Nagusienac edo bere Descendiduren batec pleitua plantaitan badeutsa.

Lenengo Semiari ez deutsazube Echeraco bere poza quendu biar, iñora bialquetan dozubela; bardin ez badauca erremañuren bat, Necazaritzaiari fin Jarraiquetaco, edo impedimenturen bat, ezconquetaco, edo capacidadiaren falta, Familia gobernaitaco; eta ala, defecto oneic baguecua bada, ez deutsazube emun biar lenengo Semiari Estudioric; zergaitic lenengoac vide onetatic guichitan urten oi dau ondo, eta gueien bat pesadumbriac emutecua, izan oi da.

Escolatic beriala demporia galtzaca ecarri biarco dozube Echeraco izango dana zeuben Necazaritzaco Sallera, icasi daguian chiquitanic Necazari gogatsuba eta vicio baguecua izaten; baña ez deutsazube emun biarco, Maiorazgo izateco, beste Semiai baño esperanza gueiago, Humildiago egon dequizuben, Jaquinic, berari leguez beste Semeren bateri emun deiquiozubela zeuben Hacienda: verba guchitara reducitiarren puntu au, Echeraco izango dan Semiari ez quendu biarco deutsazube, ez da ere emun pozic.

Ez dozube ere bialdu biarco onelaco Semia edo Semien faltan Alabia iñolaco pretestuz Erritic edo Echetic campora Erderaz edo Guizarteco barri icastera, edo (zubec esaten dozuben leguez) Habilidadiac artzera; au izan oi da zubelacuen artian Diabrubaren engañu manifiesto bat: bezau biarco dozube, bai, ondo onelaco Semia edo Alabia

zeuben eta zeuben Antepasauben Necazaritzaco Ofizio noble eta honradubac daucan Languei mueta guztietan, baña beti zeuroen vistan eta obediencian daucazubela; eta dempora egoquian encargau biar deutsazube, bere Sucesore izango danagaz portau dedilla instruccino onegaz conforme.

Españan iñoizco demporan sortuco baliz negar garrizco libertadia, bacoitzac gura daben Legue edo Religino moduba gordetaco, exagotzi biarco deustezube zeuroen Ymiai (posible dozuben guztia) acomodaitia, eguiaz Christaun Catholico Apostolico Erromanuacez dixian Personacaz; eta euqui biarco dozube cuidadu guztiz andia, Echian sartzen dituzuben Servitzari eta Jornalemacaz, izan ez ditezen Eregiac, edo, Christaunac izanagatic, viziosuac, galdu ez dequizuben onein videz zuben Ymiac, eta biarbada zeuroc ere galdu ez zaitezten.

Echeraco izango dozuben Semia edo Semien faltan Alabia ez dozube permitidu biar ezcondu dedin bere Prima edo Primuagaz, bigarren graduco Aidetasunian daguanagaz, euqui edo espezariza anditacua izanagatic ere; zergaitic onelacuen Matrimonioac iguiñ ditu Eliza Ama Santac, eta ojala nuluac ez baliza Jaungoicoaren aurrian, dispensaraco motivo falsuac alegauba mediante: Aidetasun urrinagua izan ezquero, logarau leique batec gauzco eguinan Aita Santu Erromacuagandic Ezcontzaraco dispensia motivo chiquinaguacaz eta escrupulu guchiagogaz.

Ez dozube ere ezcondu biar Maioragzuia-

gaz, edo Maiorazguagaz Alabia bada Echeraco daucazubena, batez ere Familia bietatic bata ez badago aurreratuba, eta beste Ymiac acomodaitaco modioric ez badaucazube: Haciendaric bastante daucazube, ondo gobernaitan badituzube, eta Necazaritzaiari gogo onagaz Jarraituric zintzo Jocaquetan bazarai: ¿zer ecusten dogu guertaquetan dala, Maiorazguac Maiorazgacaz ezcontzaiac eguitetic? ez besteric Familia bietaco obligacinuac Juntaitia baño; eta, onei arpegui emungo deustelaco, empeñubagaz iragoten ditube Maiorazgo biac vizitza arrastaubac, beren Jatorriai izteiarren beren Haciendac libre eta batere obligacino bagaric; eta onen ondoren zer dator? ez besteric, euben Jatorrietan vanidadia, alperqueria, eta alperqueriagaz batera vizio mueta guztiac erraz sortzeco, vidia zabalduric gueldiquetia baño; bai, mesede au eta ez besteric etorrico lizaquie zuben Sucesoriai Haciendac gueiquetatic.

Nafarruan Bastango Partidan iñorc ez dauca lizenciaric, Juntaitaco bere Bazter eta Echiari beste Echeric, ez da ere estatubat Lur Partida barruban ez ezcontzaz, eta ez beste edozein Tituloz; eta, entzueria daucadanez, Eche Jaunac iñun obeto vizi ez dira an baño: cuidadu bada, nire Ylloba, zure Familian guertatu ez dedin, Echalde bat bacarra eucanian ondo iragotia, bi daucanian ez aiñ ondo eta guztiz gaizqui iru edo lau Echalden Jabe izatera etorten bada, egunoro esperienciac eracusten deus-

cun leguez.

Acomodaitan dozubenian Echeraco izango dozuben Semia, euqui eguizube ondo Josiric zeuben biotzetan, Espiritu Santubac esaten deuscuna: Gurasuac (diño) emuten ditube Echiac eta aberastasunac; baña Emazte prudente bat emuten dau eguiaz eta bacarric Jaungoicuac: azertau gura badozube bada zeuben Familiaren provechu eta grandeza eguiazcua, gobernau biar zarai Espiritu Santubaren aviso eta egui importante onegaz, firme beguiraquetan deutsazubela zeuben acierturaco Blanco bacartzat.

Mundubac eta Araguiac ondo zabaldu oi ditube beren Beguiac, eta listo ibilli oi dira, beren moduco provechubac eta grandezac Familietara carriaitaco Ezcontzeen bitartez; eta beren Senide maitia Diabruba ez da descuidaitan, indarra emuten Mundubaren eta Araguiaren pretensinuai; eta ala onein Espiritubagaz gobernaitan dirianac euqui anditaco Personia beti daucai Ezconguei anditzat, Personiaren aciera, oituera, eta biotzari batere casoric eguin bagaric: ez daube onela discurritan, eguiaz eta Jaungoicoaren gustora azertau gura dauben Christaunac; oneic bada lenengo beguiraquetan deuste Personiaren bezu, inclinacino, oituera, entendimentu, eta Familiaren gobiernu oneraco, Matrimonioan egoguiac derizten, beste circunstancia guztiai, eta guero beguiraquetan deuste Personiaren edertasun, eta euquiai, eta Munduban precio andian euqui oi dirian beste circuns-

cunstanciai, baña bigarren onei guchiago lenengoai baño; guztiac batera billaquetan badira obe, eta, ezin billatu bada Persona prudentia eta euqui duna, eta bai Persona euqui duna eta ez prudentia, leenago ecarten daube Echera ezcontzaz euqui bagaco Emacume prudentia prudencia bagueco Emacume eder, galant, eta euqui anditacua baño: gueien bat euquia daguan lecuban ez oi da Personaric, eta Personia daguan lecuban euquiric ez, biac batera nequez billatu oi dira:

Jaungoicoaren doia bardin bada Emacume prudentia Familia baten, eta zubec onelacua aplicau gura badeutsazube zeuroen Sucesore izango dan Semiari, eguin biar dituzube Animaco eta Munduco diligenciac bere billa, Animacuac Jaungoicoari sarritan eta benetan erreguquetan deutsazubela, aplicau deguizuben Erranguei prudente bat, eta Munduco diligenciac guero bere demporan eguin biar dituzube onelacuaren billa.

Igues eguizube Emacume barrichu eta verba Jarioa danagandic; zegaitic Espiritu Santubac esaten deuscu: Emacume verba Jarioa da Senar sosegau batentzat Agura baten Oñetaraco dan leguez Areazco Aldapia gora igotia: eta onegaz gañera oñelacuac ecarrico ditu beste calteric ere Familiara.

Igues eguizube Erranguei Alacorra danagandic, zergaitic Espiritu Santubac comparaitan dau Emacume Alacorra Chichina beñere faltau bagaric darion Fellatubagaz: aguirian dago bada, onerian Fellatuba daucan Echiac laster Lurre-

ra sausi biar dabela.

Igues eguizube Abaderen baten Ama de Casa edo Criada ogueta lau ordu osuetan izan dan Emacumiagandic; engañau ez zaiela bere euquien otsac eta bere azaletico portacinuac; ez diñot au Abadiac injuriaitiarren, eta bai bacarric considerauric Ardien antzeco Emacumien condicinua; beren gustoco pastuba bein mustau ezquero eta eria euqui ezquero, ez dira descuidauco, gustoco pastubari equiten; argaitic bada ez eguizube, onelaco Emacumeric Erran gueitzat pretendidu, batez ere bere Osaba edo Neba dan Abadiaren Echian servitan egona bada egun bat osuan.

Echeco papeletan onerian Echeco Anra bat bacarra iracurten da, zeña zan Erri onetaco Cura Parrocuen Arreba; eta bere demporan Eche au egon zan zorracatic Concursuan Justiciaren escubetan; eta onegaz gañera Sucesinoric guelditu ez zan; oraín eguia esateco, ez da constaitan papeletan, bera, ala bere Guizona izan ete zan causa eta motivo principal defecto bi oietaraco, bacarric bera Eche onetaco Echeco Anra zan demporan guertatu ziriala defecto bi oneic, bai.

Bere dempora batera ezqueroco Emacumeen artian izan oi dira

~~Igues eguizube, bere dempora batera~~
bat zubec osasun bonecuac ecusiagatic matrimonioan sucesinoric eu-
quiteco esperanza bagacoac; onelacuac bada zeintzubec dirian
~~ezquero Reglario ez daucan, Erran gueiagandic~~
Emacumiac eurac beren artian gauza faquintzat daucai; eguia da
defecto mueta onec Eliza sartaren leguiacaz conforme ez deusteera
~~enganaitan ez zariala guerrora etorri letezquion~~
gorten ezconquetia; ala ere zubec igues eguizube onelaco Erran
gueiagandic, guertatu ez dequizuben zuben hacienda besteren
~~esperanzirgaz; zergaitic, defecto au impedimentu~~
escubetara iragotia sucesinuaren falta faltaz arcotan guerta-
~~ba ez bada ere ezconquetaco, gueien bat izan oi da~~
tu oi dan leguen, eta onen ondoren beste buru auriteric asco
~~impedimentuba Sucesinoa izateco, eta guertatuco li~~
etorri ez dequizuben zeuben Erranaren aldetico artu
emunaren gañian; baita ere Diabrubac onelaco senar etu

Emaztiaren biotzetan erraz erein oi ditu batac
~~zaquezube, zeuben Hacienda bestegana iragotia Su-~~
bestiaganaco amorioaren falta, eta beren artco erroidubac:
~~cesinuaren faltaz~~: igues equizube Jasquinacandic ere.

Igues equizube ots anditaco Erran gueiagandic; zergaitic gueien bat Ots andiac urten oi dozube uts andiac, batez ere Erritic camporacuac dirianian.

Fratadu onetan, Emaztiac bere Esposoari ecarri biar deutsan, obedienziaren gañian verba eguin dodanian apuntauric itzi ditut, Emacumeen artian ecusi oi dirian, defectoric gueienac: billatu biar dozube bada, defecto eta vizio aietatic guichien daucan, Erran guei bat; bai; defectoric guichien daucana; zergaitic pecatu Originalian Jaioricaco Erran gueiric ez dozube billatuco, defecto bagaric zeuben Semia defecto baguecua izango ez dan leguez; eta procurau biar dozube, izan ez dedin zeuben Erran gueia, zeuroen Eche eta Familiaren calte andicuac izango dirian, defectuac ditubana.

Billatu biar dozube zeuben Erran gueitzat Nesca osasun oneco eta robusta bat, Echaldian Jaioa, Echaldian aziia, eta Echaldian ondo biarra eguiten dabela vizi dana Jaungoicoaren bildur santubana, Cale zalia batere ez dana; Calian iru egun osuac bere vizi guztian irago ez ditubana, eta azquenic zeuroen Familia moduraco egoguien dana, guchiago badauca ere.

Asco Emacumec daucai modu guztiz ona, dacarden, dote andia eta gueiago gastaitaco, asco igarri bagaric, eta ez daucai batere moduric, Dote barriric Juntaitaco: obiagua da bada zuben Echeraco, Familiari padecidu eraguin bagaric, or dagozen arbitrioacaz Dote barriac Juntauco dituban moduco Erran guei bat, guchiago badacar ere bestelaco

Ots anditaco Erran guei Buru iritzi eta Pamparroiac baño.

Esaeria da: Erritic campora doiana Ezcongueiaren billa, edo dua petardua emutera, edo petardua errecivitera: argatic (posible badozube) billatu biar dozube zeuroen Erran gueia Erri barruban; bada emen beti Jocatuco zarai gauza Jaquinen vistan, eta esperienziac eracusten deuscu, obiagua dala gaitz ezagutuba on ezagutu baguia baño: baita ere beti billatuco dozube Erricoaren aldetic edozein estu ordutan alivio eta amparu gueiago Campocuaren aldetic baño; ala aiquetara emuten dau Espiritu Santubac, esaten deuscun, sentencia labur onetan: obe da (diño) Vecinua urrian Anaia urrinian baño: eta informe charric ez oida etorten gueien bat Campocuaren gañian, eta erraz izan oida petardua.

Erran gueiaren gañeco instruccino oneic orobat, nire Illoba, aitu biar dituzu bere modura Suiñ gueiaren gañeco instruccinotzat, bardin Semien faltan Alabaren bat acomodaitan badozube Echera, presente daucazubela beti, zeuroen Alabac Guizon Juiziosuacaz ezconquetaco, Espiritu Santubac emuten deutsuben, encarguba.

Nola bada negocio importante onen aziertuba dan Jaungoicoaren Due particularra eta bacarra, berari escatu biarco deutsazube gracia santu au perseverancia, Humildade, eta confianza guztizcuagaz: bai; onela eta ez beste moduz azertauco dozube golpe importante au; Mundubaren eta Araguiaren Beguiac Zeruco Arguitasun bagaric onetaraco ichubac dira.

Ezconquetan dozubenian, Echeraco izango dozuben, Sucesoria, eta andic aurrera, vizi zariain bitarte guztian, ez eguiozube itzi zeuroen escu vidiai, eta ez eguizube eguin daucazuben Haciendiaren desacinoric Gaztien fabore; zergaitic, Espiritu Santubac esaten deutsun leguez, obe da zeure Semiac zeuri erregutu deguizuben, ezeez zeu egon zaitian, aic emun gura deutsubenen, beguira; eta ala aren Divina Magestadiac aconsejaitan zaitube, ez daguizubela eguin daucazuben Haciendaren renunciaric Gaztien fabore, eta, arnasia daucazuben bitarte guztian, ez zaitiala Jasarri iñoren beguira.

Eguin biarco deutsazube, bai, Semiari (emen usarioa dan leguez) partidu onradu bat, bere demporan galdu ez daguian bere acomodu ona; ofrecitan danian ocasino ona batez ere Alabeentzat, aprovechau zaitezte, ocasinuari Juaten itzi bagaric; zergaitic esan oi da, Ocasinua calbua dala; eta, bein Juaten itzi ezquero, ezin Vleetatic oratu leiquiola: baña beti eguin biar deustezube ala Echeraco Semiari nola beste guztiai beren acomodacinuac, zeuroen aldia segurutic gordetan dozubela; obe da bada, Vmiac egon ditezen Gurasuen obediencian, Gurasuac beren Vmien ostico peian, eta, Vmiac emun gura deustenen beguira, gueldiquetia baño.

Ez eguizube destinau zeuben Semeric Comerciora edo Fratura; zergaitic onelacuac Josten ditube berialatic beren biotzac interesiagaz; ifinten ditube beren asmo eta discurso guztiac, nundic Caudalic

gueien atajuz, eta aimbat lasterren eguin aldai-
quien, eta, onetaraco ocasinua euqui ezquero naiz
licitua, naiz contrabandocua, naiz engañuzcua,
aprovechaitan dira Ocasinuagaz; ez daube aimbes-
te discurritan gueien bat, zer modutacua dan, da-
torren, Caudala, nola nundic gueitu aldaiquien be-
ren Caudalac; eta ala erraz jausi oi dira Tratante
miserable oneic Diabrubaren lazuetan, eta vizi di-
ra gueien bat, condenaitaco, peligru gravian, Mun-
du onetan Papel brillantiac eguiten baditube ere;
diño bada Jesus Divinuac bere Evangelio santu-
ban; zer provechu dauca Guizonac Mundu guz-
tia irabaziagaz, bardin bere Animiaren caltian ba-
da? tacitius est carnetum transire per foramen Aculi
iracurri eguizube Mundubaren Trataduban
Aberastasunaren gañian escribiduric itzi dodana;
eta guazen orain Semien Estudioetara, nun gueien
bat Erri onetaco Gurasuac galdu oi dirian, eta galdu
oi dituben beren Umiac Munduraco eta Jaungoicora-
co. Estudioac edo Armac emun enian Semeren ba-
teri, beti guelditu biar zarai beste Seme bigaz gui-
chienez Echian; eta, Echian gueldiquetan dituzu-
ben, oneic izan biarco daube Necazari fiñac, espo-
nidu ez daguizuben zeuben Sucesinua bat bacar-
raren beguira; bada bat bacarrac urten leiquezu-
be condicino eta pauso donguetacuac; ill ere bali-
teque, eta beste Semeren batec bere Comercio, Estu-
dio edo Soldautzatic eruango lituque zuben Haci-
endac Indietara, edo, iñorc emen Secula beguiz gue-
iago ecusico ez dituban, Foquietara, emengo beste
Hacienda batzubecaz guertaquetan dan moduban.

Nire contura; Echeraco izango dan, Semia tanta bat edo bi humildiago egongo lizaquezube, beste Anae bat edo bi dacusela aldamenian, consideraurric, emun deiquiozubela, daucazuben, Hacienda beste Semeri, eta bera guelditu litequiala utsian: obe dozube bada euqui, nun escogidu, bat bacarraren beguira guelditu baño.

Emun biarco deustezube Estudioac aimbat Semeric guichienai, baña Necazaritzaia aimbat Semeric gueienai; euracaz obeto eta nasaiago erabillico dozube zeuben Labrantzaia, emen Echalderic ascotan ecusten dogun leguez; eta, eurai Estudiac emuten gastauco zeuquienagaz, eta Mirabiac eta Jornaleruac jango leusquezubenagaz, acomodauco zituquie decencia onian Necazaritzatic: ezin bada emun zeiquie zeuben Umiai Necazaritzaia baño destino obiagoric.

Estudioac edo Soldautzaia jarraiquetan deutsuben Semiacaz Ho! eta zein cuidadu andia euqui biarco dozuben, galdu ez ditezen, eta, beren Lagunai Echera vidia emunic, galdu ez deguizuben Echeco Emacume guztiac, zeuroen Alabac arrenengo diriala, eta orobat dituzuben beste Seme guztiac beren egemplu donga, Alperqueria, eta vizio mueta guztiac mediante; bada Estudiantien eta Soldaduben Querizpeiac bacarric zabalquetan dau Eche inguruban, sufridu ezin leiquian lezco, Zufo guztiz atsa; ez eiquezube esan iñoiz: Jaungoicoaren pusca batzubec dira; egemplu onagaz besteric emuten ez daube: ordu onian; izan ditezela ala, baña zeuroen Echetic campora.

Etara gura badozube, Semeren bat Ugazabaren bat servitara, eracutsi biarco deutsazube escribitan eta contubetan baña guztiz ondo, premina bada orretaraco, ifintia Semia habilidade ona daucan Maisu apartecuagaz, escusaitan ez dozubela, gastaitia conveni dana, ondo icasi arteraño escribitan eta contaitan, batez ere escribitan estilo corrienteco letra moduba guztiz ondo eta liberal; eta onegaz gañera falta eguiten badeutsa Gramatiquiac, icasi biarco dau au ere guztiz ondo; eta instruccino oneic, edo oneitatic batzubec ondo artu ezquero, bialdu biarco dozube Semia servitara aimbat edaderic guichienagaz, baña Humildadian eta obediencian ondo bezauric; bada onelaco Semiac nun nai zailduco da, eta eguingo dau Lecu.

Gurasuac batez ere zuben Oficiocuac ifini oi ditube beren Umiac Estudioetan, Fraile edo Abade izango dirian, ustian; artzen deuste Ume oneic beren Estudio andiac, edo (obeto esatiarren) Estudio andien pretestuagaz Asto andi batzubec eguinic, emuten dira Alperqueriara eta vizio mueta guztietara; beren Conseju eta egemplu dongacaz corrompitan ditube Errico Gazte inozentiac; eta, onela eguingo dirian gara eguinic, ez daquie zer eguin; Fraile izatia gura ez daube, eta, Abade izateco, batetic Capellaniaric edo Beneficioric aguiri ez da, eta bestetic Oficio altu eta santu onetaraco Alperqueriari eta vizioai aficionauric dagoza, Abade eguinic ere aldapa andien daucaila, onac izateco.

Ha! nire Illoba biotzecua, Frailien eta Abadien plazac gueitubagaz baño guichitubagaz Juateco presenteco demporac obiaguac dira ascuen iritzian, baita ere obiaguac, izango dirian, Frailien eta Abadien suertia edo Mundu onetaco vizi moduba estutubagaz, nasaitubagaz Juateco baño; eta gueroco dempora obiaguen materia onetaraco traza guchi dago; eta Eliza Ama Santa, beti egon bada Ministro santu eta eguiazcuen preminan, iñoiz ez gueiago orain eta emendic aurrera baño.

Orain bada, nire Illoba, ecusia ecusiric eta esperi-

enziagaz desengañauric, Estudioac jarraitu gura deutsuben, Semiagaz lenengo eguin biar dozuben gauza da, escribitan eta contaitan ondo icasi eraguitia, servitara juan biar dabenagatic esan dodan leguez; zergaitic ez daqui, zer guertatu lequiquion bere demporan; eta edozein ocasinotan euqui ezquero portacino onraduba, eta escribitaco eta contubetaraco abilidade ona, erraz billatuco dau beretaco laguin Ogui bocadu bat.

Onen ondoren icasi eraguin biarco deutsazube Gramatiquia guztiz ondo, baña guztiz ondo; eta, onetaraco ez badauca gogoric edo Bururic, ez daucazube zer cansau gueiago orrelaco Semiagaz; ezurrac gogortu bagaric daucan bitartian, demporaric galtzaca, eta berialatic destinau eguizube Necazaritzara; zergaitic orrelaco Semia Estudioetatic contau daiquezube galdutzat, bada ez deutsube, beñere buru vide onic etaraco.

Sarritan informau biarco zarai Gramaticaco Maisubagaz, ete daucan edo ez Buru ona eta gogo ona, icasteco, eta, informe onac emuten badeutsube beti, estudioric ez daucan guztian erretirau biarco dozube bere Lagunacandic Echera, zertan edo artan ocupau edo divertidu dedin Echeco Langueietan, bere estudioco errepasuac eguin ezquero: ~~eta, onetara obeto poztu dedin, inclinau ere biarco dozube Eizera eta Pezcara, diversino oneita-~~ bere diversinoco languei oneic izan biar daube Orrubaren ogbiernuba, frutalezaco Arbolac ifintia, beaustia, edadetia eta oneran beste langueiric asco; oneicaz gañera emun deiquiozube Eizeraco ~~ra~~ moderacina ~~ogaz~~ onan aficionauric apartau dedin eta pezcaraco poza eta aficinoa beren dempora egoquietan, baña Alperqueriatic eta Lagun donguetatic, eta ocupau ez eician etapezcan archiquetan dabenagaz jan edanac eguiteco beneta-dunacan; baicican guztia zeuzpi emuten, deutsubela Familiaren mantenimentuaraco, edo Onguillaren bateri zon deutsazuben agradezimentuaraco; badabere menienda eta jan edanacaz zuben Semia galdaco lizateque.

daguian diversino moderau eta inozentiacaz bere Alperqueriaco demporia.

Cuidadu ona ere euqui biar dozube onelaco Semiagaz, guichienez Illian bein confesau eta comulgau dedin, zeuroc aurrenengo egempluba emuten deutsazubela, eta oni leguez beste Familiari ere.

Bere vacazinoco demporetan errapasau eraguin biarco deutsazube, leen icasiric, daucana, aztu ez dequion, eta Estudioen iguintasunic sortu ez dequion; eta, leen esan dodan moduban, beti mañaz erretirau biarco dozube Alperqueriatic Echera, emuten deutsazubela ocupacino eta diversino inozentiac: baita ere aficionau biarco dozube Liburu santu batzubec iracurtera, icasi daguian, meditacino santu batzubec eguiten, eta Jaungoicoaren gauzetan gusto artzeen.

Azquenic bezau biar dozube onelaco Semia firme, baña beti firme, goiz Vguetic Jaguitera, eta Negu partian egunari eta gabari aprovechaitara; bada beste moduz ez Gramaticaric ondo icasico dau, eta ez andic aurreraco Estudioai ondo ~~seguiduco ditu~~ larraituco deutsa; eta puntu onen gañian obedecidu gura ez badeutsube Semiac, bestela icasten daben, pretestuagaz, ez eguiozube sinistu, eta berialatic ifini eguiozube Escubetan Achurra, esan leiquezuben gueroco emiendiaren ofrecimentubai batere, baña batere casoric eguin bagaric. Gramaticaco sugecinotic libre ecusi dedinian zuben Semia, eta aurreraco Estudioac asiric, andic aurrera dauca peligruric gueien, galtzeco ia Alperqueria gueiago mediante, ia bere Lagunen malicia gueiago mediante, ia iracurri leizquian, doctrina pestilencialez beteric dagozen, Liburu ascuen aldetic, Maisu Christaunen escubetan ibilli agatic

Liburu oneic: bardin Judegu edo Eregeren batec es-
cribiduba bada Liburuba eta quere Religin santuco punturen batzeben gañi-
an, ezin iracurri liteque onerian Libururic pecatu
mortal eta Arta santu Erromacuari reservauric daguan Escomunio nagusiaren azpian; baña Ju-
degu eta Erege onein artian badira batzubec, Chris-
tandadeco gauzac esplicaitan ditubenac, gure Fede
santuco puntubetan utsic eguin bagaric, Christaun eguiaz-
cuac balirian leguez, disimuluagaz ereiten deuscu-
benac beste aldebatic, Mandamentu santubetan eta
Fede santuco puntubetan gueldica eta igarri baga-
ric faltau eraguingo deuscuben, beste doctrina modu
batzubec eguiaren echuriagaz, eguinic azaletic
Christaun eguiazcuac eta barrutic Otso amorratu-
bac: onerian Liburuz gaurco egunian Bazterrac bete-
ric dagoza: oneic dira, zeuben Semiac Estudioetan
euquico dituben, galtzeco, peligrubac, eta zeñetatic
nequez librauco dirian, Jaungoicoaren bildur santu-
bagaz atrabesauric ez badarabilde beren biotzac.

Onelaco Semiac Jarraitu gura baditu bere
Estudioac Erritic campora, instante artan bertan,
zeñian manifestaitan deutsuben artaraco pretensi-
nua, ifini biarco dozube Necazaritzan, batere bera-
gaz disputan Jardun bagaric; zergaitic guztiz eder-
quiro cumpliduco dozube ala Jaungoicoraco nola
Munduraco zeuben obligacinuagaz, zeuben Umiai
eracutsiagaz ondo, daucazuben, Necazaritzaco
Oficio onraduba, eta lagundubagaz, escogitan dau-
ben, Estadubetatic, eta au ere zeuben facultadiacaz con-
forme, ez oneicaz gañera, Lur Joten dozubela misera-
blioc.

Necazari baten Semiac ez dauca derechoric

Gurasuai gastau eraguiteco, Campuan Estudioac artzeco, premina dan gara: ez eguizube bada sufridu zeuben Semeri orerian Estudioric, Funan icasi gura baditu ere; zergaitic orduban, Estudio eguiazcuai alde batera itziric, icasico leusquezube Funuen Estudioac; eta bestetic zeuroen vista eta errespetotic campora vizi dala, Ha! eta zer Choricumia biurtuco lizatequian Echera, icasiric guztiz biotzetic, betez betezian condenaitan dirianen, Estudioac! guazen orain, nire Ylloba, zeuroentzat egoguiac dirian, beste puntu particular batzubec Jotera.

Euqui eguiezube aimbat amorioric eta errespetoric gueien Religioso, Religiosa, Abade, Erregue eta bere bendeco Juez guztiai, eta orobat eracutsi biar deustezube zeuben Yme eta Familia guztiai batez ere dempora miserable oneitan, zeñetan, oneicatic gaizqui esatia, Modatzat artu oi dan, Aita Santu Erromacuagandic asi eta bere bendeco Obispuai ere parcatu bagaric.

Orobat da Moda, gaizqui esatia Eliza Ama Santaren Amarren eta Primiciacatic, Eguzarietan eta Defuntuben funcinuetan eguin oi dirian Ofrenda santubacatic Erri oneitan; Jausi ez zaitiela bada Infernuco Catedratico onein lazuetan: euqui eguiezube, esan ditudan, Persona onei Amorio eta errespeto particularra: pagau eguiozube Eliza Santari fidelidade guztiagaz bere Amarren Primiziac: ez eguizube erretirau Eguzarietan eta Defuntuben funcinuetan zeuben Oguiaren Ofrenda decentia, beste ascoc erretiraitan badaube ere: orainguiño leguez

aurrera ere asistidu eguiezube costumbre dozuben limosniagaz, esquian datozen, Religiosoai; eta sinistu eguidazube, diriala Obra oneic Jaungoicoaren gusto andico Obrac, eta, biar dan fin santubagaz eguin ezquero, diriala ere merecimentu andicuac.

Jaquiten badozube noiz baiten, Religioso edo Abaderen batec gaiztaqueria graveren bat eguin dabela, ez eiquezube ao utsez ere aitatu orrelaco gauzaric, eta, beste alderen batetic publicau bada orrelacuen gaiztaqueria, ez eguiquezube iñoiz esan: Frailiac eta Abadiac baize Mutillac! bada Comunidadiac ez dauca zer gaizqui entzun, Comunidadeco Miembroren batec edo bestec gaizqui eguinagatic: ¿Apostolu Santubac zer galdu euben beren Lagun Judas traidoriaren gaiztaqueriagatic? ¿eta zer daucai, zer gaizquiric entzun Ezcondu onac, Ezconduben artian aimbeste Madaricatu eta Donga egonagatic?

Estaduric santubeneco Christaunac berez Pecatariac dira, eta ala Jausi litezque pecatu grave mueta guztietan, Mundu zabal onetan ocusi izan dan leguez; argatic bada, euqui biar deustezuben, amorio errespeto eta veneracino guztiz andiac ez deutsube eragotzi biar, atajaitia, ala zeuroi, nola zeuroen cuidadura daguan Familiari etorri alditezquian, calte ala temporalac nola Espiritualac orrelacoren bategandic, bardin bere Estadubari zor deutsazuben errespeto eta veneracinoa mediante artzen badeutsube, edozein gauza esateco, eta eguiteco libertade peligrosuac, eta, pecatubac deseguindu biarrian, oneic eguiteco, eta

eraguiteco peligruban ecusten badozube; lenengo bada zor deustezube amorio eta veneracino guztia zeuroen carguco obligacino pisubai; esaeria da: Cortesa izatiac ez dau eragozten, baliente izatia.

Humildadiaren gañeco Trataduban advertidu zindudan, nire Illoba, ez dozula eguin biar promesic Confesoriaren dictamen bagaric, eta orain advertencia au berau barriztaitan deutsut ala zeuri nola zeure Emaztiari, eta encargaitan deutsubet, beste aimbeste advertencia emun deguiezuben zeuben Ume guztiai; eta ala, zeure Emaztiac nola zure Umiac circunstancia au bagaric eguingo baleube promesen bat, ez deustezu iñolaco moduz ontzat emun biar, baizican egon biar zara zeure Confesoriagaz, eta, onec esaten deutsun, escu vidiac permititan deutsuben gara, deseguindu eguiezu beren promesa, bardin, Familiaren gobiernu oneraco ala conveni dala, baderitzazu.

Emacumiac izan oi dira guein bat onetara inclinadac, eta berentzat, Santa Maria zembat urrinena dan, aimbat milagrosagua eta obiagua izan oi da, ari beren promesac eguiteco; eta guero beren cumplimentubetaraco iñorc Familietan ez dauca aimbeste embarazu eta peligru, nola Emacumiac; ciudadu bada, nire Illoba, nola ordenaitan dituzuben zeuben eta zeuroen Bendecuen promesac eta Erromeriac.

batez ere gura dituberiar cumplidu beren promesac. cumplidu biar diran Santuarioco funcinoric andieneco eguitan beren ontzeco Arca eta Mutiller lacuntasunian, eta Jan edararen prevencino magaz; ta! guerer bat promes madaricatubac! ciudadu bt. Familiaco Buru danari Espiritu Santubac esaten deutsa: Escu asco dagozen Lecuban ichi eguizu Toquiac: erabilli eguizube bada beti Quiltzaz ichiric zeuroen Arca, Troge, eta beste gorde lecubac; esaeria

ere da: Arca ideguian Iustubac pecatu eguiten dau-
gueiago ere esaten deutsa: contau eta pisau eguizu
emuten dozun edozein ere gauza; eta asentau egui-
zu zeure artu emun guztia: diligencia eguiaz
guztiz ona, Jaquiteco batec urtiaren azquenian,
medraubagaz ala galdubagaz ete doian, eta,
zer erremediau badago, aurreraco erremedioa ifin-
teco, ifini biar dan, lecuban: baita ere diligencia one-
gaz ederquiro atasau litezque, Echeetan batere
escrupulo bagaric eguin oi dirian Contrabando
ocultuac, eta, iñoren calte bagaric Echeco baquera-
co esaten dirian, guizur chiquiñacaz guztiz polli-
qui estalduric, eta disimulauric gueldiquetan di-
rianac.

Zeuroen Familian izan biarco dozube igua-
lac (esan gura dot) ez zeuroentzat bigunac eta
erruquiorrac, eta bestientzat gogorrac eta erru-
qui guchicuac: osasuna daucazuben guztian ala
zeuroc nola Bendecuac, ondo biarra eguin eta era-
guin biarco dozube; baña bein gaiso̅tu ezquero, edo
ez gaiso̅ bai gaiso̅ macaldu ezquero, ondo senda-
tu artian erruquiorrac izan biar dozube ala Fami-
liacuacaz, nola zeuroen Burubacaz: estimau biar
dituzube ere asco zeuroen Senidiac, batez ere zeuro-
en compañian eta zeuroi lagundubagaz vizi diri-
an bitartian.

Azquenic: conveni da, Matrimonioan Ezcon-
dubac beren Personetan alcarri agradaitaco cuidadu-
ba euquitia, baña Iaungoicoagan eta Iaungoicoaga-

tic, eta ez Mundubagan eta Munduco pompa eta vanidadiacaz conforme; eta ala zenuoc exe batac bestiagana co Personiaren agradu onetan arreglau biar dituzube zeuben gustuac Jaungoicoaren voron-date santubagaz conforme, eta ez Munduco vani-dadiaren Jazralla zoruen voron date madarica-tubagaz conforme; bai; nire Yloba; poztau zaitez-te onela zeuben Matrimonian, eta menospreciau eguizube frescura onagaz poztacino onen contraco murmuracino guztiac, zu eta zure Amaztia ez zabil-tzailaco beste Mundutar zoruen gustora.

Familietaco Burubac, Necazariac izanagatic exe, euqui biar ditube Almoxzu, Bazcari, eta Afari ordubac señalaubac; eta, posible dan guztian, gorde eraquin biar ditube Ordu oneic, euracgose ez badi-ra exe, neuztzeen ez ditubela beren Fripaacaz bestien Fripaac; eta procuzau biar daube, Junto egon dedin Fa-milia guztia Ordu señalaubetaraco, bacoitzac bere es-cu azteco Lan gueiau itzinic; bada, leenago eguiten ez dan, Lan gueia eguingo da guerago; diligencia one-gaz atafauco ditube beren Bendecicen quefaac, eta be-ren Jan orduco prevencinuac eta Lapico bacarra de-sequinduco ez daube exazino ascotan: baña posible ez bada, guztiac Ordu señalauaraco Junto egotia, Fami-lia baztez diferentetan banaturic daqualaco, conveni da alcar ichodetia, Jan Orduza Juntaitaco diziian, guzti-ac Juntau artian: eguizube, nire Yloba, zubec exe ozela.

Labe Su bacoitzian exe biar dozube, Aste guztia-co premina dozuben Oguia eta Artua; ibilli ez zaitez-ten puntuban bein Labe Suquiñen; bada Españan an-tiguaco esaeria da: Echian ez badago gobierno ona, achimurca dua Oguibiguna: bastante dituzube, nire Yloba, Matrimonioaren gañeco nire aviso oneic; vizi zai-tezte bada euracaz conforme, Jaungoicoac bete daguian

firmezaz eta bendicinoz zuben Matrimonioa eta Echia emendic Mundubaren azqueneraño.
Yracurri eguizube Liburu onen azquenian ifinten dodan Matrimonioaren Frataduco gueigarria.

Progimuac

Emen Lurraren gañian, vizi garian, dempora guztian ezin vizi guindezque Lagun Progimuac bagaric; Jaioten gara besteren laguntasuneco premiñan; eta orobat, ill arteraño, vizi gara bata bestiaren premiñan; iñor ez da bastante beretzat, dan, guapuena izanagatic; zer eguingo leuque bat bacarrac Mundu onetan besteren laguntasun bagaric? Ho! Jaungoicuaren traza miragarria, guri humildiac izaten eracusteco, eta gu obligaitaco, emutera batac bestiari, zor deutsagun amorioa, agradezimentuba, erruquia, eta Justicia!

Bein batian Judeguben Legue zarreco Doctore batec itandu eutsan Jesus Divinuari moduonetan, San Matheo Apostolu eta Evangelistac esaten deuscunagaz conforme: ¿Maisuba, zein da Legueco Mandamenturic andiena? eta erantzun eutsan Jesus onac: amauco dozu zeure Jaungoico Jauna zeure biotz guztitic eta zeure Anima guztian eta zeure Espiritu guztian; au da Mandamenturic andiena eta lenengua: guero bigarren Mandamentuba onen antzecua da: amauco dozu zeure Progimua zeure Buruba leguez: Mandamentu bi oneitan dagoza estribauric Legue guztia, eta Profetac.

Jesus Divinoaren errespuesta onetan dacuscu, Caridadeco virtute santubaren aldetic, dau-

cagun, obligacino onec puntu bitaza beguiraquetan dabela (au da) Jaungoicuagana eta Progimuacana, Jaungoicoagana fin bagueco Ontasuna eta Ontasun guztiaren Iturria dan leguez, eta Progimuacana, Jaungoicoaren Semejanzac dirian leguez argaitic amau biar dogu Jaungoicua beste gauza guztiac baño gueiago fin bagueco Ontasuna eta Perfeccinua dan leguez, eta Progimuac amau biar dituqu Jaungoicuagatic (au da) bere Echuac eta Semejanzac dirialaco.

Nola bada eguiñac gaxian Jaungoicoaren antzera eta semejanzara, ez bacarric amau biar dogu Jaungoicua gauza guztiez gañera, baita ere bere amoxioz Munduratu onetan bere Antzera eguiñau dirian guztiac, nola dirian Progimuac.

Guizonac Jaungoicoagaz daucan, Semejanza bi modutacua da: bata bere Naturaleziaren aldetic; zergaitic daucan Anima bat Espiritu piztuba, eta illcorra ez dana; au da lenengo Semejanza: bigarren Semejanza da Jaungoicoaren Graciaren eta Inozenciaco Estadubaren aldeticua: ez dau iñoiz ere galtzen Guizonac lenengo Semejanza; baña bigarrena bai pecatu mortalagaz.

Gure Jaungoicua (diño San Juan Evangelistac) Caridadia da, eta, Caridadian bizi dana, dago Jaungoicoagan eta Jaungoicua beragan: Jaungoicoaren Arpegui zoriontsua bada gozatuco badogu eternidade guztian, ez dogu bastante bere antzecuac izatia Naturalezaz, baita ere izan biar gara bere antz

cuac bere Graciagaz, eta guere vizitza inozentiagaz.

Beraz aren Divina Magestadia Amoriosa bada, eta Zeruban guztiac Amorioan vizi badira, bardin gu bere antzera vizico bagara, vizi biar dogu alcarreganaco amorioan, ucatu bagaric amorio santu au iñori, gure gaitz Eguillac izanagatic ere, batac bestiari sufritan eta parcaquetan deutsagula agravioac eta insuniac, Jaungoicuac guri sufritan eta parcaquetan deuscun leguez guere pecatubac bere Seme Jesus Divinoaren Pasino eta Criotza santubaren bitartez; batac bestiari lagunquetan deutsagula faltsoteria eta enuateria, bestearen laguntasun bagaric falso eta enuan ezin ditubanbere obligacinoco cargac, Jaungoicuac guri lagunquetan deuscun leguez bere Gracia santubagaz, Mandamentu santubac gordetaria eta cumplitaria: bai, nire Alloba; au da Jesu Christo gure Jaunac ifini euscun Legue santuba, San Pablo Apostolubac esaten deuscunagaz conforme: batac bestiaren cargac (diño) enuan eguizube; eta onela cumpliduco dozube Christoren Leguia: justua eta errazue onian fundaunicaco Leguia da, gure premiñan dagoan, tristiari aldoguin lagunta-suna eguitia, gura badogu Jaungoicuac lagundu deigun guere premiñetan.

Jesu Christoren Discipulu eguiazcuac daucain. Escaraapela edo señalia Mundu onetan ezagutubac izateco, da batac bestiaganaco Amorio santu au; ala esacusten deuscu aren Divina Magestadiac bere Evangelio santuban: onetan (diño)

ezagutuco daube guztiac, zariaila nire Discipulubac, bardin alcarreganaco Amorioa badaucazube: eta Jesus Divino onec beronec, guri eracustiarren, Amorio onec ez dabela izan biar nola naicuac eta Ao utsezcuac, baizican eguiazcuac eta biotzezcuac, diño bere Evangelio santuban modu onetan: au da nic aguinquetan deutsubedan gauza; alcar amau daguizubela, nic amau zaitubedan leguez: bai, nire Illoba, amau biar dogu alcar, berac amau guinduban leguez (au da) eguiaz eta biotzetic, berac eguiaz eta biotzetic amau guinduban leguez, Curutzian gugatic bere vizitza emuteraño.

Amar Mandamentu Santubac, bast Mandamentu Eliza Santarenac eta zazpi Sacramentubac ifiniric dagoza, guere biotzetansortzeco Jaungoicoaganaco, eta Jaungoicoagatic Progimoguztiacanaco Amorio eguiazco au: Amorio onegaz cumplidu ezquero, guztia eguinic dago, eta, onetan faltau ezquero, guztia galduric dago.

San Pablo Apostolubac eracusten deuscu, Amorioac euqui biar dituban, condicino edo propiedadiac, eguiazcua izateco: Caridadia (diño) sufriduba da; erruquiorra da; Caridadiac ez dauca imbidiaric; eguiten daben gauza ez dau eguiten utsian; ez da arroquetan; ez dauca honriaren Codiciaric; ez da aserraquetan; ez dau pensaitan gauza dongaric; ez dau contenturic artzen pecatubaren gañian; eguiari, bai, biotz alegria eracusten deutsa, eta onein conformeco beste condicinoric asco

señalaitan deusca, Amoxio a eguiazcua izateco.

Doctrina santu onen principioan Apostolu gloriozo onec beronec desengañaitan gaitu, Cazidade edo Amoxio eguiazco au bagaric utsac gaziala Jaungoicoaren auxiian, daucagun Hacienda eta Caudal guztiac empleauco baguitu exe Pobriac mantenitan; guere Corputzac Suzco Maxtixiza entregauco baguitu exe; Mendiac alde batetic bestera Milagroz aldaquetaco, premina dan gara Fede santuba baguenca exe: utsa dala, bada diño Apostolu gloriosuac, esan dodan guztia Amoxio eguiazco au bagaric; aiñ ciertuba da, condenauco guiñategui ala Amoxio eguiazco au bagaric, Milagruac eguingo baguitu exe: beraz amaubiar dituzu Lagun Prozimo guztiac, San Pablo Apostolubac esplicau deuscun, circunstanciacaz adornauric daguan Amoxio bategaz; bai, nire Illoba, onegaz, salvauco bagara, eta ez beste Amoxioagaz.

Luzaren gañian Prozimotzat aiquetan dira, Zeruco Bienaventuzantzaia lagaitaco, capazidadia daucain, Criatura guztiac, beren Ameen Sabeletan formauric dagozen Auretatic asi, eta Agonian dagozen, Atso eta Aguza zaretarañeco guztiac, naiz izan ditezela Christauen Catolicuac, naiz Eregiac, naiz Judegubac, naiz Gentilac, naiz Adisquidiac, naiz Etsaiac, eta gaitz Eguillac: Purgatorioco Animac exe aiquetan dira eta contuitzan dira guxe Prozimotzat; eta, segun daucain, Jaungoicoaren Gloxian sartzeco, dagoza guxe Oxacino, Obra on,

eta sufragioen laguntasuneco preminan: Zeruco Ainguerubac eta Santubac ere dira gure Progimuac, baña gure Defensoriac eta vizitzaco Ispillubac.

Bai, nire Iloba, Jaungoicuaren antzecuac izango bagara bere Gracia santubaren bitartez guere vizitza inozentian, amau biar ditugu ez bacarric Progimo justo eta onac dirianac, baita ere dongac, eta Naturaleziagazco Semejanza bacarra Jaungoicuagaz emen Lurraren gañian daucain, guztiac; (Infernuban condenauric dagocenac ez dira gure Progimuac) eta ala, zeure gaitz Eguillac eta gorroto zaitubenac faltaitan badaube, zu amaitaco, daucain obligacinuan, oñian gueldiquetan iatzu, eurac amaitaco, daucazun obligacinua; eta bacoitza izango da juzgaduba bere obligacinuacaz conforme.

Doctrina au ez da niria, baicican Jesus Divinoac eracusten deuscuna bere Evangelio santuban: amau eguizube (diño) zeuben Etsaiac; on eguiezube, zubec gorroto zaitubenai, eta Oracino eguizube zeuben Perseguitzalle eta gaizqui Esalliacatic, izan zaitezten, Zerubetan dagoan, zeuben Aitaren Semiac, zeñac zabalquetan daben egunoro bere Eguzquia Onen eta Dongueen gañian, eta eguiten daben Euria Justuen eta Pecatarien gañian; zergaitic bacarric amaitan badituzube, zeuroc amaitan, zaitubenac; ¿zer premio izango dozube? ¿Publicanuac ere au eguiten ez daube? eta Diosala bacarric zeuben Senidiai eguiten badeustezube; ¿zer gueiago eguiten dozube? ¿Jentilac ere au eguiten ez daube? izan zaitezte bada perfectuac, zeuben Aita Zerucoa perfectua dan

leguez: beste aimbeste, gaitz Eguillai eta Etsaiai zor deustegun, Amorio onen gañian eracutsi euscun aren Divina Magestadiac, guexe eguneroco Aita guziaren Oraciuac daucan, bost garrengo peticino edo escaride santuban, zeñian escaquetan deutsagun; parcatu deguigula guexe zorrac, guc guexe zor diuai parcaquetan deustegun leguez.

Zer bada? ¿obligauaic gaoza amaitaza gaitz Eguillac, eta ez da lizito Dongai goyzoto euquitia? bata eta beste, nire Ylsoba, obligauaic gaoza, onelacuac amaitaza, eta euzai goyzoto euquitera (au da) Persona c amaitaza, eta, Persona c eguiten dituben, gaiztaqueriac eta pecatubac biotz biotzetic goyzoto izatera; zergaitic Jaungoicuac exe, amorioa deustela bere Criaturai, goyzoto eguiazcuia deuste, bere Criaturetan ecusi oi dituban, pecatubai.

Aren Divina Magestadiac castigau exe oi ditu emen edo beste Mundubau, pecatubac eguiten dituben, Persona Malechoriac; eta aguinduric dauca Emperadoxe, Erregue, eta bere Justicia santuba Mundubau administraitaco, encargu ba daucain, beste Ministro guztiai, perseguidu eta castigau daquiela Malechoxe mueta guztiac, emuten deustela, premina dauben, autoridade edo escu vidia, onelacuai vizitza guentzeco, merezitan daubenian pena lastima garbiau Malechoxe onelacuac, gobiernu onexaco ifini-

ric dagozen, Leguiacaz conforme.

Gorroto mueta au, eta emendic sortzen dan Benganza publicua dira inozentiac, perfectuac, santubac, eta argatic Jaungoicoaren gustocuac; onela David Erregue eta Profeta santubac gorroto eusten Pecatariai, esaten deuscunian: Dongac gorroto izan ditut: gorroto perfecto bategaz gorroto nituban: eta Erregue zan leguez ascori vizitza quendu eusten, Jaungoicoaren vorondate santuba cumplitiarren, santuba eta biotz bigunecua bazan ere; eta, beren delituacatic Eriotzia merecitan euben, Guizon biri parcatu eustelaco, bere Eriotzaco orduban escrupulubac arturic encargau eutsan bere Seme eta Erreinuco Sucesore Salomoni, Guizon, berac castigau bagaric izten zituban, biaien castiguba; eta ala Salomonec quendu eusten vizitzac biai, bere Aita onaren aguinduba cumplitiarren.

Malechoriac modu onetan gorroto izatia, eta castigaitia, eracusten daben Doctrina au ez da niria, baizican Jaungoicuac berac eracusten deuscuna bere Escritura Sagraduban; eta cuidadu, nire Illoba, ez sinisquetiagaz iñoiz Doctrina santu onen contraco doctrinaric.

Gorroto santu onetatic sortzeen da, euqui edo artu oi dogun, alegranza eta contentuba, entzuten dogunian, Justiciac preso artu ditubala onelaco edo alaco Lapur, onelaco edo alaco Eriotza guilla, eta onelacuai emuten deustenian merecitan dituben beren castigubac: gorroto santu onegaz conformecua ere da, artzen dogun, tristura edo sentimen-

tuba, onelaco Malechoriac igues eguiten daubenian Carzelatic, edo urteten daubenian libre castigu bagaric, edo merecitan dauben baño, castigu asco guichiagogaz, artzeen daubela emendic animua, leen dongac bazirian, aurrera eurac eta euren egemplura beste asco dongaguac izateco; egui santu onen pruebaraco da David Erregue eta Profeta santubac esaten deuscuna: alegrauco da (diño) Justuba, dacusenian venganza (au da) pecatuben castiguba; garbituco ditu bere Escubac Pecatariaren odolian: Ho! eta zeiñ andia ere izango dan Juizioco egunian, Justubac euquico daben, poza eta contentuba, ecusiric, emen aimbeste estutu euben eta bere nequiaren frutuba lapurtu eutsain, Etsaiac duazela Infernubaren ondarrera beren gaiztaqueriacatic, eta bera betico descansura, bere Etsai Perseguitzallac amau zitubalaco, eta, biotzetic parcaturic injuriac, euracatic Jaungoicoari erregutu eutsaláco!

Aguirian dago bada, pecatu mortalaren azpian daucagun obligacinua, amaitaco guere Etsai eta Perseguitzallen Personac, parcaquetan deustegula biotz guztitic, eguiten deuscuben, gaiztaqueriac, Jaungoicuari erreguquetan deutsagula beren parcacinuagatic eta onagatic, eta, gure preminan aurquiquetan badira, eguiten deustegula, aldogun, ona, Espiritu Santubac encargaitan deuscun conformidadian: zure Etsaia (diño) gose dala aurquituco baliz, emun eguiozu Jaa-

ten; egarri izango baliz, emun eguiozu Vra edateco; zergaitic bere Burubaren gañian pillatuco dituzu Caridadezco brasa izioac, eta Jaungoicuac pagauco deutsu.

San Pablo Apostolu gloriosuac ondo icasiric eucan doctrina santu au, Erromacuai, escribidu eusten, carta baten Christaun guztien instruccinoraco esaten eustenian: Amorioa euqui eguizube ficcino bagaric, gorroto dozubela gauza donguia, arrimaitan zariaila gauza onari: bendecidu eguizube perseguitan zaitubenai; bendezidu eguizube, eta ez eguizube gura maldezidu: vizi zaitezte, iñori gaitza gaitzagaz pagaitan ez deutsazubela; nire biotzecuac, zeuben escuz vengantzaric artzen ez dozubela; zedidu eguizube, bai, besteren Coleriari; zergaitic esanic dago Escritura Sagraduban: diño Jaungoicuac: niretzat itzi bedi venganza, eta neuc pagau eraguingo deutsat; bai, zure Etsaia gose dala egongo baliz, emun eguiozu jaten, eta, egarri bada, emun eguiozu edaten; zergaitic, onela eguiten dozula, pillatuco dituzu bere Burubaren gañian Amoriozco Brasac: ez eguizu gura izan, bestiaren gaiztaqueriac vencidu zaguian; vencidu eguizu, bai, onian bere Malicia: au guztiau diño bada Apostolu gloriosuac guere Etsaiacaz euqui biar dogun Amoriozco tratamentubaren gañian. Guere Etsaiacaz bada vengaitia, eta, vengaitaco, deseo utsari guere biotzetan lecu emutia, pecatu da; eta orobat da pecatu, guere Etsaiai guertaque

tan dirian, desgraciacaz contentuba, eta dichacaz sentimentuba artzeia ezagupera eta vorondate osoagaz; argatic Espiritu Santubac advertitan gaitu modu onetan: Jausi dedinian zure Etsaia, ez zaite alegrau, eta bere desgrazian ez bedi poztu zure biotza.

Jaungoicoaren privilegio bacarra da bada, eta, bere Justicia santuba emen Lurraren gañian administraitaco, cargu publicua daucain, Juezen obligacinua da, gaitz Eguillen contraco venganza artzeia; baña, onelaco Juezac perseguitan ditubenian Malechoriac, preso artzen ditubenian, afligitan ditubenian grillu eta Catiacaz, eta azquenic castigaitan ditubenian, merecitan dauben moduban, ez gara alegrau biar Miserable onein suerte lastimagarriaz, beren gaitza dalaco, eta deustegun, gorrotuagatic; bai, bacarric Justiciari eta Publicuaren gobiernu onari zor deustegun Amorioagatic; eta ala Miserable onei beren afliccino eta tormentuben erdian zor deustegu Amorio eguiazcua eta erruqui guztizcua, aliviaitan ditugula beren pena eta tormentubetan; baña beti, sufridu eta venerau eraguiten deustegula, Juezac aien castiguraco emuten dituben, Ordena eta Providencia Justubac: onela portaitan bagara, amauco ditugu eta gorroto izango ditugu eguiaz eta Jaungoicuaren gustora guere Etsai, gaitz Eguilla, eta Malechoriac.

Santo Thomas Elizaco Doctore Jaquintsubac eracusten deuscun conformidadian Amorio eguiazco onec lenengo asi biar dau Jaungoicoagandic, gauza guztiaz gañera amaitan dogula bere fin bagueco

Ontasuna mediante, eta guero, aren Divina Magestadiari zor deutsagun, Amorio au mediante jachi biar gara, bere Semejanzac, eta Bienaventuranza eternua lograitaco capazaz, dirian, Criatura guztien Amoriora; onein artian nor bera da lenengo; eta ala Jaungoicoagaz ostian norc berac bere Buruba amau biar dau aurrenengo; bada bere Burubari Amorioric ez deutsanac lenengo, ezin amauco dau Progimua bere Buruba leguez: nor beriaren ondorenguac Amorio onetaraco dira Gurasuac; guero Ezconduben artian beren vizitzaco Laguna; guero Semiac; guero Senidiac; eta emendic aurrera Aidetatic asi eta azquenengo Progimo atze eta Donguetarañocuac: Amorio-eguiazco onec gorde biar daben orain apuntauric itzi dodan, Ordenaren gañian asco dago zer esan; baña ni contentauco naiz, advertidubagaz, casuac badiriala, zeñetan gaozen obligauric, socorritara Progimuari guere vizitzaiaren costuz, bardin onenbestegaz asegurau albadaiquegu, condenauco lizatequian, Progimuaren Salvacinua.

San Pablo Apostolubac esplicaitan dituban Amorio eguiazcuaren propiedade edo condicinuetatic bat da, ez aserraquetia, leen apuntauric guelditu dan leguez: baña jaquin biar dozu, nire Illoba, diriala Aserre edo Colera mueta bi, bata da, Errazoiari eta Justiciari servitan eta obedecitan deustena, Criada batec servitan eta obedecitan deutsan leguez bere Echeco Anriari; Aserre modu au santu-

ba eta ona da eta Amoxio eguiazcuaren Lagun fiela; Asezze onegatic aiquetan da, David Çuzegue eta Profeta santubac esaten deuscunian, asezza-tu gaitiala, eta ez daigula, pecaturic eguin nai

Bigarren Asezze edo Colera moduba da, Çuzazoiaren eta Justiziaren obedienziatic urte-ten dabena, eta euren gañian Aguintari principal-tzat jasarten dana, Criada bat bere Señoraren contra jaguiten dan moduza, obedezidu biarrian aguinquetan deutsala bere Çcheco Arriari; Asez-ze au beti donguia da, eta Asezze onegaz Amoxio eguiazcua ez da beñere asezzaquetan

Familietaco Guzasuac, eta besteren cargu eta cuidaduba daucain, Christaunac baliau biar dira ocasinoric ascotan beren Bendecuen artian lenengo Asezze edo Colera muetiagaz, alborotau bagaric diadarca Leoe baten moduza beren Ben-decuac eta Familiac; baña beti escusau biar dau-be bigarren Asezze edo Colera mueta, zeñagaz Amoxio eguiazcua ez dan beñere asezzaquetan.

Amoxio edo Caridade santu onec ez ditu ezaguquetan Progimotzat, Jaungoicoaren Seme-janza bagueco dirian, Ganau, Animale, Pistia, Çgazti eta Pezca mueta guztiac; eta ala, oneic gue-re onezaco daucain lequez beren destino guztia, euracaz valiau oi gara, gura dogun, moduban, eta, beren Jabiac izan ezquero, naiz gorroto izan dai-gula, naiz amau, naiz jo, naiz ill daigula, ez dogu Caridadian faltautan, bardin beste alderen batetic

guere paciencia guichiagaz Jaungoicoagaraco Caridadian faltaitan ez badogu: oxobat faltau gueique Caridade santu onetan, gaizqui valiaubagaz Criaturra oneicaz, ez eurrai zor deustelaco Caridaderic Proximuai leguez, eta bai ausiten dogulaco, Jaungoicuac guere eta bere Criaturen artian ifinitic daucan Ordena eta Equilibrio santuba, ez emuragaz bere Criaturai fin eta destinoa bera, zertaraco criau izan zituban, esplicauric itzi neben modubau Munduba-ren gañeco Jratadubau.

Equia da; Criatura oneicaz bat gogorra izatia eta cuela, da señale donguia; eta, contrarra, bat biguna eta erruquiorra eurracaz izatia da señale ona, Espiritu Santubac aiquetara emuten deuscun leguez: Justuba (diño) cargu eguiten da bere Ganauben Naturaleziagaz; baña Madarricatuben edo Pecatarien Entrañac dira cuelac.

Diferenciautan gara Ganaubetatic; zergaitic guc daucagun Anima bat Espiritu puruba dana eta illcorra ez dana, eta onen medioz gara Jaungoicoaren antzecuac; eta Ganaubac ez daucai onelaco Animaric; ala Ganauba (oxobat beste Animale, Pistia, edo Pezca mireta edo Egaztia) ill ezquero, bere exiotziagaz acabaitan da guztia, baña gu illagatic, gure Animia Corputzetic separauric gueldiguetan da viziric, Jaungoicuac bere Justicia bardiñagaz emuten deutsan, destinuan, berriz biuztu arteraño Resurreccino generalian, izan eben bere Corputz propioza, Religiua-

ren gañeco Tratadubar esplicauric guelditu zan leguez: Ganaubac ez dira gobernaitan Errazoiagaz; gu bai: Ganaubac ez daucai batac bestiaren preminaric; guc bai: Ganaubac gure servicioraco eguinac dira; gu aien Jabiac gara: Ganaubac dabiltza lau Oñen gañian eta Lurrera beguira; gu Oiñ bien gañian eta Zerura beguira daucagula guere Burubac: ibillera diferente bioneitatic San Basilio Elizaco Doctore Jaquintsubac etaraten daben consideracino santuba da, gu, Zeruraco eguinac garian leguez, gabiltzela Burubacaz Zerura beguira, andic esperaitan ditugulaco guere Ondasun eta socorru guztiac; eta Animaliac, Zeruracuac ez dirian leguez, dabiltzela Lurrera beguira.

Lagun Progimoen artian badira batzubec, zeñai Amorioagaz gañera zor deustegun Obediencia eta errespetua; oneic dira Persona aiec guztiac, zeñac Jaungoicuac bere Providencia santubagaz señalau izan dituban Mundu onetan beren distincinoco puesto edo Clasiacaz.

Jaungoicoac bada Munduban beren Clase distinzinocoacaz señalaitan dituban Personac ez dira (ascoc gaizqui uste dauben leguez) Diru edo Hacienda gueiagoren Jabe dirianac; onei ez deustegu zor obediencia eta errespeto gueiagoric, eurac baño guchiago daucainai zor deustegun baño; engañaitan dira Mundutar zoruac, pensaitan daubenian, igoten daubela Clase nagusiagora, Eche baten Jabe izatetic iragoten dirianian

Eche bien Jabe izatera, eta onela Clasiac gueitu-
bagaz duacela Haciendac gueitubagaz duazen
conformidadian: oneic bada ez daube considerai-
tan, beste Erri baten Berduguac Caleric Cale Asto
baten gañian azotauricaco bat, badator ona Diru
bolsa on bategaz, beren Lenguagian dala Clase no-
blecua eta honraducua: eguia da; Munduco Podero-
soac beren euquiacaz ecarri eraguiten deuste beren
Personai itzal eta errespeto andia, zergaitic beren Di-
rubai Mundu guztiac Capelia erozten deuste, eta zer-
bait daucanac badaqui, daucana, eta ez daucanac ba-
ño altubagotic darabil bere Buruba, bere defensa
guztia ifinten dabela bere euqui eta izateetan, ze-
ñai beguiraquetan deuste bere fortaleza guztizco
Ciudade bateri leguez; baña au guztiau Mundu-
bac eracusten daben vizio, edo vanidadia da.
¿Nortzubec bada, uste dozu, nire Illoba,
diriala Munduban distincinoco Puestua edo Cla-
sia gozaitan dauben Personac? eguiaz Persona
aiec, zeñac Jaungoicoac bere Providencia santuba-
gaz ifini izan dituban gure gobiernuraco, oneic,
eta ez besteric: onein artian dira lenengo eta prin-
cipal guere Gurasuac; guero Aita Santu Erromacu
agandic asi eta andic beera dagozen Jesu Christo-
ren Aldareco Ministruac eta Juezac; baita ere Ja-
ungoicuac Munduco gobiernuraco ifiniric daucan
Aguintari guztiac Erreguegandic asi eta andic be-
eragoco Juez, eta, Justiziaco Zigorra Jasoten dau-
ben guztiac azquenengo Alguazilic pobrietaraño

cuac: bai; onei guztioi zor deustegu Amorioagaz gañera errespetua eta obediencia, bacoitzari, aguinquetaco escuvidia daucan puntubetan eta ez bestetan; eta Christandadian puntu erabaguia da, ez daucala iñorc escuvideric, guri aguinquetaco, pecatu dan gauzaric; ala aguinduco baleube pecatu dan gauzaren bat edo beste, obligauric egongo guiñateque, ucaquetara guere Obedienzia, Jaungoicoari, zeñaren Obedienciaco Ministroac dirian, autorquetiarren zor deutsagun bere Criatura guztien gañeco Obediencia, Martiri Santubac eguin euben leguez.

Batac bestiari Jaungoicoagan eta Jaungoicoagatic zor deutsagun Amoriotic sortzen da, batac bestiagatic Jaungoicuari erreguquetacó, daucagun, obligacinua, Santiago Apostolubac encargaitan deuscun leguez: erregutu eguizube (diño) batac bestiacatic, salvau zaitezten: obligacino santu onegaz conforme Jesu Christo gure Jaunac ere eracutsi euscun guere egunoroco Aita guriaren Oracino miragarrizcua, baita ere bere Esposa eta gure Ama dan Eliza Santac eracutsi euscun Ave Mariaren bigarren partia eta Salvia; bada Oracino santu oneitan eta Eliza Ama Santac eguiten dituban Oracino guztietan ecusten da, erreguquetan deutsagula Jaungoicoari ia zuzenian ia Maria Santisimaren eta beste edozein Santuren bitartez ez gugatic bacarric, baizican beste guztiacatic ere orobat.

Oneic onela diriala lizito dogu, guztien-

daco dirian, Oracino onein bitartez Jaungoicoa-
ri erreguquetia norc berac apartian beretzat,
edo beste edozeñentzat; baña lance particular
oneitan erregutu biar deutsagu Jaungoicuari, Ora-
zino santu oneitan beste guztiai cavidu aldite-
quian frutubaren perjuicio bague, errezaitan di-
tugula Oracinuac Espiritu agaz beragaz, ze-
ñagaz Jesus Divinuac eta bere Esposa gure Eli-
za Ama Santac eracutsi deuscuben.

Gauza jaquiña da Christandadian, Ja-
ungoicoaganaco Amorioac obligaitan gaituba-
la, aren Divina Magestadiaren honra, eta Glo-
riaraco pensaitara, esatera, eta eguitera, guere
vizitza guztian pensaitan, esaten, eta eguiten
ditugun, gauza guztiac: Amorio onen ondoren-
gua da, norc berac bere Burubari zor deutsana.

Zeure Burubari bada zor deutsazun Amo-
rioa mediante, nire Illoba, ez zara zeure vizi-
tzan izan biar Adisquide Murmuradoria-
caz, Ordi, Maldiciente edo beste edozein vizio
mueta daucainacaz, beren tratu eta correspon-
denziagaz guertatu ez dequizun, beren vicioe-
tan jaustia Munduco esaeriagaz conforme:
esan eguidazu, nogaz zabiltzen, eta esango de-
utsut nor zarian: gueiago; viziosuac ez badi-
ra ere, bardin beren vizi modubac correspondi-
tan ez badeutsa, zuc daucazunari, eta euqui
biar dozunari; edo peligrosuac badira beren
circunstancietan, zuc daucazun, Familia mo-

dubari, apartau biar zara beti orrelacuacandic ere.

Orobat norc baitec Jaquinian eta intencinodañaubagaz eguin badeutsu ofensa edo injuriaren bat, presente euqui eguizu Espiritu Santubac esaten deutsuna: Etsaiari (diño) ez eguiozu sinistu beñere: eta ala orrelacuen verba onacaz ez zaite poztu, eta gorde eguizu euracandic zeure Buruba, David Erregue eta Profeta santubac apartau eben leguez bere Buruba, bere Etsai zan Saul Erreguegandic, batere casoric eguin bagaric, onec emuten eutsan, seguridadiaren eta beragazco Adisquidetasunaren gañeco verba onai.

Orobat norc baitec escaquetan badeutsu Fiadore urteteco mesedia, presente euqui eguizu Espiritu Santubac puntu onen gañian esaten deutsuna: nire Semia (diño) bardin urten badozu Fiadore zeure Adisquidiagatic, Jasi dozu zeure Escuba Persona atziaren bendian; Lazuan Jausi zara zeure Aoco verbacaz, eta zeure ofrecimentu propioacaz: eguizu bada, nire Semia, nic esaten deutsudana, eta librau eguizu zeure Buruba; zergaitic Jausi zarian zeure Progimoaren Escubetan, zuaz, agudo zabiltz, ez eguiozu baquetan itzi zeure Adisquidiari, ez zaite lo egon, ez eguiezu descansuric emun zeure Beguiai eta Bezintai, librau zaite eta igues eguizu obligacinotic, Basa Auntzac eta Egaztiac Cazadoriaren

Escubetatic iques equiten dauben leguez: ain guztian esaten deutsu, nixe Illoba, Espiritu Santubac guertatu ez deguizun, gueien bat guertatu oi dana Fiadoria Pagadoxe izatia: bai; fianzacatic galdu-xic ezaguquetan ditut Echeren batzubec Exi bar-xuban, eta bat ondo ona guere Aide artian: onenbes-te peligru eta susto izago enian, iñoxi mesede equitiar-xen; obe ez da bada, seguutic locaquetia eta fian-zetatic iques equitia?

Oxobat iñoxc escaquetan badeutsu Diuxen batzubec prestaubagaz, presente euqui eguzu Espiritu Santubac aiquetara emuten deutsuna: exe-ziivitaco demporan izango dozula Adisquide an-dia, eta, pagaitaco, demporan guztia izango dala escusia, eta pretestua, eta plazuac escaquetia, eta azquenic etoxico dala, zuxe Etsai izatera; eta ar-gatic esaten deutsu: auscoc ucatu daube Diuba pres-taubagaz ez voxondatiaren faltaz eta Codiziaz, eta bai petardiaren bilduxez; esaexia exe da: agoDi-uba nixe Echian, ibilli ez nadin ixe atzian.

Petardistacatic onela esplicaitan bada exe aren Divina Magestadia, badira Christaun fielac eta artezac, beren culpa bagaxic premi-nan auzquiquetan diuianac, zeñai, prestauba-gaz socoxitia, guxa daben aren Divina Mages-tadiac; eta ala, iñoiz emuten badozu prestau-bagaz Diuxic, emun biarco dozu zeuri falta-xic eguiten ez deutsula, ondo informauxic eta jaquinic, noxi, eta nun emuten dozun, eta Alfi-lex punta baten inpoxtexic mesediagatic tiraque-

tan ez deutsazula, prestaubagaz emuten deutsa-
zunetic, gañera, bestiac vorondatez ~~emun~~ esquini gura
badeutru prestaubagaz emuten deutsazuna
~~agatic~~ ere, zuc escatu bagaric; zergaitic au dan
berrecivitaco demporan despue del bestiac
Vsura eta Lapurreta claruba, Jesus Divinuac
bere Evangelio santuban condenaitan dabena:
emun eguizube (diño) prestaubagaz, gueiago
andic ezer ere esperaitan ez dozubela: badaquit
~~din zeure diruba atzera biurquetan deutsunian~~, ezaguteric eguin
zeutsan meredia zerbait bere vorondate osoagaz agradecidu, gura ba-
gaurco egunian Codiziosuac asmau oi dituben
deutsu, zuc onetaraco batere usteric ez dauzazula eta videric emu-
ten ez deutsazula, errecividu daiquezu escriesulu bagaric bere
pretestuac desinteres onen contra; badira bai, cau-
vorondate utsezco agradecimantuz gueiago emun gura deutsun
sa justuac, zerbait gueiago eruateco, baña guztiz
gauza onelacua aparte el badaquitza
contaubac eta guichi dira, eta Codizioso oneic,
antzari mantza ezarrita, zabaldu daube Vsu-
raco Lapurreta au negargarrizco estaduraño;
ez eguiezu bada jarraitu, nire Ylloba, iñorc emen
castigaitan ez dituban, Lapur onei, zergaitic, au-
siric betez betezian Evangelio santuco doctrina,
Codicioso eta Vsurero oneicaz batera condenau-
co ziñatequian.

Zeure Burubari zor deutsazun, Amorigatic atajau biar dituzu bada, apuntau deutsudan, calte modu oneic eta onein antzera etorri aldequizun beste edozein ala Espiritualac nola Temporalac: bai, nire Ylloba, au ala da; baña contuban ifinten zaitut, bere Burubaganaco Amorio au dala guztiz traidoria, guichic manejaitan daubena Jaungoicoaren gustora, eta Infernuba Condenauz betetan dabena; izan biar ditu Amorio onec beragaz, eguiazcua izateco, San Pablo Apostolubaren doctriniagaz conforme

apuntauric guelditu dirian, condicino guztiac; ar-
gaitic norc baitec reprenditan bazaitu eguin dozun
faltaren bategatic, edo eguin dozula uste daben
bategatic, ez zara ofendidu biar; Humildadiagaz,
bai, entzun biar deutsazu, emuten deutsun, repren-
sinua; eta inozente bazagoz, emun biar deutsazu
modu onian zeure inozenciaren gañeco satisfacci-
noa; baña eguiazcua bada zure culpia, emendau
biarco zara, beguiratu bagaric beste circunstan-
ziari, zeure emiendaco provechubari baño; eta, one-
la zu reprenditaco, Caridadia daucan, Personia
eguiaz estimau eta biotzetic amau biar dozu; ba-
da San Agustin Elizaco Doctore Jaquintsubac
izanic Obispua eta ain merecimentu anditaco
Guizona esan oi eben, pronto eguala urte bico
Aur bategandic eguia entzuteco eta icasteco: one-
la ordenaitan dau zeure Burubari zor deutsa-
zun Amorio eguiazcuac, ascoc dificultade andi-
ac euquiten baditube ere obraz onela eguiten, beren
Burubacanaco Amorioac eguiten deusten traizi-
nuacatic: emendic iguerri deiquiozu erraz, zein
peligrosua dan Amorio proprio au edozein ere
materiatan eta demporatan, bardin batec Taun-
goicoaren laguntasunagaz atajaitan ez baditu
bere vueltac eta revueltac.

Progimuen artian urrenac dituzu zeure
Guraso, Emazte, Ume, eta Senidiac eta zeure
Familiaco Personac; onei bada procurau biarco
deustezu aldituzun onac ala Espiritualac no-

la Temporalac, eta orobat librau biarco dituzu calte guztietatic ala Espiritualetatic nola Temporaletatic, posible dozun gara.

Zeure Burubari eta Lagun Progimuari zor deustezun, Amorio eguiazcotic sorteen dira, esatera noian, ia Obligacinozco ia Consejuzco beste puntu batzubec, eta zuretzat egoguienac consideraitan ditudanac.

Amorioac bada, nola izan biar daben biotzezcuac, eta obra onac eguitera obligaitan gaitubanac, bere cumplimenturaco ifinten deuscu obligacino mueta bi; bata da, eguiteco sarritan Progimo guztiacanaco acto Amoriozcoac batez ere Gorrotoaren tentacinuac asco estuquetan gaitubanian: bigarren obligacinua da, gu guere obretan portaitaco guere Progimoacaz, Amorio eguiazco eta biotzezcuac eracusten deuscun moduban (au da) eurac gugaz portaitia guraco gueuquian moduban.

Lenengo obligacinuagaz cumplitan ete dozun edo ez, ez daucazu zer escrupuloric euqui, bada Religinuaren Frataduban esanic itzi neben leguez, guere Progimo guztiacanaco Amoriozco actua eguiten dogu Aita guriaren Oracino santuba eguiaz eta biotzetic errezaitan dogun guztian. Baña bigarren obligacinotic sortzeen dira Caridadezco Obrac; onein artian bat da Limosnia, zeñac bere generalidade eta estensino guzti-

an comprenditan baditu ere amalau Obra Misericordiazcuac ala zazpi Espiritualac nola zazpi Corporalac, particularrian Limosniaren izenagaz aiquetan dogu, premiñan daguan, Progimaarigueuc daucagun Ondasun Temporalacaz emuten deutsagun socorruba eta alivioa, Jaungoicoagan eta Jaungoicuagatic zor deutsagun, Amorioa mediante erruquituric bere miseriagaz, ill ez dedin medioaren eta asistenciaren faltaz; eta sentidu edo significanza onegaz conforme verba eguingo dot Limosna onen gañian.

Limosna onen gañian Tobias santubac bere izeneco Seme Tobias gaztiari esan eutsan modu onetan: aldozun moduban izan zaite erruquiorra; asco badaucazu, asco partidu eguizu; guichi badaucazu, zeure guichia ere procurau eguizu vorondate onagaz partitia; zergaitic Limosniac libraitan dau (bere Eguillia) pecatu guztitic eta Eriotza (eternotic) eta ez deutsa itzico Animiari, Juaten Infernuco Finieblatara: Ho! Limosniaren privilegio eta gracia miragarriac!

Limosna santu onec obligacinuan ifinten ditu Christaun guztiac, beren urteoroco Sobrante guztiac Pobrien artian partitara, Jesus Divinuac bere Evangelio santuban aguinquetan deuscun moduban: sobraitan dana (diño) emun eguizube Limosna: leccino guztiz laburra, baña ederra, Jesus Divinuac Limosniaren gañian emuten deuscun au.

Sobraitan dana diño; onetan aiquetara emuten deuscula, lenengo socorridu biar ditugula

guzre premiñac, eta, guzre carguza dagozen, guztien premiñac modu egoquian eta dezentian, pisaitan eta graduaitanditugula premiña oneic Prudencia eta Caridade santubagaz, ez Munduco pompa eta vanidadiagaz; eta guzro, premiña oneic socorriduric, Sobrantia da Limosnatan partidu biar dana, oraiñ esplicaitaco modutan.

Premiña oneic diferentiac dira Caballeruen, Mercataruen, Oficialien, eta Necazaruen artian; baita ere diferentiac dira, bere Personiaren cuidadu bacarra daucanaren, eta Familiaren carguba daucanaren artian; eta diferencia oneiaz conforme graduau biar dogu Sobrantia: errenta saquiña, eta seguruba daucanac, eta bere Buruaren cuidadu bacarra, erraz onelacuac etara daiquie bere Sobrantiaren cantuba.

Necazari Çche Jaun batec bere sustentuban eta çantziar dezencia gueiagogaz portaitaco derechua dauca, errentia pagouta vizidan, Necazariacbaño, eta proporcino onegaz conforme aiquetan da beste guztien decencia: onerian Çche Jaunac bada, batez ere, bardin badauca, Familiaric zer acomodau, auzreratu biar dau aldaben guztia modu onian, eta ezin partiduco ditu bere auzreratu guztiac Pobrien artian, baizican consideratu biar dau, bere Hacienda eta Ganaubetan guertatu aldequiquion, Ausi Çrren regularac, bere Personiaren, eta bere carguza dagnan, Familiaren Ordoezac, eta bere Ymien acomodubac, eta oreitaraco guztietaraco euqui biar dau zerbait auzreraturic, guertatu aldequiquion premiña regularracaz conforme, eta conside-

racino onegaz conforme eguin biar ditu onerian
Necazari, eta Familiaco Buru dan, Eche Jaun ba-
tec bere Limosnac, baña beti Codiciari atiac ichi-
ten deutsala, eta confiauric Jaungoicoaren pro-
videncian bere obligacinoco premina eguiazcuai
beguiraquetan deustela; bada onela da Jaungoi-
coaren vorondate santuba; errazoiac ere ez da-
car, Echia erre edo jausten bada, bera edo Famili-
acoren batzubec gaiñoquetan badira, Vmiac zer
acomodau badauca, bere Ganaubac desgracia-
itan badira, Agusturen batec uts emuten ba-
deutsa, bera esquian ibiltia premina oneic er-
remediaitiarren, berac euqui aldaiquiala
aimbeste medio, Jaungoicoac lenengo beretaco
emunic, eta guero bestiendaco, Sobranteric ba-
dauca: onela bada aitu biar dozu, nire Illoba,
Limosniaren gañeco obligacino au: eguia da, bar-
din ecusico bazeu Progimoren bat, illteco edo ga-
itz guztiz andiren bat berari guertaquetaco, pe-
ligru manifiestuan, socorridu biarco zeuque,
eta librau biarco zeuque peligru artatic zeure
premina etorquizun orreitaraco aurreraturic
daucazunacaz, baita ere, zeure sustentuba-
ren eta Jantziaren gañeco decencia zerzenai-
tara, obligauric egongo ziñateque, socorritiar-
ren Progimuari necesidade aiñ estremuan, bar-
din, zuc zeure socorruba ucaturic, illgo baliz
edo etorrico ballaco beste gaitz guztiz andiren
bat bere necesidade estremua mediante.

Amorio santu onetatic sortzen da Baquiaren Amorioa; eta ala procuran eguizu, nire Yloba, Baque santu au zeure Personan, eta, posible dozun, Proximo guztietan; vizi izan zaite Baquian Baque iguñecuacaz ere, zeure aldetic dan guztia eguiten dozula Mundu guztiagaz Baquian vizi izateco San Pablo Apostolubaren encargubagaz conforme; Jesus Divinoac ere zorionecuac, diño, diziala Baquiosoac; eta leccino santu onen vistan Apostolubac, escribitan zituben, cartac asiten zituben Baquezco salutacinotic.

Baquiari eguiaz jarraitu guza devotsanac izan biar dau eguiaz ere vorondate onecua; bada bestelacuentzat ezin sortu liteque Baque eguiazcoric; Jesus Divinoa Jaio zan, Gabian berie Jaiotzia publican euben Ainguerubac, cantaubagaz modu onetan: Gloria izan dedilla Zeurubetan Jaungoicoaentzat, eta Lurrian Baquia vorondate oneco Guizonentzat: bai, nire Yloba, oneic bacarric izango daube Baque eguiazcua eta ez bestec.

Emendic ecusten da clavidade guztiagaz, zein urrin dabiltzen Baque eguiazcotic berien Ymien gaiztaqueriac eta ibillera peligrosuac estalquetan dituben Gurasuac (Amaac izan oi dira queien bat) euzac escusaitan dizian legez, Baquiaren Amorioagatic: Baque eguiazcua ez da pecatubaren, eta gaiztaqueriaren Alcabueta, baizican beren Etsai zorrotza, publico-

ra etaraten ditubana, aic erremediataco escuvi-
dia eta obligacinua daucanac atasau eta dese-
guindu daguian; eta ala Baque eguiazcuac guer-
ra vizia declarauric dauca onelaco Guraso eta
Estalguilla madaricatuben Baque guezurrezcua-
ri, nundic ere Baquia bera dan Jesus Divinoac
esan eusten bere Discipulubai: ez ñaiz etorri Ba-
quia ifintera, baizican Ezpatia (au da) Guerria
Baque guezurtiaren contra, nolacua izan oi dan,
vorondate onecoac ez dirian, Personac beren vizio-
etan eta pecatubetan daucain, Baquia, edo sose-
ganza: cuidadu bada, nire Illoba, ezconduba eta
Familiaco Buruba zarian leguez, ez confunditia-
gaz Baque eguiazcua Baque guezurtiagaz.

Baque eguiazcua conservau gura bado-
zu, gorde biar dituzu, apuntaitara noian, instruc-
cinuac: bardin ofendidu badozu iñor verbaz edo
obraz, aimbat lasterren reconciliau biarco zara
beragaz, premina bada onetaraco, parcacinua es-
caquetan deutsazula edo ia zuzenian zeuc, edo
ia besteren bitartez; bada Jesus Divinoac bere
Evangelio santuban ifinten deuscun obligacinoa
da: zuaz (diño) eta reconziliau edo unidu zai-
te leenago, zeure contra quesia daucan zeure
Anaiagaz (au da) Progimuagaz; eta au eguiñic
zatoz nire aurrera.

Baña, bardin ofendidu dozuna bada,
zeure obediencian daucazun, zeure Seme edo
Alabaren bat, ez dozu izango orrelaco obligaci-
noric; conveni ere ez da Familietaco Burubac

eta beste Superiorac, beren obediencian vizi dirianai, orrela humildaitia, eurac, beren obediencian euquiric, ondo gobernaitaco premina dauben, itzala eta autoridadia ~~galdu ez daguien~~ zen caltian; ~~eta~~ onela Bendecuac, ecusiric beren ~~Humildadia~~ macaltasuna gañera igo ez daguien: baña advertitan zaitut, nire Illoba, zeure bendecioren bateri lotra in erraziancobat equitia edo castigu modu oneco bat emutia mirecitan dabenian ez dala ofenditia baicicate zeure obligacinuagaz cumplitia: eta beti presente euqui eta gorde biar dozu San Pablo Apostolubaren aserriaren gañeco doctrina: ez bedi sartu (diño) egun artaco Eguzquia, biotzetan daucazubela zeuben Aserria.

Bardin iñorc ofendidu bazaitu, berialatic eta biotzetic parcatu biar deutsazu, eguin deutsun, injuria, bestiac cumplitan ez badau ere, zor deutsun, satisfaccinua emutiagaz, eta parcacinua escaquetiagaz; zergaitic au, ofendidu zaitubanaren, obligacinua da, eta zeure obligacinua da barriz, Gaitz eguillac eta Etsaiac amaitia eguiaz, biotzetic parcaquetan deustezula eguin deutsuben ofensa guztiac, euracatic Jaungoicoari erreguquetia, Jesus Divinoac, Curutzian eseguiric, bere Eriotzaguillacatic bere Aitari escatu eutsan leguez, parcatu eguien, eta eguitia eurai aldozun ona: au da Jesus Divinoaren doctrina. Bardin ecusten badozu, zeure Etsairen bat, edo, billaquetia iguiñ dozun, beste Personaren bat datorrela, zu zuazen, videtic, ez dozu videric mudau biar, agaz tri ez eguitiarren, eta ez deutsazu ucatu biar zeure Diosala; zergaitic onela dan Jaungoicoaren vorondate santuba, eta Zeruco Santubac eracutsi euscuben, portaitaco, moduba; baña, bildur bazara, orerian Etsaiac,

vidian tu eguin ezquero, gaitzen bat eguingo deutsula, oxduban apartau biar zana vide artotic, eta modu onetan salvau peligrutic zeure Persona, ari arpegui emuteco laguin valore euquiagatic ere: onela ordenaitan daube Baque eta Amorio eguiazcuac.

Bardin iñorc quimeraric edo pleitoric ifinten badeutsu, presente euqui eguizu Chuistaun Juiziosoen arteco esaera seguruba eta eguiazcua: obe da Composicino charra Pleito ona baño: eta ala zeure diferencia eta Pleito guztiac reducidu eguizu Composizinera; eta ez zaite izan beñere temosua, exazoia zeure aldetic egonagatic ere, bardin Pleito edo diferencia, Composizinua admititan daben, naturalezacua bada gueroco resulta donga bagaric. Iñoizco demporan obligauric ecusten bazara, zeure parezera puntuen baten gañian emutera, beti para zaite Exazoiaren eta Justiciaren aldetic aimbat compostuaric onenian iñoren exespeto bagaric: comprenditan ez badozu asuntua, escatu eguizu demporia, consultaitaco, eta, ondo consultauta guero, emun eguizu zeure dictamena aimbat moduric onenian; eta, bestiac soseguan guna ez badaube zeure dictamenagaz, eta diadanca contradecitan asiten badira, ez dozu Jardun biar disputan emacaz ezian eta baian, baizican isillic eta

soseguz guelditu biar zara; bestiac eguin daguiela, gura daubena; bada zuc beste orrembestegaz libraitan dozu zeure Buruba Jaungoicoraco.

Bardin, zugaz corritan dauben, Personaren bi beren artian aserre izatera etorrico balira, ez dozu, beren arteco aserre au gueitu biar, contaitan deustezula aldizca, batac bestiagatic zer esaten eta eguiten daben; bai contrara; eguin biar dozu zeure biotzian Sepultura on bat, an enterraitaco guztiz ondo biac satisfaccinuan batac bestiagatic emuten deutsuben quesa guztiac, eta, bien arteco Baquiaren eta biacanaco Amorio eguiazco bategaz armauric, eriac emuten deutsun, moduban disimuluagaz eta Prudenciagaz esplicauco zara bacoitzari bestiagatic, onduen biotza bigunduco eta bestiaganaco aficionauco dozun moduban, onela bien arteco aserre au gueldica itzunguiagaz juan dedin; onetaraco cuidadu andia ifini biar dozu, ez descubritiagaz eurai batagatic baño bestiagatic pasino gueiago, eta bien genioac ondo estudiatiagaz; bada zorionecuac dirian leguez Baquiosuac, ala aren Divina Magestadiac Mundu onetan gorroto dituban gauzetatic bat da, Progimuen artian diferenciac ereiten dituban, Personia.

Bardin badaquizu, norc baitec eguin

dabela pecaturen bat, edo vizioren baten sartuta daguala, euqui eguizu sepultauric zeure biotzian, zeure Emaztiari ere manifestau bagaric, bardin orrelaco noticia premina ez badau bere eta Familiaren gobiernu oneraco; eta, besteren bateri entzuten badeutsazu orrelaco gauza, eguin zaite ez Jaquin, galdu ez daguian Progimuac zu mediante bere Fama; bardin guztiz publicua ez bada: zor deutsazun, Amorioagatic bada reprendidu biar dozu aimbat moduric suavienan, gaizqui eguin daben, Persona au bere gaiztaqueriaren gañian, emendau dedin urrengoraco: atrevitan ez bazara zeu, reprensinoco pauso au emutera, contuban ifini biarco dozu bere gañeco cuidaduba daucana, edo errespetoco beste Personaren bat, zuc baño, obeto. reprensinoco diligencia au eguingo dabena; obligacino au ere, onela reprenditaco, Evangelio santuban eracusten danada; eta, casua guertaquetan danian, zeure Confesoriac instruiduco zaitu obligacino grave onen circunstancietan.

veare folio 298 b^a al fin y remitase este trozo alla

Zeure vizian ez deustezu Progimuen faltai asco iritzi biar, eta zeuriai eta zeure Familiaco faltai guichi, ecusten dozula Progimuen Beguietan daguan Lasta guizia, eta ez zeure Beguietan daguan Biga edo Egurra; ascoren falta da au, eta onelacuac zuzen zuzenian duaza Evangelioco doctrina santubaren contra; bastante daucagu lanic, guere

faltac ondo esaminetan guere emiendaraco.

Ez dozu juzgau biar ligereziagaz zeure Progimua; Jesus Divinoaren Mandamentuba da au ere bere Evangelio santuban: ez eguizube juzgau gura (diño) eta ez zarai juzgaubac izango: aren Divina Magestadiac, gu apartaitiarren, Azal ederragaz mliciagaz betericaco biotzac daucain, Personafalsuen Lazuetatic, esaten deuscu modu onetan: beren frutubetatic ezagutuco dituzube; Arbola donguiac ezin emun leique frutu onic; ez da ere Arbola onac frutu dongaric.

Bai: frutubaren calidadiac aguirian eta manifiestuan ifinten daben leguez, Arboliac bere barruban eta ezcutuban daucan, calidadia, orobat Personiaren Obrac emuten daube testimonio claruba, bere barruban daucan, biotz eta Espiritubarena: obracaz conforme bada juzgau biar dogu Progimua, beñere movitan ez gariala, juzgaitara aurrerago, Obrac diñuen baño; eta ala, ez daquigun bitartian ziertidumbriagaz Progimuaren obra dongac eta maliziagaz eguiñac, ez dogu gaizqui juzgau biar argatic; eguia da; bardin bat bere leenagoco obra dongac mediante fama dongacua bada, errezeluan vizi oi gara orrelacuagaz, bere famac padecitan daben, materietan.

Jornaleruari eguneco bere jornala pagau biarco deutsazu egun artan bertan gau-

egun artan izabazi ricaco Jornalari beguira
badago urrengo egunian bera eta bere Familia mantenitaco
tu baño leenago, ~~bardin ez badaucazu argan~~
~~leenagoco artzecoren bat~~; zergaitic ala dauca
aguinduric Jaungoicuac, Judegubai aguindu
bada Jornala pagaitaco itzaipen
eusten Legue santuban; eta ez deutsazu iñori
ucatuco
gueiago artu aiquezu cortumbre dan leguez edo amaren azqueriar edo obriaren azquenian bardin afren beguiratu
corriente dan, Jornala, ondo biarra eguin ezque-
Errentero
ro, zeure propioa bada ere; bada onec, zeuben
ajusteco errentia pagau ezquero, ez deutsu zor,
beste Jornalero Atze batec baño, gueiago.

Zeure vizian ez eguiozu iñori zor ma-
ravedi bat, Amorio santuba bai, ez Diruric, San
Pablo Apostolubac encargaitan deuscun confor-
midadian: ez zaitezte (diño) iñori ezerchoren
zorretan egon, alcar amaitaco obligacinuaren
Cumplidu ezquero
zorretan baño: eta ala, zeure zorra pagaitaco,
ez deutsazu beguiratu biar Artzeco dunari,
ete daguan edo ez preminan, escaquetan ete
deutsun edo ez artzecua; zergaitic au, Chris-
taun Dongac eguiten daubena; da ¿zor deutsa-
zu? bada pagau eguiozu (posible badozu) peca-
tu mortalaren azpian obligauric zagozen le-
guez, eta, gaur pagau albadaiquiozu, ez eguizu
itzi biarco.

Bardin escu arteco Lan gueiren bat egui-
teco, falta eguiten deutsun, Fresnaren bat iñori
escatu badeutsazu; lan gueia acabauric, beria-
la biurtu biarco deutsazu Jabiari, zeu ugera erre-
tirau baño lenago, importancia guichico Fresna
izanagatic, eta bere Jabiac casoric eguiten ez
badau ere; baña biurtu biarco deutsazu artu zeben mo-
duban (au da) ausi edo oquerta bada edo bere faltaren bat euqui

badau zeure ocubetan biurtuco deutsazu artu ziben diuin oso eta ona, ia ala obligauric ozocelaco ia zeure premina ordubetan errazago billatu daguizun norc emun deguizun premina dozun tresna.

Zeure tratu eta artu emun guztietan

izan zaite beti guztiz eguiazcua, sencillua, eta arteza, iñor engañau ez daguizun; eta astutua, ascotacua, eta avisaduba, iñorc engañau ez zaguian; Munduban vizico dan, Christaunac beragaz eta batera euqui biar ditu partida bi oneic; baña dago diferencia; iñorc Animaco gauzetatic campora Munduco interesetan engañaitan bazaitu, ez dozu pecaturic izango zeugaz, eta bai, zeuc besteri engañuba sartzen badeutsazu.

Besteren Ganauren bat errante, edo bere beste gauzaren bat, galtzeco, peligruban sentitan badozu, asegurau eguizu orrelaco gauzac, zeure Etsairen batenac badira ere, zeure Progimuaren caltia atajaitiarren.

Edozein gauza zeure vizian billaquetan dozula, jaso eguizu, ez, agaz valiaitaco, asmuagaz, bada ez da zuria, Jabia dauca; jaso eguizu, bai, bere Jabiari beriala biurquetaco intencinuagaz; eta ala, diligenciac eguinic, jaquiteco, nor dan bere Jabia, eta jaquinic, beriala biurtu biarco deutsazu, billatu dozun, bere gauza, pretendidu bagaric billatu sariric; eta, aguiri ez bada Jaberic, emun eguiozu, billatu dozun, gauziari zeure Confesoriaren dictamenagaz conformeco destinua.

Mote, edo gaizqui izenic ez eguiozu iñori erantzi beñere zeure vizian; orobat ez eguiozu

otis eguin, edo bere arpeguian emun iñoxi, dau-
can, gaizqui izenagaz: ez deutsazu ere, iñoxi
burlaric eguin biar, batez ere, bestiac sentitan
daben, burla moduba bada; zergaitic Jaungoi-
cuac gorroto ditu puntu oneic guztioc, eta onein
Eguillac, Escaitura Sagradico lecuric ascotan
esplicaitan dan leguez.

Azqueric ifinten deutsut presente,
Jesu Christo gure Jaunac bere Evangelio san-
tuban Proginuacazco Caridade edo Amorio
santu onen gañian emuten deuscun, regla ge-
nerala: gauza aic guztiac (diño) zeñac gu-
xa dituzuben, bestiac zubei eguin deguizuben,
zubec ere eguiezube eurai; zergaitic onetara
reducitan da, Leguiac eta Profetac exacusten
dauben, doctrina guztia: argatic bere Apostolu
San Pablo gloriosuac encargaitan deuscu: alegra
gaitiala alegraitan dirianacaz, eta negarreguin
daigula negarrez dagozenacaz, (au da esatia)
artu daigula parte Proginuen dicha eta senti-
mentubetan, alegraitan gaiala beren dicha-
caz, eta sentitan ditugula beren sentigarrico
naigabiac.

Yizi zaite bada, nire Yloba, aviso santu
oneicaz conforme, iñoxi pecaturaco ocasino-
xic edo Escandaloco tropiezuric emun bagа-
xic, apartaitan zaiala ala verbaz nola obraz,
ez bacarric pecatubetatic, baita ere, pecatubaren

antza daucain, gauza guztietatic; eta onrai-
tan dituzula atencino, eta crianza onian Progi-
mo guztiac chiquinac leguez andiac, eta andi-
ac leguez zeure igualecuac, ~~distincinoco~~ ~~Cosa~~
~~daucainai onra eta errespeto gueiago ecarten~~
~~deustezula~~; eta beñere zeure Necazaritzaco
Oficiotic camporaco Personacaz, ~~batez ere An-~~
~~diquiacaz~~ artzen ez dozula, Adisquidetasu-
nic: modu onetan conservauco, Amorio eguiaz-
cua ala Jaungoicoanaco, nola Jaungoicoagan
zeureganaco eta Lagun Progimo guztiacanaco.

Mingaia

Guere Corputzeco Miembro guztien
obligacinua da, Corputzagaz batera Animia-
ren eta Errazoiaren obediencian egotia Jaun-
goicoaren gustora, ala aren Divina Magesta-
dia guztiacaz izan dedin alabaduba, onradu-
ba eta serviduba.

Miembro oneitatic bat da guere Aoco
Miña; bera chiquiña da, baña funcino edo es-
cuvide anditacua: Miña da Instrumentu, edo
Organua, zeñaren bitartez alcarri manifestai-
tan deutsagun, guere barruban eta biotzetan
daucagun, gauzac ala oneracuac nola gaitze-
racuac, esaten ditugula Mingaiagaz, guere
goguan daucagun, edozein gauza aiquetara
emuteco egoguiac dirian, verba mueta guztiac.

Christaunac bada, Jaungoicoari gusto emutia gura badaube Miñaren Instrumento, edo Organuagaz, consideratu biar daube, noiz nori, nola, eta nun verba eguin biar dauben; verbac, Aotic urten baño lenago, artu biar ditube guichienez pasada bi Caridade edo Amorio eguiazcoaren Limiagaz; nire contura; onela eguingo baliz Mundu zabal onetan, ez lirateque ecusico aimbeste Barruchu, eta aimbeste Oquerqueria Miñgai ligerotic sortubac, ez lirateque exe entzungo aimbeste verba alper batere provechu bagacuac.

Santiago Apostolu gloriosuac, Christaun guztien instruccinoraco exacutsi eben doctrina Sagradubau, Mingaiagatic diño modu onetan: batec, bere Buruba engañatan dabela, uste badau, sugecinuan ez dauabillela bere Miña, ona dala, onen Religinua utsa da: bardin batec verbeetan pecaturic eguiten ez badau, au perfectua da: batec (Zaldiaren) Corputz guztia frenuagaz exabilli leique batera eta bestera; Zaldiai bada Aoxa frenuac ezarten badeustegu, bexen Corputzac exabilten ditugu batera eta bestera, gura dogun, moduxa: oxobat exe (Ichasoco) Ontziac izanic andiac, eta Aize fuertiac oxxa eta ona botaten dituenac, zuzenquetan dixa gobiernu pisquin bategaz, eta duaza, Pilotuac emun gura deusten,

direccinoco destinora: ala ere guere Miña eguiaz Miembro chiquiña da, eta gauza andiac manejaitan ditu; beguira eguizube, zein Su guichic zein Baso andia abrazaitan daben! eta Miña Suba da, Maldadiaren Universidadia: Guizonac bere habilidadiagaz domaitan ditu eta sugetauric dauca Animalien eta Igaztien eta Sierpien eta beste Pistien Naturaleza mueta guztia; baña Guizonen artian bat ez dago Miña sugetau aldaiquianic (au da) bere habilidadez eta Jaungoicoaren gracia eta laguntasun bagaric: Miñ onetan bedeincaquetan dogu Jaungoicoa eta beragan maldizitan dituzu Jaungoicoaren artzera eguiñac dirian Progimuac; ez da conveni, nire Anaiac, oneic onela eguitia: au da bada, Santiago gloriosuac eracusten deuscau, Miñaren gañeco doctrina, eta doctrina onegaz conforme diadar eguiten deuscu Apostolu Santu onec beronec, esaten deuscula modu onetan: izan bitez Guizon guztiac tardasuac, verba eguiteco, eta tardosuac Asserreraco: Zeruco Santu eta Santa guztiac, ondo sinisturic doctrina au, Mundu onetan vizi zirianian, empeñau zirian gobernaitan, eta sugetaitan beren Miñgaiac leccino santu onegaz conforme, escaturic artaraco Jaungoicoari bere graciaren asistencia.

Ha! bardin, Jaungoicoaren gustocuac izateco, verba eguiteco tardosuac izan biar badoc-

gu; zer erantzungo daube Persona verbaldaun eta Barrichu aiec, zeñai, zabalic daguan Iturri corriente bateri Vra beti, faltatzaca, darion leguez, Aotic darie, egun guztian faltatzaca, verbia verbien gañian, onetaraco bacarric saiuac balirian leguez? defecto au da embarazu andicoa, bat Christaun ona izateco.

Onelacuac bada, nola ifinten dauben beren habilidade eta gusto guztia, beren Miñac erabilten Errota Arri baten guisara, ez daucai batere discrezinoric, noiz, nori, nola, eta nun verba eguin biar dauben, discurritaco: onelacuac daucai beren Burubac ascotacotzat, eta bestienac Lelotzat, eta ignorantetzat: onelacuac ez oi ditube ecusten beren faltac, bestienac, bai, asco: eguiten eta esaten dituben, gauza guztietaraco daucai errazoia: emuten ditube beren errespuestac, bestien errazoiagaz cargu eguin baño, leenago: Olioaren antzecuac dira; asunto guztietan beti gañian guelditu gura oi daube, Olioac Vraren gañera beti urten oi daben modura: Ollarren antzecuac dira, beti victoria cantau oi daubenac: ez oi daucai ezertan besteren avisuac, beren oneracuac izanagatic ere: euracaz vizi dirian Personai quendu oi deuste gozo guztia, Curi larreguiac Lurrari quendu oi deutsan leguez beretemple ona: ez daucai batere Secretoric: ereiten ditube Echeco bar-

riac Campuan, eta Campocuac Echian: eta azquenic onelaco verba Tarioac eguin ez oi daube Taungoicoaren eta Ainguerru Guardacuaren Inspiracino santubai caso gueiago, Aidian dabiltzen, Elchuai baño; beren neurri bagueco verbeen artian modu onetan ezcutauric gueldiquetan iate Barrichu onei Ontasun guztia, eta ala miserable oneic, beren Animetaco Beguiac ichuturic, ezin ecusi eta ezin azertau daube, Christaun onac izateco, Taungoicuac parau deusten, vidia.

Ez dago bada, zer marabillau, Taungoicuac guri emutiagaz barri dongac, verba Tarioac dirian onelaco, Personen gañian; David Erregue eta Profeta santubaren Aotic emuten deuscu desengañu claruba: Guizon Barrichubac ez dau izango direccinoric Lurraren gañian: eta Proverbioetaco Liburu Sagraduban ez deuscu esperanza obiagoric emuten Barrichu onein gañian: ¿ecusi dozu (itanquetan dau) Personaren bat ligerua, verba eguiteco? eta onelaco Personaren bat ecusi dabenari esaten deutsa: onelacuaren Nezedadia edo Juicio baguetasuna gueiago esperau biar da bere Emiendia baño.

Beraz, nire Illoba, verba guichi eguin biar dogu, Taungoicoaren gustora vizico bagara; bai; verba guichi; baña Jaquiñian

vizi zaite, lau causa edo motivo izan oi diria-
la, batec verba guchi eguiteco: lenengua, ez eu-
quitia batec Capazidaderic, verba asco eguite-
co; zergaitic daucan Buru lotuba eta tupiduba:
bigarrena, Melancoliaz betericaco Espiritu bat,
zeñac quendu oi deutsan bateri, verba asco egui-
teco, gogua: irugarrena, Espirituco andique-
ta, arrotasun, edo putzitasuna presente dago-
zenen contra, dignaitan ez dalaco edo basau
gura ez dabelaco, aien aurrian verba eguite-
ra: laugarrena da, Caridade edo Amorio egui-
azcuan fundaitan dan Silencioaren deseo fir-
me bat.

Lau motivo oneitatic bada azquenengua-
gaz bat movidu biar da, verba guichi eguitera,
Jaungoicuari gusto emun, eta bere Animia-
ren Salvacinua irabazi gura badau; zer-
gaitic eguiten baditu verba guchi lenengo, bi-
garrengo, edo irugarrengo motivuagatic, ez da-
uca batere merezimenturic Jaungoicoraco;
eguiten dau, bai, pecatu batec, Silencioa gor-
detan badau irugarren motivoa mediante,
Progimoen arteco correspondencia onac dic-
taitan dabenian, verba eguitia; guertatu lite-
que ere, pecatu batec eguitia, Silencioa gorde-
tan dabenian bigarren motivoa mediante ca-
soco circunstanciacaz conforme.

Jaungoicuac bada escaquetan deuscu, Amorio eguiazcuan fundauric daguan, Silencio bat; Silencio santu onen contra pecatu eguin daiquegu, verba larregui eguiñagaz, baita ere verba guichiegui eguiñagaz, Caridadiac edo Amorio eguiazco, eta prudente batec ordenaitan deuscun, Reglatic urteten dogun, guztian edo verba larreguiacaz, edo guichieguiacaz; uts eguiteco peligururic guichien badago ere verba guichi eguitiagan arco eguitiagan baño.

Prudenciac eta Progimuacazco Amorio eta correspondencia onac Lanceetaco circunstanciacaz conforme ~~dictau~~ eracutsi biar deuscube, guere Mingaiac gobernaitaco, modu egoguia; au da puntu bat, zeñaren gañian ezin emun leiquian Regla fijoric, eta zeñian sarritan Jaungoicoari escatu biar deutsagun David Erregue eta Profeta santubaren modura, ifini daguian gure Aoetan Guardia, eta gure Ezpanetan quiltzaz ichiricaco Ate batzubec, movidu ez gaitian, Maliziaco verbac esatera, eta guere pecatubetan escusac billaquetara.

Familietaco Gurasuac, eta besteren cuidaduba daucain, Superiore guztiac, gauza jaquina da, obligauric dagozela, beren carguco Langueiac eguitera, eta eraguitera, beren Bendecuac instruitara, corregitara beren uts eguitetan, eta ondo gobernaitara; ezin escusauco dira bada, onetaraco guztiraco conveni dirian verbac eguitetic modu ego-

guian; eta, materia oneitan Silencioa gordeco baleube, isillic dagozela, eguingo leuquie pecatu; eta onelaco Gurasuac izango lirateque (Jaungoicuac Isaias Profetaren Aotic diñuan leguez) Chacua mutubac, saunca eguiteco, adoxeric ez daucainac, Lapurra eta Otsaia auxtian enguiazatic.

Modu egoguian, diñot, Gurasuac eguin biar deustela verba Bendecuai; ez da bada modu egoguia, verba eguiteco Bendecuai, onein afrentaraco eta menospreciozaco diuian verbac esatia, Necazarien eta Jente comunen arteco Gurasuai eguneroco eta instante oro entzun oi deustegun leguez: Ume madarikatubac: Ume Demonioz betiac: Ume Diabruz betioc: Ha! zubelacuac viziu! Ume Zapoc, Cacoc, Pestioc; eta beste onelaco milla esaera modu, Amorio eguiazcoaren eta Jesus Diuinoaren Ebanjelio santubaren contraacuac, emuten deustela onetan bezen Umiai eta Bendecuai crianza guztiz donguia ezemplu donguia mediante, crianza eta bezu onac emun biarrian, obligauric dagozen leguez.

Ez da ere modu egoguia, Gurasuac Bendecuai verba eguiteco, esango deustena edo aguinduco deustena, esatia edo aguinguetia gueien bat gogortasunagaz, enfadubagaz, eta aserriagaz; zergaitic, verba eguiteco, modu onec dacar provechu guchi, eta calte

asco; Espiritu Santubac diño: Errespuesta bigunac ausiten dau Ira edo Aserria; eta verba gogorrac sortzen dau Coleria (au da) Persona aien biotzetan, nuentzat dirian verba modu orerianac; au berau eracusten deuscu ere eguno-roco esperienciac.

Espiritu Santubaren Doctrina eguiazco onegaz conforme, iñor reprendidu biar doguni-an bere utseguiteren baten gañian, aimbat ver-baric suavienecaz aiquetara emun biar deut-sagu bere obligacinua; ondo icasiric eucan leccino santu au San Pablo Apostolubac, encar-gaitan eutsanian bere Discipulu San Timo-teo Obispuari: ez eguiela eguin lotsaiaric Per-sona zarrai, baizican suplicau eguiela, Gura-suac balituban leguez; Guizacume gaztiai, Ana-iac balituban leguez; eta Emacume gaztiai, Arrebac balituban leguez, Honestidade guzti-an: baña, bardin onela suavidadiagaz eta supli-ca modura aiquetara emunagatic bacoitzari, bere utseguitiaren gañian, emendaitaco, daucan obligacinua, casoric eguiten ez badau, eta fres-co vizi bada bere utseguitetan, ia Apostolu San Pablo onec beronec mudaitan deuscu bere Len-guagia, eta doctrina, bere Discipulu San Tito Obispuari, onelaco Jente frescuac reprenditaco, emun eutsan encarguban, esaten eutsala modu onetan: reprendidu eguizu gogorquiro, salvau di-

tezen: Apostolu gloriosuaren leccino diferente bi oneic Gurasuac presente euquitia, conveni da, ja-quin daguien, noiz verba eguin biar dauben suavi dadiagaz, eta noiz gogortasunagaz, baña beti Amo-rio prudente bategaz, Bendecuai beren uts eguite-tan. Ez da ere modu egoguia, verba eguiteco, aique-tara emuteco laguin, premina dirian baño, verba gueiago esatia, edo conveni dan baño gueiago vi-der; eta ala, bein esatia bastante bada, ez dogu esan biar gauza à bera bigarren aldian: orobat lau verbacaz aiquetara emun aldaiquegun gau-zetaraco ez ditugu esan biar bost verba; iru ver-bacar aiquetara emun albadaiquegu, ez gara irago biar laugarrena esatera, eta bigaz acabau albadaiquegu asuntua, ez dogu irago biar iru-garren verbia esatera; au diñot egemplutzat, eta bacarric aiquetara emutiarren verba eguiteco fini biar dogun cuidaduba; eta ez iñor contu etaraten asi dedin lenaz; nic gauza au aiquetara emun dau-quet Inenbeste verbacaz. Ez da ere modu egoguia, verba eguiteco, asunto serioac aiquetara emutia fiesta edo chanza modura, eta asunto graviac llaneza mo-dura; eta ala guere verbac esan biar ditugu, tra-taitan dogun edo derautsagun, asuntuac esca-quetan daben moduban, fiestacuac fiesta modu-ra, chanzacuac chanza modura, serioac serio modura, eta, graviac dirian, asuntoac grave mo-dura: eguia da; badira chanza moduraco esaera batzubec gu-tiz provechu eta erru andicuac bateri bere falta edo gaizto-gueriaren gañian reprensinua emuteco; baña onela be-teri aiquetara emun gura deutsarac bere reprensinua iran biar. Ez da ere modu egoguia, verba eguiteco, bes-teren aurrian iñori Belarrietan isill mandatubau esatia; eta ala, nire Illoba, besteri esango deutsa-zun, Secretua esan eguiozu aparte, iñor presen-

eta verbat edo bes-te gueiago esaten descui-daitan bada escru-pulubetan sartu dedin Inenbes-tegaz.

co dau guztiz prudentiac eta verba eguin biarco dau, bes-tia erraz contuban jausico dan mo-dubar.

te ez daguala; eta orobat eracutsi eguiezu zeure Echeco guztiai, batez ere Emacumai, zeñac izan oi dirian gueien bat puntu onetan erraitan daubenac batere consideracino bagaric; bada Crianza onaren falta da eta bestiai emutia erreze-luetaraco ocasinua.

Azquenic, verba eguiteco, modu egoguiaren gañian gura badozu, nire Illoba, utsic guichien eguin, eta orobat zeure Bendecuac, desterrau eguizu zeure Echetic vizi zarian guztian beti, baña beti Pipia eta Zigarrua, eta Bota edo Pichar Ardao motivo justo eta grave baguecuac; onela beste gaitz ascogaz ostian desterrauco dituzu, verba eguiteco modu egoguia gorde ezin dauben, Mingai ligeruac.

Mingaiaren gañeco Doctrina eguiazcua onela bada ere, ez dozu, nire Illoba, eragotzi biar iñolaco moduz zeure Familian, beren nequiaren alivioraco, beren Espirituben alegranzaraco eta afecto inozente edo santu baten conservacinoraco batac bestiagaz guztien aurrian euqui oi dituben conversacino edo pasatiempo inozentiac: diñot inozentiac (au da) Progimuaren Fama onaren contra ez dirianac, indezentiac edo indezentien antzecuac ez dirianac, besteren menosprecio edo burlaraco ez dirianac, edo beste alderen batetic oquerrac ez dirianac: ifini biar dozu, bai, cuidaduba eta empeñu andia, zeure bendeco Personac beren

Neque eta Yzerdietan alegre conservau ditezen, eta iñor sartu ez dequizun tristuran, onetaraco iñoren ofensa bagaco millue bat verba eguitia, premina bada ere.

Curutzia

Jesu Christo gure Jauna eta Redentoria etorri zan Mundura, gu Diabrubaren bendetic libraitara, eta vizitzaco egempluba emutera, ifinten ebela bere vizitza santu eta perseguiduba, salvau gura dauben, guztien vizi moduraco Yspillu bacartzat.

Aren Divina Magestadiaren vizitza izan zan alde guztietatic inozentia, eta perseguiduba; eta ala bere antzera vizi gura dauben Discipulu guztiac Jarraitu biar deutsai Inozenciaco eta Curutze santuco Banderiari, Jaquinic Zeruban sartzeen dirian Justo guztien Marca eta Señalia diriala Inozencia eta Curutzia, Justo guztien Buru eta Capitae dan Jesu Christogandic asi eta andic beeragoco guztiena.

Jesus Divinuac, resuszitau ezquero, bere Discipulubacaz eguan batian, ecusiric, ez ziriala contuban Jausten arteraño, bera zala

Cuurtzian Josixic Lapur bien exdian illten ecusi euben Maisuba, reprendidu zituban, eta esan eusten modu onetan: ¿eguiaz prezisua ez zan, Christoc padecitia, eta ala saxtzeia bere Gloxian? conveni bazan bada, Jesu Christo guxe Jaunac ala padezitia bere Gloxian sartu baizen leenago, bere Servitzariac eta Jaxtallac ez daube izan biar privilegio obiagocuac, beren Jabia baño, bere Discipulubai bein batian berac aiquetaxa emun eusten modubau: acordau zaitezte (esan eusten) nic esan deutsubedan verbiagaz: ez da Servitzaria bere Jabia baño andiago; ni perseguidu banaubę, zubec exe perseguiduco zaitube.

Doctrina santu onegaz conforme San Pablo Apostolu gloriosuac valentia andi bategaz zabalquetan dau Christaun guztien vistan Jesus onaren Inozenziaco eta Cuurtze santuco Estandarte edo Bandera miragarrizco au, eta voz altuban esaten dau modu onetan: Christogan ondo vizi guxa dauben, guztiac padeziduco daube persecucinua: ez diño: gueienac edo batzubec, baizican: ondo edo Piedadian Jesus Divinoaren gustoxa vizi guxa dauben guztiac: bai; guztiac eta ez batzubec padeciduco daube persecuzinua moduxen batexa edo bestexa; Jesus

Divinoaren gustocuac eta antzecuac izatia, gura
dauben, guztiac; eta oneic bacarric ez besteric sar-
tuco dira Jaungoicoaren betico Glorian; bada San
Pablo glorioso onen beronen desengañubagaz con-
forme Jaungoicoac beretzat escogitan ditu ba-
carric, bere Seme Jesus onaren vizitza inozen-
te eta perseguidubaren conformecuac eta antze-
cuac eguiten dituenac eta ez besteric.

Beraz, nire Illoba, conveni bazan, Jesu
Christo gure Jaunac ala padecitia, bere Glori-
an sartuco bazan; bardin bera bada, guc sarrai-
tu biar dogun, vidia; gure vizitzaco Ispillu ba-
carra, gure Amadan, Eliza Santaren Esposo
eta Buruba, eta Justu guztien Capitan; bardin
bere Bandera bada Inozenziaco eta Persecuzi-
noco Estandartia, ez dago exemedioric, pre-
zisaric ere gaoza Mundu onetan, bera vizi,
eta ibilli zan, modura gu ere ibiltzea, eta vizi
izatera, bacoitzac bere Estadubaren Divina
Magestadiaren antzera, eta bere amoriоz Ino-
zenciaco eta Persecuzinoco vidian zerbait su-
frituan eta padezitan dogula; modo onetan be-
re pausuai sarraiquetan deustegula, bere antze-
cuac gaiala, eta beragaz padezitan dogula
izan gaitian ere beragaz batera Eternidade gu-
tian glorificaubac.

Egui santu onen desengañuba aren

Divina Magestadiac daun asco emuiten deuscu bere Evangelio santuban: nire ondoren (diño) etorri gura dabenac, ucatu begui bere Buruba (au da) bere Vorondate eta inclinacino dongac; Jaso begui eguneco bere Cruutzia, eta Jarraitu beguit: leccino laburra da au, nire Illoba, baña betez betezian desengañaitan dituban a bere Vorondatera eta gustora emen vizi dirianac, eta verba guichitan eta ederquiro Beguien aurrian ifinten deuscuna, Zeruco Gloriau sartu gura dauben, Christau on guztiac Mundu onetan gorde biar dauben, vizi moduba.

Bai: Jesus maitiaren gustora eta bere ondoren ibiltia gura badogu, nai eta nai ez ucatu biar dogu guere Buruba (au da) guere Vorondate donga guztia, eta Jarraitu biar deutsagu Vorondate onari (au da) Jesus Divinoaren Vorondate santubagaz conformecua danari; egemplutzat: batec Belar ondoco bat emuiten badeuscu, pleitoz Juniquia guendu gura badeuscu, eta Juerzaz milla pauso bere compañian caminaitara obligau gura bagaitu, guere Vorondate donguiac lenengo eracusten deuscuna da, onelacuari pagu igualeco edo gueiagoco vengantzaiagaz erantzutia, gorrotua deutsagula guere biotzian, baña guere Vorondate onac Jesus Divinoaren Vorondate santubagaz conformecuac eracus-

ten deuscu, onelacuari gaitza onagaz pagai-
tia, vengantzaric ez deseaitia, guere biotzian
gorrotoric ez euquitia, eguin deuscun injuria
sufritia pacienciagaz, eta disponiduric edo
aparejauric egotia injuria gueiago sufritara,
eguiten badeuscu: onela bada ucatu biar do-
gu guere Vorondate donguia, eta jarraitu biar
deutsagu Vorondate onari guere vizitzaco pau-
so guztietan: ez da au bastante.

Egunoro jauso biar dogu guere Curu-
tzia paciencia santu baten bitartez, eta ibilli
biar gara Curutziagaz Jesus Divinuaren
ondoren; eta onela juango gara, gure Ychu aur-
reco Jesus Divino au daguan, dichaz beteri-
caco Zeruco Eche santura: persecuzinoco
eta trabajubetaco Curutze santubac, prove-
chosua izateco, euqui biar dau bere Lagun-
tzat vizitza inozentia; eta orobat vizitza ino-
zentiac beragaz izan oi dau Curutze modu-
ren bat edo beste.

Inozente eta culpa baguecua danac
bada presente euqui biar dau leccino au, eta
ez dau desanimau biar, dacusenian bere
gañian persecuzinoco eta trabajubetaco Cu-
rutze santuba; animau biar dau, bai, bere
Maisu Jesus cruzificaubac emun euscun,
egemplubagaz, eta bere Discipulu eta Apos-

toluben Principe San Pedro gloriosuac puntu onen gañian exacusten deuscun, doctrina santubagaz; zer Gloria (diño) izango dozube, bardin gaiztaqueriac eguiten dituzubela, eta Belar onduan joric, padezitan badozube? baña, obra onac eguiten dituzubela, pazienciagaz sufritan badozube, Jaungoicoaren aurrian auda gracia; zergaitic onetaraco otz eguin deutsube, zergaitic Jesu Christoc ere padezidu dau gugatic, izten eutsubela egempluba, jarraitu daguizuben bere pausuac.

Oraingoiño esan dodanagaz conforme dazuban dago, emen esplicaitan dan, Cruzifizia ez dala Burdiñazcoa, Zurezcua, edo Arrizco Cruzifize materiala, Aldaretan eta Cruzien sarreretan ecusi oi dizuanen, antzecua, baizican Cruzifize formala trabasubetaco, eta Espirituco Cruzifizia, bacoitzari bere Estadubagaz conforme Jaungoicuac, utsic eguin ezin leiquian, bere Providencia santubagaz eguneco ordenaitan deutsana, Cruzifize onegaz eta vizitza inozentiagaz izan dedin bere Seme Jesus onaren antzecua, eta onela merezidu daguian Gloria.

Eliza Ama Santaren Miembro guztiac beren Buru Jesus onaren Cruzifize au sufridu biar daube; bada Christaun guztiac daucai beren partia Cruzifize santu onetan, baco-

itzac bertia bere circunstancia eta Estadubaren conformecua; eta ala Ezcontzaquiac dauca Cuzutze modu bat, Ezcondubac beste bat, Abadiac beste bat, Religioso eta Religiosac beste bat, orobat Persona pobriac eta Oficialiac daucai beren Cuzutze diferentiac Aberatsacandic, eta, esan ditudan, Persona mueta oneic guztiac bacoitzac baraan daucai Cuzutze modu diferentia bere beste igualecuagandic, eta iñor, dan aberastasunic eta conveniencziaric gueienecua izan agatic, vizi ez da Cuzutze au bagaric; ascotan onelacuac izan oi ditube Cuzutze andiaguac, campotic Jentiac ala uste ez agatic; nundic ere uztena dan, sarritan entzun oi dogun, esaera generala: Echian Echian Malua, guzian andiagua.

Batec, nor nai dala, Christaun eguiazcua izatiagaz beste bague dauca, zer sufridu Cuzutze andia, vizi dan dempora guztian; bada dauca zer pelcau bere Animaco inu Etsai poderosuacaz, Diabrubagaz Mundubagaz eta Anaguiagaz, eta beti vizi biar dau, bere Voluntate donguiau, eta pecaturaco inclinacinoari atzera eraguiten deustela, violencia santuonen bitartez architu daguian, fuerza padezitan daben, Zerubetaco Erreinuba; pelea au ez da eguiaz Martirio eta Cuzutze chiquina: eta, bardin Christaun eguiazcua izan guxa daben,

au Ezconduba Abade Religioso edo Religiosa bada, gueitubagaz dauca bere Curutzia; zergaitic bere Estadu particularreco carga eta obligacino pisubac eguiten deutsai pisubagua, Christauna dan aldetic, leen eucan, Curutzia.

Gueiago: Christaun eguiazcuac egunoro esperimentaitan dituban, naibague eta sentimentu guztiac, nundic nai datozela, edo ia Jaungoicuac zuzenian disponitan ditubanac, edo ia permititan ditubanac, leenagaz gañera cargaitan deutsai bere Curutzia: egemplutzat: zure modura Ezconduric daguan Necazari bateri guertatuco ballaco (sarritan guertatu oi dan leguez) bera gaiṡoric dempora luzeraco gueldiquetia, Gaiṡoz betericaco Ospitale bat eguinic bere Echia ecustia; Echia Subac abrasaitia, bere Emaztia, edo, gueien amaitan daben, beste edozein Echecoren bat illtia, Ganauren batzubec desgraziaitia, bere Soruetaco frutubac Tempestaderen batec galtzeia, daucan gauzaric onenac Lapurrac osquetia, Progimoren batec falso testimonioacaz eta Murmurazinuacaz perseguitia; agradezimentubac esperaitan zitubanian Personaren bategandic, desagradezimentubac eta esquer baguetasunac errezivitia,

oneic eta onein antzeco beste pesadumbre mueta guztiac cargaitan deutsai leenen gañera bere egunoroco Curutzia gueiago edo guichiago, pesadumbre mueta oneic cargaitan dirian conformidadian.

Nor nai dala bada, bardin ſasoten ez badau, eta, Jesus Divinoari deutsan, amorioagatic eta bere Izen santuban pazienzia onagaz sufritan ez badau bere Curutze santu au, ez dauca, zer esperau, bere Glorian ere parteric euquiteric; pacienzia onagaz (diñot); zergaitic pazienzia bagaco Curutzia da batere frutu bagaco Martirio neurri baguecua eta tristia, eta, pazienzia onagaz sufritan dan, Curutzia da contrara, alde guztietatic provechu guztiz miragarriac ecarten dituban, Carga ariña.

Jesus Divinoac bere Evangelio santuban esaten deuscu: zeuben pazienzian gozauco dituzube zeuben Animac: premiña dogu bada, nire Illoba, pacienzia edo sufrimentu santu au, onen bitartez Jaungoicoaren vorondatia cumpliduric bere prometimentu Divinoac lograitaco, eta anchiquetaco guere Curutziaren carga ariñ eta dempora guichico onegaz San Pablo Apostolubaren testimonioagaz conforme Eternidade guztico Gloriaren piſu zoragarria

Zerubetan: bai; trabajubac datozenian gure gañera, gueuc jaso eta eruan biarco ditugu edo gogo charragaz eta narras, edo gogo onagaz (au da) paziencia onagaz eta aidian; eta ecusi dozu, zer suerte eta premio diferentiac daucain Jaungoicoaren vorondatiagaz conforme, Trabajubac jasoteco eta eruateco, modu diferente bi oneic.

Jaungoicuac bere miragarrizco Providencia santubagaz mezclaitan ditu Mundu onetaco gure gustoac pesadumbriacaz, ichatsi ez dedin gure Biotza Munduco contentubai, eta galdu ez daguian Zeruraco bere vide Erriala; eta orobat pesadumbrien ondoren bialquetan deuscu consuelo eta gustoren batzubec, animau gaitian, eta jausi ez gaitian Carguiaren azpian Animoaren falta mediante: modu onetan bada aren Divina Magestadiac mezclaitan ditu gure vizitzaco pausoetan gustuac pesadumbriacaz, eta pesadumbriac gustuacaz; ala dacuscu Santuben vizitzetan; ondo ezaguturic eucan Providencia Divino au Job santubac, bere desdicha guztien erdian erantzun eutsanian pazienzia bagueco bere Emazte irritubari: juicio bagueco Emacumeen arteco batec leguez verba eguin dozu; errezividu baditugu onac Jaungoicoaren escutic; zer-

gaitic gaitzac ere errezividu biar ez ditu-
gu?

Curutze santu au izan oi da, bacoitzac
jaso aldaiquian, garacua, eta ez pisubagua;
baña, aren Divina Magestadiac emuten bade-
utsa bateri, jaso aldaiquian baño, Curutze pi-
subagua, beragana quesa bagaric eta confian-
za guztizcuagaz acudu ezquero, emungo de-
utsa grazia eta fortaleza, bere indarracaz
gañeraco Curutzia jasoteco eta pazienzia ona-
gaz eruateco; edo librauco dau trabaju artatic,
quentzen deutsala bere Curutzia, Jesus Divi-
noac aseguraitan deuscunagaz conforme bere
Evangelio santuban: zatozte nigana (diño) ne-
caquetan zariain, eta cargauric zaozen guzti-
oc; eta nic arinduco zaitubet: doctrina au be-
rau eracusten deuscu Apostolu San Pabloc: fie-
la (diño) da Jaungoicoa, permitiduco ez dabe-
na, zubec tentaubac izan zaitien, jaon aldai-
quezuben baño, gueiago: bai; (bere graziagaz)
lagunduco deutsube aguantau aldaiquezu-
ben moduban, eguiten dabela tentacinuagaz
batera zeuben provechuba: eta duda bague Jaun-
goicuac mesede andiagua eguiten deutsa bate-
ri, Curutzia sufritaco, premina daben, gracia
emunagaz, Curutzia guztiz quendubagaz ba-
ño San Gregorio Elizaco Doctore jaquintsuba-
ren testimonioagaz conforme.

Guraso batec ecusten dabenian bere Ymeren bat, gaizqui eguiten beste batzuben compañian, emuten deutsa castiguba bere Semiari, amaitan dabelaco, bere Semia daben leguez, eta ez ditu castigaitan bestiac, bere Semiac ez dituban leguez; au berau eguiten dau gugaz aren Divina Magestadiac, bere Apocalipsico Liburu Sagraduban esaten dabenagaz conforme: nic (diño) zepxenditan ditut, eta castigaitan ditut amaitan ditudanac: eta ala, bialquetan dauscunian trabasubac, firmeza guztiagaz siniztu biar dogu, ez dauscula bialquetan, gaizqui gura dausculaco, eta bai amaitan gaitubalaco, pensaitan dogula, gueiago merezidusic daucagula.

Pena eta tormentu andietaco, trabasu, eta persecuzinoetaco Cuzutze piñuba ez oi da izaten beti noberen pecatuben castiguracua, eta, bai, ascotan eta ascotan Jaungoicoac emuten deutsa onexian Cuzutze piñuba Christaunazi bere prueba eta Santidade gueiagorako, deutsan amorio gueiagoagatic, eta zeimbat bat dan santubagua, oni emun oi deutsa Cuzutze piñubagua; egui onen pruebia ecusten dogu bere Seme Jesus Divinoagan, onen Ama Maria Santisimagan, San Juan Bautistagan, Apostolu santu guztietan, Martiri gloriosuetan, eta Zerubau millueca dagozen Santu eta Santa guztietan; eta argatic pazienzia onian sufridu biar dau bacoitzac bere Cuzutzia, ezagu-

turic dala, Jaungoicoac, deutsan amorioagatic, labrau deutsana, naiz izan dedilla Curutze au bere emienda, eta bere pecatuben satisfaccinoracua, naiz bere Inozenciaren pruebaracua, eta, daucan, Santidadiaren aumenturacua.

Curutzeric piñubena bada izan oi da Santuric andienentzat, eta aren Divina Magestadiac gueien amaitan ditubanentzat, aurrenengo dala privilegio onetan, gueien amaitan eben eta gure guztioen egempluraco Mundu onetara bialdu eben, bere Seme Jesus Divinua; bada bere fin bagueco Poderioa empeñau zan, padezidu eraguiten, Guizon bat, Jaungoicotasunagaz uniduric, padezitaco capaz zan, afliccino eta pena mueta guztiac batere consuelo, alegria, eta alivio bagaric, nundic ere Curutzian, Guizona zan aldetic, illgo zan aurrian, emun eutsan bere Aita Jaungoicoari quesa misterioso eta amoriozco bat modu onetan: nire Jaungoicua, nire Jaungoicua, zergaitic desamparau nauzu?

Ez da Jaungoicua portau modu onetan Apostolu eta Martiri Santubacaz, bada emun badeuste pena andietaco Curutze piñuba, emun izan deuste ere, beren penac eruateco eta sufritaco, bere grazia santubaren poz, alegria, eta contentuba; argatic San Pablo Apostolubac, Carzelan preso eguala Jesu Christoren

Jede santubagatic, Colosaco Jentiai escribidu
eusten modu onetan: oxain alegraitan naiz ni-
re penetan zubecatic; eta cumplitan ditut nire
Aragnian, Christoren Pasinuari falta dirian,
gauza aic bere Corputzagatic, zeña dan Eliza:
alegraitan zan, bai, Apostolu gloriosua bere
tormentubetan, eta oxobat alegrau zirian be-
re Apostolu Lagunac, Martiri Santubac, eta
beste Santuric asco, penac eta tormentubac
padezitaco, demporan, beren vizitzetan ira-
cuxten dan leguez; eta ala onei emun eusten
beren penetan alegrantzaco aliviua, eta ucatu
eutsan diviu santu au, gueien amaitan eben,
bere Seme Jesus Divinuari, alde guztietatic pi-
ñubena izan zedin, gueien maite ebenen, Cuu-
tzia. Apuntau ditudan San Pablo Apastoluba-
ren verbacaz conforme Jesu Christoren Pasi-
no santubac orandio faltaren bat dauca:
bai, nire Illoba; Jesus Divinoaren Pasino san-
tuba izan bazan ere alde guztietatic cabala,
eta batere falta bagueco obra acabauba gu-
re Redenzinoraco, faltaren bat oraindican
badauca; baña falta au ez da bere aldeticua,
baizican guere aldeticua, bere Corputz Eli-
za Santaren Miembruac gaxian aldeticua;
eta falta au da, gu eguitia Jesus onaren antze-
cuac Frabasubetaco Cuutze inozentiaren bitar-
tez; bada au bagaric utsa lizategue guretzat

Jesu Christoren Pasino santuba; au eta ez beste-
ric da, San Pablo Apostolubac aiquetara emuten
deuscun, Jesus Divinoaren Pasino santuco fal-
tia. Esango dau nor baitec: bardin trabaju eta
naibaguetaco Curutze santuba, Jaungoicuac de-
uscun, Amorioaren prueba bada; gauza ~~ego~~
guia izango da, deseaitia eta aren Divina Ma-
gestadiari erreguquetia, bialdu deigun onerian
Curutzeren bat: baña onela discurritan dabe-
obe da Jaungoicoaren escutic datorren
curutzia esperaitia etu voronsar ona-
na engañaitan da; ~~inolaco moduz ez dogu deseau~~
gaz erreecivitia, guc deseaitia eta aren Divina Magestadiari
~~eta escatu biar trabajuric~~: eguia da; Santu eta
Curutzia bialdu deigun escaquetia baño.
Santa asco izan dira, deseau eta escatu izan de-
utsainac aren Divina Magestadiari Curutze
onerianac mesede anditzat; baña Santu eta
Santaren batzubec jarraitu izan dituben, vidi-
ac guretzat gueiago dira admiraitacuac, guc
jarraiquetacuac baño; zergaitic Jaungoicuac
eruan izan zituban vide guchi trillaubetatic.

Zeruraco vide guztiz trillauba, eta gene-
ralian Christaun guztioc jarraitu biar deutsa-
guna, da, Jesu Christo gure Jaunac obracaz le-
guez, Aoz ere eracutsu euscuna eta trillauric
itzi euscuna: Judegubac ibilli zirianian aren
Divina Magestadiaren billa, vizitza quentzeco
igues eguin eben, eta ezcutau zan beren artetic;
eta ia ecusenian bere gañian Formentubetaco tem-
pestadia, Getsemanico Baratzan iru bider erre-
gutu eutsan bere Aita Jaungoicuari, librau

eguiala Trabaju aietatic, aurrerago esplicauco dodan, moduban: au izan zan, Jesus onac gure egempluraco obraz jarraitu eben, eta idegui euscun, vidia; eta au berau da, Aoz ere eracutsi euscuna: perseguitan gaitubenian Ziudade baten, igues eguin daigula beste batera, esaten deuscu; eta, Apostolubac escaturic, compondu eben, gure egunoroco Aita guriaren azquenengo escavide edo peticinuan eracutsi euscun, Jaungoicoari escaquetan, librau gaiala guere gaitzetatic ala Animacuetatic nola Corputzecuetatic, eta beste edozein gaitz temporaletatic; eta leccino santu onegaz conforme orobat bere Esposa eta gure Ama Eliza Santac bere Errogativetan escatu eraguiten deuscu aren Divina Magestadiari, ez, emun deigun gaitzic, eta, bai, librau gaiala gaitz mueta guztietatic: ez da beraz deseau eta escatu biar Jaungoicoari trabaju eta naibaguetaco Curutzia, Jesus Divinoaren vide trillau onetan ecusten dogunagaz conforme.

San Geronimo Elizaco Doctore jaquintsubac esanic itzi eben: ez zala posible, Gloria bi euquitia emen eta Eternidadian, emen glorioso izatia, eta Zeruban ere bai: eta ala, guc (obligauric gaozen moduban) aleguiña eguinagatic, iguiñ ditugun, gaitzetatic libraitiarren, eta onetaraco Jaungoicuaren gustoco erregu-

bac eguinagatic, trabaſu edo gaitzen batzu-
bec inguratuco gaitube, eta oſala banaan eta
dempora diferentetan, arnasa pisquin bat bi-
tartian artzen, izten deuscubela, etorrico balira
esaeriagaz conforme: ondo etorria izan zaitia-
la gaitza, bacarric bazatoz: eta, datozenian
gaitz oneic, naiz banaan, naiz montueca, nun-
dic nai datozela, ez gara beinguan ichutu eta
larritu biar, eta, bai, Jaungoicuagana acudi-
du biar dogu Oracinoaren bitartez, aliviauco
gaituban, esperanza firme bategaz animau-
ric; bada Jaungoicoaren aserria beinguan izio-
ten danian, diño David Erregue eta Profeta san-
tubac, zorionecuac diriala, beragan esperai-
tan daubenac: Job santubac eta dolorez betiac
ecusi zanian gabetic goizera esateco moduban, galdu-
ric bere Ondasun guztiac, bere Umiac, eta be-
re Osasuna, esaten eben: aren Divina Mages-
tadiac illgo banindu ere, nic beragan espera-
uco dot.

Esperanza firme onegaz animauric mun
eguin biar deutsagu, Jaungoicuac bialdu de-
uscun, Curutze santubari, eta au labrau
daben Escu Divinuari, autorquetan deutsa-
gula aren Divina Magestadiari, posible dogun,
Amorio guztia; eta, onela portau ezquero, gue-
re gaitz eta trabaſu mueta guztiac gure one-

racuac izango dira, bada San Pablo Apostolubac aseguraitan deuscu, Jaungoicoa amaitan daubenai gauza guztiac lagunquetan deustela beren provechuraco.

Gaitzac eta naibaguiac gure gañian etortia, precisua bada ere, nire Illoba, ez ditugu urreratu, eta gueitu biar gaitz oneic guere aprensinuagaz, larriquetan gariala, etorri aldequigun, gaitzacatic: eguneco Curutzia eruan biar dogu, bai, pazienziagaz, eta bastante dogu, biarco egunian etorri aldequigunari beguiratu bagaric; zergaitic batec ez daqui, vizico ete dan edo ez biar arteraño, eta, viziagatic ere, etorrico ete dan edo ez bere gañian, bildur dan, gaitza; au izan oi da asco Aprensivoen tentacino sarritacoa, Jaungoicoaren Providencian descansaitan dauben, Christaun juizioso guztiac menospreciau biar daubena: tentacino onen contra animaitan gaitu Jesus onac bere Evangelio santuban: biarco Egunac (diño) beretzat euquico dau cuidaduba; bastante dau Egun bacoitzac bere Malicia: onela bada esaten deuscu, gu apartaitiarren etorquizunaren gañeco modu bagaco aprensino, eta larritasunetic.

Naibaguiac eta gaitzac inguraquetan gaitubenian, ez dogu tentau biar Jaungoi-

cua, Ignoranteren batzubec eguin oi dauben leguez, dagozela eguin edo ifini bagaric, egoguiac eta regularrac dirian, diligenciac, libraitaco aimbat lasterren gaitz aietatic; onelacuen Lenguagia izan oi da: Jaungoicuac ala ordenauta badauca, eta ala gura badau ¿zer eguingo deutsagu? eta dagoza beste onembestegaz batere diligenciaric ifini bagaric, padezitan dagozen, gaitzen contracuac: Jaungoicuac bada gura dabena da, guc pazienziagaz errezivitia, bialquetan deuscun, gaitzac, oneitatic aimbat lasterren libraitaco, egoguiac dirian, ala Animaco nola Munduco diligenciac eguitia, eta beti conformaitia, edo arreglaitia guere Vorondatia bere Vorondate santubagaz, escaquetan deutsagula, eguin dedilla bere Vorondatia nola Zeruban, ala Lurrian: eta, oneic onela cumpliduric, ichoden biar deutsagu, Jaungoicuac emun gura deuscun, guere trabaju eta gaitzen gañeco suertiari.

Jesus Divinoac, gu animaitiarren Mundu onetan, persecucinuetaco eta contratiempoetaco Curutziac bere Amorioz pazienzia onian eruatera, ofrezitan deuscu bere Evangelio santuban premio ugariac eta eternuac: zorionecuac zarai (diño) maldezitan eta perseguitan zaitubenian, eta esaten di-

tubenian zuben contra gaitz mueta guztiac, guizurra dariela niganaco gorrotoz; consolau eta alegrau zaitezte; zergaitic zuben premioa andia dan Zerubetan: orobat persegui-du izan ditube leenagoco Profetac.

Mundu onetaco persecuzino eta trabaju mueta guztiac, Jesus onaren izenian sufritan dirianian, emun oi deutsai padezitan ditubanari gueroraco esperanza miragarria, eta esperanza miragarri onec emun oi deutsa Espirituco contentu, eta sosegu andia; argatic Judeguben Tribunalac azotau zitubanian Apostolu santubac, predicaitan eubelaco Jesu Christoren Fedia, erretirau zirian Tribunalaren presenciatic contentuz, zergaitic merezidu izan euben, afrentaubac izatia Jesusen izenian, Apostoluben Obretaco Liburu sagraduban iracurten dogun moduban: argaitic ere San Pablo Apostolubac esaten deuscu, ia bere gusto eta contentuba eucala bere trabajubetan, ia ez zala gloriauco beste gauzetan bere Enfermedadetan baño, ia gloriaitan zala Tribulazinuetan, Jaquinic, Tribulazinuaren frutuba dala Pazienzia edo sufrimentuba, Sufrimentubaren frutuba dala Esperanzia, eta Esperanza onec ez dabela iñor confunditan.

Justubac consideraitan daube Mundu

onetan beren vizitzaco dempora guztia Jornalero baten Gizonaren modura; empeñaitan dira, sufritan, eta aguantaitan beren vizi guztico Naibaguiac eta nequiac, guero izango dauben, premio eta Jornalaren esperanziagaz; eta ala izten daube, esperaitan dauben, Santa beren Criotzaco onduraco, Jornalero batec Gizonaren azqueneraño izten daben leguez bere biar eguiñaren paguba; argaitic diño Espiritu Santubac, Justubac esperaitan dabela bere Criotzan, eta obiagua dala Criotzaco Gizona, bat Jaioten dan Gizona baño: eta errazue andiagaz diño au Espiritu Santubac; zergaitic urreratu dan, Justubac, Munduratic partiduric, bere vizitza guztico Negutiaren zorioneco Jornal eternua cobraitaco, dempora; baña contrara guertatu oi da, bere demporan necatu gura izan ez daben, baizican bere gustuac eta Pasiuac cumplitan, empeñau izan dan, Pecatariagaz; onelacuac Begui larriacaz beguiratu oi deutsa bere Criotziari, considerauric, dala bere gusto guztien acabera, eta bere gaiztaqueria guztiacatic merezitan daben castigu eternoaren asiper negarrizcoa; argaitic David Profeta santubaren aotic Espiritu Santubac berac esaten deusu, Guizon infustua Criotzan gaitzac atrapauco daubela.

Justubac Mundu onetan consideraitan ditube beren Burubac, Jornada estu eta peligrosoren bat zer eguin daucan, Viajante eta Peregrino baten modura: ezaguquetan daube, beren destinua dala Zeruco Eternidadia, daucaila onetaraco, zer caminau vide luzia Aldapaz, Baso mortuz, eta Lapurrez betia, eta consideraurric, Zeruco zoragarrizco Dichac eta contentubac diriala batere comparazino bague ascoz andiaguac videco trabaju, eta persecuzino mueta guztiac baño, eta Zeruco Dichac diriala eternuac, eta fin baguecuac, eta videco Naibaguiac temporalac eta acabaera lasterra daucainac, animaitan dira, eta empeñaitan dira, Jaungoicoaren laguntasunagaz batera vide eta Jornada luze au eguitera, iñun ~~detenidu~~ gueldiru bagaric, eta batere billdu bagaric, Jornada onetan billatu aldaiquien, Aldapa, Baso mortu, eta Lapurracatic; diñot iñun detenidu bagaric; zergaitic Jornada onetan deteni-tan dirianac atzera beguira, peligru andia corritan daube, bada daucai vide luzia, dempora laburra, eta au ere noiz acavauco iaten ezdaquiena; argatic duaza presaz, eta iñun atzera beguira detenidu bagaric, eta, Naibaguiac eta pauso donga guztiac sufritaco, beren Vorondatiac beti preparauric: emendic dator, Justu eta

Christaun on guztiac beguiraquetia Mundu onetaco Interesa eta Ondasunai, presaz doian, Viajante batec videco Ostatubetan billatu oi dituban, gustoco gauzai beguiratu oi deusten, modura: gauza jaquiña da; Viajante batec, baliauric Ostatubetaco gustoco gauzacaz, viagiari ondo ~~continuaitaco~~ jarraiquetaco, premina daben gara, alde batera izten ditu Ostatuco gauza on guztiac, billatu zituban, Toquian bertan; eta onela continuaitan dau bere viagia, bere biotza ichatsi bagaric, billaquetan dituban, gustoco gauzai; zergaitic ezin beragaz eruan dituban; au berau bada eguiten daube Mundu onetan Christaun on eta Justo guztiac; badaquie, pillosic etorri diriala Mundu onetaco Ostatura, eta Ostatu onetatic ezin ezercho ere etara aldaiquiela; eta ala beguiraquetan deuste Munduco Interesa eta Ondasunai, laster itzi biarco dituben, gauzai leguez, beren Zeruraco viagiari jarraiquetiarren, eta aprovechauric Interesa eta Ondasun oneicaz, bacarric viagia seguitaco, premina dauben gara, ifinten daube cuidadu andia, beren biotzac ichatsi ez ditezen Munduco Interesai; eta dagoza animauric consideracino eta ezagupera santu oneicaz, sufritaco Jornada onetan euqui aldaiquien, tropiezu eta contratiempo mueta guztiac.

Consideracino santu onegaz animaitan

eben San Pablo Apostolubac San Timoteo Obispua, eta onegaz batera Christaun guztiac, menospreziaitaza Mundu onetaco Interesac, esaten entsala modu onetan: ez dogu ecaxi ezer Mundu onetaxa; eta ez dago dudaric; ezin ezer exe quendu daiquegu: Zerueco Eternidadera bada tropiezu bagaric viasan gura dauben, Christaun on guztiac gorde biar daube Interesen menosprecio santuan, eta vizi biar daube, prepazaric, sufritaco pazienziagaz edozein Contratiempuetaco Cuurtzia; Job Guizon santubac, eta inguru artan zan aberatsenac entzun zitubanian albistiac alde guztietatic, bere Etsaiac quendu eutsaila eucan Ondasun guztiac, eta utsian itzi eubela, consolau eben bere biotza, esaten ebela modu onetan: pillosic uxten neben nixe Amaren Sabeletic, eta pillosic biuztuco naiz (nixe Sepultuxiaren Sabelera) Jaungoicuac emun deust; Jaungoicuac quendu deust; Jaungoicoari gustau izan iacon moduban ala guertatu da: bedeincatuba izan dedilla Jaungoicuaren izena: Ito! Guizon Justuba, Cuurtze piñubagaz cargauba, Eternidaderaco viagiari batere deteridu ez zana, eta milla bider zorionecua!

Ez dira onela portaitan Pecatariac; bada oneic bilduric, Zerurako seguidu biar dauben vidian dagozen, Aldapacaz eta pauso necosuacaz, guelditu oi dira Mundu onetaco Ostatuban, aurrera caminau gura ez daubela, Jaten eta edaten jocuban, fiestan, Atsequintasun, eta Saiztaqueria

mueta guztietan, beren biotzac Josiric daucaila, laster itzi biarco dituben, Mundu onetaco contentu laburracaz; eta, Zeruraco viagera bialdu zituban, beren Mandatari Jaungoicuac laburquetan deuste, uste euben baño, lenago viageraco demporia, eta, beren culpa guztizcua mediante Zeruco Eternidaderaco vidia uts eguinic, duaza zuzenian Infernuco Condenauben zori gaiztoco Eternidadera: ez eguiezu bada, nire Illoba, Jarraitu onei, baizican Justubai eta Christaun onai, consideraitan zariala Mundu onetan desterraduba, Jornalerua, eta Viagerua Zeruco Eternidade zorionecora.

Ea bada, nire Illoba, bardin precisua badozu Christaun ona izateco, zeure Vorondate donguia ucaturic onari Jarraiquetia, Christauna eta Ezconduba zarian aldetic daucazun Curutzia egunoro Jasotia, onegaz gañera nundic naico Atsecabiac, Sentimentubac, Persecuzinuac eta Trabajubac labraitan deutsuben Curutzia pazienciagaz eruatia, eta onela Curutzia Sorbalda gañian dozula Jesus onaren ondoren ibiltia, aplicau eguizu zeure Escubac Obra santu onetara.

Obra santu onetaraco premiña dozu Jaungoicoaren laguntasuna eta Gracia, eta au lograitaco, escatu eguiozu sarritan; frecuen-

tau eguizu Confesinoco eta Comunioco Sacramentu santubac; meditau eguizu sarritan Jesu Christo gure Jaun eta Redentoriaren Pasino santuban norc, zer, eta norgatic padecidu eben; euqui eguizu, bere Calvario santuba visitaitaco, devozinua Eguzari Egunetan; eta Jarraitu eguiozu gogo onagaz zeure Necazaritzaco Oficio noble eta santubari; zergaitic bere Lan guei necosuac guztiz egoguiac dira, Humildadia conservaitaco, Animaco iru Etsaiac venzitaco, eta Mundu onetaco Contratiempuen contra bat sendaquetaco: onela portaitan bazara, duda bague eretsico dozu Jaungoicoagandic bere laguntasuna eta Gracia, zeñagaz, pazienzia onian sufriduric Curutzia, berez neurri bagueco Martirio tristia bazan ere, izango da zuretzat, provechu guztiz miragarriac ecarrico deutsun, Carga ariña.

Egunoroco Curutze au Jesus onaren gustora eruan eraguiteco Lagun guztiz egoguia, edo, obeto esatiarren, premiñacua da Espiritu alegre bat, baña alegranza inozente eta Conzienzia on batetic sortzen danagaz: Zeruban guztia da contentuba, eta alegranza; eta ala Jaungoicuac ere gura gaitu, emen ecustia beti alegre, eta deseo santu onegaz conforme

bere Escritura Sagraduban ez da asperquetan guri encargaitiagaz, alegrau gaitiala beti; bere presenziara Juan gaitezela alegre, servidu daigula aren Divina Magestadia alegranzan, eta beste onelaco milla esaera muetacaz aiquetara emuten deuscu Espiritu alegreraco encarguba; eta errazue andiagaz; zergaitic Alegranza eguiazco batec argui eguiten deutsa Animiari, ecusteco Jaungoicoaren gracia santubaren arguitasuna, eta onen bitartez, seguidu biar daben, vidia; contrara barriz, Tristuriac ifinten dau Anima guztia Gau illunian.

O/a 295 al dorso Jen el siguiente

San Pablo Apostolubac verba guichitan aiquetara emuten deuscu Alegranza eguiazco onen Arpeguia, encargaitan deuscunian, ibilli gaitiala Tristien modura, baña beti alegre: Tristien moduraco Arpegui onetatic ezaguquetan dogu, Jaungoicuac encargaitan deuscun, Alegranza au ez dala, Mundutar zoruac beren gusto donga eta Igi eta Asaco fiesta zoruetan billatu oi dauben, Alegranzaiaren moducua, baizican guztiz diferentia, eta Jaungoicoaren gustuagaz conformeco vizitzatic sortzen dana.

Eguia da; Alegranza eguiazco onetan conservaitaco, asco serviduco deutsa Christaunari, bere demporetan euquitia pasatiempo eta Diversino honrau batzubec, eta inozen-

tiac, bere Oficio, eta Obligazinuen caltecuac ez dirianac; bada Christaunac ala Animaco nola Corputzeco Lan gueietan biar ditu bere descansubac, acheenpenac, eta desaoguac, Cuerdia larregui estuturic eten ez dedin.

Christaun esperienzia bagaco batzubec, Jaungoicoaren Vorondatia puntu onen gañian ez daquienac, uts eguin oi daube Alegranzaco materian, batez ere complesinoz Melancoliosuac eta tristurara inclinaubac dirianac; zergaitic, nola bacoitzac amau oi dituban bere humoriagaz conformeco, pensaitaco, modubac, onelacuac apartaitan dira, beren Espiritubac inozenziagaz alegrau leiquien, Diversinuetatic ere eta, bacartasuneco amorioa eta Jente iguiña beren biotzetan sorturic, erraz jausi oi dira Tristuran, eta beren Espiritubetaco milla bat Escrupulubetan.

Baña jaquin biar dozu, nire Ylloba, Jaungoicuac iguiñ dabela Alegranza eguiazcoaren contraco Tristura mueta guztia, Espiritu Santubac avisaitan gaitubanagaz conforme: bota eguizu (diño) Tristuria zugandic urrin; zergaitic Tristuriac asco acavau izan ditu; eta ez dago provechuric Tristuran: egui santu onen vistan Christaun guztiac euqui biar daube cuidadu andia, ez lecuric edo entrada-

ric emuteco beren biotzetan beren Etsai Diabru madaricatubaren Tristuraco humore donga oni beñere, benere, beñere; eta, nire Illoba, iñoizco demporan sentiduco bazeu, nor bait zeure Familian onelaco Tristuriagaz daguala, beriala empeñau biarco zara, aren Espirituba alegraitan, onetaraco premina baliz ere, zeuc bere aurrian soñu eta danza eguitia Familiaco beste Guizacume eta Emacume guztiacaz batera.

Badaquit, norc naic contradeziduco deustala, eta esango deustala; Nola da posible, bat alegre egotia, ondo ez daguanian, edo desgracia andiren batzubec inguraquetan daubenian? onela contradezitan deustanari erantzuten deutsat, Animan consideraitan diriala parte principal bi, bata bere barrenengoa; parte edo porcino onetan dauca bere asientuba guere sentiduben bitartez ezaguquetan ditugun gauzacanaco daucagun inclinacinuac, baita ere pecaturaco daucagun macurtasunac: Animiaren bigarren parte edo porcinua da bere goienengoa; emen daucai beren asientu principala Errazoiac eta Entendimentuco Arguitasunac, nundic daguan guere vorondatiaren gobiernuba eseguiric.

Gauza jaquiña da Eliza Ama Santaren doctriniagaz conforme, ondo vizi gariala eta Jaungoicoaren gustora, bardin guere Animiaren punta, goien, edo gañeco porzinuagaz errime ichatsiric bagaoza aren Divina Magesta-

diaren vorondate santubari; eta ala euqui daiquegu Animiaren goieneco parte edo porcino onetan premiña dogun, garaco contentu, poz, eta alegranza, Jaoteco guere ondo ezac eta desgraciac, guere Animiaren fondo, barren, edo ondarreco porcinua egonagatic ere tristuraz eta afliccinoz betia gaitz eta desgracien vistan: guazen orain Contradiccinoco casora egemplubacaz.

Gaitz mueta guztiac sortzen eta viztzen ditube sentimentubac [illegible], guertaquetan iatenen Biotzetan eta Animeen ondarrian; sentimentu oneitatic librau ez zan, gure redenzinoraco eta vizitzaco egempluraco etorri zan, Jaungoico eta Guizon eguiazco Jesu Christo gure Jauna; bada, Jetsemanico Baratzan egua-la Pasinoco dempora aurrian, bere iru Discipulu maitien zirian, San Pedrori, Santiagori eta San Juan Evangelistari esan eusten modu onetan: tristia dago nire Animia eriotzaraño; eta aiñ tristura andiac inguratu eben, nun (San Lucas Evangelistac diñuanez) aren Divina Magestadiaren Becoquitic erori zan Odol tantiaren antzeco Yzerdia.

Eguia da: tristura au ez zan sortu Jesus Divinoaren flaqueziatic; bada zan Jaungoico eta Guizon eguiazcua, eta, fin bagueco poderosua zan leguez, ezin sortu zitequi-

an beragan flaqueziaric; eta, bai, tristura ica-
ragarri au, eguiazcua bazan ere, izan zan gu-
re egemplu eta doctrinaraco misterio guztiz
anditacua: nola etorri zan, gure miseria guzti-
ac erremediaitara, tristetu zan guere flaque-
zia eta argaltasuna mediante, gu alegrau guin-
dezen bere Espiritu Divinoaren gracia eta For-
talezia mediante, gure mesederaco eguiaz tra-
tu miragarrizcua; tristetu zan, gura izan eben
gara; gura izan eben tristequetia, conveni zan
gara, eta conveni izan zan tristequetia, Odo-
lezco Izerdiac artzeraño, gure pecatuben
erru madaricatuba zala mediante.

Orain considerau daigun, zer eguin
eben Jesus onac gure oneraco eta instrucci-
noraco, tristura negargarrizco onec inguratu
ebenian: erregutu eutsan bere Aita Jaungoico-
ari iru bider modu onetan: Aita, posible bada,
irago bedi nigandic Pasinoco Caliz samin au;
baña ez bedi guertatu, nic gura dodan, mo-
duban, baizican, zuc gura dozun, moduban:
eta, Guizona zan aldetic, onela conformauric
bere Vorondatia bere Aitaren Vorondatiagaz,
eta, au cumplitiarren, sufriduric bere Corputz
eta Anima inozentian miragarrizco Humilda-
de eta pacienziagaz, bere Aitaren Justicia

santubac gure pecatuben contra escaquetan zituban, castigubac, Cumutzian eseguiric egu-
ala, ia illteco, demporan modu onetan esan zituban bere azquenengo verbac: Aita, zure escubetan entregaitan dot nire Animia; eta, verba santu oneic esanic, beriala ill zan: au da bada, Jesus onac bere Pasino santuco demporan tristian egemplu guztiz edertagaz idequi eben, vide seguruba, eta erriala, Christaun trabajuz eta afliccinoz inguraturic dagozen, guztien tzat, vidia utseguiric, galdu ez ditezen.

Egemplu santu onen vistan batec lenengo igues eguin biar dau gaitz eta afliccino mueta guztietatic, dezente dan gara, ifinten ditubala artaraco, bere Persona, Oficio, eta Estaduban egoquiac dirian, diligenciac lanzetaco, edo casuetaco circunstanziacaz conforme, bere obligazinuari faltatzaca gaitz eta afliccino onein bilduez; bayta ere eregutu biar deutsa Jaungoicuari sarritan, libratu dagula gaitz guztietatic.

Diligencia oneic onela practicatuic, gaitzac bardin badatoza, Jaungoicoac ala disponiduic, sortuco ditube sentimentubac eta tristuzac, gaitzac padecitan dituban, Animiaren ondarrian, Jesus onagan ecusten dogun modubar; bada San Pablo Apostolubac erabaquiten deusci, afliccino edo gaitz mueta guztiac presentian eguiaz ez di-

rudiela contentuba emutecuac, baizican tristura; esperienciac berac ere ala eracusten dau: Apostolu San Pablo bera, Job, Thobias zarra, eta Elias Profeta aiñ trabaju eta persecuzino andien artian aguertu zirian, nun (eurac esaten deuscuben leguez) etorri izan zirian, beren vizitzen iguña euquiteraño; orobat Corputzeco dolore fortitzac obligau izan ditu beste Santu asco, diadar eguitera.

Baña considerau daigun, ¿oneic guztioc guero zer moduz portau izan zirian beren afliccino eta trabaju guztien erdian? eguiaz bada portau izan zirian, Jesu Christo gure Jauna portau zan modura bere Pasino santuco tempestadian; esplicauco naiz: beren Animetaco ondar, fondua, edo barrena afliccinoz eta tristuraz beteric eucaila, consideraitan euben Animiaren punta, goien edo gañeco porcinuagaz, zala Jaungoicoaren Escu Divinoa, padezitan egozen, trabajubetaco Curutze pisuba labraitan eustena; Humildade eta confianza andi bategaz erreguquetan eutsain aren Divina Magestadiari, librau eguiala trabaju eta pena aetatic, baña onetan ez zedilla eguin eta cumplidu eurac gura euben modura, eta bai, cumplidu zedilla bere Divina Magestadiaren voronda-te santuba nola Zeruban ala Lurrian; eta beti conserbaitan euben, ondo josiric beren biotzetan, esperanza firmia, aren Divina Magestadiac, illten bazituban ere, emungo eustela, Curutzia

consueloz eriuateco, fortaleza; beren Animac bere Escu Divinuetan entregaitaco gracia, eta azquenic emungo eustela pena labur aien premiotzat Eternidade guztico Gloria bere Seme Jesu Christoren compañian; modu onetan, alde batetic inguraquetan bazituben Jesu Christoren trabaju eta pasino abundantiac, beste alde batetic errezivitan zituben Jesu Christoren bitartez consolacino ugariac.

Ocasino eta lance igualetan bada guc ere juntau daigun gure Curutzia, eta penac Jesus onaren Curutziagaz, eta penacaz, guere tristurac, eta afliccinuac bere tristura, eta afliccinuacaz, eta Jesus onaren antzera escatu deiogun Jaungoicoari Humildade eta confianzaric aimbat gueienagaz, librau gaiala Curutze eta pena aietatic, baña beti conformaitan dogula guere vorondatia bere vorondate santubagaz; eta ecusico dogu, nola aren Divina Magestadiac izango daben misericordia gugaz, edo ia libraitan gaitubala guere Curutze eta peneetatic, edo ia emuten deuscula gracia, gustoz eta pazienzia santu bategaz iragoteco gure penac eta trabajubac: euquico dogu eriotzaco tranze estuban confianza guztizcua, esateco Jaungoicoari: Aita, zure Escubetan entregaitan dot nire Animia: illgo gara Justuben es-

peranza santubagaz, eta errezividuco dogu gure vizi guztico Jornaltzat, eta guere pena eta trabajubetaco Curutze santubaren premiotzat gure azquen Fin zorionecua Eternidade guztiraco: onela, Aitiaren eta Espiritu Santubaren unioan vizi eta erreinaitan daben, Jesus Divinoa vizico da gure biotzetan orain, eta eternidadian. Amen.

Trinidade Santisimuari bada Aitiari eta Semiari eta Espiritu Santubari, zeñac dirian iru Persona diferente eta Jaungoico eguiazco bacar bat, izan dedilla Aguinte, Gloria, eta Alabanza emen, eta Eternidade guztian. Amen.

Fina

Liburu onetan esan ditudan, gauza guztiac sugetaitan ditut Eliza Ama Santaren, eta bere Buru Aita Santu Erromacuaren juiciora, eta dictamenera.

Matrimonioco Tratadubaren gañeco Gueigarria.

Bardin bezaitan badituzube zeuben Vmiac [redacted] Jaungoicoaganaco bildur santuban eta Amorioan, izango dira duda bague humildiac eta zeuben obedienziacu-

ac; eta nequez eguingo ditube zeuben diz-
gustoco acomodacinoric, emuten deutsubela
onetan atsecabiac; ala ere nola Çureinico le-
guiac emuten deusten edade batera azquero-
co Ymiai naiz Seme, eta naiz Alabai, gura dau-
ben Personacaz ezconquetaco, escuridia Gurasuen voron-
datiaren contra izanagatic ere, beti vizi biar
zaraí cuidadu cuidadu andiagaz, eguin ez
deguizuben zeuben Seme eta Alabac bexen,
zeuxoen, eta Familiaren calteco eta desonra-
co Çzcontza descalabrauaic, batez ere Çche-
raco izango dozubenac; axtaraco procurau
biarco dozube, zeuben Ymiac, edade onreta-
ra allegau baizen, leenago axtu daguien be-
xen acomodacino egoguiac, posible izan ezque-
xo; edo, Abogadu prudente eta saquintzu bate-
gaz consultautan zaraila, atasau biarco ditu-
zube beste moduz zeuben Seme Alabeen
golpe peligroso oneic bexen acomodazinuetan.

Çz eguizube sufridu, zeuben Semeric saxtu dedin
iñolaco pretestuz ez gabaz eta ez eguiaz, ez goicetan
eta ez arrasaldetan Tabernan, Mistelateguitan, eta
Aguardiente Teguitan; eta ez eguizube permitidu zeu-
ben Çchian onexian vizidan saxturic daguan Giaurric.

Desterrau eguizube betico zeuben Alabetatic
eta Çcheco Çmacume guztietatic Atorriac, eta one-
in ordian eguiezube Carnisac, itzi deguioen zeuben
bendeco Çmacume guztiac, Dian gabaz Atorra ba-
garic eta pillasic lo eguteco, costumbre ziquiñ eta
indecentiaxi, eta, costumbre donga ori itzi gura ez
deutsan, Giuda bacarric exatzan biar dozube Dian.

Liburu onetaco
Fratadubeñ gañeco
Tablia

Introduccinua eta Escritura Sagraduco iru Festoac dagoza Liburu onen lenengo eta bigarren Ojaan.

Religinua asiten da irugarren Ojaan eta acavaitan da berrogueta seigarren Ojaan.

Guizonaren azquen Fina asiten da berrogueta seigarren Ojaan eta acavaitan da berrogueta amalau garren Ojaan

Animaco iru Etsaiac eta Diabruba dagoza berrogueta amalau eta berrogueta amabost garren Ojeetan.

Oracinua asiten da berrogueta amabost garren Ojiaren vueltan eta acavaitan da iruroguеta irugarren Ojiaren vueltan.

Humildadia asiten da iruroguеta iru garren Ojiaren vueltan, eta acavaitan da laroguеta garren Ojaan.

Munduba asiten da laroguеta garren Ojaan eta acavaitan da eun eta bigarren Ojaan.

Araguia asiten da eun eta bigarren Ojaan eta acavaitan da eun eta seigarrengo Ojaan.

Aspereza asiten da eun eta seigarren Ojaan eta acavaitan da eun eta bederatzigarren Ojaan

Necazaritzaia asiten da eun eta bederatzi garren Ojaan eta acavaitan da eun eta ogueta zazpi garren Ojaan.

Gurasuac asiten da eun eta ogueta zazpi garren Ojaan eta acavaitan da eun eta ogueta amaicagarren Ojaan.

Matrimonioa asiten da eun eta ogueta amai-
cagarren Ojaan eta acavaitan da eun eta
iruroqueta emeretzi garren Ojaan.

Matrimonioaren gañeco Gueigarria dago
berreun eta emeretzigarrengo Ojiaren vu-
eltan eta berreun eta oguei garrengo Ojaan

Progimuac asiten da eun eta iruroque-
ta emeretzi garren Ojaan eta acavaitan da
eun eta laroqueta amazazpi garren Ojaan.

Mingaia asiten da eun eta laroqueta ama-
rotzpi garren Ojaan, eta acavaitan da berre-
un eta bigarren Ojiaren vueltan.

Curutzia asiten da berreun eta bigar-
ren Ojiaren vueltan, eta acavaitan da
berreun eta emeretzi garren Ojiaren vuel-
tan.